IBARRANGELU
KANTU ETA KONTU

Gazterik joan ziran nire loba Rosita Zubieta
eta Jon Ondarzaren omenean; eta
oraintsu joan jakun Lino Ondarzaren omenean

DOMINGO ZULUAGA

IBARRANGELU
KANTU ETA KONTU

Sarrera eta edizinoa: Igone Etxebarria
Corpusa atontzea: Iratxe Goikoetxea

LABAYRU IKASTEGIA
IBARRANGELUKO UDALA
BILBAO BIZKAIA KUTXA

BILBAO
2009

© *Egilearena:* Domingo Zuluaga
© *Musika-transkripzinoena:* Alberto Lauzirika
© *Argitaraldi honena:* Ibarrangeluko Udala - Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa

Labayru Ikastegia
Aretxabaleta, 1-1ngoa
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster, S. L. L.

Lege Gordailua: BI-2184-09
ISBN: 978-84-92599-04-2

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

AURKIBIDEA

Hainbeste maite dogu don Domingo! *Jesus Mari Ziluaga* 9

Eskola zaharreko maisuen bidetik. *Igone Etxebarria* 11

Berbaurrea 29

Herria 31
Auzoak, toki seinaladuak 33
Gertaerak 57

Herritarrak 79

Ohiturak 97
Urte-sasoiaren araberako jaiak 99
Tradizinoak eta ospakizunak 111

Ipuinak 123

Ume-jokoak 137
Natura jolasleku 141
Jaurtitze-jokoak eta arineketa-jokoak 145
Abilidade eta balantza-jokoak 153
Ezkutatze-jokoak 157
Salto-jokoak eta indar-jokoak 161

Herri-kantuak 165
Baladak 167
Errezitaduak eta ume-kantak 173
Koplak eta dantzarako kantuak 187
Egutegiari lotutako kantuak 201
Danetarikoak 215

Corpus lexikografikoa 231
Berbak eta lokuzinoak 233
Esakerak 283
Errefrauak 293

HAINBESTE MAITE DOGU DON DOMINGO!

Hemen daukagu don Domingoren liburua, Ibarrangeluko herriari egin deutsan erregalua, bere buruan eta papeletan, hainbat urtetan gordeta euki dauen altxorra, Ibarrangelu eta ibarrangelutarron bizimodua eta ohiturak kontatzen dituena. Liburu ederra eta polita ibarrangelutarrontzat, baina baita be garrantzitsua, euskal kulturaren esparrua aberastu egiten dauelako. Daukazan 94 urteakaz, don Domingok bere eskuzabaltasuna eta jakituria erakutsi deuskuz beste behin be. Horregaitik eskerrik asko esan gura deutsagu ibarrangelutarrok; izan be, horregaitik maite dogu hainbeste don Domingo.

Herriek berezko bizia badaukie be, norbaitek idatzita ixten dauzan letretan betiko bizi da, gordeta geratzen dalako hareen lekukotasuna. Herri guztiek behar izaten dabe bere memoria ezagutzea, gordetzea eta ondorengoei zabaltzea, holan iraupena ziurtatzeko, herri modura aurrera egiteko, herriaz harro egoteko.

Don Domingo ezinbestekoa izan da Ibarrangeluren etorkizuna herri legez bizirik izateko. Orain arte, Ibarrangeluren historia txikia ahoz aho transmitidu izan da, baina ez dogu euki geutaz berba egiten eban libururik, ez dogu izan errelato bat sikeran, edo zelakoak garen kontatzen dauen eskuizkriburik, ze ohitura daukaguzan, zelan egiten dogun berba, zelan egiten dogun olgetan, ze kanta kantaten doguzan, ze dantza dantzatzen doguzan. Gure herriak bizimodua ateraten eban bitartean, Don Domingo bera testigu eta espilu bihurtu zan, bere memorian gordeaz ibarrangelutarron egunerokotasuna, jolasak, dantzak, abestiak: geure kultura.

Baina, hari mehe batek batzen dauz lehena eta oraina, gure arbasoen eta etorkizunaren arteko hartu-emona, herri bateri eta herritarrei euren sena, kultura eta nortasuna emoten deutsana. Belaunaldiz belaunaldi ibarrangelutarrok itsaso eta mendi artean bizi izan gara, baserritarrak, itsasgizonak, euskaldunak legez bizi izan gara. Don Domingo izan da hari horren jagole nagusia. Baserritarrak bere kodaina zorrozten daben modura, ekinean eta fin tenplau dau gure historiaren zatitxu bat. Baina ez hori bakarrik, ibarrangelutar asko eta alboko herrietako asko be, bere irakaspenen seme-alaba gara. Dantza eta musika, zinea eta katezismoa, meza eta jaia, euskera eta ingelesa; danean ibilten zan, emankor eta langile, alboan Koro Hormaetxea lako pertsona haundiak lagunduta. Hau guztiau oso inportantea izan da. Izan be, ezer egon bada herri honetan, Ibarrangelun, herri izaten jarraitzeko, sasoi gogor hareetan, neurri handi batean berari esker izan da.

Orduko haretan, Eleizea izan zan euskal kulturaren babeslekua, eta beste herriak legez Ibarrangeluk bere aingeru guardakoa izan eban, herri honek bere euskal nortasuna galdu ez egian: Don Domingo. Don Domingo abadea, don Domingo pertsona, don Domingo zintzo eta zuzena, don Domingo beti etorkizunera begira, beti indartsu, beti fin eta bizkor. Praka motzetan ibilten ginan aldi haretan, askok mundu honetako sekretu batzuk ikasi genduzan beragaz, hezi egin ginduzan, geure familien heziketeagaz batera, ekin, ekin egin behar dala ikasi genduan beragaz, egunero apur bat egin behar dala zeozer lortzeko, herritarrak batzea dala garrantzitsuena. Don Domingok dana batzen dau bere gizatasunaren barruan, kolore guztiak, hizkuntza guztiak. Danari jagokon, danari deukotso errespetua.

Ez gara geure baitakoak, esaten ei eban On Joxe Miel Barandiaran handiak, don Domingoren irakasle izan zanak, jaioteko zein biziteko beste batzuen beharra daukagula adierazteko, ez garala oso-osoan geure buruaren jabe, alegia; baina don Domingoren lanak erakusten deusku nongoak garan, zelakoak garan eta zelakoak izan behar dogun irauteko, izateko. Ibarrangelutarrak gara eta geure gauzarik onenak erakutsi geinkez danon artean alkarri lagunduta. Zortzikoa edo arkudantza ezin dira bakarrik dantzatu, taldea behar da osatu.

Berak erakutsitakoei esker eta bere bideari jarraipena emon deutsen ibarrangelutar gazteei esker, kapazak izan gara ondino bagarala erakusteko. Holan izaten da Lorea dantza taldeak nagusiekin bai, baina, batez be, lora barriekin, umeekin, be dantzan egiten dauanean, edo Laida, Antzora, Arboliz eta Akordako jaietako eta Gorpuztietako komisinoetan lan egiten danean edo erregeen kabalgata antolatzen, Santa Ageda eta Olentzero kantaten, gazteen taldean behar egiten edo musika joten, kirol eta gastronomia ekintzak antolatzen, nagusientzako ekintzak egiten, dantzak eta kantak erakusten, umeak eroaten dantzetara, musikara, etab. Hau da, jarduera kulturalak eta sozialak antolatzen, laguntzen eta parte hartzen. Honetariko zeozer egiten dogunean Ibarrangelu, geure herria, aurrera ateraten laguntzen gabilz.

Jakin begi, beraz, don Domingok bere lanari segida emon deutsienak badirala eta izango dirala, berak landatutako haziak fruituak emon dituala.

Pena bat badaukat, liburu honetako protagonista asko ez dagozala geugaz, izan diranak eta izan eitekezanak. Zelako poztasuna hartuko eben liburu honegaz. Nonbaitetik, baina, begira egongo dira, pozik eta harro. Eurentzako eta Ibarrangeluko nagusi guztiontzako be, liburu hau omenaldi txikitxo bat da eta herritarron lana da liburu hau irakurtea eta zabaltzea gure umeei, gurasoei, amuma eta aitxitxei.

Ibarrangeluko jente askok lagundu dau liburu honen agerpenean, eurek badakie nortzuk diran, baina, don Domingoren familia, beste behin be, paregabe eta ezinbestekoa izan da laguntasunean. Zer esanik ez, Labayru Ikastegiaren lana be itzela eta garrantzitsua izan da. Guztioi mila esker.

Poeta batek zera esaten eban: hain da maitasuna laburra eta ahaztura, ostera, horren luzea! Guk behingoagaitik kontra egingo deutsagu Pablo Nerudari eta zera esan: ahaztu, gauza urriak eta eskasak ahaztuko doguz, baina ez geure jentea, geure arbasoak, geure historia. Maite zaitugu don Domingo, luze eta zabal, eta ahaztu ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zeu ezta zeure lana be.

Izan be, horregaitik, hainbeste maite dogu don Domingo!

Jesus Mari Ziluaga Acebo
Ibarrangeluko alkatea

ESKOLA ZAHARREKO MAISUEN BIDETIK

Eskuartean daukagun liburua Ibarrangeluko herriari egindako omenaldi handi bat da; omenaldi handia eta, ganera, beste balio erantsi bat daukana, herriko seme batek bizitza luzean zehar apurka-apurka, txiri-txiri ondutakoa izatea.

Ez ekian egileak herriko esaldi eta esamoduak apuntetan hasi zanean zerk urtengo eban, zenbat esaldi eta berba batuko ebazan bez; gitxiago eukan argitaratzeko asmorik. Baina ibilian ibilian, bai berak bai bere ondoko beste askok ikusi dogu benetan merezidu dauala don Domingok batu dauan materialak eta, herriaren ondarearen erakusgarri itzela dala eretxita, ondorengoai eskuetan jartea ezinbesteko egitekotzat hartu dogu.

Argitu daigun, ba, don Domingo Zuluaga nor dan eta zegaz osotu dauen liburu hau.

1. BIOGRAFIA

Umezaroa herrian

Domingo Zuluaga Uribarrena Ibarrangelun jaio zan gaur egun bizi dan etxean, orduko Zubieta Behekoa baserrian, 1914ko irailaren 18an eta herriari lotuta bizi izan dau bizitza luze horren zatirik handiena. Lau neba-arrebatatik txikiena zan. Trini, Jacinto eta Ignacia ziran beste hirurak. Ignacia umetxu zala hil zan.

Ibarrangeluko beste asko lez, Domingoren aita, Juan Pedro, itsasgizona zan. Bera umetxu zala, Ameriketara, Nevadara joan zan artzain, familia hemen itxita. Geroago, ostera, amak, Petra Celestinak, esaten ei eban ameseta bat egin ebala, aitak Amerikara joateko deitzen eutsala. Handik hogei bat egunera gizonaren kartea hartu eban esaten bera egoan arrantxoan sukaldari postu bat egoala eta joateko hara. Bata artzain bestea sukaldari, ondo irabaziko ebela-ta.

Orduan amak, 14 urteko semea, Jacinto, hartu eta biak joan ziran Ameriketara, senarragana. Domingok orduan 3 bat urte eukazan eta Ibarrangelun geratu zan bera baino 14 urte zaharragoa zan arrebeagaz eta amamagaz. Arreba horrek argazkiak bialduten eutsiezan gurasoai Nevadara.

Domingo mutikotan. 1920 inguruan.

Amagaz Ameriketara joan zan anaia han geratu zan, han egin eban bizimodua. Gurasoak, ostera, Domingok 10 bat urte eukazala itzuli ziran. Ordurako Ibarrangelun automobilak herrira etorten hasita egozan, autobusa be ipini eben Gernikatik Elantxobera. Umeentzat ikuskizuna zan autobusa igarotea, horregaitik eskolatik urten, meriendea hartu eta autobusa ikusten joaten ziran. Belarria lurrean ipini eta halan igarten eben noz etorren.

Halako baten, Iturriotzera autobusa ikusten joan eta bidean bikote bat topau eban, soloan beharren ebilen bategaz berbaz. Andrea pameleagaz eta gizona korbata eta guzti egozan, seguru. Herriko andreak orduan esan eutsen: "Petra, horixe dozu zure seme Domingo!". Halan topau ebazan gurasoak herrira itzuli ziranean, eta oroitzapen hori orain be burura etorten jako handik pasatzen dan bakotxean.

Pasadizu hori kontau eban Gernikan, 2007an Ameriketara artzain joandakoen eguna ospatu ebenean be. Don Karmelo Etxenagusia Bilboko gotzain laguntzaileak eukan ospakizun hori zuzenduteko ardurea, baina don Domingoren bizitzako gertaera horren jakitun egoanez, hareri itxi eutsan hori ohoreori.

Ikasketak

Hamabi urtera arte herriko eskolan ikasi eban Domingok. Liburuan aurkituko ditu irakurleak eskola-denporearen ganeko pasarte batzuk, baita egiten ebezan jolasen argibideak be.

Baina gero Seminariorako bidea hartu eban. Horrek Castillo-Elexabeitira eroan eban lehenengo, lau urte. Udan eta Gabonetan baino ez ziran etxera joaten, eta bizimodua gogorra ei zan han barruan. Gasteizko Seminario Nagusira gero, beste bost urte, latina eta filosofia ikastera.

Seminarioan ez zan euskerarik ikasten orduan, ezta euskeraz berba egin be, nahita ikasleen artean euskaldunak egon. Baina don Domingok Gasteizen irakasle ospetsuak euki ebazan, don Manuel Lekuona eta don Jose Migel Barandiaran.

Don Jose Migel Barandiaranen eskoletara pozik joaten zirala gogoratzen dau, gizon argia zan, eskolak emoten be argia. Haren eskoletan, azkenengo hamar minutuetan, beti, papelak atera eta eskolan azaldutakoa idatzi arazoten eutsen. Azterketetako notei baino balio handiagoa emoten eutsen ariketa horreei.

Lehenengo urtean "Principio de Física y Química" irakatsi eutsen; beste ikasturte baten "Geología y etnología". Orduan kanpora eroaten ebazan ikasleak, trenbideetara-ta, estratoak ikusten diran lekuetara-ta. Eta hirugarren urtean "Diversas ideas religiosas" gaia emon eutsen.

Don Manuel Lekuona zuzendaria zan, don Domingoren esanetan gizon ona, baketsua, serioa, euskaltzalea. Irakasle moduan "Griego Bíblico" eta "Principios de hebreo" irakasten eban. Baina Lekuona zaharra bertsolarien arteaz jabetu eta hare-



Castillo-Elexabeitiko seminarioan. 1927-28 ikasturtea. Behetik hasita, bigarren ilaran, ezkerretik zazpigarrena.

Gasteizko seminaristak Intxortara ibilaldia, Jose Migel Barandiaran irakasleagaz. Harek egindako argazkia da. 1935-36. Don Domingo, ezkerretik lehenengoa. Eskumatik hasita hirugarrena, antiojuekin, Jose Mari Arizmendiarrieta.

en poesiari duintasuna emon eutsana izan zan. Maisuaren inguruan, ikasleen artean hogei bat lagunek "Kardaberaz akademia" sortu eben.

Talde horren egitekoa zan euskaldunen artean euskeraz egitea, osterantzean dan-dana erderaz egiten zan eta. Horregaitik, jakin ezkero baten bat euskalduna dala hareri euskeraz egiteko helburua hartu eben. Euskaldunen artean gipuzkoarrak eta bizkaitarrak ziran gehienak, eta nahizta lehenengotan alkarreri aituteko eragozpenak euki, azkenean bizkaitarrek gipuzkera eta gipuzkoarrek bizkaiera ikasi eben. Talde horretakoen artean bost zentimoko multea ipini eutsien euren buruari, euskaldunen bategaz erderaz berbaz harrapau ezkero.

Domeketan don Manuelegaz alkartuten ziran meza aurretik, han azaltzen eutsien harek bertsolarien jardunaren barri eta.

Beste zeregin bat be hartu eben, hilean idazlantxu bat egitea, bakotxak berak gura dauen gaiaz. Normalean eskolako ikasgaietatik egiten ebenez, ez zan gatxa gaiak topetea.

Kardaberaz taldekoak aldizkaritxu bat ateratea pentsau eben, baina bitartekorik ez euken hori aurrera eroateko. Handik-hortik-hemendik jakin eben gelatinaz egin eitekezala kopiak eta horretan parau ziran laster. Sistema zan argizaria koipe baten antzera berotu eta urtu, eta ontzi zabal batera botatea gero. Idatzi eskuz egiten zan aparteko tinta bategaz, gelatinea hotzituten zanean horren ganean ipini, bost minutuan edo euki, eta tintea geratu egiten zan. Orduan papela ganean ipini, trapu bat ganetik pasau, beste bat gero eta halan ehunen bat ateraten ziran.

Aldizkari bat Lizardiri buruz egin eben, beste bat Loramendiren ganean hildako idazleak hartzen ebezan gaitzat.

Seminarioko Teologiako ikasleak, Gasteizko katedraleko kanonigo eta irakaslea zan Tabar monsinoreagaz. 1936. Don Domingo, gorengo ilaran, ezkerretik lehenengoa.

Taldean kursoko ikasleak danak egozan: Jose Mari Arizmendiarrieta, Antonio Oiarzabal, Serafin Esnaola, Feliciano Etxebarria, Jose Gandiaga eta abar.

Taldekoak euken ardurea liburuak saltzeko be, batzuk erderazkoak, Sabino Arana, Monzon, Elias Gallastegirenak eta; erderaz baina abertzaleak. Eta beste batzuk euskerazkoak, Kirikiñoren *Abarrak*, Lopez Mendizabalen hiztegia eta abar.

Gerra eta gerra ostea

Teologiako lehenengo maila ikasten egoala gerreak urten eban. Udea Saturraranen pasetan eben ikasleek eta harako liburuak-eta batzean ebizala harrapau ebazan. Han gelditu ziran liburuok, Seminarioko kamaran.

Gerran komunikazinoetan ibili zan Euzko Gudarosteagaz. Abadeai, ikasiak zirala-ta, Morse ikastea proposatu ei eutsen, ikasteko gatxa zalako. Ikasi eban Domingo gazteak eta "Enlaces y trasmisiones" deritxan atalean jardun eban urte bi inguruan, Korta kapitainaren aginduetara, Jose Antonio Agirreren menpean. Hori beharrori Zornotzan egiten eben, fraileen komentuan, ha zan kuartela.

Hara eta hona ibili ostean, Ramon Bilbao ibarrangelutarragaz batera herrira itzultzeko zala, Gernika bonbardeatu barriaren lekuko izan zan, berak liburuan azaltzen dauenez.

Amaitu zan gerrea eta Gasteizko Seminariora itzuli zan. Kardaberaz taldekoak barriro alkartu ziran, zer jokabide jarraitu erabagiteko. Aurretik euki ebezan liburuak zirela-ta, baten bat gogoratu zan Saturraranera joateko ziranean bertan geratu zirala, kamaran. Han topau ebezan gero be. Paketeetatik atera, zabaldu, Lopez Mendizabaleri ordaindu eta hor amaitu zan kontu hori.

Abadetza

Don Domingo 26 urtegaz egin zan abade, 1940an. Ibarrangelun meza barria emon eta Iurretara bialdu eben lehenengo. Beste abade bigaz batera egon zan han, Francisco Ortuzar eta Canuto Unamunzagagaz.

Hiru urte Iurretan eginda, Durangora bialdu eben, Santa Ana eleizara, hango abade bat hil zala-ta. Durangon beste sei bat urte egin ebazanean Ibarrangeluko parrokoak deitu eutsan. 1949an joan zan herrira, lehenengo parrokoaren laguntzaile, eta 1970etik aurrera parroko.

Ibarrangelun jubilau zan 1989an, berrogei urte herrian abade eginda. Omenaldi ederra egin eutsen herritarrek.

Bitarte horretan Akordako parrokiaren ardurea be euki eban hamabost urtez, 1986-87 arte. Eta gero be, nahita jubilauta egon, mezea emoten izan dau oraintsura arte.

Meza barriko erretratua. 1940.

Ibarrangeluko herriaren omenaldia, 1989an, erretirau zanean.

2. EUSKALTZALE

Don Domingo Gasteizko Seminarioan zaletu zan euskereagaz eta euskal kultureagaz, don Manuel Lekuona eta don Jose Migel Barandiaran irakasleen bitartez. Lekuonaren irakatsiak bertsolarien ganean, euskaldunak alkarregaz euskeraz egiteko konpromisoa eta antzeko ekintzen bitartez harra sartu jakon eta, aurretiaz hartutako helburu jakin bateri erantzun ez arren, euskal kulturaren militantea eta eragilea izan da beti.

Seminarioan irakurri eban Kirikiñoren *Abarrak*, euskeraz idazten apur bat ikasi be bai. Orixeren *Barne-muinetan* argitaratu baino lehen irakurri eban, seminarioko ikaskide batek, Genaro Zubillagak, Orexakoa bera Orixeren moduan, eskuidatzia euki eta itxi eutsalako. Hizkuntza aldetik bere kontura, autodidakta moduan egin dau geroko ibilbidea.

Iurretan egin zituan hiru urteetan euskal kulturaren adierazpen batzuk lehenengoz ezagutu zituan don Domingok, dantzariak batetik eta bertsolariak bestetik.

Ibarrangeluko dantza-taldea, Ibarraran baserrian. 1914.

Ibarrangelun bera jaio aurretik egon ziran ezpata-dantzariak, herriko idazkari eta Durangoko semea zan Victor Gonzalez de Txabarrik zuzenduta. Gizon hori 1918an hil zan orduko gripe gogorrak jota, eta beragaz amaitu zan orduko dantzarien taldea. Horregaitik don Domingok ez eban herrian halangorik ezagutu. Iurretara joan zane-

an, han ikusi eta ikasi eban dantzan. Hain ondo ikasi be gerora bera izan zan talde eragile.

Beste horrenbeste esan daiteke bertsolariakaitik be. Inoiz lehenago bertsolaririk entzun barik, han ikusi eban Lekuona zaharrak irakatsitako eskoletako teoria baina praktikan. Basarri eta Uztapide bertsotan, bapatean asmautako kantuakaz zelango barreak eragiten ebezan, kasurako.

Harrezkero jarduera bietarako zaletu zan, betiko zaletu be.

Durangon abade egon zan bitartean, "Juventud parroquial" taldean hilean-hilean alkartzen ziran hirurogei bat mutiko. Danetik egoan tartean, batzuk gerran ibiliak, beste batzuk Belgikan eta atzerrian ibiliak, División Azul-ekoak be bai. Hareen egitekoa eleizako gauzetan lagundutea zan. Topau ebazan Durangon dantzari on bi, eta hareei esan eutsien ia mutikoai dantzan erakutsiko eutsien. Baietz hareek, baina baldintza bategaz, abadea han egotea, eurai kasu gitxi egingo eutsiela-ta. Eta holan, don Domingo ensaioetan egoten zan.

1949an Ibarrangelura joan zanean herria aldatuta topau eban. Ikasten hainbeste urte kanpoan emonda, giroa guztiz erdaldunduta aurkitu eban herrian. Dana erderea zan, eta euskereagaz batera kristautasuna be galduko zan bildurrez, umeakaz talde bat egitea pentsau eban.

Obispaduan baimena eskatu ebanean, horretarako ez eukela ahalmenik eta herriko alkateagana joteko erantzun eutsien. Alkatea gaztetxoagoa baina beragaz eskolan ibilitakoa zan. Esan eutsan, orduan, alkateari zeregin gitxi eukala han eta herriko umeai solfeo erakusten hasiko zala, ikasketa ona zala-ta.

Berak, Seminariora joan aurretik, herrian egoan abade bategaz ikasi eban solfeoa.

Domingo Durangon egin eban dantza-taldeko mutikoakaz. 1946.

Eta solfeo erakusteko, euskeraz berba egiten eutsen umeai. Hortik aurrera euskera irakasten hasi zan, egunero ordu eta erdi edo ordu bi. *Kili-kili* aldizkarian harpidedun egin zituan danak eta horregaz ikasi eben, metodo eta material osagarrien faltan. Horren hurrengo pausoa dantzan irakastea izan zan, umeentzat mugimendua ona izango zala-ta.

Durangoko taldekoai deitu, bere etxean ostatuan euki eta hareek erakutsi eutsien dantzan Ibarrangelukoai.

Baina dantzariak euki arren, txistularirik ez euken. Alberto Akarregi lekeitiarrak lagunduten eutsen plazan dantzan egin behar ebenean. Orduan pentsau eban txistua joten ikasi behar ebala eta halan egin eban, *Método de Olazaran de Estella* hartu eta berak beretara ikasi eban. Ikasi bakarrik ez, umeak solfeoa ikasi ebenean "Academia de txistu" ipini eban, eta berrogeta hamar lagunerainoko taldea euki eban. Taldea ugaritzen joian, baina ez oraindik guztiz.

Ibarrangelun baegoan andratxu bat, Ignazia Urizar, gaztetan pandereterea izandakoa, eta haregana joanda, gazteai erakusteko esan eutsan. Harek, prest egoala erantzun arren, abadea bertan egoteko baldintza ipini eutsan. Holan ba, hogei bat neskari erakutsi eutsezan Ignaziak panderoa joten eta antxinako kantuak.

Ibarrangelutarrak Elorriora egindako ibilaldian. 1951.

Aregoko baserrian beste andra batek, Mari Kruzek, lehenagoko kantak baekizala-ta, joan zan hagana be eta hainbat kantu batu eutsazan, euretariko asko liburu honetan batuta dagozanak.

Mutilakaz ezpata-dantzariak eta neskakaz gorularien taldea osotu eban, goruetako tresnak eta txarrantxak eta guzti.

Guztira talde handia batu eben "Lorea" izenagaz: hogei bat panderetera, hogeta bost txistulari inguru, eta horreek eurok ziran dantzariak eta gorulariak. Holan ibilten ziran herrietatik. Liburuan kontatzen dira ekitaldiotako batzuk; Bilbon, kasurako, Begoñan egin eben dantzan, Udaletxetik gora formazinoan igonda.

Lorea taldea 1950 inguruan sortu eta gitxi gorabehera 1970eko hamarkadara arte iraun eban. 1960 inguruan eten egin zan aldi baten taldearen jarduna. Orduko agintariek taldeari "Flechas y Pelayos" izena ipinteko agindu eutsen don Domingori. Berak gurago izan eban taldea bertan behera itxi izen hori ipini baino. Ha ta guzti be urte batzuk geroago, barriro ekin ahal izan eutsien Lorea izenagaz, lehenengo taldeko dantzari izandako Maria del Coro Hormaetxearen laguntasun handiagaz.

1970eko hamarkadan herriko biztanleria mehazten eta umeak urritzen joiazan. Eukiko eban horrek be zerikusirik taldearen bizitzan. Harrezkero egun seinaladuetan alkartzen dira dantza egiteko, baita gaur egun be, aldi bateko Lorea taldeko dantzariak, herrian bizi diranak eta kanpora joandakoak. Horrez ganera, orain be, herriko



Gerra aurretik daukan betiko makinan idazten dau beti.

umeen dantza-taldeak "Lorea" izena dauka, aurrekoari testigua hartuta, Olaia Laka eta Aiora Goitizen ardurapean.

Akordan be beste talde bat eratu eban, neska-mutilakaz. Talde hori 1953an sortu zan, "Lorea" baino gerotxuago, eta horreri Berriotxoa izena ipini eutsen, berak liburuan bertan azaltzen dauanez. Ibarrangelun agintariek izena aldatzeko eskatu eta taldea eten zanean, hau be gelditu egin zan, eta ez zan gehiago egin barriro.

Herriko jentearen aldetik ontzat hartzen eben umeakaz egiten eban lana, abadeagaz dagozan bitartean ondo dagozala-ta. Baina agintarien partetik gorabeherak euki ebazan don Domingok. 1960ko hamarkadan behin baino gehiagotan ipini eutsiezan salaketak, dantzen azalpean politika egiten ebalakoan. Genaro Riestragaz beragaz egon behar izan eban eta poliziak bialduten eutsiezan kontrolatzeko.

3. IDAZLE BAINO GEHIAGO BILTZAILE

Don Manuel Lekuonaren eragina don Domingorengan lehenago be argi geratu da. Harek esaten ei eutsen Seminarioko ikasleai batuteko dana: kantu-txatal, esaldi, esakera, ohitura eta danak, txikienak izanda be, batzeko. Holan hasi zan don Domingo Ibarrangeluko berbetea batzen.

Seminarioko ikasle zala, Lekeition egin ziran Lore-jokoak 1934-35ean. Manuel Lekuonak bultzatuta, hiru ikasleren artean "Antxinako bertsoak" izeneko lana aurkeztu eben. Feliciano Etxebarria (Dima), Serafin Esnaola (Ormaiztegi) eta Domingoren artean egindako lanak lehenengo saria hartu eban. Urte horretan, poesian Angel Sukia, gero kardenal izatera heldu zanak hartu eban lehenengo saria.

Bi milatik gora esaldi daukaz holan batuta, zenbakiekaz ondo ordenauta. Ez dau horrek esan gura Ibarrangelun bakarrik erabilten diranik, edo hangoak dirala, baina horren bitartez badakigu beste leku batzuetan be esaten diranak hor be ezagunak dirala. Batzuetan, ganera, egoten dira zehetasun apartekoak, esanguraren aldetik, kontestuaren aldetik edo ahoskeran.

Baina holangoak batzen hasita, osterantzekoak be idatziz ipini ditu don Domingok: ohitura batzuk



Koaderno honetan hasi zan batzen kantuak, berbak eta gainerakoak, Manuel Lekuonak esandako moduan. 1935.

urteko ospakizunei lotuta, herriko ospakizun nagusiak (jaiak, prozesinoak), gertaera edo ekitaldi historiko bereziak (argia, telefonoa, zinea, kurutzea...). Hori bai, danak dauka ezaugarri bat bera: Ibarrangeluri lotutako kontuak izatea.

Idazle jarduerari lotutako txataletan, erreportari edo kronista egiten dau don Domingok. Herriaren gaineko gauzak kontatzen ditu, batzuk liburu eta artxiboetatik ateratako datuakaz horniduta, beste batzuk berak ikusitako eta gertatutakoen ganean eraikitakoak, eta baita be ahoz aho batari eta besteari entzundakoak.

Idazkera aldetik, estilo zuzena da, erreza, berbaz esaten dan modura, ahozko tradizinotik harakoa. Berbaldun onaren idazkera igarten da gauzak kontetako orduan.

Zati laburrez osotutako corpusa da osotara. Baina soltean gauza txikiak eta gauzeztanak emoten dabenak, liburura batu orduan material ederra sortu da, ibarrangelutar gazteai ondaretzat ixteko.

4. *IBARRANGELU KANTU ETA KONTU*

Liburu honetan, maminari erreparatu ezkero, hiru multzo handi bereizten dira argi eta garbi. Alde batetik dagoz herriaren historia eta pasadizuakaz zerikusia dauken kontakizunak; bigarren multzo bat kantuek osatzen dabe, eta hirugarrena hiztegi modukoa da.

Bakotxaren barruan beste azpiatal batzuk egin doguz, materiala zeozelan ordenau eta koherentzia euki dagian. Hasteko, batera jarri dira herriari jagokozan deskribapen fisikoa eta historia; horren ondoan herritar jakin batzuei buruz berak egindako kronika, kontakizun edo omenaldiak; tradizinoagaz edo urteko sasoiakaz lotutako ohiturak eta ospakizunak beste atal baten alkartu doguz; beste hainbeste egin dogu ipuinak eta jolasen ganeko azalpenakaz.

Nahita lan hau izan ez herriaren ganeko monografia osoa, hau da, metodologia jakin bateri lotuta egindakoa, balio etnografiko handia dauka orain dala ia mende bateko bizimoduko hainbat kontu dakarzalako, egileak berak lehenengo pertsonan bizi izandakoak, ganera.

Lekukotasun ezin hobea da hainbat arlotan. Jokoen ganean, kasu baterako, atal luze-zehatza dakar; ohitura, tradizino, ospakizunen ganean be, honezkero guztiz galduta dagozan hainbat barri emoten ditu. Ipuinen atalean sartu ditugunak beste biltzaile batzuk be jasotakoak dira, baina hemen agertzeak esan gura dau hemen be ezagunak dirala eta kontau izan dirala. Ganera, beti dagoz berezitasunak, ezaugarri puntualak, herriari lotutakoak.

Kantuen artean, batzuk ezagunak dira eta gitxi gorabehera bardin egiten dira han eta hemen; beste batzuk, ostera, ezagunak izan arren, balio handia hartzen dabe lekuan-lekuan eta garrantzitsua da han abestu izan diran moduan jasotzea, koplak adibidez.

Danen artean "Kanzuriano" kantua nabarmenduten da. Kantu hau Antonio Zavalak aurkitu eban lehenengoz, Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren papelen artean topauta. Han testua baino ez egoan. Balada zaharren artean balio handikoa da, Ulisesen istorioa kontatzen dau, "senarraren etorrera" gai generikoaren barruan sailkatzen dana. Harrezkero Elisa Barrenetxea elantxobetarrari entzun eutsan alabeak, Eukene Markai-

18

SAN-PEDRO ATXAŔE

Oitura bat.

Argitaraldu doguzan aldizkingi guztietan azldu izan dogu eŕi-oituraren bat. Eŕitaŕen biotzak eta gogoak oitura bides eŕes e-zagutzen dira.

Zeñen argi, garbi eta txukunal eusko-oiturak. Euretariko bat azaldu gura nik....

Bear dan eran egingo ote det ? Al dodana egingo dot. Utsak asketsi.

Joŕailaren ogietabostgaŕena da. Goizean goizetik kanpaiaren txigilin txangua entzun oi da egun onetan uetero nere eŕian.

"San Markoa'en letanie" deitzen dautsoena urtengo da gaur nere eŕi oŕetako eleizatik. Irugaŕen aldiz jualearen etsa entzun eta berealaxe notintza aun di batek urtetan dau eleizatik, mutil gazte bat ikuŕiñagaz buru dala. Abadea be an doa. San Pedro Atxaŕe deritxon mendi erpiñean dagon basa- eleizara doaz. Uŕun xamar dago. Ordu bi inguruko bidea. Bidean zer egiten daben ? Aŕantzak esan. Basa-eleiza naiko uŕen izaten danean, bertoko juale zaŕaren kiŕin eta káŕanak "emen nago ni, omen nago ni " esaten dagoala niñoke. Gora eldu ta ikuŕinduna lenengo dala basa-eleizari bira bat emoten dautsie guztiak eta baŕura sartzen dira.

Jaupa amaitu, ta inguruetara begiratu.....Egiz ikuzkizun edeŕak agiri dira andik; itxascari muñka Bermeo ta Mundaka; itxascaren erdian izaro aŕo aŕo. Sukaŕieta, Busturi t.a. uŕe uŕian; bira-erdi egin eta Ibaŕangelua, uda ta negu txoko atsegingaŕia.

Goian aspertutakoan apurka-apurka landa zabal batera jasten dira danak. Gozaldia an egon oi da. Zelako gozaldia?.

Txori-txiki bategaitik nai ala ogi eta beste zer edo zer emon oi dabe. Baita basa-eleizan abadeak onetsitako gatza be; an emoten dabe. Gatz ori uretara bota ta oŕa or ur onetsia. Ur oŕegaz soluak eta baratzak eta abar onesten dabez.

Kardaberaz aldizkaria, 1935. Don Domingoren artikulua, azala eta bazkideen zerrendea.


"A U R E R A - B E T I
Kardaberaz-Bazkuna
Bazkidiak

Albitau'tar Anastasi
Anakabe'tar Kepa
Aritzmendi-Arieta'tar J.M.
Azpitarte'tar Joseba
Etxebaria'tar Palikan
Esnaola'tar Serapin
Gangoiti'tar Marzelo
Gorostidi'tar Kepa
Mendizabal'dar Alexander
Narbaiza'tar Eramon
Oyarzabal'dar Andoni
Zamora'tar Joseba Mirena
Zubilaga'tar Genar
Zulunga'tar Domeka.

dak. Horren barri Labayru Ikastegiak argitaratu eban, doinu eta guzti ganera. Horretan oinarritu zan Hiru Truku taldea kantu horren doinu-letrak emoteko.

Don Domingoren bersinoa aurkitu genduanean pentsau genduan kantu beraren hirugarren aldaera batek asko aberastuko ebala gai honen ganeko informazinoa. Baina ezin da esan hirugarren bat danik, lehenengoaren bardin-bardina da eta. Antonio Zavalak Auspoa Liburutegiaren barruan 1998an argitaratu eban *Euskal erromantzeak Romancero Vasco* liburua. Hor dakar "Kanzuriano, Kanzuriano…" izeneko kantua eta holan emoten dau iturriaren barri: "Barinagako Jose Maria Arriaga Zuazok Ibarrangeluan, 1936 urtean, irurogei ta bost urteko Petra Uribarrenari jasoa". Kasualidadea Petra Uribarrena don Domingoren ama da, eta urte horretan bertan hil zan. Don Domingok be etxean entzun eban kantua, bai amari, bai arreba Triniri eta haren senar Nemesio Zubieta ibarrangelutarrari. Noiz zehatz ez dakigu, baina 1935ean hasi zan libretatxu baten idazten batari eta besteari entzundakoak, eta libreta horretan nahiko hasikeran dauka hau kantuau idatzita. Horregaitik, pentsau lei 1935etik lasterrera idatziko ebala. Eta berak esana da, harrezkero askotan ahalegindu dan arren ia beste inok hori kantuori dakien, ezin lortu izan dauela ezer aurkitutea.

Gasteizko Seminarioan ikasle zala don Manuel Lekuonari emon eutsan horren barri eta harek igarri eutsan orduan be kantu hori garrantzitsua zana. Doinua hartzeko eleizako organoan geratu ziran, baina agertu ez eta ez eutsan doinua emon don Manueli.

Antonio Zavalaren eta don Domingoren testuak konparau ezkero, ikusiko da letra bardin-bardina dala. Don Domingorenak, ganera, doinua be itxi deusku, berak zelan kantetan dan badakialako, baladetan askotan egiten dan errezitadu antzeko doinu errepikakorra (hemen bertan "Lexibatxu" izenekoa halakoxea da).

Don Domingo, Nemesio Zubieta eta haren alaba Rosita 1975 inguruan.

Kantuen artean kopladi aberats-ugaria gorde dau don Domingok. Joan dan mendearen hasierako pandereteren errepertorioa joan da, baina gure biltzaileak berrogeta hamarreko hamarkadan batutako lekukotasunak agertzen ditu orain. Ez dago grabazinorik, bai ostera berak libretatxuan eskuz idatzitako letrak eta buruan gordetako doinuak. Honezkero joanda dagozan bizimodu, ondare eta artxiboaren gordailu dogu don Domingo, eta orain gordailu horretan hainbeste urtean batutakoa erakusteko unea heldu da.

Pandereteren errepertorioagaz batera dator gorularien kantua be hareei ikasita. Ibarrangeluko dantzari-taldearen erretratu zaharrean ikusita, gorularien irudia edo kuadroa buruan hartu eta antzekoa egiten ahalegindu zan don Domingo "Lorea" taldeagaz. Goruak, txarrantxak eta lanbide horretan erabilten diran tresnak baserririk baserri bilatu eta halan atondu eben gorularien taldea, kantu hori eginaz. Doinua ez da oso ezaguna izan eta berari zor jako; berak errekuperau egin ebazan kantua, doinua, lanbidea eta irudia. Kantua Mogelen *Peru Abarka* liburuaren bosgarren autuan jasota dago, luzeago, linoaren penak eta gorabeherak Maisu Juaneri azaltzen dabilela.

Kantuen bitartez tradizinoak eurak be biztu ebazan herrirako. Santa Agedatan erronda egitea edo Gabonetan Kebonikoak abestea ditugu adibide oso esanguratsuak. Herri-kultura asko jagon dau eta hainbat gauza berak bultzatuta gorde edo berrindartu dira.

Liburu honetan zatirik mamitsuena Corpus lexikografikoa deitu doguna da. Batez be berbak eta esamoduak batzeari ekin deutso don Domingok; ganerakoak horreen osagarri eta bide batez hartu izan ditu. Berak ezarritako metodologiaren arabera gorde izan ditu. Sarrera bakotxari erderazko itzulpen literala emon eta adibidetzat esaldi bat osorik idatzi izan dau kasu guztietan. Horretara, adieraz ganera berba edo esamodu hori erabilteko kontestua be jaso dau. Esan beharra dago oso argia izan dala zer batu eta zeri sarrerea emon erabagiteko orduan.

Zenbakiz ordenauta eduki ditu danak, makinaz txukun-txukun ipinita. 1634 bere kontadurian. Horreek danok fitxa modura ordenau ditugu eta, danen artean, hiru multzo eratu doguz, dan-danak bardinak be ez dira eta.

Lehenengo multzoari "Berbak eta lokuzinoak" izena emon deutsagu. Zortzirehun sarrera pasatxoko multzo honetan berbak eurak, hiztegietan agiri diran moduan sartzen dira. Eta horreekaz batera sartu ditugu berba baten ganean egiten dan forma fijoa. Aurkezteko eta ordenetako be hiztegi moduan taiutu dogu. Berba edo lokuzinoari emon jako sarrerea, forma literarioan, eta Ibarrangeluko euskerearen berezitasunak adibidean gorde dira.

Edukiari jagokonez, badira hiztegietan batuta ez dagozan edo Ibarrangelun esangura berezia daukien hainbat berba, 'ele-mele', 'delopostadu', 'tximika', 'hondo ala punta bota', 'taketean egon' eta beste batzuk.

Bigarren multzoa "Esakerak" deritxona da. Izen horren azpian ia 120 esakera batu doguz, hainbat motatakoak. Era honetakoak topauko doguz:

– Berba joko burlatiak. Adz: Buruko mina daukat. Burua min barik ez dago ondo.
– Egoera jakin baten esaten diranak. Adz: Egon trankil, urak be ez zaroaz eta.
– Konparazinoak. Adz: Inkisizinoa baino txarrago.
– Erantzun eginak. Adz: Ui, ui, ui, frantsesak astoari.
– Egitura bereziak. Adz: Nagoen isilik!
– Ipuinetako formulak. Adz: Ipuin, ipuin berezi, ahuntzari babak egosi.
– Pertsona izenakaz-eta egiten diran errimak. Adz: Ai, Manuela, katuek sague daruela.
– Igarkizunak. Adz: Txikia nintzan, handia nintzan, maiatzerako burura nintzan.
– Sineskeriak eta ohiturak. Adz: Mariposa zuriak barri onak dakarz.

Halako multzo hetereogeneoa izanda, berba adierazgarri bat aukeratu da sarrerea emon eta antolatzeko. Esaterako, aspertuta dagoen batek "Zer egingo dogu?" itauntzen dauenean, "Ogi handia egin, eta merke saldu" erantzuten jako. Esakeran alkarrizketa osoa sartu dogu, baina OGI berbeari sarrerea emonda.

Bizkaiera literarioan idatzita dagoz, errimarako oztopo dan kasuetan izan ezik.

Hirugarren multzorako itxi dira "Errefrauak". Atsotitz sorta polita da, 123 ale. Errefrau gehienak beste bilduma batzutan jasota dagoz, bardin-bardin edo aldaeraren bategaz. Holakoetan, parentesi artean sartu dogu ze bildumatan dagoan batuta antzekoren bat. Honeek erabili ditugu batez be:

Azkue, RM. *Euskalerriaren yakintza*. Euskaltzaindia & Espasa Calpe, 1989.
Garate, Gotzon. *Atsotitzak*. http://www.ametza.com/bbk/htdocs/hasiera.htm

Lobakaz eta loben seme-alabakaz bizi da gaur egun. 2009.

Intza, Damaso. *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak*. Nafarroako Gobernua, Vianako Printzea Erakundea, 1974.
Zavala, Antonio. *Esaera zaarren bilduma berria* (I), Auspoa Liburutegia 184, Auspoa, Tolosa, 1985.
Zavala, Antonio. *Esaera zaarren bilduma berria* (II), Auspoa Liburutegia 185, Auspoa, Tolosa, 1985.

Horrez ganera, asko ez badira be, badira atsotitz-bilduma nagusietan jaso bakoak be. Esaterako: "Erre nahi egosi, txitxarroak garrasi", "Bolea dabilen artean ez dago txorrarik".

Ahalegindu gara errefrau bakotxari, azalpena ez eze, gaztelaniazko ordaina be emoten. Horretarako Gotzon Garateren lanera jo dogu lehenengo, eta gero gaztelaniazko hainbat iturritara. Ez dogu erreferentziarik sartu.

5. ESKERRAK EMOTEA

Liburu hau atonduteko ate asko jo behar izan doguz eta jente askoren laguntasuna euki dogu. Danai eskerrak emotea jagoku, osterantzean ez zan holangoa izango eta.

Labayru Ikastegiaren izenean eskerrak emon behar deutseguz don Domingoren familiari, haren materialak Labayru Ikastegiaren eskuetan ipintearren eta gerora emondako laguntasun guztiagaitik; eta batez be Gaizka Arrizabalagari, bitartekari ibili behar izan dauelako.

Ibarrangeluko Udalak, Jesus Mari Ziluaga alkatearen bitartez, lehenengotik erakutsi eban hau aurrera aterateko gogoa eta prestutasuna. Bai diru-laguntza, bai argazkiak lortuteko emondako erraztasunak eskertzekoak dira.

Lanean bertan beste batzuk be parte hartu dabe eta aitatu gurako geunkez: Iratxe Goikoetxea corpus lexikografikoa atondu, osotu eta antolatzen; Manu Ziluaga herriko umeen argazkiak egiten; Alberto Lauzirika kantu guztien partiturak egiten; Carmen Zubieta, Lino Ondarza, Juan Luis Arrizabalaga euren etxeko ateak zabaldutearren don Domingogaz egon ahal izateko, eta etxeko argazkiak gure esku ipintearren liburuaren osagarri ahalik eta onenak aukeratzeko.

Igone Etxebarria
Labayru Ikastegia

BERBAURREA

Lan honeri berbaurre legez zerbait idazteko On Karmelo Etxenagusia, gotzaina, izentauta geunkan. On Karmelo baina, denpora asko ez dala hil egin da. Goian bego.

Lan hau egiten nengoala, berari zer egiten nengoan, sekretuan, esan neutsan. Irakurri egin eban. "Jarraitu lan honetan, eta gero argitaratu egin beharko dozu" esan eustan. Nik honela erantzun neutsan: "Jarraituko dot lanean, baina argitaratu, nik ez dot argitaratuko; horrelako nahasterik ez dot gura, pentsau be ez. Ni hemendik joanda be, baten batek ontzat hartuko dau lanau." Eta On Karmelok: "Ez dago nahasterik; zuk jarraitu lanean eta gero gerokoak".

On Karmelo hamaika urteko mutiltxoa zala ezagutu neban. Iurretako parrokian abade nengoan eta goiz argitsu baten eleiza aurreko enparantzan eskola-umeak olgetan ebilzan, ni han ondoan egoan iturri baten aldean begira. Honetan, bat-batean eta gehiagoko barik, mutiltxo bat hurreratu jatan esanez: "Nik abade ixen gurot". Zerbait harrituta, honela erantzun neutsan: "Abade? Abade izan nahi dozu?" Eta berak: "Bai". "Ba, abade izango zara, lagunduko deutsugu izaten, zure etxekoakaz egongo naz, zure amagaz berba egingo dot, egon trankil. Bihar be etorri, eta zerbait egiten hasiko gara". Salto bat eginagaz football-ean ebilen.

Urte batzuetarako On Karmelo abade ordenatua izan zan, eta geroago gotzain.

Euskeraren alde lan handia egin eban: Labayru Ikastegiari entzutea emon eutsan eta bertan hogei urtean euskal literaturako eskolak emon zituan Derioko Ikastaroan. Euskaltzaindian bere lan handia egin eban, Euskerazaleak batzarrean lan ederra egin eban, eta halantxe beste alderdi batzuetan. Eta gehiago luzatu barik esan behar dot liburu eder eta irakurgarria be idatzi ebala. Berak zerutik lagun daiskula, guretzat kristau eta fededun zintzo, apal eta ejenplugarri izan zan On Karmelo Etxenagusiak.

Orain begiratze labur bat egin nahi deutsat lehenari. Mila bederatzirehun eta hogeta hamabosgarren urtean Filosofiako ikastaroak egiten gengozan Gasteizen. Euskereagaz zerbait arduratzen hasita gengozan, baina egiten genduana gehitu egin behar genduala ikusten genduan. On Manuel Lekuona (Lekuona zaharra) eta On Jose Migel Barandiaranegaz nahiko konfiantza geunkan. Lekuonagaz "Griego bíbli-

co" eta "Hebreo bíblico" ikastaroak emonda geunkazan, Barandiaranegaz "Historia de las Religiones", "Principios de Física" eta "Geología, Puntos de Paleontología y Prehistoria". Seminarioan euskerarik ez zan irakasten, baina On Manuelek, ixilpean, igande goizetan "Euskerazko gaiak" irakasten euskuzan. Urte edo ikastaro bardina egiten gengozanetatik hogeta bik batzartuteko erabagia hartu genduan. Zintzo bete beharko genduan arautegi bat izenpetu genduan: hilean euskerazko lan bat egitea, euskeraz ekienakaz euskeraz berba egitea, erdaldunak kontuan eta errespetoz hartzea, eta aldizkari bat, nahita umildea izan, noizean behin argitaratzea, euskerazko liburuak zabaldu eta zabaldu.

Guretzat lanik gogorrena hauxe zan: noizean behingo aldizkaria. Ez geunkan idazteko makinarik (eskuz idatzi behar), kopiadorarik be ez geunkan (jelatinagaz egiten genduan kopiatu), filosofiako behe-aretoetan (sotanoetan) errekreo-orduetan lan egiten genduan. Infiernilloa eta petroleoa ibilten genduzan geure lanetan. Danetara bederatzi zenbaki edo, atera genduzan "Kardaberaz" izenagaz. Aita Kardaberaz, josu lagun edo jesuita izan zan, santutasunaren bidean beti ibili zana, euskerazalea eta langile bikaina. Bereak dira harako berba hareek: "Euskarak burua jasotzea Jainkoak nahi du". Lan, gurari eta asmo haundiakin amaitu genduan urte haretako ikastaroa. Batu eta lotu genduzan saltzeko geunkazan idazteak Saturraranera bialtzeko, udako hilabete edo bi han igaroten genduzan eta udako Seminarioan. Gure asmo eta intentzino askok, danon tamalez, porrot egin eben: gerreak urten eban eta danok, hortik eta hemendik, gerrara deituak izan ginan. Ordutik aurrera ezin izan genduan lanik egin batzartuta; bakoitza atondu ginan, bakarkiro ahal eban lana egiteko, eta On Manuel Lekuona zaharrak guri, sarritan esandakoa betetako. Lateraz esaten geuntsan honela: "Colligite quae superaveruni framenta" (hau esan nahi dau: Batu egizuez handik eta hemendik galduta dagozan euskera zatiak, olerkiak, bertsoak, abestiak, ipuinak eta abar). Eta onu, kontseju hori askok eta askok bete dogula uste dot. Gasteizko Seminarioan itxi genduzan liburu mordoak eta gure izenak ezkutuan, esku okerretan jausi ez eitezan, gure lagun batek, erea hartuta, Seminarioko goiko kamaran egoan zokondo baten gorde ebazan. Gero, urte batzuk igaro eta editorialagaz hartu-emonak konpondu genduzan.

D.Z.

HERRIA

AUZOAK ETA TOKI SEINALADUAK

IBARRANGELU
NUN ZAITUGU?
UDA TA NEGU
HEMEN NAUZU

Neure lagun zintzo diran ibarrangelutar gazte batzuk sarritan hauxe eskatu deuste: "Zure umearo eta gaztezaroko joan-etorri eta jazoera batzuk zergaitik ez dozuz idazten?"

Euron nahia betetako hemen ni, zerbait esan gurarik.

Ibarrangelu, orain, gitxi gorabehera 14'84 kilometro karratutan kokatuta dago. Iparraldetik Elantxobe eta Kantauri Itxasoa daukaz. Hegoaldetik Gautegiz-Arteaga eta Ereño. Sortaldetik, Kantauri Itxasoa; eta Sartaldetik, Gernikatik datorren eta itxasoan sartzen dan ibaia.

Hasiera baten Ibarrangeluk, Elantxobek eta Natxituak herri bat osotuten eben. Mila eta bostehungarren urtean, gitxi gorabehera, Natxitua banandu egin zan Ibarrangelutik, eta mila zortzirehun eta hogeta hamabian Elantxobe banandu zan. Horretara, lehen herri bat zana, gaur egun hiru herri dira. Hiru herri honeetako gizon eta gazteak, liburu zaharrak dirauskuenez, arrantzuko lanetan ibili izan dira, baita baleak harrapatzeko itsas lanetan bere.

AKORDA, ANTZORA, LAIDA ETA LAGA

Hona hemen Ibarrangeluk daukan auzorik haundiena, bere eleiza, enparantza eta, lehen, eskoleagaz. Akorda berba honek "toki zabala" esan nahi dau. Allika tontorretik begiratuta zelako lautada ederra ikusten dan! Leunune zabala eta polita: horhemen baserri arpegi-zuri ederrak ekialderuntz begira eta euren artean eleiza ederra. Eleizatik urruntxuago, baina aurrez aurre, san Pedro Atxarrekoaren ermitea aurkitzen da ganean kokatuta. Goitik behera begiratuz, hatxak iladan legez beheruntz san Pedropera arte eta azkenengo hatxak Laidan itxasoari mun egiten deutso. San Pedroren ermita honen aurrean, eta hogei bat metro apur bat ezkerretara, ermitainua bizi izan zan etxea aurkitzen zan. Orain larogei urte inguru ermitainuaren etxeko horma zaharrak ondo ikusten genduzan. Zer egiten eban ermitainuak: otoi egiten eban, san Pedroren altaran argia biztuta euki gau eta egun, toki haretara joaten ziran peregrinoak ondo hartu eta kontseju onak emon eta abar. Ermitainuak Garteizen solo bi eukazan bere bizibiderako artoa eta beste janari batzuk hartzeko, eta bere etxe ondoko hatx bitartean bere kipula, berakatz eta ortuariak hartzen ebazan.

Andra Mariaren urtea zala-ta, Akordarako bidean. 1952 inguruan.

Aldi batean ermitainurik ez, eta bi edo hiru emakume ermitainu egon ziran. Lehengo gizaldietan hemen inguruko portuetan baegoan benetako oneraspen, debozinoa san Pedro Atxarrekoagana, Bermeon, Mundakan, Elantxoben eta abar.

Eta Akordako eleizea? Bai. Mila bostehun eta hogeigarren urtean eginda egoan. Esker oneko Ama Birjina Graziaz beteari eskainia. Bibliak dirauskunez aingeru san Gabrielek honela agurtu eban Andra Maria, Jaungoikoaren Ama izango zala iragarri eutsanean: "Agur Maria, graziaz betea".

Badira orain laurehun urte eta gehiago itxasoko kosta aldetik baleak euren pasea eukela, eta Ibarrangeluko lur aldetik eta Elantxobetik, zelan orain itxas azalean agertu eta gero itxasoan desagertu egiten ziran ikusten eben. Baleak piztia ikaragarriak ziran, bakotxak hainbat tona eukazan. Euren koipe eta abar etekin, probetxu haundikoak ziran. Baina eurak harrapatzea arrisku handiko lana zan. Baleak harrapatzeko, Elantxobe, Ibarrangelu, Natxitua eta Eako gizonezko ausart eta indartsuak batu ziran, eta honeekaz baita Akordako gizon talde bat bere. Baleak harrapatzeko Elantxobeko porturako bidea hartu orduko, lehenengo eleizara joaten ziran Andra Maria Birjineari otoi egiten eta Salbea kantateko, eta hauxe eskatuten eutsen: "Hurrengoan hona gatozanean danok etorri gaitezala zuri eskerrak emoteko eta Salbea abestuteko".

Antxinako urteetan, orain enparantza dan lekuan, bazan ermita bat be, Santamañen ermitea; guk bere horma zaharrak ezagutu genduzan mila bederatzirehun eta hamargarren urtean. Etxe barri bat egiterakoan ermitea guztiz desagertu zan.

Andra Maria Graziazkoaren eguna, irailaren zortzian, beti Andra Mariagana itzal, maitasun eta errespetoz ospatu izan da parrokia honetan, baina Akordako jairik ospatsuenak eta sonatuenak guk Santamañetako jaiak ezagutu doguz garagarrilaren,

Akordan Santamañetan, 1963. Don Jesus Arrien (Arteaga), don Gregorio Arreitunandia (Natxitua), don Jose Merika-Etxebarria (Ibarrangelu), don Domingo Zuluaga (Ibarrangelu), don Gotzon Rementeria (Elantxobe).

Ogoñoperen dantza-taldea. Akorda, 1936. Txomin Omar, Jose Escribano, Bixente Telleria, Martin Lamikiz, Jose Arrieta, Amalio Escribano, Julian Idoiaga, Juan Madariaga, Pedro Urkiza, Angel Omar.

uztailaren hamazortzian. Santa Marina goizean, meza aurretik eta inok deitu barik, borondatez, Mundakako bost edo sei txistulari eta tanborrero hemen agertzen ziran, kalejira luze bat egiteko eta herritar eta kanpotar guztiak poztuteko. Jose Mari izeneko gizon zintzo bat zan euren zuzendaria. Elantxobetik gizon eta emakume abeslariak etorten ziran mezea abestuteko. Ibarrangeluko alkate jauna eta bere Udaleko laguntzaileak bere hemen aurkitzen ziran, meza ostean danak enparantzan aurresku eder bat ikusteko eta dantzan jarraitzeko. Gerra zibilaren aurreko urtean *Ogoñope* gizon ona eta abertzale zintzoak, Akordako eskolako mutikoakaz ezpata-dantza talde bat irasi, atondu eban, eta zeinen polito dantzatuten ziran. Txistulari Ibarrangeluko hamazortzi urteko mutil gazte bat euken, Anjel Omar bere izena. Handik urte bira edo Angel Omar hain balio haundiko mutila, Akordako plazako txistulari, zana, gerrara deitua izan zan eta gerreak eroan eban: Zaragozan hil zan. Bere heriotzea santuen heriotzea lakoa izan zan eta sasoi haretako errebistak bere barri emon eben (G.B.).

Ogoñoperen lana dantzariakaz guztiz goratua izan zan.

Handik hamabost urtera, gitxi gorabehera, 1953an, Berriotxoa dantzari taldea agertu zan Akordan: bertoko eskolako neska-mutikoakaz osotua; mutilen taldea ezpata-dantza zan, neskena bestea. Ez genkian zein izenegaz agertu behar eben herriaren aurrean. San Balentin Berriotxoaren bizitzan hauxe irakurri neban. Santu hau abadetzako ordenamentua hartuta, pozik etorren Elorrio bere herri maitera. Bere aita eta ama hantxe eukazan berari begira. Beste bere abade lagun bategaz oinez etozan biok. Tontor batera igon ebenean, Balentinek bere herria ikusi eta pozaren pozez beterik, lepoan eroian zakua lurrean ipini, jauzi bat, salto bat egin eta aurresku eder hau dantzatu eban:

Aitxe san Migel Iurretako
Zeru altuko lorie (bis)
Agure zaharrak dantzan ikusi
Ta harek eitxen'txu barriek. (bis)

Horrela, Akordako dantzarien talde biei "Berriotxoa" ipini geuntsen izena. Berriotxoa Japoniako misiolari ospetsua, obispo konsagratua, martirio ikaragarria sufridua. Honela abestuten eban antxinako bertsolari batek:

Aita ta ama Bizkaian daude
Semea han hil da gaxoa
Salbajietan kunplitu zaio
Heriotzako plazua.

Baten bizitza kanta dezadan
Hau da bigarren bertsoa
Elorrioko naturala
Balentin Berriotxoa.

Ibarrangeluko "Lorea" taldea eta Akordako "Berriotxoa" taldea hemen danak batera dantzaten ikusten genduzan oso pozik.

Santamañe eguna bera, uztailaren (garagarrilaren) 18an ospatuten zan guztiz ondo eta panparroi: sarri ikusten ez genduzan arpegi asko ikusten genduzan konbidadu etorrita; urruneko familiakoak, alkarrekin itxasoan hainbat urte batera lanean

Akordako Berriotxoa dantza-taldea. 1953.

ibili ziranak eta abar… kontu ederrak alkarreri esan… andrageia edo senargeia aita eta amari presentau (antxina holakoari "arpegi ikustea" deitzen jakon), eta gero gauerromeria.

Akordako "Berriotxoa dantzari taldeak" bere dantza-aurreskuak meza nagusia ospatuta gero egiten ebazan. Plazea, haundia da baina, egun horretan ondo betetan zan. Hango txalo zaparradak haundiak ziran. Herriko eta kanpoko jenteak gustora dantzatuten ziran. Zorionak!

Garagarrilaren 19an

Santamañe hurrengo eguna be jai ospatzen zan Akordan. Ohi dan legez, eberdi inguruan, mezea amaituta, danok futbolera, partidu gogor eta interesgarria ezkonduak ezkonbakoen aurka; Etxezuriko Julian Idoiagak bere baserriko zelai zabal bat gertatzen eban joko horretarako. Zelako gizon on eta baketsua zan gure Julian, beti ondo egiteko, beharrizana eukanari laguntzeko prest egoana. Gazterik joan jakun (Goian bego).

Futbol jokoa amaitu eta herriko enparantza hegalean egozan zugatzpean, arbolapean, ke eta ke egozan lapikoak: Bonifazio Zuazoren seme-alabak dana euken ondo atonduta. Bonik itxasoan urte batzuk sukaldari lanean ibili eta gero, Ean jatetxe eder bat ipini eban. Hau gizona oso-osokoa zan, bihotz-zabala. Honen alabantzak Julianegaz batera kantatekoak dira.

Gizon bi honeek aitatutakoan, ezin egon beste bat aitatu barik. Nor? Don Tomas Foruria gure abade zahar maitea. Berrogeta hamar urte jarraian parrokia honetan egon zan. Bere ofizioa ondo beteten ekian: bakea eta alkarreganako maitasuna zabaldu eta erakusten beti ahalegindu zan. Akordako jente guztiaren izen eta abizenak ondo ekizan; ez hori bakarrik, nik esango neuke Akorda inguruan hegaz ebilzan txori guztien izenak be baekizala. Monagilloekin be ondo konpontzen zan, nahita noizean behin monagilloren bateri *baso txikoa* deitu. Honelako monagilloetariko bat Jose Jabier Idoiaga zan, gaur egunean ia berrogeta hamar urte Japonen misiolari daroazana; praile frantziskotarra bere beste anai birekin: Jose Luis eta Jose Ignazio, honeek be Asisko frantziskotarrak eta, dana esateko, laugarrena Jaunari konsagratua arreba lekaime, monja Trini. Gure zorionak merezi dabez zuen guraso Martin eta Nikolasak, Etxezuri onez, bakez eta lanez aurrera atera ebenak.

Jarraitu daigun Santa Marina hurrengo eguneko jaiakaz.

Herri-bazkaria amaitu, atseden on bat hartu eta joko eta lasterketak hasi behar. Enparantzatik Allikara joan-etorria egitea ez da gero txantxetako ibiltaldia, norberaren astoaren aurka beste lau edo bost astodun aurkitzen diranean.

Akordako eleiza ondotik mendian gora Gametxo deritxon etxe taldetxo bat aurkitzen da, jarraitu beheruntz eta etxe taldetxo bi aurkitzen dira: Antzora, itsasora begira, aurrez aurre Izaro. Gizaldi batzuk dirala, izaro honetan fraile frantziskotarren konbentu bat egoan. Esaten daben legez, Antzoratik Izarora, itxas beheran (marea beheran) hatxik hatx oinez joateko era eta bidea agertzen zan. Penitentzi haundiko konbentua zan.

Itsaslapurrak, piratak, ebilzan sasoi haretan, ez gitxi. Horrelako pirata batzuk Izarora hurreratu eta han atrakau ziran, eta zer egin eben? Ostu ahal eben guztia, kon-

Hamaiketakoa San Pedro Atxarren. 1974.

bentuari su emon, fraile batzuk hil, beste batzuk hatx-zuloetan ezkutau ziran, eta holan amaitu zan konbentua eta bertako eleiza polit eta debotoa. Bertan erre ez ziran santuen irudiak inguruko herrietako eleizetara eroan ebezan. Halantxe, dirauskunez, Elantxobeko eleizan ikusten doguz Izaroko eleizaren suetatik erre barik gelditu ziran santu batzuen irudiak: san Antonio, san Diego eta triptiko bat.

Antzora honetan zugatz artean san Bizenteren ermita guztiz polita aurkitzen da. "San Bizenten hotza, neguaren bihotza". Bere jaia eleizeak urtarrilaren hogeta bian ospatzen dau.

Antzoratik ezkerretara itxasora begiratu eta Mundaka, Bermeo eta Matxitxako ikusten dira. Entzutetsuak ziran Antzorapeko lapa preskuak, eta lehen egoten zan oilarra. Hau hare zakarra zan, tomate haziaren inguruko harri koskortxuak eta oiloak gustora jaten ebezanak eta arrautza-azalerako, oiloarentzat, mesedegarriak.

Antzoratik behera bagoaz eta Laida aurkitzen dogu, bere hondartza, plaia ederrakaz. Bertako etxe-talde, jatetxe, taberna artean kapilla txukun-txukun eta ondo atondua aurkitzen da. Loiolako Iñaki deunaren izenean jasota dago. Jaietan mezea ospatzen da bertan.

San Pedropean zelai bat dago udaldia igaroteko, kanping-txosna polit-politez beterik; goruntz begira eta eskumatara ibai labur eta txiki bat dator itxasora arte. Ibai horren goialdean Kanala, Legendika, hasten da, eta beste aldera arte da Ibarrangelu. Hementxe inguruan ei egoan antxinako gizaldietan astillero bat, itxasontziak egiten ebezan lantegia, eta beti entzun dogu, astillero horretan, zatika, egin zala gure Ibarrangeluko eleizearen goia edo bobedea. Dinodan hau idatzita ez dot nik inon ikusi, baina gizaldirik gizaldi hauxe esan da herri honetan.

Lagako hondartza, Ogoño eta guzti.

Ekitaldi hau amaitzeko, hona hemen itaun bat: Laga non dago? Akordatik hurrean. Hona beste aldera jira eginda, Antzoratik lau kilometrora dago, Ogoñok bere lepoa Lagako hondartza musturrean dauka.

Laga, hondartza guztiz polita, kresalez aberatsa bere anbientea, uda eta negu beti garbi agertzen dana.

ATXARREA

Atxarre bere sasoian guztiz garrantzi handia eukan mendia zan. Gure herrietan ez egoan butanorik, ez gasik, ez berogailu elektrikorik. Honeek gure ume eta gaztetxutako denporak izan ziran; aurreragoko gizaldietan be halantxe. Ez egoan erregailurik ez berogailurik, Atxarreko egurra izan ezik. Atxarreko mendien jabe Ibarrangelu, Gautegiz-Arteaga eta Kanala (Legendika) ziran. Hiru herri, eta eurak behar eben sugarria Atxarren. Hiru herri horreetako aldunak, agintariak, Zendokizen batzen ziran: zer ebagi, nundik nora egurra ebagi, eta zein tokitan herri bakotxak ebagi behar eban erabagiteko. Eta batzarra haretx baten kerizpean egiten eben. Zugatzharetx hori han dagoan ermitaren ondoan hainbat urtetan ezagutu dogu. Orain dirala urte batzuk Zendokizko arbolea usteldu eta jausi da. Orain beste barri bat ipini dabe. Halan esan deust Aldamiz eta Zendokiz aldetik sarri ibilten dan eta bertako seme dan Jose Mari Ansotegi jaun zintzoak.

Gure eleizako liburu zaharretan be hau irakurri dot. Gure herri honetako Zubibarriaga deitzen jakon auzunean, zugatz baten azpian batzen zala han inguruko jentea. Eta zaharrai entzuna: Azpendi-Arixmendi eta Zubibarriagako zubien erdian dagoan zelaitxoa zala batzarrak egiteko tokia: han egoan zugatza; gaztetxotan ezagutu genduan.

Eta hor goian esan dogunez, egurra ekarri behar zan, urte guztian, Atxarretik eta horregaitik, ia etxe bakotxean astotxo bat egoan, etxerik gehienetan beheko sua geunkan, ekonomikea gerotxuago zabaltzen hasi zan.

San Pedro Atxarreko ermitea. 1969. Meza nagusia Iruñeko gotzain Zirarda jaunak emon eban.

ELEIZEA ETA BASELEIZEA

Ibarrangeluko eleiza hau hamabosgarren gizaldi atzenean edo hamaseigarrengo lehenengo urteetan egina da.

Aurretik gure eleizea dagoan tokian bertan baseleiza edo ermitatxo bat egoan. Bederatzirehun eta hirurogeta zortzigarren urtean baeuken ibarrangelutarrak non batu euren kristau eleizkizunak egiteko.

Ibarrangeluko eleizea, Jesusen Bihotza ipini aurretik. 1924.

Mila bostehun eta berrogeta hamabosgarren urtean gure eleiza hau egiteari amaia emon eutsen. San Andres apostolua izentau eben ibarrangelutarrak euren eta euren eleizearen zaindari eta nagusi. Santu hau arrantzale eta apostolu izan zan. Aldi haretan asko bere asko ziran Ibarrangelun euren bizibiderako behar ebena itxasotik etaraten ebenak, arrantzuan edo beste itxasoko lan batzuetan. Horregaitik euren goizaindaritzat apostolu eta arrantzale zan bat hautu eben.

Eleiza honen barrua, beronen goia zurezkoa (egurragaz egina) da, landu eta margotua. Arkitektuak mirariz beterik gelditzen dira goi hori ikusita.

Hemen, herrian, beti esan da lan hori, antxinako denporetan Laidan egoan astilleroan egina dala. Siniskera hau indartuten dau jarraian dinodanak. Orain dirala sei edo zazpi urte egunoro eta hilabetean etorri zan hona Bilbo aldetik arkitekto nabal bat, eleiza honen goi hori ikusten eta ikasten. Goi hori alderdi guztietatik ziur arakatu eban: azkenengo egunean agur egiterakoan hauxe esan eustan: gauza ziurra da niretzat goi guzti hori astillero zintzo baten lantegian eginda dagoala. Astilleroan zura landu eta hemen goian zatika ipini, altara nagusiaren goiko aldean Jesukristo, Andra Maria, apostoluak, aingeruak, deabruak eta abar orain bostehun urte margotuta dagoz. Haretxa eta gaztainea dira horko materiala. Orduko denporetan haresti eta gaztainadi baso ederrak egozan hemen lurraldean.

Ibarrangeluko eleizako goia ustez egin eben astilleroa egondako lekua Laidan.

Ibarrangeluk iparraldetik Elantxobe eta itxasoa daukaz. Ekialde eta hegotik: Natxitua eta Ereño. Mendebaldetik Sukarrieta eta Mundaka. Mundakako ibaia deitzen deutsagunaren eskumako erdia, zati nahiko luze bat, Ibarrangelutik igaroten da itxasoan sartu arte.

Ibarrangelu itxas mailatik hirurogeta hamar metro gorago dago kokatuta.

IGOKUNDEKO SAN MARTIN

Ibarrangeluko herriak, gizaldirik gizaldi hauxe entzun eta sinistu dau: praile frantziskotar hau Ibarrangelukoa izan zala.

Hamaseigarren gizaldian, bakezko Ebanjelioaren zabaltzaileak (misiolariak) Japonia aldera joan ziran. Han jazarpen, persekuzino, gogor bat izan eben misiolari honeek; sinopa, martiri, izan ziranak be asko izan ziran. 1597ko urtean, eta egineginean be Santa Ageda egunean, Nagasaki urian beste misiolari batzuekin batera, kurutzean josita, euren odola emon eben martirio gogorrean. Euretariko bakotxetik esan zeinkean harako bertsolari famatuak San Balentin Berriotxoagaitik esan ebana:

Aita ta ama Bizkaian daude
Semea han hilda gaixoa
Salbajietan
Kunplitu zaio
Heriotzako plazua.

Beasain eta Bergara be badira eurena dala San Martin dinoenak. Ibarrangelun hiru baserri dagoz Aguirre edo Agarre izenagaz: Agarre-beko, Agarre-goiko eta Agarre-erdiko, eta Agarre-erdikon jaio zala entzun izan dogu beti. Aita Romualdo Galdos jesuiteak zabaldu eban agiri edo dokumentu baten, gai hau dala-ta gauza interesgarriak idatzi ebazan. Igokundeko san Martinek onetsi gaizala danok.

Herritarrak Elorriora joan-etorria. 1951.

ETA ARMENDUKO KURUTZEA?

Beti ezagutu dogu Armenduko tontorrean kurutze bat. Zertarako edo zergaitik imini ete eben? Beti ezagutu genduan egurrezko kurutze eder bat, baina urte batzuk bakarrik irauten eban. Euriak eta tontorreko ekatxak lur jota itxiten eben. Hori dalata orain porlanezko kurutze sendo bat egin behar genduala bururatu jakun. Bai, baina zergaitik kurutze bat Armendun? Hortik eta hemendik arakatzen eta jakiten ahalegindu naz eta kurutzearen zio edo motiboa Konpostelako Santiagora joaten ziran bidaztiak, peregrinuak dira.

Gure iparraldeko Frantzia aldetik-eta, itsasoa hurrean eukela, Ibarrangelura heltzen ziran Arboliz auzuneko Goiti esaten deutsagun baserriaren lurretatik behera, gaurko gure hilerri, kanposantua, izango zan lur zatia eskumatara itxita, Askalde ezkerretara, Eleizburu eta Botika zaharrean gelditzen ziran. Eleizako liburu zaharrak dinoenez, eleizearen ondoan gaixo-etxe bat egoan. Hospital hau bisitaten eben bidaztiak, batez be makalik etozanak, baita oineko min edo zauriak, oinez luzaro ibiltearren eukezanak, hor hartzen ebezan behar ziran ardurak eta botikak. Galiziako Konpostelara joateko zaletasuna galdu zanean, gaixo-etxeak be lur jo eban eta hospital zaharraren botikea gelditu zan. Urteen indarrez botika zaharra bizitza biko baserri eder egin zan, Botika zaharra izena gordetzen dauelarik gaur arte.

Esan geinke, ba, Armenduko kurutzea Ibarrangeluko herriak hemendik igaroten ziran bidazti-peregrino guztiei egiten eutsen "Agur" maitekorra zala, eta beste aldetik kurutze hori ohar bat zala bidazti horreei esaten eutsena: "Jarrai neure eskuma aldetik".

Eguzki-erlojua eleizako horman.

Orain, azkenengo urte honeetan Konpostelara joateko zaletasuna asko be asko zabaldu da. Berebilean doaz asko, motor eta bizikletan, baita oinez be. Euskaldunak Santiagori oneraspen eta maitasuna beti izan deutso. Bizkaian berton be hainbat eleiza, ermita eta altara bere izenean dagoz; Ibarrangeluko altara nagusian, San Andres erdian dabela, Aingeru jagolea eta Santiago bidaztia, Santiago peregrino, dagoz. "Santiago mata-moros" ez dogu inolaz bere ontzat hartzen. Santiago Apostolua ondo gizon eta santu umildea izan zan, sinopa, martiri, hil eben, eta ez dago zeruan inori kalterik egiteko, ez baltzai ezta zuriai bere. Beti otoitz egin deutsagu Santiagori, gu adimen, entendimentu argikoak izan gaitezan, beti buru argiz izan gaitezan. Horregaitik txoriburu diranakaitik, buru arineko diranakaitik holan esaten dogu: Hori santiago gitxikoa da, horrek santiago gitxi dauko.

Gaba hemengo gaixo-etxean igaro eta goizean bideari ekiten hasten ziranean peregrinoak, batek baino gehiagok begiratuko eutsan kontixu eleizako hormetan egoan eguzki-erlojuari esanez holantxe euren berbetan: "Goazen, berandu da-ta".

ARMENDUKO KURUTZEAREN BERROGETA HAMALAUGARREN URTEAN

Orain Armendun dagoan kurutzea guk ipini orduko hogeta bost urte lehenago beste egurrezko kurutze bi imini ebezan, baina bakotxak hamabi urte eta erdi baino ez eban tente iraun.

Laburrean esango dogu kurutzearen hazkunde "inaugurazinoa" zelan egin genduan. Garagarrilaren hamabigarren eguna zan eta mila bederatzirehun eta berrogeta hamahirugarren urtea, Ibarrangeluko eleizan hamar eta erdietako meza nagusia ospatu zan. Jarraian Ibaeta auzunean hainbat eta hainbat lagun batu ginan eta txistu-tanbolin soinu-hotsean hasi ginan Armendulurrerako bidea. Geugaz etorren Balentin abadea be. Larogeta bi urte eukazan eta goi-goirarte geugaz trankil igon eban. Goiko-gane deitzen deutsagun tokian, Motrolluta baino gorago, atseden hartu genduan. Gailur-gailurreko bidea hartu eta porlanezko kurutzea tente egoan tokira heldu ginan. Kurutzea onespendu, gure herri eta beste herri guztien alde, baita itxasoko lanetan ebilzan guztien alde otoitz eginda, eleiztar berbalditxo labur bat entzun: geure asmoa bete genduan. Aurresku bat dantzatu zan danon poztasunerako eta zantzo batzuk, berbaro eta komentario gozoak, eta poz-pozik, alaitasunez beterik jira lehengo bideetatik. Durukiz auzoan planto.

Durukiztarrak, euren artean dirubatze bat, suskrizinoa, egin eben, eta Armendun izan ginan guztientzako ardao zuri, ardao gozo, Jerez eta galletak erosi ebezan. Sekulako bazkal-aurrekoa euki genduan. Eskerrik asko. Gero herri bazkaria, Begoña

Armenduko kurutze barriaren bedeinkazinoa. 1953. Kurutzearen oinean botila baten barruan dagoz hori egiteko laguntza emon eben guztien izenak.

Lauzirika eta Jesus Etxebarrietaren tabernan atonduta. Egun horretako arratsaldean, ikusgarrizko pelota-jokoa euki genduan. Pelotari guztiz sonatuak ziran laurak: Ormaetxea eta Bengoetxea alde batetik, J. Onaindia eta Rubio bestetik. Eta azkenez, Ibarrangeluko ezpatadantzari, gorulari eta pandero-jotzaileak, danak gure "Lorea" taldekoak, euren ekitaldi miragarriakaz pozez beterik itxi ginduezan.

Armendu tontorrean
Kurutze bat dago
Berari begiratzen
Noizean behin nago.

ZUBIBARRIAGAKO ARBOLEA

Ibarrangeluko parrokiko artxiboko liburu zahar baten holan irakurri neban behin baten: "Zubibarriagako arbolapean batzen dira erabagiak hartzeko". Beste argitasunik ez neban aurkitu, ahalegin batzuk egin arren.

Neure buruari itauntzen neutsan holan: Zein tokitan batuten ete ziran…

Idatziz egiten dan literatureaz gainera, ahoz aho, urterik urte edo gizaldiz gizaldi egiten dana be badagoala danok dakigun gauzea da.

Ez da denporarik asko Karmen Aspendiko (Arizmendiko) amomagaz berbetan nengoala. Nik arbola konturik atera barik honela esan eustan amoma Karmenek:

–Bai, gure etxeko zaharrak esaten eusten, Azpendi-txiki atzean dagoan zelai txiki horretan arbola eder bat egoala eta arbolapean batzen zirala gure antxinako nagusiak gauzak erabagiteko.

Hau entzutean zelako poza hartu neban. Azpendi-txiki eta haruntzago dagoan zubi erromaniko baten artean zelaitxo bat dago. Erreka ondoko zelaitxo horretan arbola lodi zabal bat egoala argi eta garbi gomutaten naz. Paraje horretatik asko ibilia naz. Lehentxoago aitatu dogun zubi erromanikoaren ondoan baserri txikitxo bat egoan; han Belentzio deitzen geuntsan agure zahartxo bat bizi zan eta txahalen nahi ganaduen narruagaz abarkak egiten ebazan. Hainbat bider txahalaren narru-zati neurtua galtzarpean nebala, Belentziogana joan nintzan esanez:

–Neuretzako abarkak egiteko narrua dakart.

Eta Belentziok:

–Ederto, ederto, txotxo. Etzi etorri bila.

Eta ni etorri nintzan bideetatik, arbola haren azpitik pasata, etxeratzen nintzan. Hau oin dirala larogeta bat edo bi urte.

Zubibarriagako
Arbola dontsua
Zu zara gure asaben
Testigu zintzua.
Zuzentasuna dozu
Agertzen garrian
Maitasuna zabaltzen
Zure adarrian.

Hamabosgarren gizaldira arte gitxi gorabehera, gaur Ibarrangelu dana, baita Natxitua eta Elantxobe, hirurak, herri bakar bat osotzen eben. Aldi haretan, Natxitua Ibarrangelutik banandu zan, eta honela herri barri bat sortu zan. Elantxobe beranduago banandu zan, mila zortzirehun eta hogeta hamabigarren urtean. Holan Elantxobe bere herri barri bat eginda agertu zan, biztanle gehienak arrantzale zirala. Baziran, baina, baserrietako gizonak be arrantzuan lan egiten ebenak.

Ibarrangeluko Artxiboko liburu zaharretan hauxe garbi ikusten da: Elantxobe, Ibarrangelu, Akorda, Natxitua eta Eako gizonak baleak harrapatzen alkarregaz ibilten zirala. Balea mundu guztiko abere edo piztia guztien artean haundiena da. Arrantzuan baleak harrapatzea arrisku haundiko lana zan, baina diru asko irabaztekoa. Orduko urteetan Kantauri itxasotik euren *pasea* euken, eta lurretik ikusten ebezan zelan joiazan: itxas ganean agertu, itxasoan ezkutau… halantxe zan euren martxea. Arrantzaleak, baleak honela pasetan ikusita, zer pentsauko ete eben? Ez ete eben ezer, ahaleginik egingo hareek harrapatzeko?

Arrantzale trebe, indartsu eta ausartak, atrebiduak, behar ziran zerbait egiteko, eta horrelako gizonezkoak baziran Elantxobeko portuan. Eragozpen guztiai arpegi emoteko batu ziran balea-harrapatzaileak. Itxasorako behar ebezan tramankulu guztien gainera, herriko laguntasuna be behar-beharrekoa eben. Herritik baleak euren pasean ikusten ziran, baina mendi tontortxu batetik argiago ikusten ziran. Marineruentzat, zein ordu eta unetan joiazan baleak jakitea guztiz garrantzi haundiko gauzea zan.

Gizaldi asko aurretik, euskaldunak eta noruegoak ziran baleak harrapatzen abilenak. Holandarrak be trebeak ziran arazo honetan. Balea munduan inoiz ezagutu ez dan lako piztia, animalia haundia da. Luzeran hogei metrotik gorakoak badira, eta astuntasunean hogei tona, berrogei edo gehiagokoak, balea urdinak batez bere.

Horrelako arrain, edo piztia, edo animalia probetxu haundikoak euren herrietatik hurre igaroten zirala jakinik, arrantzaleak berariazko erabagiak hartu ebezan. Lehenengoz ondo jakin behar ebena hauxe zan: noiz eta zein unetan pasetan ziran hemendik. Horretarako tala eta talaieroa behar-beharrekoak ziran. Zer zan tala? Itxas ondoko mendi tontor edo baso bat, bertatik baleen pasea garbi ikusten zana. Toki horretan lur zati bat egoan harrizko hormaz inguratuta, sua egiteko erak hartuta, baita bertan zaindaria edo talaieroa ibilteko bere. Talaieroaren eginbeharra itxasoa zaintzea zan. Baleak ez doaz beti urpetik; noizean behin gora egin eta kanpoan agertzen dira. Hori ikustean talaieroak tala barruan sua egiten eban. Orduan portuan zain egozan balea-arrantzaleak kea ikusten eben eta berehala euren txalupetan itxasora urteten eben. Eurei ondo etorken balea bateri begia botata, hari jarraitzen eutsen arpoiagaz zauritu arte.

Gitxi gorabehera XIIIgarren gizaldian euskaldun arrantzaleak baebilzan baleak harrapatzen. Baina XVIIIgarren gizaldian, balearen pasea Kantauri itxasotik gitxitu egin zan. Ogoñoko talaieroa be desagertu egin zan, berarentzako ez egoan lanik eta. Baina hauxe be esan behar dogu: 1701 eta 1707 urteetan, Elantxobeko portuko balea-harrapatzaileak *pieza* ederrak harrapatu ebezala. Balea pasea Kantauri itxasoan amaitu zanean gitxi gorabehera, euskaldun arrantzale askok Terranovara (Kanadara) joateko bidea hartu eben, hango itxasoetan baleak harrapatzen. Egin-eginean

be lan honetan euskaldunak guztiz trebeak eta abilak ziran. Beste euskaldun arrantzale askok Terranovarako bidea hartu eben, batez bere makailaoaren arrantzuan. Balearen etekinak, probetxuak, asko eta baliotsuak ziran eta gaur egunean bere halan da. Balearen tona okelak, gatza emonda, Frantziara salduten ebezan. Horrez ganera balearen zaina etxeetan eta kaleetan argi egiteko erabilten zan (kontuan euki behar dogu gizaldi haretan ez egoala argi elektrikorik ez butanorik ez…). Koipe hori, zaina, Gaztela aldera saltzen zan. Etekin, balearen probetxugarrien artean honeek be aitatu behar doguz: margarina, glizerina, kosmetikoak, jaboiak… Gaur egunean baleak Antartiko eta Pazifiko itxasoetan aurkitzen dira.

Itxaso horreetan, urteoro hainbat balea harrapatzen dabez industri haundietarako. Toki horreetan baleak harrapatzeko itxasontzi ederrak erabilten dabez. Baleari arpoia sartzeko, arpoia urruntxutik jaurtiten deutse kanoi antzeko tramankulu bategaz. Kantauri itxasoko arrantzaleen sasoian ez egoan halako aukerarik ez aurrerapenik. Gure arrantzaleok baleagana ezin gehiagoan hurreratzen ziran; euren arriskua ikaragarria zan.

Balea-arrantzale guztien izenak ezin emonda, Ibarrangeluko liburu zaharretan arponeroen izenak bakarrik agertzen dira. Une honetan begien aurrean daukadan liburu zahar batetik izen batzuk aterako dodaz, balea-arrantzuan arponero izan ziranen izenak.

Izan bedi hau Elantxobeko portuko balea-harrapatzaile guztien omen, gomuta eta aintzan; Elantxobeko portuko balea-harrapatzaile ziran hainbat gizon Ibarrangelu, Akorda, Natxitua eta Eakoak bere.

Honela dino liburu zaharrak:

San Juan De Elantxobe: Arponerua. Balea hil ebana.

Hieronimo: Arponerua. Balea zauritu ebana.

Juan Goikoetxea: Arponerua. Balea zauritu ebana.

Joseph de Beitia: Arponerua. Balea hil ebana.

Santiago Urkidi: Arponerua. Balea hil ebana.

Zirilo Mintegi: Arponerua. Balea hil ebana.

Gabriel Aurrekoetxea: Arponerua. Balea hil ebana.

Juan de Iturbe: Arponerua. Balea hil ebana.

Halantxe hainbat eta hainbat urtetan gure balea-harrapatzea eta arponeruak jarraitu eben. Hemendixik euskaldun arrantzale guztiak gomutau eta omendu nahi doguz, eta eurekin batera itxaso zabal horretan izan diran eta gaur egun diran langile guztiak bere.

LAGA, LAIDA, ELANTXOBE

Gure eskola-mutil sasoian hondartzetara lagun gitxi joaten ziran: bertora etorten ziran udazale batzuk eta herriko jente banaka. Laga guztia geurea zan eta gu gehienetan Astatxikimolli eta Galdarapozu inguruan ibilten ginan, eta nahiko sarri saltoka. Gaur Toki Alai izena daukan etxearen atzeko inguruan, mendi txiki baten goratasuna eukan hare eta bedarrez jantziriko tokia egoan, goitik behera salto egiteko guztiz egokia. Goiera hori gaur egun desagertuta dago.

Ibinagako Lapatzara be sarri joaten ginan, batez bere arrantzurako zaletasuna geunkanean. Gure arrantzuak laburrak ziran, hatx ondoko arraintxoak: mautsa, eskama mautsa, lulak, karraspioak, eta inoiz hatx arteko pozuetan gelditutako hamarratzen bat. Zelan datozan burura Lapatzako toki batzuen izenak: Arrizpala, Manulatxa, Iru-atxak, Txori-atxa…

Haunditxoagoak egin ginanean, noizean behin, Elantxobeko kaira be joaten ginan; ordurako ugerrean be polito genkian. Bustialdiak hartzeko zelako ur ederrak portuan barruan, zelako mustadak moilatik…

Galdarapozu, Lagako hondartzan.

SARDINA PRESKUA!!!

Ibarrangelutarrok zelako arrain preskua jaten genduan!

Arraina Elantxobeko portuan sartzen zanean, laster arrain-saltzaile bi edo hiru agertzen ziran Ibarrangelun, euren abots zoli, baita sopranoz be, abesten: "Sardina preskua! Itxasotik harakua!" Hemengo auzo guztietatik zabaltzen ziran Akordararte emakume arrain-saltzaile alai eta indartsuak. Eta hona hemen pasadizu polita: saltzaileak edozein auzotan euren arrain preskua abesten ebenerako, han lau edo bost katu agertzen ziran miau-miauka arrain-saltzailearen atzetik. Katuak saltzailea ezagutzen eben, baina saltzaileak bere katurik lotsabakoenak ezagutzen ebazan. Saltzaileak arrain-otzara zabala behearen ganean ipinten ebanean, kontuz katuen tranpa eta erpeakaz.

Ai ene ta oi ene,
Katu diabrue.
Neuri arraine ostuta
Ahoan darue.

LAIDA, PASAIERUA TA ...

Laidako hondartzaren entzutea gure inguruetako herri guztietan ondo zabalduta dago. Eder, luze eta hondartza zabala. Gure mutiko aldian tamariz deitzen deutsagun zugatz mordoa egoan hondartza ganean. Gero egon ziran ekatxak olatupean danak eroan ebezan.

Gillermo eukan izena guk ezagutu genduan pasaieru edo boteruak. Mutil gazte zala "marierdiko" Elantxobeko arrantzaleekin ibili zan. Geroago Terranovako (Kanadako) arrantzaleen artean, makailaoak harrapatzen urte batzuk egin ebazan. Hamabost urte Terranovan igarota, hauxe esan eutsan bere buruari: "Hauxe izango dot azkenengo *kanpaña*, ez nator gehiago hona".

Esan eta egin. Mortxara, Laidako itxasora begira dagoan baserrira etorri zan. Pasaierua behar Laidan aldi haretan. Ardura eta lan hori Gillermok hartu eban. Pasaieruak, bere txalupan Sukarrietara, Portuondo eta Mundakara jentea eroaten dau, ekarri bere bai. Hemendik Laidatik, urez handira ez dago beste biderik lurretik itxasoa izan ezik. Txalupa eder bategaz, oihala eta bi arraunegaz hasi eban bere lana. Gizon sendo eta indartsua zan. Gillermok lan asko eukan Laidako boterutzan, Gillermok hainbeste era eta klasetako jentea eroan eta ekarten eban bere txalupan, ganaduak bere bai. Bai. Behiak, txahalak, polito eroaten ebazan inori minik eta kalterik egin barik.

Ibarrangeluko ni bizi nintzan Ibaeta auzoan loditzen ziran txahal asko Mundaka eta Bermeoko ganadu hiltegietara eroaten ebazan; beronen laguntzaile ni sarritan izan nintzan. Goizean goiz Ibaetatik urteten genduan: Kandido aurretik txahalagaz, ni atzetik makilatxo bategaz. Ibaetatik sei kilometro dagoz Laidara; hemen, itxas ertzean egoan Gillermoren txalupea: itxas ertzera heltzean, txahala oso ikaratuten zan itsasoaren olatuakaz. Burua oihal edo zaku bategaz estalduten jakon, txalupearen popadan lotu txahala eta aurrera mutilak. Haizerik baegoan oihala zabaldu, edo haizerik ez baegoan, Gillermok arraun biak hartu, txalupea martxan ipinten eban, eta txahala nahi eta nahi ez itxasora sartzen zan eta, uretan inoiz bere gorputza sartu ez ebanak, txalupearen hegalean zeinen ondo mobitzen ebazan bere lau hankak, ze ederto uger egiten eban Portuondora heldu arte. Hemendik Bermeora beste hiru edo lau kilometro? Honela hamar kilometro oinez egin eta Bermeoko hiltegi-mataderora heltzen ginan.

Noizean behin, txahal txikitxuak, etxean loditzeko ekarten ziran Bermeoko feriatik. Honeek txalupa barruan ekarten ziran.

ALDATUTEN DOA

Azkenengo 25 urtetik honutz Ibarrangeluren itxurea, izaera, aldatzen joan da eta horrela jarraitzen dau; lehenagoko baserrien erara lan egiten dauenik ez dago bat bere; lehen gari-soloak, arto-soloak, nabo-soloak non-nahi aurkitzen eta ikusten ziran. Orain ez dago horrelakorik.

Lehengo solo guzti horreek bedar mota eta landa bihurtu dira. Baserri-etxe askok lur jo dabe, beste batzuk etxe txukun eta polit, *txalet* eginda dagoz, beste batzuk okelarako ganaduekin dabilz…

1

Baserritarrak gera gu
Ezin genzake ukatu. (bis)
Baina kaletarrak bezin ongi
Soinua joten dogu. (bis)

2

Baserritarrak izana gaitik
Ez guri burlarik egin. (bis)
Geure gonatxu perkalezkuak
Ez dauka merinajerik. (bis).

Lehenagoko gizonak astoakaz errotara joaten ziran, arto edo gari-zorro ederrakaz. Handik ekarten zan urunagaz labaldiak egiten ebezan ogiak eta arto-opilak erreta; edozein etxetan talo mehe, biribil, epela gozaro jaten zan; morokilagaz ahaztu barik. Herri honetan nik honeexek errotak ezagutu dodaz: Arrandia, Apreizko errotea, Iturrioz, Lastarria, Malgarriz, Osinbaltz, Errotabarri, Lagatxu.

Astoak zorro ederrak honeetariko errotetara eroaten ebezan. Orain ez dago ezer eihotekorik, ez astorik ezer karriatekorik. Dozena erdi asto egongo ete dira herri guztian!

Hortixik gora ninoiela
Ospitaltxo zahar baten
Aita San Jose topadu neban
Astotxu bat txalmaten.

Jarraitu dagigun aldakuntza batzuk azaltzen. Orain dirala berrogeta hamar urte edo lehenago, gure baserrietako etartean edo etxe aurrean zelako burdi ederrak egoten ziran. Orain 'traktorak', kotxe eleganteak ikusten doguz. Etxe gitxi dira, gure herrian gitxienez, kotxe bitik gora ez daukiezanak. Udalak berak be auto egokia dauka herriko zereginetarako eta herritarrai lagunduteko. Gure gaztezaroan ezkontzeko ziranak konbidaduak herrira ekarteko autobus bat jarten eben. Lehen parrokia bakotxak eleizea ondo atonduten eban loraz; orain Gernika inguruan dagozan lorategietako bateri deitutea baino ez dago eta sekulako era eder eta politean, zeuk nahi dozun legez horniduko deutsue dana.

Lehen ixilean egiten ziran ezkontzak eleizan, orain hortik hemendiko abeslari tenor edo soprano organistearekin batera, abesti ederrak entzuten dira sarritan.

Ezkonduta gero egun batzuk igaroten kanpo herri edo uri batera joaten zan: Bilbora, Donostira, Madrilera… Orain abioian, eta nork daki noraino joaten diran gure ezkonbarriak? Ba Parisera, Alemaniara, Brasilera, Kubara, Australiara… eta abar eta abar. Eta gero etxera.

Sibilia Granada
Madril Toledo
Kanpuak ikusita
Etxera gero.

Herrialde guztietan
Toki onak badira
Baina bihotzak dino
Zoaz Euskal Herrira.

GERTAERAK

ESKOLA DENPOREA

Gure eskolea etxe eder bat zan. Areto nahiko zabal bi eukazan goian. Eskuma aldeko aretoa nesken eskolea zan, bestea mutilena. Beheko aldean, alderdi banatan toki bi nahiko ilunak eukazan: ezkerreko aldea neskentzako, bestea mutilentzako. Toki honeek "Olgetako lekua" izena euken. Horrez ganera, eskolapean "Bolatokia" egoan eta baita "Giltzape" edo kartzela txikitxo bat be. Inoiz ez dot entzun bertan bahituta, preso, inor egon danik; bakar-bakarrik egoten ziranak, gitxitan, ardaoagaz deskuidata erromerietan zutunik egoteko indarrik ez eukenak. Toki horretan gaupasa egin eta hurrengo goizean etxera artajorran edo.

Umeak eskolara sei urte beteta sartzen ziran. Ordurarte trankil bizi ginan eskolarako ardura barik. Aretoetako baten zan gure ikasteko tokia; jarleku barik, zutunik. Metro erdi zabalera eta metro bat inguru luzera eukan kartoizko kartel baten aurrean egoten ginan maisuak jaramonik egin barik. Gure maisua mutil nagusitxo bat izaten zan, eskuan egur mehetxo bategaz izentaten ebazan letrak, eta baita geure buruak bere, formalidadea zaintzeko. Kartel harek alderdi batetik A E I O U, eta beste aldetik A B C CH… eukazan.

Eskolako areto bakarrean maisuak, berak bakarrik, hirurogeta lau mutikoren ardurea eukan. Eroapen haundia behar da horrenbeste umeri egunoro zerbait erakusten ahalegintzeko. Beste aldetik mutil euskaldunak ginan danok, erderaz oso gitxi genkian, eta irakaslearen berbak ez genduzan aituten. Berak be ez geureak, erdaldun hutsa zan eta.

Honela ba, hasi ginan jo eta ke kartela edo abezedarioa buruan sartzen. Polito abesten genduan honela:

A E I O U
Ama, beyendie biogu
Arrautzaxu bigaz koipetsu
Talotxu bategaz garbitu.

Irakaslearen parrastada batzuk ondo aitutekoak dira gure situazino haretan, nahita guk orduan garbi aitu ez.

Ibinaga auzoan bizi zan gure maisua. Txakurtxu bat *Ker* izena eukana zan bere lagun.

Arratsaldean nori ez jako gustetan txikara bete txokolate tostada batzukaz? Gure maisuari bai behintzat. Arratsalde guztietan, mutil nausietariko bateri honela esaten eutsan: "Tú, vete a mi casa y dile a Doña Maruja que te dé mi chocolate". "Sí, señor". Mutila Ibinagara joan eta han Dª Marujak emoten eutsan azpil, bandeja, zabal baten: txokolatea, pitxartxo txikitxo bat bete esne eta galleta edo pikatoste batzuk. Gure mutila Ibinagatik Ibaetara, aldatsbehera galantean, etorten zan txokolate gozoaren lurrunetan eta bere bekokitik behera izerditan. Eskolara heltzean errekadistea, eskolako mutil guztien begiak esku bietan ekarren txokolateari begira gelditzen ziran. Maisuak, danon aurrean zeinen gozaro jaten eban txokolatea pikatosteekin. Noizean behin mutil kuadrilatxuren bat berari begira, begia kendu barik egozala konturatzen zan, eta orduan maisuak: Aaaaa! egiten eutsen.

Zelako bildur eta arduraz gauzok ekarten genduzan. Inoiz be ez genduan entzun Ibarrangeluko mutiltxoei maisuaren txokolatea lurrera jausi jakenik. Eta guk gero geure etxeetan amari: "Ama, nik be maisuak hartzen dauan lako txokolatea gura dot". Izan be, gure etxeetan txokolate gitxi ikusten genduan. Eta sarri kantetan eban gure amamak:

Bilbo esaten dabe, Bilbo,
Ez dago Bilbo lakorik,
Txokolatia hartzeko
Fotagaz bero-berorik. (bis)

Eta neguan? Neguan zelako hotzak eukiten genduzan, batez be eskola ingurua leiagaz zuri agertzen zanean! Eskuetan azkordinak, belarrietan be bai, eta inon berogailurik ez. Esango neuke oraingo gizaldiak, hemen behintzat, ez dakiela zer dan azkordina, erderaz "sabañón". Eskolan ez geunkan inongo berogailurik. Maisuak bakarrik eukan berogailua: Mutikotxu bateri edo besteri esaten euskun: "Dile a Doña Maruja que te dé el brasero". *Brasero* hori harako ontzi metalezko eta nahiko sakona zan; barruan egur-ikatza su eta gar. Hartuten genduan tokaten zanean, eta ez zan erraza eroatea: botaten eban suak arpegia larregi berotuten euskun, albora begira aurrera emoten genduzan pausuak eta halantxe nahiko-nahikoan sartuten ginan eskolara eta maisuaren mahaipean iminten genduan berogailua.

Pitxikeria edo anekdota bat. Mutiko nagusitxuenak eskolea garbitzen ebilzan. Amaitutakoan, maisuak badinotso mutiko bateri: "Tú, Gonzalo, dile a doña Maruja que te dé el recogedor. ¿Has oído, el recogedor?" Gure Gonzalok urten dau eskolatik esanez: "Recogedor, recogedor, recogedor, recogedor". Honetan andratxo batek badinotso Gonzalori: "Gonzalo, orain nora zoaz?" "Maisuarenera ekojedor bila" "Ekojedor, ekojedor? Ez da holan… rekolor, rekolor… ez da holan be… Elmejor, elmejor, elmejor… ez da holan be…" Negar baten Gonzalok dino: "Ahaztu egin jat… zer egin behar dot nik! Barriro joaten banaz eskolara maisuari preguntateko, mai-

Ibarrangelu Domingo umea zanean, XX. mende hasieran.

suak esango deust: "Tonto, Gonzalo tonto, ¿a qué has estado mirando?" Oin nik zer egin behar dot ba?" Eta negar, eta negar jo dau Doña Marujaren atea:

–Ai! Doña Maruja olvidar, todo olvidar. Me ha dicho traer color; no, eso tampoco; y me va a pegar y burlar tambien Ai! Ai!...

–Pero, ¿qué habeis estado haciendo?

–Barrer y barrer la escuela.

–Entonces te habrá dicho que lleves el "recogedor".

–Sí, sí; ya me he salvado!

Eta gure Gonzalo han doa arin eta pozik eskolara, "recogedor" eskuan daroala.

Ah! Zelakoa zan gure poza eskola ordua amaitu eta kanpora urtetan genduanean! Etxera sartu eta lehenengo eskabidea: "Nire meriendea?" Zer ete zan ba arratsaldeko gure jateko hori? Ogi zati bat esne-kipurra ganean zabaldu eta azukera apur bat ganean, edo talo erdi bat intxaur batzukaz, edo ogia eta sagar edo madari… Gustoren jaten genduana ogia eta txokolatea ziran, baina txokolatea gitxitan ikusten genduan. Ez geunkan etxean, etxondoan iturririk, ez edateko urik. "Urbitarte" (Uitxarte) deitzen jakon baserri baten ondoan egoan iturri bat, nire etxetik berrehun bat metrora; handik potin bategaz ekarten neban ura etxeko kankarrua bete arte. Hiru joanetorrigaz betetan zan kankarrua.

Eta olgetan? Bai. Zenbat jolas! Nik bederatzi urte inguru nebazala, Ameriketan urte asko igarota gizon bat etorri zan Baztiene deritxon etxera. Goiz baten, gizon hori, lepo bete boxeoko guantegaz agertu zan olgetan genbilzan enparantza, plazara. Paulino Uzkudun zelako burrukalari, boxeadore, indartsua zan, bagenkian danok. Eskola-mutilok futbolerako garra bageunkan, baita boxeorako bere. Halan ba, guk

Herriko eskolak.

boxeorako guanteak ikusi genduzanean prest gengozan alkarrekin indarrak burututeko. Lurrean marra karratu nahiko zabala egin eta esan euskun amerikanoak: "Hauxe da *ring*, boxeadoreak marra honetatik ezin leitekez urten. Halantxe jarraitu eban amerikanuak, halan gozatzen eban gu alkar joten ikusita. Nork kontau guk batak besteari emon geuntsazan matralakoak!

Maisuak ez eukan beti makileagaz ibilteko gogorik edo ta, zigorra be hau emoten eban: "Dieta". Hau da, eguerdira arteko eskolea amaitzen zanean eta danak euren etxeetara bazkaltzen joaten ziranean, "Dieta" horregaz zigortuak eskolan gelditzen ziran jakin ez ebena ikasteko. Ezer ikasten ete eben ba? Esperientziak diraust hauxe: tautik be ez genduala ikasten, eta ikasteko gogoa eukenak be ez ebela ikasten besteek armetan eben danbolin bako erromeriagaz. Hamar-hamabi mutil, euren kontura, inongo jabetasun barik, eskolea jolaslekutzat hartzen eben. Gero? Gero gerokoak.

Arratsaldeko eskolea hasten zanean "dietakoei" itaunduten eutsen ikasi behar ebena… baina… mu. Eta arratsaldeko eskolea amaitu arte "dietakoak" ezertxo be jakin barik!!!

Maisuaren azalpen guztiak erderaz ziran, eta gu euskaldun zarratuak ginan. Guk *lavaboetara* joateko maisuari baimena eskatzen geuntsan hau esanez: "Txis, txis".

Ibarrangeluko eskola-umeak. 1920. Goitik hasita, ezkerretik eskumara, bakotxaren izen-abizenak eta auzoa:
1. ilara: Fidel Monasterio Bengoetxea, Ibaeta; Jose Uriarte Larrauri, Elexalde; Manuel Sagastizabal, Zobaran; Julian Latxiondo Goikoetxea, Ibaeta; Eusebio Ortega, Ibinaga; Jose Manuel Garate Bastida, Ibaeta; Elias Barrenetxea Madarieta, Arboliz; Gillermo Ortega, Ibinaga; Hilario Ziluaga Bidasolo, Apraiz; Eugenio Isasi Galdiz, Natxitua; Domingo Zuluaga Uribarrena, Ibaeta.
2. ilara: Gaspar Eiguren Ansotegi, Durukiz; Modesto Gonzalez de Txabarri, Ibinaga; Justo Goitia Gallaitabeitia, Arboliz; Jose Larruzea Lopategi, Iturrioz; Juan Madariaga Landeta, Durukiz; Manuel Uriarte, Ibinaga; Irakaslea: Ignacio Hermoso (Palentzia); Felipe Salcedo Zubieta, Ibaeta; Fernando Maria Mugika, Elexalde; Sabin Zubieta Eiguren, Merru; Tomas Bideganeta Aranberri, Zubibarriaga; Hilarion Arrizabalaga Goitia, Elexalde; Markelin Iturbe Monasterio, Ibaeta; Mugika, Elexalde.
3. ilara: Paciano Otaolea, Izkita; Jaime Aberasturi Ibieta, Ibaeta; Nicasio Beitia Kobeaga, Ibinaga; Agustin Arano Gamekogoikoetxea, Elexalde; Cayetano Ziluaga, Ibinaga; Karmelo Garate Bastida, Ibaeta; Amador Mendiguren Madariaga, Ibinaga; Domingo Gonzalez de Txabarri, Ibinaga; Leocadio Zubieta Goitia, Merru; Candido Otaolea, Izkita; Lucio Latxiondo Goikoetxea, Ibaeta; Eusebio Arrizabalaga, Merru; Felix Larruzea Lopategi, Iturrioz.
4. ilara: Genaro Altide Mallea, Ibinaga; Candido Altide Mallea, Ibinaga; Domingo Urrutxua Arano, Elexalde; Manuel Ziluaga Uriarte, Ibinaga; Cirilo Olabarri, Merru; Marcelino Ormaetxea, Arboliz; Lamikiz Andiketxe, Apraiz; Jose L. Azketa Agirre, Ibaeta; Segundo Ibarguren Badiola, Elexalde; Frank Monasterio Bengoetxea, Ibaeta; Higinio Unzueta Gisasola, Ibinaga; Lucio Martinez Zubieta, Ibinaga; Tomas Urruzuno, Arboliz; Luciano Meabe, Durukiz.
5. ilara; Dionisio Monasterio Bengoetxea, Ibaeta; Felipe Idoiaga, Ibaeta; Andoni Monasterio Lamikiz, Ibaeta; Jose Luis Idoiaga, Ibaeta; Jaime Agirre Beaskoa, Ibaeta; Narciso Zubieta Garteiz, Elexalde; Imanol Arano Gametxogoikoetxea, Apraiz; Tomas Amunategi Zendoliz, (Arteaga); Gerardo Larruzea Lopategi, Iturrioz; Jon Alberdi Ziluaga, Elexalde; Modesto Zarandona Mallea, Iturrioz; Angel Omar Olaeta, Elexalde.

Gero maisuak erakutsi euskun zelan eskatu baimena. Honela: "Señor maestro, me da usted permiso para ir al urinario?" Formula hori argi eta garbi esan behar zan, bestela belarriondokoa irabazten zenduan.

Mantxako Kixoteren liburutik hartuta, orain erderaz idatziko dodana mutil nagusitxo guztiek jakin behar genduan: "En las quiebras de las peñas y en el hueco de los árboles formaban su república las discretas y solícitas abejas, ofreciendo a cualquiera mano, sin interés alguno, la feliz cosecha de su dulcísimo trabajo". Hau jakitea, ba, nahi eta nahiezkoa zan.

Domeka eta jai-egunetan hamarretako mezatara joaten ginan eskola-mutil guztiok, maisua buru genduala. Altara nagusiaren eskuma aldean egoten ginan, txintik ez esan ez egin barik. Hantxe maisuari buruak emoten eutsanean, edonori eta ixil-ixilean esaten eutsan be: "Dime lo de D. Kijote". Baita eleizatik urtetean, eta lagunik gehiago egoanean entzuteko: "Oye, díme lo de D. Quijote". Horregaitik, eleizatik urtekeran txispan joaten ginan arin maisuagandik igesi. Ohi zan lez, eleizan limosnea eskatzen zan meza barruan, eta gure maisuak monagilloari taka, eta bost hogerleko zidarrezkoak botaten ebazan bandejara monagilloari esanez, "luego me traes sin falta estos cinco duros".

ATZAMAR BIAK SURPERA

Hirurogeta lau mutil genbilzan geure lehenengo ikastaroak egiten Ibaeta auzuneko eskolan, eta ikastaro bardinak egiten ebilzan neskak beste horrenbeste izango ziran. Orain mutilekin bakarrik dihardut.

Noizean behin, edo sarri, gure artean eztabaidak, hasarreak eta abar sortzen ziran. Ez da mira egiteko gauzea. Jokoan genbilzala alkarregaz poztuten ginan, alkarregaz hasarratu, alkarregaz adiskidetu. Begira, tronpa-jokoan tronpea ibili dala esateko edo dantzatu dala esateko, bi buelta emon behar gitxienez. Mutikotxu bi tronpa jokoan: Koldok jaurti dau tronpea eta tronpa horrek hiru buelta emon dauzala dino. Gaizkak ezetz dino, tronpeak bi buelta ez dituala emon. Hemen eztabaida luzea sortzen da. Beste mutil batzuk be sartzen dira gorabehera horretan, batzuk tronpeak hiru buelta emon dituela, eta beste batzuk ezetzean dagoz. Koldok: "Oinak bota eta kitu" dino. Gaizkak ez dau nahi oinak botaterik. Azkenean, jokotik kanpora egon dan batek holan dino: "Atzamarrakaz surpeko juramentua egizue".

Guk honelako gauzatan ezer gitxi genkian, baina atzamarrakaz surpeko juramentuari errespetu handia geuntsan. Azkenera arte hori ez genduan aitatu be egiten; guztizko errespetu handiagaz izentatzen genduan. Juramentu hori baten batek guzurraz egin ebala jakiten zanean, nortasun handia galtzen eban eskola mutilen artean eta guzurtitzat eukiten zan.

Hauxe da, ba, atzamarrakaz surpean egiten zan juramentua: surraren azpian ipinten zan, alde batetik eskumako eskuko atzamar sendoa, eta beste aldetik ezkerreko eskuko atzamar sendoa. Atzamar bien puntak surraren azpian alkarreri ukututen esaten zan: "juretan dot egia dinodala". Une horretan atzamar biak alboetara eroaten dira.

GERREA

Gerrea aitatu dogun ezkero, mila bederatzirehun eta hogeta hamaseigarren urtekoa azaldu daigun. Lehenengoz hauxe: Gerra horretako leherketa, bonbaketa, su eta tiroak ez ziran agertu Ibarrangelun. Horrelakoak Otxandion, Gernikan, Durangon eta beste herri batzuetan jazo ziran.

Gerreak, baina, beste alderdi oker eta txar asko daroaz beragaz; esate baterako, herriko mutil eta gizon gazteak etxetik kanpora, gau eta egun, tiro eta tiro, zu haren kontra, harek zu hil nahian, gosez eta egarriz, herri guztiko etxeetan, hau esateko eran: danak dagoz triste, herrian jatekoa gitxitu egiten da, herrian ez dago inongo olgetarik ez erromeriarik; zeuk beste herriren batera joan nahi bazenduan, militar txartela behar zenduan, eta beste hainbeste eragozpen. Gernika bonbaketaz apurtu eben arratsalde batean, hurrengo goizean bertan gengozan, ezin neike nik esan zer zan han ikusten eta ikutzen genduana: dana zan sua, pertsona bat be ez ebilen kalean, Errenteriako zubia apurtuta eta hantxe gizon bat urdinez jantzita, errekearen erdian gora begira, baina hilda egoan. Barriro beste bonbaketa bat izango zala-ta, iges egin genduan nahigabearen toki ikaragarri haretatik. Ibarrangelun be bonbaketak izango zirala-ta, ezkutatokiak, errefugioak egiten hasi ginan, Durukiz auzunerako bidean.

Gernikako bonbaketan jausi ziran lehergailu batzuk Armenduko mendian jausi ziran, beste bonba banaka batzuk Bolueta auzunearen inguruan. Handik hilabetera geure soloan atxurren nenbilela halako *bomba incendiaria* atera neban. Lehertu barik egoan. Gernikako bonbaketa egun honen gaba izan zan guztiz gau txarra, tristea. Agindu militar gogorra zan. "Urten begie herritik berehala hamazortzi urtetik berrogeta hamar urtera arteko gizonezko guztiak. Ibarrangelutar asko Atxarrera joan ziran ezkutatzeko, beste batzuk Ogoñora, Leunbe aldera. Ha zan estutasuna! Nork ekian zein izango ete zan jokaerarik onena? Estu eta larri danak. Gabeko hamarrak ziran tanborreruak, auzoz auzo, militar agindu hori zabaldu ebanean. Noizean behin, noizean behin tiro-tiroa entzuten zan. Lehio eta balkoietan koltxa eta manta lodiak ipinita geunkazan balarik ez sartzeko etxean. Goizeko ordu biak inguruan soldaduak hasi ziran baserrietako behi, txahal, zekor eta ganadu guztiak eroaten, ostuten. Nire etxetik esne-behi ederra eta urtebeteko txahala eroan ebezan. "¿Dónde está la cuadra? que llevamos todo lo bueno que hay… y a callar". Gerrearen ondorenak. D. Buenaventura Zubieta alkate zan bitartean Ibarrangelura kanpotar lagun asko etorri ziran gerrearen bildurrez, euren artean Bilboko bankero haundi bat, Madrileko jeneral bat, eta abar. Gatazka eta jaleo barik gengozan, nahita triste eta arduratsu bizi. Akordako abade-etxean egoan ezkutatuta D. Tomas Latxiondo abadea. Bera hilteko asmoz Barakaldotik etorri ziran bila. Lotu eta euren autoan sartu eben. Hau jakinik, herriko gazte talde bat (herria zaintzeko ardurea eukenak, "miliziano" izena eukenak) ehizarako ziran eskopeta batzuk hartu, Bolueta auzune inguruan burdi bat txirringaz gora imini, eta eurak ezkutuko lekuetatik "Alto!" eta solta eragin eutsen abadea bizirik.

GERNIKA: BONBAKETA BIHARAMONEKO GOIZEAN

Guk gudari legez geunkazan ardura batzukaitik, Bilbon gengozan apirilaren hogeta seigarren egunean, mila bederatzirehun eta hogeta hamazazpigarren urtean. Ramon Bilbao Iturriaga zan nire laguna. Han gauza kezkagarriak nahiko ugari entzuten ziran. Zortzi eguneko gerrea izango zala esaten euskuen hasiera baten, eta hona hemen hamargarren hilabetea be hurren dago.

Gertaerak zer pentsau emoten eben. Bazkaria jan eta arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Gernikarako bidea eta billetea hartzen joan ginan. Zerbait berandu zan, trena urtenda egoan. Lau eta erdiak arte itxaron behar izan genduan. Sasoirako joan ginan, ordua baino lehenago, billetea hartzean, eta holan erantzun euskuen: "Gaur Gernikarako trenik ez dago". Hortik eta hemendik itaunduten genduan Atxurin, baina inok ez euskun erantzun argirik emoten. Zerbait artegatzen hasi ginan, eta honela diraust Ramonek:

–Galdakanora joango gara; nire arreba bat ezkondu zan han eta senarra eta umeakaz bizi da.

Galdakaon ondo hartu ginduezan, eta hurrengo goizean Zornotzarako tranbia hartu genduan. Zornotzan giro larri eta estua susmau genduan; dana zan arineketea eta inok ezer ez esan gurea. Gernikara joateko ez geunkan ez trenik ez autobusik. Beste barik oinez hasi genduan geure ibiltea. Zornotzako bidearen hasieran kamioi bat aurkitu genduan, eta hantxe kamionerua be, geu lako mutil gazte bat. Itaundu geuntsan:

–Nora zoaz?

–Han dagozan ametrailadoreetako gudarien bila.

–Gu be zugaz joango gara.

–Ez, ezin zeinkie nigaz etorri, hori agindu deustie.

–Ondo dago, gugaz ez daukazu konpromisorik; ez jaku ezer txarrik jazoko.

Eta beste barik kamioi haretan Gernikako Asilo Kalzadara arte heldu ginan. Toki horretan badirausku kamioneruak:

–Hemendik aurrera ezin geintekez kamioian joan, bide guztia harri handiz beterik dago.

Lehenengo Gernikan Asilo Kalzada etxearen zati handi bat bonbaz apurtuta ikusi genduan. Gernikako kaleetara begiratuz negargarria zan ikusten zana, saminaren saminaz ezin negarrik egin, ezker eta eskuma su eta su egoan.

Kaleetan ez zan inortxo be ikusten, jentearen berbotsik ez zaratarik ez zan entzuten. Suaren karraskada-zarata eta hor-hemen jausten ziran etxe-harrien horma-parrastada ikaragarriak lehen bildurtuta egozan bihotzetan bildur gehiago sartzen eben. Pasilekura arte jatsi ginan. Ondioko erreten ez egoan eta laster suak hartuko eban etxeko ate aurrean hiru edo lau lagun alkarregaz berbetan ikusi genduzan. Zer egingo eben ba? Negar.

Ai! Gure Gernika eder eta polita, zer egin dabe zugaz? Gernika! Herri baketsu, herri abeslari eta pozgarri, txori bat ez da ikusten zure inguruan *pio* bat egiteko. Erresundea, ke-hatsa, ez dago orain besterik. Ez katu bat, ez txakur galdu bat, ez bizirik dagoanik ez dabil hemengo kaleetatik geu izan ezik, eta geu be igeska hemendik alde egin guran. Zer da hau? Ramonek ez dauka berbarik ez neuk be zer esanik. Jainkoa betor gure laguntzaile!

Zein polito eta pozgarri aurkezten ziran Gernika honetan danak, eskaparateak, jantokiak; gizonentzako nahi emakumeentzako oinetako nahiz jantzi egokiak, salgai egozan toki egokiak… batzuk barruan su eta gar egozan, beste batzuk kalera jausita bira-biraka ebilzan lur ganean. Honeen artetik goazela botoi bat, polita bera, lurraren gainetik jaso eta neure boltsikoan sartu neban hau neure buruari esanaz: "Hau, triskantza honen gomutagarri izango dot". Handik hiru-lau metro ingurura, hartu neban barriro neure eskuan botoi hori eta jaurti neban lehen egoan tokira: ez dot nahi, ez dot nahi, ez dot nahi…

Banku-etxeak ateak zabalik egozan danak, inongo jagole barik, papela nahikoa ebilen banko-etxe aurreetan, hara eta hona haizearen indarrez. Ramon eta biok ixilik eta albait arinen ginoiazan kalean behera, eta "Boira" botikea dagoan toki ingurura heldu ginan: hango bidekurutzearen erdian zulo sakon eta zabal bat egoan, han jausi zan bonbea ez zan izan edozelakoa.

San Juan Ibarreko eleizeari be begiradatxu bat egin geuntsan. Ez egoan sutan, oso-osorik egoan, baina inguruetako etxeetatik urteten eban su-garrak eleizearen hormai ikututen hasita egozan… Gero erre egin zan.

Non da hemen bizi zan jente guztia ba? Zabal zan Gernika hurrengo egunean be bigarrenez bonbardeako ebela-ta.

Errenteriako zubira laster helduko ginan. Bidean ginoiazala sua egoan etxe handi baten ondotik, horma nagusia jausi jakon, su eta gar egoan.

Lehengoen ganera, bildurrez zurtz eginda gelditu ginan: eskerrak barrurantz jausi zala, bestela… Gauza honetan, idazki honetan ez darabilt ez guzurrik ez nahasterik. Errenteriako zubia apurtuta egoan, guk hori ez genkian. Begirada bat eskuma aldera eta ibaiaren, errekearen erdian gizon bat hilda ikusi genduan, arpegia goruntz, eta paparra dana odolez gorrituta. Hantxe beste hiru edo lau lagun ikusi genduzan errekearen beste aldetik. Eurei entzun geuntsen hauxe: "Patxi, Patxi da". Errekeak ur gitxi ekarren.

Harri ganetik harri ganera ibaiaren, errekearen beste aldera igaro ginan eta oinez Ibarrangelura joan ginan. Arratsaldean Ibaeta auzuneko gizonakaz lanean hasi ginan; gizon horreek errefugio bi egiten ziharduen, abioien bonbai iges egin eta ezkutatuteko. Egiten egozan errefugioak zulo luze eta sakonak ziran, nahiko zabalak, goitik habez eta lurrez estalduta.

GERRA OSTEA

Abioietatik, Francok bialdu euskuzan papelak esaten ez bildurrik eukiteko, bakean etozala-ta; papel honeek gure bide eta soloetara jausi ziran ugari.

Gerrearen ondorenak honeexek be badira: gorrotoa, bekaizkeria, enbidia, norberak gauza guztietan egia eta errazoia daukazala, harrokeria… Zelako kalte ikaragarriak egin ete dabez mundu zabalean honelako gauzakaitik bestea salatu eta denuntziatuaz! Ba, hemen be hainbat salaketa, denuntzia, egon ziran. Neuk ikusi nebazan autobus batera igoten berrogei baino gehiago gizon eta emakume Larrinagako espetxera eroiezanak. Denporada luze bat kartzelan eginda, aske, bildurrez eta onez bihurtu ziran euren Ibarrangeluko etxeetara. Zenbat bider entzun dogu esaera zahar hau: "Bakea, txanpon guztiekaz be ez da pagaten".

LAGAKO MORTEROAK!

Industriak indar haundia euki eta Laga aldeak indar gitxi-edo, industria batek gerrarako egiten ebazan lehergailuak, morteroak, zelako indarrekoak ziran jakiteko, Lagara etorten ziran aprobadak egiten. Lehergailu horreek tiroak itxasora jaurtiten ebezan. Zuzen-zuzenean itxasora jaurtiten ebezan, baina ez danak! Egun baten tiroak zuzeneko bidea hartu beharrean, okerrekoa hartu eta, jo eta behera! Solo hegalean trankil bedarra jaten egoan astoa, morteroa alboan lehertu eta astoa hil.

Itxasondo eta hondartzazaleak artega egozan.

Beste behin be, lehergailua ondo lurrean indartu barik-edo, Toki Alaiko jatetxerantz egin eban, morteroa jatetxearen inguruan lehertu eta bertako Juli andrea zauritu eban.

Gehiagoko kalterik egin barik joan ziran tramankulu guztiekin. Egia da, izparringietan-eta aurretiaz esaten eben noiz eta zelan izango ziran lehergailu horreen aprobadak, “baina… kontuz”.

JESUSEN BIHOTZAREN IRUDIA

Ibarrangelutarrak argiro euren sinismena agertu eben Jesusen Bihotzaren irudia eleizako torre ganean iminteko lagundu ebenean. 1945garren urteko bagilaren 24an izan zan. Aurrerako egunetan eleizako gertakizunak eta osterantzeko gertakizunak egin ebezan.

Jesusen Bihotzaren irudia egiten Valeriano Martínez eskultorea. Irudiaren oinean botila baten sartu ebezan dirulaguntza emon eben guztien izenak.

Irudiaren onespena goizeko eleizkizunean izan zan, eta herritik eta erbestetik etorritako jentetza haundia batu zan eleiza inguruan. Bermeoko eleizearen izenean D. Ramon Bilbao (bertoko seme, abade eta Merrun jaioa) hainbat bermeotarregaz etorri zan, eta baita Durangotik be, D. Domingo Zuluaga.

Irudiak bost metro eta erdi daukaz luze, eta hamabi tona dira bere pisua.

Jauna guztioi lagun bekigu.

Jesusen Bihotzaren irudiaren inaugurazinoa. 1945.

ETA ARGIA?

Eskola-mutiltxo ginan sasoi baten ez geunkan argi elektrikorik. Etxe askotan kruselua deitzen geuntsan argi gailutxu bat ibilten genduan. Zer zan hori? Metalezko zatitxo bigaz osotzen zan; metxa bat barrutik musturreraino eta erregarritzat zaina, orioaren antzeko koipe likidoa. Pospoluagaz biztu eta ezkaratzeko guztientzat: ARGIA. Beste etxe batzuetan "barburua" ibilten eben. Idazten nagoan areto honetan daukat, ondo estimadu, gure etxean erabilten genduan argi "kruselua".

Gaubetan, aparia jan eta gerotxuago: "Ia, ba, laster ogera; argia erreten hemen egon barik" esaten eban amak. Eta "Ala! danok goizetik ogera, gero hurrengo goizean goizetik jagiteko".

Zelako poza gurea "tximist argia", elektrikoa ekarriko euskuela guri be esan euskuenean. "Irurak Bat" enpresa izango ei zan hori egingo ebana. Danok pozik gengozan, baina banakatxu batzuk ez egozan horregaz bat, ez egozan konforme. "Argi horreek ez datoz bide onetik" esaten eban gure auzoan bizi zan andratxu batek. Pepainesi eukan izena atsotxu horrek, eta berak esaten ohi ebanez Ibaetako plazan, Gorpuzti arratsalde baten, Antonio bibolinteruak bertso hau etara eutsan:

Pepa Inesi saladie
Gorostako alabie
Kamaran sagarra legez
Zara su eskojidie.

Guretzat gauza handia izan zan elektrizidadea. Lehenengo aldi luze baten, argi hori gabetan bakarrik emoten euskuen, egunez ez egoan tximist-argirik. Etxe bakotxean ez euskuen ipini argi bitik gora, bata ezkaratzean eta beste bat zeuk nahi zenduan lekuan. Horrez ganera, argi biak batera biztuta, edo ixotuta, ezin zeinkezan euki. Bata biztuten bazenduan bestea amatauta gelditzen zan. Gero, urteak joanez, gauzak hobetuten joan ziran.

Negu aldian edo hotz egoanean, oinak berotuteko lurrezko edo kristalezko boteilan ur bero-beroa imini eta ohera eroaten zan beharrizana egoanean.

TELEFONOA

Telefono bat bakarrik egoan herri guztirako. Zu kanpotik zabilzala, zeure herritar bategaz berba egin nahi bazenduan, hona hemen zelan atondu: Herrira deitu eta hango arduradunari esan nogaz berba egin nahi zenduan. Gitxi gorabehera holan erantzungo eutsun: "Hain urrun be ez dago eta gaur arratsaldeko zazpiretarako hona etorteko abisua botako deutsat; zuk, ba, gaur arratsaldeko zazpiretan hona deitu."

Itxasgizonak euren etxekoakaz berba egiteko honela atontzen ziran, herriko telefonora deitu eta esan: "Zu, telefonista, nire emazteari esan hau, mesedez: bihar iluntzeko zortziretan dei egingo deutsadala", eta itxas gizon horrek Garteiz auzoan baeukan emaztea, Garteizerarte joan beharko eban telefono arduradunak.

Lehenengo lanak 1953garren urtean hasi genduzan, aretoa behar dan moduan atontzeko.

Astean zehar jentea bakotxa bere lanetan ebilen. Jaieguna heltzean askok ez ekian zer egin. Alderdi batetik bestera ikusten genduzan. Gazteak herritik iges egiten eben, besteak baina…

Zine-etxe egoki bat ipintea ondo egongo litzatekela uste izan genduan, horretarako bideak hartu bere bai. Jose Leon Aretxetak, bertoko semea izan zanak emonda bageunkan diru zati polit bat. Behar genduan beste zatia herriaren laguntasunak bete eban. Zine-etxe bat egiteko behar zan beste urik ez egoan Elexalden; eleizea eta udaletxe inguruan zan egiteko zine-etxe hori; Elexaldetik Iturriozko ibaira hodi luze bat imini zan eta holan uraren gorabeherea konpondu zan. Hemen azalduten ez doguzan beste eragozpen batzuk be izan genduzan, baina danak ezereztu ziran.

Danon poztasunerako *El gran Caruso* pelikula ederragaz hasiera emon geuntsan gure zineari.

Legeak agintzen ebazan arau guztiak beteta, "Operador de Cine" legezko titulua Bilboko Gran Via zinean izan ziran azterketetan atera genduan. Zine-makina Barakaldoko Extremiana lantegian erosi genduan. Jai aurreko iluntzeetan zinearen lehenengo pasea emoten genduan. Jaiegunetan pase bi emoten genduzan, bata arratsaldeko bostetan eta bestea bederatzietan.

Herrian zinea emoten eben aretoa. 1955 inguruan.

Zine-sarrerea umeentzako pezetatxo bat zan; denporada haretan ez egoan pezeta txanponik, papelezko pezetak ziran gehienak, koipez ondo horniduta. Nagusiak sei pezeta. Jentetza handia etorten zan.

Zine honen martxan eta eratasunean ez genbiltzan bakarrik geure kontura. Zinea euken Bizkaiko beste hainbat herrigaz batzartuta gengozan. Batzar horren izena hauxe zan: FIDES (Federación Interparroquial de Espectáculo Sano). Sestaoko Patronatoan eukazan ofizinak eta han batzen ginan noizean behin. Hogeta hamabost herri gengozan batzartuta. Zine-etxe bakotxaren aurrean haundia zan gure indarra.

Irribarretxo bat egiteko bere zerbait esan behar dogu. Aurreratxuago hauxe esan dogu: zine honeri *Gran Caruso* pelikuleagaz hasiera emon geuntsala. Bai. Eta hurrengo astean Oesteko pelikula bat. Gure eskola-mutiltxoak zuhur egozan Jon Waine eta bere zaldizko kuadrileari begira. Zaldi eta zaldizkoen joan-etorri eta jokerak... Honetan pantallan goitik behera, aurrez aurre non datorren Jon Waine eta bere kuadrilea. Hori ikusirik, han aurreko jarlekuetan egozan mutikoetatik batek oihu handiz dino: Txo! Apart! eta begi itxi-edegi baten jarleku azpian sartzen dira bera eta bere hiru-lau lagunak. Atzeratxuago dagoan jarlekutik beste mutiko urteetan zaharrago zanak dinotso: "Ez euki bildurrik, honarte ez dabe saltaten horreek! Je!"

Ibarrangeluko gazteak asko be asko lagundu euskuen zine honek emon euskuzan lan eta arazoetan; gaur egunean be geure esker ona erakutsi deutsegu guztioi.

Dozena bat urte gitxi gorabehera zineko lanetan ibili ginan, ondo eta pozik, inungo ezbehar barik. Herriko eta herriko ez ziranak jentetza haundia etorten zan gure zinera.

Honetan telebista agertzen hasi zan eta herri txikietako zineak laster edo berandutxuago desagertzen joan ziran. Horixe jaso jakon gure zineari.

Guri joakunez, hauxe esaten dogu: euki genduzan zor guztiak ordaindu genduzan. Bakotxari berea emon geuntsan eta kito. Parrokiarentzat dirutan ezer gitxi geratu zan, ez dau ardurarik! Ba, ez da "ezer gitxi" harelako areto ederraren jabetasuna hartutea.

Zinea emoteko makinea.

URAK

Uholde ikaragarriak izan ziran Bizkai guztian 1983ko abuztuaren 26an. Kalte handiak egin ebezan, hildakoak bere hainbeste izan ziran Gernikan, Galdakaon eta Bilbo inguruetan. Gure herrian kalte ikaragarri askorik ez zan izan.

Arboliztik eta Ibinagatik etozan urak Elexaldeko baratzetara jatsi ziran. Baratz edo ortu hareetan oilotoki eta beste oztopo asko egozan; honeek etozan urei "presa" egin eutsen. Urak bat egin ziran, azkenean "presak" amore emon eta ur guzti hareek aretoaren hormak jo ebezan eta goitik behera Parrokiaren aretoa, "Salon Parroquial" deitzen geuntsana, erdibitu egin zan eta barru guztia triska zan hirurehun eta hogeta hemeretzi jarlekuakaz batera.

SUTEA

1989garren urtea zala, iluntze baten suak hasi ziran Zendokiz ingurutik eta Zobaran ingurura zabaldu ziran; hemen hiru baserri erre ziran. Erro bat Merruruntz eta Eara zabaldu eta bildur handia euki eben, sua etxeetatik hurre-hurrean egoan eta. Beste garren indarrak Armendura jo eban Apraizeri jota. Haize ikaragarria egoan eta horregaitik sua ez egoan geldi. Inoiz be ez da egoten, baina horrelako haizeagaz abiantada itzela hartzen eban.

Begira: Apraizko mendietako su-moltsoak Ibaetako frontoi atzera aidean etorten ziran. Armenduk su hartu ebanean, beste mendiak Akordararte, gailurrez gailur joan ziran suak hartzen eta pinu eta zugatz arlo asko erreta gelditu ziran. Ibaetan, kearen keaz, ordu batzuetan ezin zeinkean arnasarik hartu, eta etxe barruetan egon behar izan genduan.

MONOLITOA

Gernikako arbolaren ondoan toki, zelai, eder bat dago, zumardi edo Europako parkea deitzen deutsena.

Aurreragoko urteetan gizon eta gazte asko artzaintzan Ameriketara joaten ziran. Hau idazten dagoanaren aita eta ama be, biak, Nevadara joan ziran, eta zazpi urtean han lanean egon ziran: gizona artzain eta andrea arrantxoan sukaldari.

Ameriketara artzaintzan joan ziranak non-nahi Euskal Herriaren izen ona zabaldu eben: euren lan egiteko taiua, euren lan egiteko gogoa, euren bakezaletasuna mundu guztian zabaldu zan.

Domingo Zuluaga eta Karmelo Etxenagusia, Euskal artzainen omeneko ekitaldian Gernikan. 2007.

Gaur eguneko Euskal Herriko agintariak, antxinako artzainen eredu eta ejenplu onaz konturaturik, "Monolitoa", marmol zurizko harri handi bat jarri dabe. Bi mila eta zazpigarren urteko urriaren batean izan zan monolito horren onespena. Lagun asko batu ginan han berbaldiak entzuten eta ospetasunean parte hartzeko. Frantziatik, Iparraldetik be, euskaldun asko etorri ziran.

Artzainen ospakizun horretan Amador Zabalbeaskoa ibarrangelutarra agurtu genduan. Gizon hau, hogeta bat urte ebazala Ameriketara artzain joan zan. Handik urte batzuetara arrantxo eta sei mila ardiren jabe egin zan; gaur egunean ardiak geldi-geldi itxi, eta ganadu nagusiaren ardura hartzen doa. Suberte on bat opa deutsugu, Amador.

PELOTATOKIA (FRONTOIA)

Herri guztiak pelotatoki egoki bat nahi eban. Bere guraria bi mila eta zortziko maiatzaren hamaikan lortuta ikusi eban. Abadeak tokia onespendu eban eta jarraian herriko alkate jaunak ofizialki hasiera emon eutsan, inaugurau eban.

Gure frontoi honeri hasiera ezin hobea emon eutsen lau pelotari gaztetxuk, hamalau urte ingurukoak laurak. Bi dira Ibarrangelukoak, Gorka Larruzea eta Iker Txertudi, eta beste biak Gautegizko Arteagako, Andoni Iribar eta Unai Arrizabalaga. Gure zorionak lauroi. Jarraitu aurrera hasi dozuen lan polit, bikain eta ederrean. Zorionak baita zuen gurasoai! Zuen semeok izango al dira urte gitxi barru gure frontoietan euren gaztetasunaz eta deportearen indarragaz milezak jente poztuko dabezanak.

Lehenengo frontoiaren inaugurazinoa. 1929.

Bigarren jokaldia berariazko lau pelotari profesionalek egin eben. Soinu handiko jokoa eskeini euskuen: alde batetik Arrese eta Zearra, eta bestetik Bengoetxea VI.a eta Apraiz. Herri eta erbesteko lagun asko batu ginan euron jokoa ikusteko. Eguraldiak ez euskun lagundu, ba arratsaldea euri zaparradatan joan zan kanpoan. Joko bikaina, partidu guztiz ederra izan zan hau be. Hemendik zortzi egunera, Bengoetxea VI.ak partidu konpromiso haundikoa euki eban Donostian, eta han, banakako jokoan txapeldun urten eban. Pelotatoki hau zahar eta gazteentzako, beste jolas batzuetarako be guztiz egokia da; beronen ondoan kultur etxe guztiz ederra dago.

“BOU NABARRA” JUAN TELLETXEA

Garagarrilaren hamazortzia eta mila bederatzirehun eta hogeta hamaseigarren egunean sortu zan, orain arte euki dogun azkenengo gerra. Guk ez genduan nahi holako matxinadarik baina gerrara deituak izan ginan. Gure Kantauri itxaso eta inguruko herriak ahal zan ondoen zaintzeko, gerra tramankulu batzuekaz itxasontzi batzuk hornidu ebezan, “Bou” eritxenak. Honelako itxasontzi baten, “Bou Nabarran”n, Juan Telletxea ibarrangelutarra ebilen, Akorda auzoan jaioa, hogei urtedun zala.

Egun triste baten, pelika, burruka, ikaragarria izan zan Matxitxako itxasaldean. Alde batetik “Bou” batzuk eta bestetik “Acorazado Canarias”. Itxasontzi hau bere hasieratik amaitu arte gerrarako asmatua eta egina izan zan. “Bou” batzuk apurtu eta hondatu ziran euretan ebilzan euskaldun gizon eta gazteakaz. Bere lagunen antzera, “Bou Nabarra” indartsu eta adoretsu ibili zan eta onik urten eban bere barruan eukazan gudari guztiakaz, euren artean Juan Telletxeagaz.

Matxitxako gerra burrukan ibili ziran euskaldun gudari guztien artean gaur egun bizirik irauten dauen bakarra Juan Telletxea da, eta Asturiasen, bere familiagaz bizi da. Ibarrangeluko herriak bere Akorda auzuneagaz batez be bi mila eta zortziko garagarrilaren hogeian, bihotz-bihotzez omenaldia egin eban Telletxearen izenean. Lagun asko batu ginan Akordako enparantzan: Ohorezko aurresku bategaz emakume batek hasi eban ederto omenaldia. Han izan ziran baita herriko ume dantzariak eta “Lorea” taldeko gizon zintzo eta adoretsuak. Ume kuadrila haundia eta nagusiak; zeinen ederto dantzaten diran.

Bou Nabarratik bizirik geratzen dan pertsona bakarraren omenaldia eta monolitoa ipinteko ekitaldian, don Domingo lobakaz: Carmen Zubieta, Juan Luis Arrizabalaga eta Lino Ondarza. Ibarrangelu, 2008.

HERRITARRAK

ALBANO JAUREGI ARANO (1907-1993)

Ibarrangeluko herriari hainbat mesede egin eutsazan gizon zintzo eta eskuzabala. Argentinan urte askoan itxasontzi batzuen arduradun izana, guztion poztasunerako, hona etorri zan bizi izaten.

Gure Ibaetako auzunean, eskola ederrak izan ziranak, urteen astuntasuna zio zala, jausten hasita egozan. Eskola horreek konpontzeko hemen inundik inora ez zan dirurik agertzen. Albanoren diruz, goitik behera ederto barriztau ziran eskola horreek. Gaur egun kultur etxe bihurtuta dagoz, guztiz mesedegarri gazte, ume eta zaharrentzako. Aldi haretan ez geunkan argi elektrikorik, gabetan izan ezik. Egunez ez geunkan elektrizidaderik. Gizon hau izan zan egunezko argi elektrikoa lortu euskuna. Euskal Herriko esku pelotaririk onenetarikoak berak gure lehenagoko frontoira jokalari ekarri ebazan.

Urteoro, D. Jose Montaner eskola maisua lagun ebala, eskolako neska-mutil guztiekin batera, Ibaetan, sekulako pastel eta txokolate jaia ospatuten eben danen poz eta kontsolazinorako.



Albano jaunak, bere guraso eta familikoak lagun ebazala, gure Ander deunaren parrokia honeri, danon poz eta sinismenerako, hauxe emon eutsan gomutagarri: Dolorezko Andra Maria Nekatuaren irudi ederra, bere Seme Jesus hila altzoan dauena. Irudi bikaina, Iñurria eskultore-artista entzutetsuak egina. Iñurria artista santu-egileak, egin dauzan irudietatik puntarengo bat, onenetariko bat hauxe dala dinoe artekritikoak. Irudi honen ondora hurreratzen zarienok, begiratu egiozue adi-adi Andra Mariaren arpegiari, nora begiratzen dauen, zelan begiratzen dauen. Irudi honeri begi-

raturik, orain hirurogeta bost urte, Ibarruriko eleizan abesten zan abesti honegaz gomutaten naz:

1
Kurutzearen oñian
Jarririk negarrez
Dago Jesusen Ama
Samin ta dolorez.
2
Ze lañoturik daukazan
Bere begi ederrak
Zenbat negar egin daben
Dirauskue eurak.
3
Oh ama, ama maitia
Errukiz begira guri
Pekatari guztioi
Errukiz begira bai.
Oh ama.

DON LUIS SAN SALVADOR BEASKOETXEA (1909-1985)

Hona hemen Ibarrangelu herrian hainbat urte egin ebazan osagile zintzo eta jakituna bere izena daroan enparantzan. Bere izenak luzaroan jarraituko dau gure artean.

Ibinaga auzuneko enparantzak don Luisen izena daroa. Hor aurkitzen da don Luisen irudia, brontze gogorrez egina eta hauxe dauka idatzita:

Don Luis San Salvador Beaskoetxea
Ibarrangeluko herriak esker onez
Bere osagile handiari
1909-1985

Don Luis San Salvador, herriak omenaldia egin eutsanean. 1978.

PETRA URIBARRENA (1873-1936)

Lan honen egilearen ama, Kanzuriano-Kanzuriano kanta famosua eta hemen agertzen diran beste abesti asko bere semeari erakutsi eutsazana. Nevadan (Ipar Ameriketan) bere senarragaz, *Olson* eritxon arrantxo haundi baten, sukaldari, kozinera lan egin ebana, eta bere senarrak artzaintzan.

Zelako poz ta maitasunez gure euskal kantak, baita kanpokoak bere, abesten ebazan. Nevadan zazpi urtean lanean egonda bere senarragaz Ibarrangelura bihurtu zan.

Baina bihotzak dino: Zoaz Euskal Herrira!!

Domingoren gurasoak, Petra Uribarrena eta Juan Pedro Zuluaga. 1933.

NEMESIO ZUBIETA IRIBAR (1894-1976)

Gizon hau abeslari guztiz bikaina zan. Liburu honetako abesti gehienak berari hartuak doguz. Antxinako kontu, ipuin, sorginen ibilerak berak esanak doguz. Mila bederatzirehun eta hirurogeta hamargarrenean hirurogei eta hamabost urte eukazan. Zenbat tertulia beroneri entzuten igaro ete genduzan! Hainbat urte Ameriketan (Idahon) igaro ebazan, lehenengo artzain eta gero arrantxoko sukaldari edo kozineru. Beti gertu eta prest "Lorea" dantzari taldeari laguntzeko.

Nemesiogaz batera, asko lagundu euskun nire arreba Trinik, Nemesioren emaztea zanak, eta bien alabak, Rosita eta Mari Carmenek.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez.

Don Domingo, arreba Trini, haren senarra Nemesio Zubieta eta bien alaba Carmen.

PETRA ZARRAONAINDIA (1901-2002)

Merru izeneko auzunean (Ibarrangelun) eta Bizko deritxon baserrian bizi izan zan ehun eta bat urte bete arte. Maitekiro "gure amuma" deitzen geuntsan. Azkeneraino burua argi gorde eban. Natxituko Birjina Kontsolazinokoaren zale debota haundia. Beti prest guri laguntzeko.

Antxinako kontu, kantu eta esaera zaharrak bene-benetan ziran legez esaten ebazan. Amoma maitea, eskerrik asko.

Petra 100 urte eukazanean.

MARI KRUZ SOLOZABAL AREGOTXUKOA (1871-1951)

Ibarrangeluko euskaldun jentea guri laguntzeko beti gertu eta prest euki dogu. Danoi eskerrak emoten deutseguz bihotz-bihotzez. Nahi eta nahi ezean euretariko batzuen izenak agertu behar dodaz.

Aregotxu baserriko Mari Kruzek ia larogei urte eukazan 1936 garren urtean. Neure abadegei lagun bategaz (D. Ramon Bilbao) Aregotxura zuzendu nintzan Mari Kruzegaz berba egiteko. Alkar ikusi eta batera, hauxe izan zan gure alkarrizketa:

–Arratsalde on, Mari Kruz.

–Nundik nora dabilz honeek mutil gazteok?

Santa Agedaren koplak kantetan herrian. 1966.

–Hara, Mari Kruz, zeu ikustera eta zeugaz berba egitera gatoz hemen ba, zuk zeure gazte denporan herriko jaietan panderoa jo eta kanta egiten zenduala esan deuskue eta.

–Ai, hareek denporak joan ziran, eta oin hareek bertso guztiak ahaztuta daukadaz.

–Danak ez, Mari Kruz, ondinoko zer edo zer eukiko dozu zeure buruko almazenean.

Eta geihagoko barik honela hasi nintxakon abestuten: "Arin arin eitxen dau soluan erbijek, arin arin eitxen deu soluan erbijek" eta berak jarraitu eban:

–"Hutsik itxiten ditu punturik erdijek!..."

Eta hemendik aurrera hainbat bertso zahar abestu euskuzan, eta guk kopiatu geure koadernoan. Gure lehenengo esperientzia bertso zaharrak bilatzen hauxe izan zan. Gure esker ona agertuaz agurtu genduan Mari Kruz.

IGNAZIA URIZAR (1890-1981)

Hona hemen beste emakume bat guri mesede handiak eta asko egin euskuzana.

"Lorea dantzari taldea" eskolara ebilzan neska eta mutilakaz eratu genduan. Honen ondoan, edo barruan, beste taldetxo bat gura genduan Ibarrangeluko antxinako abesti eta soinu zaharrak barriztatzeko. Horreek abestiok Ignazia Urizarrek baekizan; panderoa joten be ondo ekian. Bere gaztezaroan herri honetako enparantzan eta jaiegunetan, panderoa jo eta abestu egiten eban. Mila bederatzirehun eta berrogeta hamargarren urtean bere bizitzako larogeigarren urtera hurreratzen joian. Oso buru argikoa zan. Hogeta bi eskola-neskatxoren ardurea hartu eta polito abesten eta baita panderoa joten erakutsi eutsen. Bihotzez eskerrik asko.

MARIA DEL CORO HORMAETXEA (1943)

Gure herritarrak, gazteak aurrenengo, "Lorea" taldeko zeregin eta arazoetan, asko lagundu euskuen. Ezin geinkez danen izenak hemen agertu, baina bai guztiei bihotz-bihotzez eskerrak emon. Ha ta guzti be, baten izena agertu beharra badaukagu: Maria del Coro Hormaetxea, bere zintzotasuna eta lanerako eukan jakiteagaitik; gure eskoletako irakasle edo andereñoa, gure parrokiko organua joten ebana, euskerarako zaletasuna, asteoro egun batzuetan ingeles "Lorea" taldekoai dubarik erakusten eutsena. Ez harritu... ingeles erakusten zan kulturagaitik eta, beste zio edo motiboen artean, oinaztarrien zaindari edo "pararrayos" zalako hori guretzat. Bizitzak era askotako oinaztarriak dagozala erakutsi deusku: batzuk naturak egiten dauzanak, eta beste batzuk gizon-emakumeak egin leikiezenak. Honelakoakaz gabilz hemen orain. Ez dira bardinak urte hareetako aroak eta gaur egunekoak.

Eskerrik asko, Coro.

Coro "Lorea" dantza-taldekoakaz. 1971.

PABLO ARROTEGI (1917-1992)

Gizon honen izena entzutean itzal eta errespetoz txapela kentzen dot. Ibarrangelun jaio eta bere bizitzako urterik gehienetan bere herritik kanpora bizi izan zan alkarrenganako maitasuna eta bakea zabaltzen eta egiten. Bere bizitzako azkenengo berrogei urteak ezeukiai eta inoren laguntasunaren beharrizana eukenai laguntzen igaro ebazan: legenardunai, leprosuai, laguntzen. Legenarra, leprea, lehenago gaixo bildurgarria eta erraz zabaltzekoa zan. Orduko gizaldietan ez eukan osabiderik, lepraz jota egozanak herritik kanpora bialtzen ebezan eta basoan edo bakartadean bizi ziran. Orain gaixo hori kenduta dagoala esan geinke, baina guztiz kenduta ez dago. Orain be badira munduan hor-hemen legenar gaixo-etxean dagozanak. Holakoxe lepra gaixo-etxe baten Pablok berrogei urte igaro ebazan laguntzaile edo enfermero legez. Josulagundiko edo jesuita zan. Euskal Herria bihotzez maite eban eta noizean behin bere anaia-arrebakaz hamar bat egun igaroten etorten zan. Fontilles-Alacanteko lepra gaixo-etxe baten egin ebazan bere bizitzako azkenengo berrogei urteak. Noizean behin han ikusten ginan. Azkenengoz bera ikustera joan nintzana Loiolan (Azpeitian) izan zan.

Pedro Zuluaga, Ramon Bilbao, Pablo Arrotegi, Domingo Zuluaga. Lau gazte ibarrangelutar Gernikako arbolaren aurrean. 1935.

Loiolako Santutegia guztiz ederra, miragarri eta haundia da. Bertan dago Loiolako san Inazio jesuiten lagundia irasi, fundau, ebanaren jaiotetxea, baita hainbeste jesuiten santu eta jakitunen gomutagarriak, jesuitek euren ordenako zahar eta gaixo luzedunentzako gaixo-etxe ondo hornidua. Pablok zahartzaroan bere lepradunak zaintzen jarraitu eban, baina ondoez gogor bat etorri jakon eta eukazan indarrik gehienak galdu eta erdi paralitiko gelditu zan; horregaitik bere lagundikoak Loiolara ekarri eben. Buru argia eukan, ezin baina ibili tiki-taka barik. Bera ikusteko asmoz hara joan nintzanean azkenengo jiran, Santutegiko atarian egoan jesuita zintzo bateri honela esan neutsan:

–Paulo Arrotegi ikustera nator. Joan ninteke?

–Ez, ezin zenezake, hil dela bi egun dira.

Maitasun eta karidadez betea izan zan bizitzan, halantxe izan zan bere gaixo eta heriotzean be. Goian bego. Berak bedeinka gaizala.

ZIRILO OLABARRI (1912-1985)

Gaztetxotan Zirilo eta biok Ibarrangeluko eskolan, geure lehenengo ikastaroetan, batera ibili ginan; lagun ginan. Hamalau urte bete ebazanean eskolako ikastaroak amaitu ebazan. Merru-goiko baserri lanetan ekin eutsan gurasoei lagunduz. Hamasei urtegaz itxasontzi haundian kamareru lanean joan zan. Nik gehiago ez neban euki bere barririk hirurogeta hamaika urtean.

Berak baekian ni nor nintzan nigana etorri zanean, baina nik ez nekian nor zan neure aurrean neukan gizon heldua.

Zelako agur maitekorra emon geuntsan batak besteari, zelako besarkada pozgarria!

–Zirilo, –esan neutsan–, nundik nora ibili zara honenbeste urtean?

–Labur-laburrean esango deutsut. Hamasei urtegaz itsasora kamareru urten neban, eta han lau edo bost urtean ibili nintzan. Bide batez erdera egiten be polito ikasi neban santanderino eta galiziarrakaz. Ez jatan hain atsegingarri itxasoko bizitza eta Ameriketara joan nahi neban.

Geure itxasontziagaz New Yorkera joan ginan aldi batean, "Hauxe da nire erarik onena" esan neutsan neure buruari, eta maleta txiki bat eginda, saltau neban lehorrera. New Yorken Balentin Agirregana zuzendu nintzan. Balentinek entzute haundiko hotel bat eukan; eta euskaldunai batez be, ardura haundiagaz laguntzen eutsela banekian. Ardura haundiagaz niri entzun eta lagundu eustan.

Handik Utah Estadura joan nintzan eta artzaintzan hasi nintzan lanean.

Alditxo edo denpora bat igarota, mila eta hirurehun ardi emon eustezan jagoteko, horrez ganera artzain txakur bi, mando bi eta karro-kanpoa. Hau be bizibide gogorra zan: urteak daukazan hainbat gau eta egun bakarrik ibili behar. Astean edo hamabostaren behin kanperua etorren, bestela ez zenduan ezer entzuten, ardien be ta be, txakurren ahausiak, mandoen ostikadak eta basamortuko pizti eta gautxorien arrantza eta irrintzak… Arrantxoan eta jente artean nengoanean, orduan bai polito, ingeles be zerbait ikasten neban. Bakarrik mendian nenbilela bere, liburuakaz zerbait ingelesari ekiten neutsan. Hortik eta hemendik atonduta ingeles polito berba egin neban.

Sei urtean honela artzaintzan emonda, herrira joan nahi neban, beste gizon eta emakumeakaz berba egin. Herrian lana aurkitu neban, kobre meategi baten, eta andragaia be aurkitu neban, italiarra bera. Urte batzuk kobre mintegi haretan egin nebazan, baina badakizu zer dan urteak daukazan egun guztiak eguzkia ikusi barik bizi izatea?

Ezkondu nintzan; hiru seme-alaba daukadaz, andreak bere beste lan hobeago bat aurkitzeko esaten eustan. "Lurpean egoteko, gero be nahiko denpora daukat" neure buruari esaten neutsan.

Honetan, arrantxo haundi bateri, aspaldian lur jota egoanari, begia bota neutsan. Estaduko ingenieruekin luzaro berba egin eta arrantxo hori erosi genduan. Ingenieruen berbai jarraitu eta dana barriztau neban. Lan asko, buruko min asko, eta azkenean irabazten urten dot.

Sagar eta madarien arrantxoa da. Orain arrantxo guztiaren arduradun nire semea da. Nik lagundu eta bide onak erakutsi. Sagar eta madariondoak behar daben ura

Estaduak emoten deusku; saldu ezin dogun fruta guztia be Estaduak erosten deusku. Ni hona etorri baino hilabete lehenago, hogeta hamar tona sagar Egiptora saldu doguz. Sagar, madari eta abar batzeko, Mexikotik etorten dira langileak. Beharginok ibilten dabezan berariazko makinak alkilau egiten doguz. Honela guztiz ederto goaz geure arrantxoagaz.

ANTONIO IRIBAR (1849-1928)

Ibarrangeluko gizon asko beti izan dira itsasoko lanetan. Euretariko baten zuhurtasuna eta kemena ikusiko dogu. Ume nintzala, makurtuta makilatxo bat eskuan ebala ezagutu neban. Antonio Bolutakoa esaten geuntsan, Boluta izeneko etxean bizi izan zan eta. Behin batean, iturrira ninoian neure potinagaz, eta aguretxu horregaz topa nintzan:

–Txotxo –esan eustan–. Harri zapal hau beste honen ganean iminiko deustazu?

–Bai, –esanda, imini neutsan harria berak nahi eban legez. Jarri zan harri ganean, eta

–Ondo dago, eskerrik asko –esan eustan.

Oin dala urtebete inguru gizon batek holan esan eustan:

–Antonio Iribar ezagutzen zenduan?

–Bai –orain esan dodan harrien kontua esan neutsan.

–Neure aitita zan, Iñaki Iribar ni, eta bere bizitzako urterik gehienak Filipinetan igaro ebazan. Itsasontzietako nagusi edo kapitana zan. San Antonio izeneko ontzi handi baten kapitana zan eta Luzon ugartean egoan. Handik hogeta hamar milara beste itsasontzi bat galdu-gordean, hondora joateko arriskuan, egoala esan eutsen. Beste barik, bere esanpean egozan guztiak batu eta urten eban Luzonetik. Itxaso zabalean, bakarrik, egoera tristean aurkitu eban beste itxasontzia. Ehun eta bat lagun ekazan barruan, turismoko itxasontzia zan-eta. Antonio Bolutakok, oin D. Antonio Iribarrek, beste ontziko gizon-emakume guztiak aldatu, pasau ebazan; horrez ganera, zama edo kargamentu balio handikoa ekarren, zidarra. Lau egunean, han itxasoan horreek lanak egin eta ekarri ebazan Luzonera, baita erdi hondatuta egoan *turismoa* bere. Filipinetan entzute handiko kapitana, hango agintariei, Gobernukoai, itxasoko lanetan dabilzanai lege zintzo eta egokiak emoten lagunduten eutsena. Ehun eta hogei lagun salbau ebazana.

JUSTO ITUARTE (1895-?)

Laga hondartzara bidean, Zubibarriagako auzunean, bidebarri hegalean Aspendi deitzen deutsagun txalet polit bat dago, lehen baserri bat zan tokian. Baserri horretan jaio zan mutiltxo bateri izena Justo imini eutsen. Hamasei urte bete barri, lanean, kamareru, itxasontzi handi baten ebilen. Gero Ameriketara joan zan. Mutil azkar eta buru argikoa, New Yorkeko portuan denda handi baten jabe izatea lortu eban. Bere urte askotako lanak, ardurak, horrelako denda eder baten loratu ziran, frutu ederra emon eutsen.

Uda baten atsedena hartu behar ebala-ta, oporrak bere jaioterrian igaroteko asmoa hartu eban: eta bere emazteagaz etorri zan. Justoren etxekoak berariazko omenaldi bat emon nahi izan eutsen eta Ibarrangeluko ezpata-dantzari eta gorulariai dei egin eutsen Aspendira etorteko domeka arratsalde baten. "Bai, pozik bere joango gara!" erantzun eutsen dantzariak.

Eguna etorri zanean, dantzari, abeslari eta beste jente asko hara joan ginan. Dantzari, abeslari, panderetari eta abar entzun eta ikusita, guztiz pozik gure Justo agertzen zan. Gero, arratsaldeko merienda eder eta ugari bat egon zan danentzako: pastel, txanpan… eta eskupeko pozgarri bat dolarretan, udako ibilaldi edo eskursinorako.

Justo lehenengoa ezkerretik, Martin, Maria eta Agapito anai-arrebakaz.

Azkenean, talde guztiak, ondo ensaiata euken hau abestu eutsen:

Gazte gaztetatikan
Herritik kanpora
Estranjeri aldean
Pasa dot denpora.
Herrialde guztietan
Toki onak badira,
Baina bihotzak dino
Zoaz Euskal Herrira.

Justo, gizon sendoa, emozinoz negarrez ikusi genduan; eskerrak emon euskuzan, eta hauxe esanaz amaitu eban: azken abesti hau galtzairuzko hizkiakin idatzita (brontzezko letrakaz) neure etxeko aretoan eukiko dot.

OHITURAK

URTE-SASOIAREN ARABERAKO JAIAK

TXITXIBURDUNTZI

Aratoste aurretik ospatzen zan Txitxiburduntzi eguna. Lagun taldeak hautsaren aurreko eguenean ospatzen eben merienda-afaria, ahal izanik basoan edo zugazpe batean.

Burduntzia: metro erdi inguruko burdinea, punta zorrotzagaz suaren ganean zerbait erreteko.

KARNABALETAN

Gazteak eta umeak *marrau* jazten ziran, herrian euren janzkera itxura barregarrian agertzeko eta jolasteko. Arpegia guztiz margotu edo arpegia zerbaitegaz estaldu egiten eben.

PAZKO ALDIAN

Pazko Berbizkundean amabitxik euren besoetakoai mokotsa eroaten eutsen. Mokotsa: Gari urunagaz egiten zan opil gozo berezia zan, arrautza gorringoak horhemen itsatsita, edo beste zerbait gozogarri.

GORPUZTI JAIAK

Guztiz ospetsuak ziran jai honeek. Ohitura zanez, Ibarrangeluko sendi, familia askok hemendik kanpora bizi ziran etxekoak edo lagun hurkoak konbidatzen ebezan egun horretarako euren bazkarira. Ibildeun edo prozesino eder batek urteten eban eleizatik. Ibildeun horretan txupinak leher egin eta esplotateko Bilbotik ekarten eben behar zan polborea. Ibildeunak kanpoan bere ibiltaldia egiten eban bitartean eta aldizka, leher egiten eban txupin batek trumoi ikaragarri baten antzera. Geroago beste txupina. Soinulariren bat edo beste be etorten ziran, jenteari dantzan eragiteko. Pandero joleak be hemen ziran, tanbolinteruak... baita famosoa izan zan *Antonio Bibolinterua* be. Antonio urteoro etorten ei zan, bibolina jo eta bertsoak kanta. Hemen doa bere bertso bat:

Antoniok egin arren
Antoniok egin arren
Mutil gaztetzat burua,
Antoniok hantxe deukoz
Zazpi ume ta atsua,
Zazpi ume ta atsua
Mutil gaztetzat burua
Lara... larala...

Antonio Bibolinterua Bermeon bizi izan zan. 1940garren urtean Durangoko zaharrak be ezagutu eben persona zelebre hori.

Gorpuztiko prozesinoa. 1935.

Hona arte aitatu doguzan Gorpuzti jaiak gu baino lehenago bizi ziranak ospatzen ebezan. Baina aurretikoak ospatzen ebezan beste herri kirol batzuk be: txokor batzean, palankariak, sokatirak eta abar.

Gure sasoi inguruko Gorpuztiak jai ederragaz ospatzen genduzan. Egun horretan, goizean ida-ezpatak zabaltzen genduzan gure etxe aurretan. Ibildeuna, prozesinoa, txupin barik egiten zan, baina bai bolanderak erreten ebezan ugari, ospe haundiko ibildeuna zan.

Arratsalderako, Ibaetako auzunean batzen ziran hortik hemendiko titiriteruak, erroska saltzaileak euren otzara zabal-zabalak erroskila zuriz beterik, lapipirriak euren gozokiak zabal-zabal agertzen. Urteoro Gernikatik etorten zan Ramon Barkilerua, gizon txiki eta buru haundia; lepoan bonbo haundi bat ekarten eban barkillo gozoz beterik; astoak be bai, loraz apaindu eta gero asto-lasterketa egiteko; txokorrak, txokor lasterketarako… Lagun talde ederra batzen zan, herriko eta kanpoko.

Arratsaldeko lauretarako, paperetan eta, agertzen zan pelota partidu ezin ederragoa: urte batzuetan Elantxobe alde batetik eta Ibarrangeluko pelotariak beste aldetik. Hango zaletasuna eta garra nork irabaziko ete eban ezin zeitekean izan haundiagoa. Ibaetan ezin zeinkean ia ibilli. Han jentetza guztia zaintzeko guardia zibil bi euren mauserrakaz etorten ziran. Ez zan hareen beharrizanik: hango jentea jente baketsua zan.

Hurrengo urtean partidua Ea eta ibarrangelutarren artean eratuten zan. Soinulariak, urte batzuetan bi edo hiru dultzainlari, baita hemen entzute bikaina eukan Bilboko "Santa Zeziliako" bandea be. Hemen aitatu behar dot, Gorpuzti jaietan bertoko abade bat hil zala-ta, eleizatik hilerriraino "Santa Zezilia" bandeak soinu egokiak joten lagundu eutsala gorpuari. Gertaera hau oin, gitxi gorabehera, hirurogeta hamar urte jazo zan (1940 inguruan). Ordurik hona ez da inor hobiratua izan holako soinulariakaz.

Urte barruko domeka eta jai txikietan, arratsaldeetan, Ramon Tanbolinteruak Ibaetako enparantzan joten eban txistu eta tanbolina. Gizon hau be hainbat eta hainbat urtetan guztiz gizon entzutetsua zan. Semez Mendatakoa zan, hemengoa eban andrea: Ramon Omar eta Serafina Olaeta senar-emazteak. Ramon Omar Ibarrangeluko parrokiko sakristaua zan: gizon zintzoa, abeslari trebea eta abots zoli eta guztiz ederra eukana (*buen tenor* esango geunke erderaz). Horrez ganera herriko tanbolinterua. Areto bat eukan gizonezkoai ulea moztu eta bizarra kentzeko, pianoa joten be erakusten eban. Azkenez "Banco Urkijo Vascongado"ko (uste dot zala Bankua) arduraduna herri honetan.

San Andres eguna zan, herriko zaindari eta patroia; gure Ramon Omar, goizeko kale-jira egiten egoan bere tanbolin soinuaz. Lei haundia bota eban gau haretan, eta hotz benetakoa egiten eban kanpoan. Honetan amomatxo batek urteten dau bere etxeko atera eta holan dirautso: "Ramon, zelan joten dozu tanbolina dagoan hotzaz?" Eta Ramonek holan erantzuten deutso: "Nik ez dot joten dagoan hotzaz, eskuan daukadan zotzaz baino… sol, sol, sol, mi… tanbolin soinuz". Zelako abesti ederrak abesten eutsazan Ama Birjineari maiatzean.

Bere seme nagusia, Angel, aitaren antzekoa etorren, baina hemengo gerratean, gerrearen erruz, Zaragozako gaixo-etxe baten hil zan. Beronen heriotzea santuen heriotzea izan zan; sasoi haretako aldizkari eta errebistak azaldu eben zelan Angelek bere arimea itxi eban Jaunaren eskuetan. Beroneri eskatzen deutsat ibarrangelutar guztioi lagundu daiskula.

SAN JUAN SUAK

San Juan aurreguneko iluntzean, auzo bakotxak, gehienak behintzat, San Juan suak egiten ebezan. Ibaetan bizi ginanok, geure sua eginez. Ibinaga, Apraiz eta Durukizen egiten ebezan eta guk pozik ikusten genduzan. Hareetan erreten ziran sasiak, abarka zaharrak eta etxeko aparra-mantar eta sopita balio bakoak. Hantxe nahita erreten ziran aurreko urtean, San Juan egunean eleizan bedeinkatzen ziran lore-txorta zimeldu igartuak.

San Juan eguna, ekainaren 24an

Egun honetan etxe bakotxekoak, etxe aurrean, ida-ezpatak zabaltzen ebezan. Eleizara lora-txortak eroaten ziran bedeinkatzeko. Txorta bakotxean, gitxi gorabehera lora edo landara honeexek eroaten ziran: klabelinea, larrosea, maiorana, osasunbedarra, trumo-bedarra, zinta-bedarra, artoa eta garia, ortuariren bat, kuku-prakak, menda, andragina… Honeek danok batera eroatea ez zan beharrezkoa, batzukaz txorta polita egiten zan. Txorta bedeinkatu horreek hurrengo urteko San Juan aurreguneko suetan erreten ziran.

San Juan egunean baita, herriko alkatea, zinegotzi bigaz, Laidara joaten zan; hango pasaieruak, txaluperuak, bere ontzian eroan urez handiko herrien aurrera, eta ibaiaren erdi inguruan teila bat botaten eban uretara hauxe esanaz: “Ibarrangelua honaxe arte heltzen da”. Teilea uretara jaurtita, Laidako hondartzaren denporaldiari

San Juan bezperako sua. 2008.

emoten jakon hasierea, gero Lagako hondartzara be jarraian joaten ziran hondartza horreri be hasierea emoteko. Jirabira honeekaz bazkari on bat irabazita euken, joan-etorri guztiok oinez egiten ziran eta.

San Juan aurreguneko suaren inguruan hauxe abesten zan:

Erre sorgintxuak
Ondo erre
Arto garitxuak
Ondo gorde.
Eta Doniene, eta Doniene…
Doniene moniene
Bezpera gabien
Abadiek hasarratu zirien
Ez eben besterik egiten
Alkarreri musturrek ausiten.
Eta Doniene, eta Doniene…

IBILDEUNAK (PROZESINOIAK)

Orain dirala larogeita bost urte gitxi gorabehera, eleizatik urten eta Ibinagarako bidea hartzen genduan, orain dagoan enparantzaren hasieran jeurt, bira, egiten genduan, barriro eleizara etorri eta amaitzeko.

Ibaeta auzuneko bidekurutzean harrizko kurutze eder bat dago orain, eta bere oinean altarea dauka. Lorategi txiki bat dauka bere inguruan eta dana burdinazko ziriakaz inguratuta dago.

Orain larogeta bost urte hori Kurtziaurrea deitzen deutsagun tokian egoan. Gero udalak eta abadeak alkar harturik hauxe erabagi eben: orain Kurtziaurre deitzen deutsagun tokitik kendu eta oraintxe dagoan tokian ipintea.

Korpus Kristiko ibildeuna eta Bariku Guren egunekoa ziran ospetsuenak.



Prozesinoetako fariseoak jantzi barriakaz. Feliciano Zuluaga, Domingo Zuluaga, Pedro Zuluaga, Ramón Bilbao. 1935.

Korpus Kristi, Gorpuzti eguna

Goizean geure etxe aurreetan ida-ezpatak zabaltzen genduzan alfonbra baten antzera. Goizeko hamarretako Mezea amaitu eta hasiera emoten jakon. Abadeak eleizako kapa nagusia ipinten eban, intzentsua eta kea; sei gizon gertu palioagaz, eta zidar eta urrez eginiko Kustodia eskuetan ebala eta bertan gure jauna. Abadea paliopean joaten zan bolandera su eta gar artean eta eleiztar eta abeslarien kantu-soinu

polit ederrean. Palioaren ondoan hiru-lau umetxo zuriz jantzita aingeruen irudi ziran, eta san Migel irudikatzen eban mutil gazte bat. Eskuetan ezpata bat eroien, eta ezpatea eukan besoari berarizko mobimentua eragiten eutsan. Torreko joaleak, kanpaiak euren hots samurra Armendurarte bialtzen eben bitartean, ibildeuna han gelditzen zan, otoi eta abesti labur bat egiteko. Gero Ibildeuna Iturriozera heldu, gorantz egiten eban eleizan danentzako onespen, bedeinkazinoa emonda.

Bariku Santu

Beste ibildeun gertaera eta ospakizun handiagaz egiten zana Bariku Guren (Bariku Santu) arratsaldekoa zan. Ospakizun honeri hasiera honela emoten jakon. Eleizea gizon, emakume, ume, gazte eta zaharrez beterik egoala, ate nagusiaren karraskadea entzuten zan eta hemen datoz fariseoak, lau gizon edo mutil gazte antxinako erromatar legionario jantzita, eskumako eskuan asta-makila (lantza) bana eukela, lantzeagaz behea gogor be gogor joten eben euren oinakaz oholaren ganean zarrasta bat egiten ebela: holantxe eleizako ateetatik altara aurrera arte. Ikustekoa zan: umeak negarrez, gaztetxoak begiak zabal-zabalik zer jazoko ete zan, nagusiak itzal eta errespetoz begira. Altara aurrean Kristo Andakoa egoan eta lau fariseoak Kristori guardia egiten egoten ziran. Eleizkizuna amaitzerakoan ibildeunari hasiera emoten jakon.

Prozesinoetako gurutzatuak. 1968.

Lehenengoz san Joan Ebangelariaren irudia eroaten eben; atzeratxuago Andra Maria Nahigabetuarena, atzerago Kristo Andakoa, beronen lau hegaletan lau fariseoak, gero abadea lepotik beherako jantzi baltz ederragaz, azkenengo tropelean emakume guztiak; gizonezkoak san Juan eta Andra Mariaren inguruan; abeslariak *Stabat Mater* abesten. Ibaeta auzune inguruan dagoan kurutzera Kristo Andakoa heltzen zanean, danak gelditzen ziran eta abeslariak *Christus factus est* abesten eben. Abestia amaitutakoan, danak aurrera jarraitzen eben, danak azkenengo otoitzak amaitu arte eleiza barruan.

Aste Santuko prozesinoa. 1950.

Amaituteko hurrengo honeek esango doguz: azaldu dogun ibildeun honetan mutiltxo eta neskatxo batzuk be, Kristo Andakoaren inguruan, aingeru antzera jantzita joaten ziran eta euron aurretik mutil gazte bat san Mikel esanahiaz. San Mateo ebangelariak hauxe agertzen dau Kristoren nekaldia, pasinoia, azalduten dauenean; Kalbario mendian emakume batzuk egozala, euren artean Maria Madalenea, Maria eta Salome. Horren gomutaz, baita Beronikearenagaz be, herriko neskatila batzuk berariazko jantziekin joaten ziran, eta Beronikeak zapi bat eroaten eban Jesusen arpegi nekatuaren irudia eukana. Honeek danok Kristoren nekaldiaren testigu eta lekuko agertzen ziran.

Beste ibildeun batzuk

Beste ibildeun batzuk urtearen barruan ospatzen ziran. Maiatzaren hamabostean San Isidro, baserritarren goi-zaindaria. San Isidroren irudia parrokiak ekarri ebanean, abadeak aurretiaz barria emon eban, esanez baserritarren goi-zaindariaren egguna danak ospatu behar ebela. Maiatzaren hamabostean santu honen jaia haundikiro ospatuten ahalegindu behar zirala.

Eta hemen nire pitxikeria edo anekdota bat. Nik hamasei edo hamazazpi urte eukiko nebazan. Etxean nengoala pregoien zaratea entzun neban. Zer barri emongo eban pregoneruak jakin guraz, Ibaetako eskola aurrera hurreratu nintzan. Orduan herritarrak jakin behar ebezan barriak, notiziak, Etxaniz atabaleruak emoten ebazan herri osoan zehar. Lehenengoz eskuan eukazan atabal biakin luzaro erredobleak joten ebazan trankil eta nekatu barik. Jentea batzen zanean, partikeratik paper zabal bat etara eta irakurten eban honela esanez: "Jenteak: Alkate jaunak esan dost zuei aituten emoteko, eleizeak san Isidroren irudia ekarri dauela. Bera da baserritarren patroia, eta danok maiatz honen hamabostean hamarretako mezatara joan behar dogula, eta gero santu hau lau baserritarrek lepoan hartuko dabe prozesinoan eroateko tanbolin, tanbor eta txistu hotsean. Danok, ba, etorri zaiteze. Kontuan euki ba, ez datorrena atzamarraz edo plumeagaz apuntako dabe". Gero pregoilariak albista bardina, parrokiko beste auzo guztietan emon eban. Udalak herriari zer adierazo baeukan, pregoilariak auzorik auzo zabaltzen eban. Domekarik gehienetan, goizeko hamarretako mezatara etorten ziranak, eleiza aurreko enparantzan batzen ziran pregoia entzuteko.

Aste Santuko prozesinoa. 1964.

Beste ibildeun bat Jesusen egunaren jaian ospatzen zan, Jesusen Bihotzaren irudia eroaten zan otoi eta abesti artean.

Urriko igandean Errosarioko Amaren ibildeuna egiten zan bere irudi politagaz, bidean Errosario santua otoitz bigun, berba eta kantuz egiten zan. Letaniak bere oneraspen eta debozino haundia euki eben euren denporan. Letania ibildeun bat zan eleizatik urruneko eleiza edo ermita batera. Letaniarik sonatuenak san Pedro Atxarrekora bi ziran, san Gregorio egunekoa eta san Markosena. Goizeko zazpirak eta erdietan otoitzak hasten ziran eta "Santa Maria" abadeak esaten ebanean danak jagi eta martxan san Pedro Atxarrerako pausuak hasten ebezan. Lehenengo parrokiaren banderea, goian kurutze txiki bat eukana. Bidean, noizean behin, abadeak santu baten izena esaten eban eta danak "Ora pro nobis" erantzuten eben. Beste herriren bateko Letaniaren bat han inguruan agertzen bazan, lehenengo banderaduna bere bandereagaz ermitan sartzen zana herrikoak izaten ziran euren Meza eta otoitzak egingo ebezanak.

Letania osoa ermitan zanean eta abadeak bere otoitzak amaitu, san Gregorioren mezea ospatuten zan. Gero altaran gatza bedeinkatzen zan. Jarraian Sorginen dantzalekuan batzen ginan. Bost edo hamar zentimo ordaindu eta nahibeste ogi eta kopa bat edo bi katalin gorri hartzen eban. Bakotxak koilaratxu bete gatz bedeinkatu hartzen eban. Gatz hori uragaz nahastata soloak eta baratzak, ortuak, onespenduteko erabilten zan.

GABONETAN[1]

Gabon gabeko afariaren hasikeran, amak edo, hondino zatirik kendu ez jakon ogia hartzen dau esku batean eta eskuman daukan aiztoaz, kutxiloagaz kurutzea egiten dau ogiaren ganean "Salbatore" esaten dauen bitartean, eta ogiari zatitxo bat kentzen deutso. Zati hori gorde egiten dau, inork ez dau jaten zati hori. Gaur be nire etxean ohitura hau zaintzen dogu.

Kebonikoak kantetan Ibarrangelun, Jesus umearen irudiagaz. 1969.

Gabon aparia: Marraskiloak, karakolak, gerra aurretik, gitxik jaten ebezan; garrantzi haundiena besiguari emoten jakon. Turroiak erosteko dirua non? Intxaursaltsea, aza-orioa, koliflora, lapak, solomoa…

Umetxo edo gaztetxo nintzala Gabon aurreko bederatzi egunetan "Kebonikuak" abesten genduzan etxerik etxe. Gero itxaropen egunak hiru egunera laburtu genduzan.

Azkenengo egunean, abestiak kantau, eta iluntzeko zortzirak inguruan Ibinaga auzunean aurkitzen ginan. Danok itxaso ilunera begira, han urruneko aldean bi edo hiru itsasontziren argiak ikusten genduzan. Ume eta nagusi baginan berrogei inguru lagun. Holan esaten neutsen: "Ume eta nagusi: Itxaso zabal, luze eta haundi honetan, han urruneko aldean, itxasontzi bi edo hiruren argiak ikusten doguz. Gabon gau hau itxasoan, behar eta behar igaroko dabe. Hemen zagozen batzuen aita, anaia,

[1] Tradizino hau ezaguna da hainbat herritan: Arteaga, Ea, Gernika, Lekeitio, Mendata, Muxika. Izen ezbardinak hartzen ditu batean eta bestean: Abendua, marijesiak. Eako tradizinoaren ganeko monografía argitaratu dau hango Udalak: *Kantau edo errezau. Eako abendua,* Eako Udala, 2008.

Akordako umeak Gabon-kantuak etxerik etxe kantetan. 1982.

neba edo etxeko holantxe dabilz beste itxaso batzuen ganean. Danokaz gomutaten gara, eta danak gugaz gomutaten dira. Danon onerako eta osasunerako *Aita gure* bat esango deutsagu gure zeruko Aita onari: "Gure aita zeruetan…"

Hau amaituta, jarraian, "Hator, hator" abesten genduan.

Urtebarri egunean "Urtebarri" kantaten genduan etxerik etxe.

Gabonetako kantuak, etxeko lobakaz. 1977.

TRADIZINOAK ETA OSPAKIZUNAK

DOMEKAK ETA JAIAK

Domeka eta jai haundiak ez ziran arratsaldeetan, lehen aitatu dogun Ramon Omarrek alaituten eban herriko plaza ingurua bere tanbolin eta txistu zoliagaz. Domeka arratsaldeetan gizonezko asko eskolapeko bolatokian batzen ziran: batzuk bolaka jokatzeko, beste batzuk bolakariak jokoan ikusteko eta, bide batez, postura batzuk egiteko. Bederatzi txirlo eukazan jokoak, eta txirlo txiki bat *bostekoa* deitzen eutsena. Joko bakotxeko jokatuten zan kuartillo bat ardao eta opiltxo bat.

Gizon bat egoan izentauta ogia eta ardaoa tabernatik bolatokira ekarteko, gizon horrek *txaixerue* eban izena.

Hoin dirala larogei urte inguruko pitxikeria bat esan behar dot. Justo Etxebarria, Akorda auzunean jaio eta gaztetan, bere anaiakin, Ameriketara joan zan artzain. Bene-benetako gizon on eta taiuzkoa. Urte batzuk igarota, Justo bere anaiakaz batera halako arrantxo baten jabe egin zan. Arrantxo horretan hamar mila behi eta txahal (zekor) ei eukezan. Justoren alabea ezkontzen zala-ta ospakizun ederrak eratu ebezan: jana, jantziak, konbidaduak eta abar. Konbidaduen arteko bat Paulino Uzkudun, Europako txapeldun izan zana, boxeo burrukaria. Zapatu iluntzea zan, eta mutiko kuadrilatxu bat olgetan genbilzan Ibaetako enparantzan. Ezkontza osteko jana eta janariak amaitutakoan, gizon taldetxo bat, Uzkudun euren artean, eskolapeko bolatokira etorri ziran. Bost edo sei mutikook be sartu ginan bolatokira. Uzkudunek erantzi eban bere jakea, mahai baten ganean imini eta hartu eban bola nagusia. Guk ez genduan gehiagorik ikusi; mutikook banan-banan jantzi eta erantzi genduan Europako boxeo-txanpionen jakea. Nahiko nasai geunkan… Umeak beti ume, hemen nahi Madrilen!!!

TANBOLINTERUA ATEAN

Hau be danok ontzat hartzen genduan ohiturea zan: urte mordo bat Kalifornian, Ameriketan, eginda, poztasun betean bere etxera etorria zan gizon edo mutil eder eta guapua.

Amerikanua etorri eta bigarren edo hirugarren egunean etxeko ate aurrean egongo zan tanbolinterua herri guztiaren izenean ondo etorria esaten txistu eta tanbolin hotsean. Barrura joateko etxeko atea zabaldu, bostekoa emon poztasunez, eta mahaian jarri hamaiketako egoki bat hartzeko kontu ederrak esaten ebezanean. Azkenean tanbolinteruak eskupekoa hartu eta danak pozik.

Handik etorri nintzan
Larai lai
… miloen jabe.

BIDE IMINTEAK

Urtean behin Udalak dei egiten eutsen herriko auzoei, arratsalde bat edo bi behar zirala auzo-bideak atondu eta konponduteko. Familia bakotxetik lagun batek, gizon nahi andra, joan beharra eukan. Sendi, familia, batetik inor ez bazan joaten, gizon batek arratsalde batean irabazten eban alogera auzoari emon behar eutsan; gaixoagaitik edo derrigorreko zio bategaitik ez zana joaten, horrek ez eukan alogerik emon beharrik.

Alkateak auzo bakotxeko bat laneko arduradun edo nagusi izentetan eban. Iluntzean auzo bakotxeko langileak euren afaria egiten eben. Afari hori batzen ebezan alogeren diruagaz ordaintzen eben, eta zerbait gehiago behar bazan, hori Udalak ordaintzen eban. Arratsalde pozgarria eta iluntze alaia igaroten eben danak, eta auzo-bideak argi eta garbi gelditzen ziran. Herriko jentearen artean alkarregaz lan egiteko eta batak besteari laguntzeko zaletasuna sortzen eban ohitura honek.

Zelako eder da polit
Holan lan egitea
Maitasunean danok
Herria zaintzea.
Eup!

JAIOTZA

Ama bateri bere seme edo alabatxoa jaiokeran edo hilten bajakon, noizean behin, behintzat, erabagi hau hartzen eben ama batzuk: “Hurrengo baten seme edo alabea ondo etorten bada, nire senarra edo etxekoren bat joango da bide-kurutze batera eta handik lehenengo igaroten diran biak neure seme edo alabearen aita-besoetako eta ama-besoetako izentauko dodaz, eta izena, ahal bada, Bentura iminiko jako”.

Umea bateatu eta gero aitabitxik ume eta haundientzako gozo eta txanponak zabaltzen dauz eleiza aurrean.

Bateoko bolo-bolo. Ibarrangelu, 1981.

GAIXOAK ETA HERIOTZEA

Gaixo gogor eta arrisku haundikoan baten bat jausten bazan, Eleizakoak eta Untzinoa hartzen ebazan, Jaunari Eleizeak gaixoaren osasuna arren eskatzen eutsala.

Etxekoren bat hilten zanean, herriko eleizan hil-kanpaiak jo egiten ziran, auzokoak hildakoaren etxera joaten ziran otoi egiten, eta baita han gaua igaroten be. Gorpua egoan inguruan, kuadro-argazkiak oihal ilun bategaz, eta espiluak oihal baltzakin estaltzen ziran. Gorpuaren senar edo emaztea baltzik jazten zan, seme-alabak be bardin, baita neba-arrebak be. Urrunagoko senidetasuna eukenak (lobak, lehengusuak) jantzi erdi-ilunak jazten ebezan. Erlauntzen jabe baziran etxe horretakoak, erlauntz bakotxari oihal txiki baltz bat edo zotz bigaz egindako kurutze txiki bat ipinten eutsen. Baltzik jantzita ibilten ziran urtebete gitxienean. Hiletak amaituta, bazkari bat emoten jaken hilaren senide, auzoko eta urrunetik etorten ziranai. Nire ustez, honelako bazkari bakotxean berrogeiren bat batuko ziran. Horrez ganera, ogia eta ardaoa nahi eben guztia eleizako hiletara etorri ziranai. Hau kontzejupean emoten zan. Ohitura hau, bazkariena eta ogi eta ardaoarena, kentzea gauza gatxa izan zan. Hiletak hiru eratakoak egozan. Vatikanoko Kontzilio edo Batzar nagusiaren inguruan, uste dot danentzako era bateko hiletak imini zirala. Eta amaitu ziran jan-edan horreek.

BAIMENA

Idazten gagozan puntu hau amaitutakoan "Dantzariak" idazburua daukana izango da. Gauzak hobeto ezagutu eta jakiteko eta bakotxari berea emoteko dira irakurten zagozan lerro honeek.

Alkarrenganako bake eta maitasunean ahalegintzen ginan bai kristaukuntza baita gizarte heziketa erakusten, zabaltzen gure gaztetxuak poz-pozik ebezala bide honeek ikasten eta praktikatzen. Gazte honeek batzartuta egozan Eukaristi maitaleak guk deitzen geuntsen batzarrean (erderaz, "Cruzados de la Eucaristía"); euren otoitzak, etxeko eta kanpoko portakizun onak, alkarreri laguntzeko zaletasuna, sarritako jaunartzea eta abar ziran danon eginbehar eta ekinaldeak. Euren batzarreko bandera ederra hondino ondo gordeta dago Ibarrangeluko eleizako sakristerian.

Gaztetxo honeei gizarte ikasketa batzuk bere ondo etorriko jakezalakoan gengozan: solfeoa, euskera apurtxo bat bizkortu eta landu, abesti eta folklorea. Baina honetarako lege gogor bat euki behar genduan gogoan: galazota egoan batzarrak egitea goiko baimen barik. Horretarako baimen hori eskatu genduan, baina ezezkoa izan zan erantzuna; ez genkian, ba, zer egin.

Herriko alkate jaunari baimen hori eskatu behar geuntsala gogoratu jakun.

Gure eskola-mutiltxoak eleizako zereginetan ondo erantzuten eben; txandaka eskola mutil guztiak monagillo ziran, eta zelako ardurea ipinten eban bakotxak gauzak zintzo eta kurioso egiten! Holakoxe portakizuna eukiko eben gizarte arazoetan bere. Alkate jaunari geure asmoak esan eta gero, horretarako baimena eskatu geuntsan. Ontzat hartu euskun gure asmoa eta inongo eragozpen barik aurrera jarraitzeko esan euskun. Eta geure lanean hasi ginan. Erarik eta arlorik onenean genbilzala, salakuntza politiko laukotxaz guzurrezko akusatuak izan ginan, eta Bizkaiko gobernadore zan Genaro Riestra jaunak, gauzak argi eta garbi ikusteko, bere aurrera joateko agindu euskun hainbat lasterren.

Esaten ebezanak entzunda ez zan gauza gozoa Gobernu Zibilera joatea. Salaketa politikoa laukotxa zan, hau da, lau salaketa. Gobernadore jaunak agertu eustazan banan-banan zeintzuk ziran salaketa horreek, eta salaketa bakotxari erantzunez, bat bera be ez zala egiazkoa, laurak zirala salaketa faltsua agertu eta probatu neutsan, egiazko oinarri bakoak zirala. Riestrak ez eustan erantzun gogorkeriaz, ez eustan esan ezer txarto egin nebanik. Bakez eta alkarrenganako itzal eta errespetoz agurtu ginan. Pozik handik urten neban neure kautan esanez: "Amaitu dot ipuin hau". Ez zan, baina, halan izan. Gobernadoreak ixilean, obispadura bialdu eban salaketa osoa. Hasi ziran isileko lanak eta abar. Herriko alkate jaunari be informea eskatu eutsan Riestrak. Eta hemen Juan Mari Angisolaren gizatasuna eta kristaukuntza agertu ziran. Politikearen aurrean burua makurtu barik egia aldeztu eta defenditzeko Angisolak Gobernadoreagaz berba egin eban, gauza bakotxari bere indar benetakoa emonez, eta poliki-poliki lau salaketak kea legez ezereztu ziran. Juan Mari Angisola herri honetako osagile zan eta horrez ganera Espainiako Ejerzitoko osagilea, *Capitán* titulu edo graduagaz. Berari esker geure lanean jarraitu genduan.

Gizon gaztea zala, gaixo txarrak hartuta, Lagan Galdarapozu inguruan dagoan bere familiko etxean, kristau on baten legez hil zan.

Goian bego. Guk eta *Lorea* taldeak berari eskerrak emotea bidezko gauzea dala uste dot.

DANTZARIAK

Guk dakigunez 1914garren urtean gitxi gorabehera eskola-umeen dantzari talde bat baegoan Ibarrangelun. Zuzendaria D. Bitor Gonzalez de Txabarri zan, hemengo Udaleko idazkaria. Gizon guztiz zintzoa, herri guztia beragaz oso pozik egoana; beraren alabantzak sarri entzun genduzan geure umezaro eta gaztezaroan. Europako gerrea amaituta zabaldu zan gripearen indarrez hil zan (Goian bego). Durangon jaioa zan. Berak hemen irasi edo fundau eban taldean Ezpata-dantzariak (mutikoak) eta Gorulariak (neskatilak) dagoz. Daukagun argazki bakarrean euren makila, zaragi eta txarrantxakaz agertzen dira.

Urte batzuk igaro ta gero

Dantzari guztiak gure eskoletako mutil eta neskak ziran. Ekitaldi honetako gure asmoa gaztetxo honeen heziketa zan, baita herrian alaitasun apur bat gehiago zabaltzea be. Egunero batzen ginan eurakaz dantzan erakusteko, euskera ikasteko eta abar. Herri honetako abestiak be batzuk batuta geunkazan eta beste batzuk be lortu genduzan; baina danak Ibarrangelun abesten ziranak edo aurreragoko urteetan abesten ziranak.

Lorea taldea. 1950.

Honetan, Ignazia Urizar, emakume zintzo eta buru argikoa, larogeiren bat urte ebazana, bere gazte denporan abeslari eta pandero-jotzailea izan zala jakin genduan. Gure eskabidea ontzat hartuta, gaztetxuai panderoa joten eta abesti zaharrak abesten erakusteko ardurea hartu eban. Hogei neskatila ziran bere ikasleak. Txistu eta

tanbolina joten ikasten ebilzanak beste hogei edo gehitxuago ziran. Gai hau estutasun barik hartuta osotu zan "Lorea taldea". Izen hau imini geuntsan talde honeri. Herriko jai handietan, eberdiko mezea amaitutakoan, eleiz aurrean, eta arratsaldean Ibaetako enparantzan, dantzan egiten eben. Ikusle eta entzule asko be asko batzen ziran batez be arratsaldean.

Albo herrietara be sarri deituten euskuen. Deitzen euskuen herrietara dubarik joaten ginan, inori dirurik eskatu barik.

Danak ezin geinkez esan, baina hiru-lau edeski edo anekdota azalduko dodaz.

Gotzaina Gernikan

Bizkaiko lehenengo Gotzaina don Casimiro Morcillo Gernikara lehenengoz etorri zanean, Obispo jaunari ondo etorria egiteko, Gernikako Andra Mari eleizako parroko jaunak, Fernando Arsuagak, arren, hara joateko dantzariekin eskatu euskun. Eta han dantzatu ziran gure gaztetxoak.

Ijitu-kitanuen ezkontza

Udetan gaztetxo honeekin eta euren etxekoekin ibilaldi polit bat egiten genduan autobus bitan. Urte haretako ibilaldia Estibalizera eratu genduan, handik Gasteizera. Heldu ginan Estibalizera, mezea ospatu, eleiza handi haretako edertasunak ikusi eta gure jentea zabaldu zan hango inguruko zelaietan, gazteak euren jokoetan. Eleiza inguruan guk ezagutzen ez genduzan asko batu ziran; kitanuak ugari ebilzan. Honenbeste lagun ibilten da hemen egunoro?

Lorea dantza-taldea. 1971.

Baina gaur kitanuen ezkontza bat dago; Gasteizko agintari eta politiko batzuk be hemen dira. Ordua da, baina nobia kitanea ez da agiri. Praile beneditarrak zaintzen dabe eleiza eta konbentua. Begoñako Ama Bizkaiko zaindari dan legez, eta Gipuzkoakoa Arantzazukoa, Arabako zaindari Estibalizko Birjina da. Han nenbilen ni bere, eta praileen nagusia etorri jatan eta holan esan eustan:

–Hemen zuriz jantzita dabilzanak dantzariak dira?

–Bai –erantzun neutsan.

–Ezkontza honeri ospakizun handiagoa emoteko dantzan egingo leukie?

–Bai, ez dago eragozpenik. Non eta noiz dantzan egin eta arkua formau zeuk esango deustazu.

–Bai, eskerrik asko.

Deitu neutsen dantzariai eta zer jazoten zan esan neutsen. Gertu eta konforme egozan.

–Ez urrun joan, hemen inguru honetan ibili!

–Bai.

Ordua pasauta, baina nobia falta. Batzuen batzuei hau esaten entzun neutsen:

–Etorri egingo ete da kitana hori, gero?

Ordubete igaro eta agertu zan nobiaren autoa. "Ea, mutilak, gertu hor zeuen tokietan". Eta dantzatu eutsen ezkongai kitanu biei; eta han inguruan kitanu-kitanak egozan harrituta gaztetxoen dantzakin eta ohiuak entzuten ziran:

–Olé, olé tu mare…

Liverpooleko gotzaina

Eako txaunburua, parrokoa, D. Zezilio Agirre zan. Esaten etorri jatan:

–Liverpooleko Obispoa dator Eara hemendik hamar egun barru. Etorriko zara dantzariakaz?

–Bai, joango gara, nasai egon.

Jose Mari Montaner Zubieta 12 urteko mutiltxoa zan. Buru argikoa, zintzoa eta ausarta, atrebidua.

Holan esan neutsan:

–Jose Mari, Eara Liverpooleko Obispoa dator. Berari ondo etorria emoteko "Agur" bat idatziko dot. Zuk saludo hori buruz ikasi ta berari esango zeuskio?

Eta Jose Marik erantzun:

–Bai, bai, ikasiko dot eta esango deutsat.

–Baina, Jose Mari, agur edo saludo hori englanderaz, ingelesez egongo da.

Eta Jose Marik:

–Bai, ikasiko dot, txino badago bere.

Bilboko ingeles konsuladuan, konsulen laguntzaile Angel Zuluaga egoan, ibarrangelutarra, eta hareri esan neutsan hauxe:

–Agur, saludo bat egin deutsat Liverpooleko Gotzainari esateko. Zuk, arren, hori ingelesez iminiko deustazu berba egiten dan legez, ez "gramatikalmente"?

–Aituten dot zer esan nahi dozun; pozik be egingo deutsut hori.

Holan ba, Ean, San Joanen eleizan mezea ospatuta, jentetza handia joan ginan itxas ondoan dagoan pelotatokira. Jarleku batzuk be baegozan eta euretariko baten

jarri zan gotzaina. Txistu eta tanbolin eta pandero soinuan gelditu ziran dantzari guztiak gotzainaren aurrean. Ixilune bat. Jose Marik erdira urten eban, erreberentzia egin eta buruan eukan txapel gorria jaurti eta berba sendo eta zoliagaz:

–Gut moni, Faber…

Gotzaina orduan, guztiz mira eginda, bere jarlekutik jagi zan pauso batzuk aurrera emon ebazan hobeto entzuteko, eta jente guztia ixilik zurtz eginda egoan. Bere ingeleskadak amaitu ebazanean, Liverpooleko gotzainak, pozez beterik, Jose Mari besarkatu eban eta han gengozan guztien txalo zaparradea handia izan zan. Jose Mariren berbaldia labur-laburrean esateko hauxe izan zan:

"Egunon aita. Eskerrak zuri Euskal Herrira eta Eara etorri zarealako. Gu pozik gagoz zu hemen egoteagaz. Guk sarri entzun dogu Liverpool, Liverpool, ba gure herrietako gizon asko itxasgizonak dira eta Liverpooleko portuan sarri egon dira."

Begoñara

Bizkaiko herrietako Andra Mariaren irudien erakusketa egon zan Bilbon. Herri bakotxak berak ahal dauentxua egin eban irudi horreek ondo erakusteko. Guri geure dantzari guztiekin laguntzeko eskatu euskuen. Eta Bilboko Udaletxe aurrean batu ginan ibarrangelutarrok, Begoñararte oinez aldatsa igon genduan, han txaloka hartu ginduezan eta han Begoñako Andra Maria goratu eben euren dantza eta abestiakaz.

Lorea dantza-taldea Bilbon udaletxearen aurrean, Begoñara bidean. 1954.

Ereñon meza barria

Ereñoko herria abade eta herritar baten lehenengo meza barria ondo ospatzekotan ebilen. Ospakizun horretara geure dantzari eta abarrekin arren hara joateko eskatu euskuen. Ibaetan batu ginan egun haretako goiz ederrean. Ala! danok Ereñora! Zarata larregirik ez egiteko, hogei pandero-joleak, eleizatik kanpora, eleizpean hegaltxo baten euren panderoak itxi ebezan. Eleiza ondoko enparantzan euren arloa hasi eben geure gaztetxuok: Mutiko batek, bertso batzuk abestu ebazan; txistularien kontzierto labur bat, abestiak eta dantzak.

Dana amaitu zanean, plaza barrenean hara eta hona nenbilen. Honetan, gizon bi hurreratu jatazan, agurtu ninduen, itaunduten hasi jatazan: nongoak ginan, nor zan horren erresponsable, eta zertarako nenbilen. Honeek itaunok ondo orraztuta esaten ebezan. Meza barriko bazkaritarako konbidaduak zirala uste izan neban, baina apurtxo bat ardureagaz.

Honeek biok joan eta lasterrera non jatortan, nahiko larri, Gernikako artziprestea, eta holan diraust:

–Badakizu nortzukaz egon zarean berbetan? D. Jenaro Riestrak hona bialdutako "polizia sekretak" izan dira horreek, gu mezatan egon gareanean, horreek eleizpean egon diran pandero guztiak banan-banan ikusi dabez, ia bateren bat lazo zuri, gorri ta berdeagaz horniduta badago; badakizu ikurrina delitu handia dana. Gero hor-hemen, hor-hemen itaunka ibili dira, eta azkenean zugana etorri dira. Eta zuk zer?

Lorea taldeko dantzariak. 2004. "Ume atzo, gaur gizon, beti dantzari on. Hoy hombre, niño ayer, siempre dantzari fiel."

Oraingo Lorea taldea. 2008.

–Trankil egon, D. Fernando, –erantzun neutsan–; nik guretzako kaltegarri izan leikeanik ez deutset ezertxo be esan.

Horrela ba, bisita hain konprometidua guretzat ez zan izan kaltegarria; gure dantza eta gorabeheretan ez eben aurkitu ezer txarrik eta.

Ispazterren

Santiago-Santa Anak beti ardura eta gogo handiz ospatu izan dira Ispazterren. Geure dantzariakaz hara joateko deitu euskuen. Pozik joan ginan. Herriko lehenengo etxeen inguruan dantzari guztiak, bakotxa bere tokian: Txistu tanbolinteruak, pandero-jotzaileak eta abar. Danak martxa baten soinura hasi ziran. Hori entzun ebenean ispaztertarrak euren balkoi eta leiho, bentanak, zabaldu eta txaloka eta goraka, eta eupadaka ekin eutsen. Halakorik! Halako harrera eta errezibimenturik! Ia bilduirra emoteko zan. Honela sartu ginan eleizara meza santua ospatzera. Ez jat inoiz ahiztu zelako harrera bikaina egin euskuen. Eskerrik asko!

IPUINAK

SORGINAK, LAMINAK?

Gaztetxo ginala sarritan entzuten genduzan, bai etxean, baita kanpoan be, sorginen ipuinak, sorginekin eta sorginei jazotako gertaera harrigarriak.

Lehenengoz hona hemen neure etxean entzundako ipuin bat.

Bizkaiko herri auzuna baten baegoan etxe polit bat. Andra-gizonak bizi ziran bertan. Egunez baserriko lanetan ibilten ziran: behi bi eta hiru txahal (zekor) eukezan kortan. Gabetan, afaria jan eta handik gerotxoago gizona lotara joaten zan; andrea, baina, goruetan gelditzen zan beste apurtxo baten.

Behin baten, andrea goruetan egoala, tximiniko zulotik behera jatsi jakon katu eder bat, eta andreari holan esan eutsan: "Txitxi ta papa, papa bustia". Andreak aitu eutsan zer nahi eban sorginak eta urdaiazpikoaren zati polit bi, ogi zati bat eta txakolina gertau eutsazan. Katuak dana jan ebanean tximiniko zuloan gora iges egin eban.

Hurrengo gabean be bardin jazo zan: Txitxi ta papa, papa bustia… eta halantxe lau edo bost gauetan. Andrea, sorginaren bildurragaitik, ez zan ausartuten bere senarrari esaten zer jazoten jakon gauero. Gizona, behin baten, zuhur egoan ea ezkaratzean zerbait jazoten ete zan. Susmau eban bai, zerbait. Berbaroa zan ezkaratzean, zurrumurrua…

Hurrengo goizean gizonak holan itaundu eutsan andreari:

–Malen, bart nogaz egon zara berbetan?

–Ai! Praisku, bildurretan bizi naz ni, bai jazoten jatanagaz, eta baita bildur zuri esateko!

–Malen, esaidazu bildur barik eta konfiantza osoz jazo jatzun guztia.

–Ba, Praisku, sorgin bat tximiniko zuloan behera… (Eta Malenek, bildurraren bildurrez dar-dar, dana esan eutsan Praiskuri).

–Bihar gabaz neu jantziko naz andra eta gorulari.

Gabean Praiskuk jantzi ebazan bere andrearen gonak, buruko zapi, painelua ipini eban, hartu eban gorua eta goruetan hasi zan Praisku, bere ondoan egur trokotz ederra eukan.

Jatsi zan katu-sorgina tximinian behera eta holan esan eutsan Praiskuri:

–Txitxi ta papa, papa bustia… eta gizona eta goruetan?

Eta Praiskuk:

–Katua eta berbetan?

Eta alboan eukan egur-trokotza jaurti eutsan katuari.

Katuak irrintza batzuk eginda, iges egin eban tximinitik gora. Hurrengo goizean auzunean jakin zan Mari Txortak anka biak apurtuta eukazala, eta zergaitik izan zeitekean. Praiskuren etxekoneko Bixentek isilpean esan eban: Ea Mari Txortari sorgintzuren batek txarto urten ete deutsan…

Malen eta Praisku, han inguruko beste sorgin batzuen bengantzaren bildurrez, beste urruneko herri batera joan ziran.

ANBOTOKO DAMEA

–Nor da hori Anbotoko Damea deitzen deutsena?

–Bai, batzuk egia dala dinoe, bestetzuk ez dala egia.

–Zuk zer dinozu?

–Nik horretan ez dot sinisten baina, hor dinoenez, Anbotoko Damea sorginen erregina lakoa da. Anboton hatx-zulo baten bizi ei da. Handik bakar-bakarrik urteten dau denporale gogorra dagoanean; trumoiak eta oinestuak gogor joten hasten diranean, orduantxe urtetan dau Dameak gisatsezko garbigailu edo eskoba baten ganean. Anbototik urteeran holan esaten dau: "Sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik". Orduan aidean doa txori haundi baten antzera, eta bidean bere ule luzea orraztuten joaten da.

–Zuk sorginik ezagutu dozu inoiz?

–Nik hamasei urte inguru nebazala ezagutu neban Ibaeta auzoko erreka ondoan egoan etxe baten bizi zan andratxo bat; jenteak esaten eban sorgina zala, eta orraztokikoak eukazala.

–Zer da "orraztokikoak"?

–Orratz-tokiak tubo antzeko ontzitxu batzuk dira orratzak gordeteko; ba, horrexelako ontzian gordeten ei ebezan "kokoak", eta baten bateri kalte egiten eutsanean sorginak, halakoxe "kokoa" ipinten eutsan besteari bere jantziaren ganean, eta horrela agertzen ziran begizkoak, gorputzeko minak, disgustuak eta abar.

Nik uste dot ondinoko hemen bizi garan 1935garren urte honetan be batzuk sorgintzuko gauza batzuk egiten dabezala.

–Zeintzuk?

–Baserri batzuetan, behiari txahala egin eta gero eratsiten jakon lehenengo pitxarkada esnea kortako hormetan zabaltzen da. Nik itaundu dot zergaitik hori egiten daben, eta holan erantzun deuste: "Ba, dinoe "Adoak" eskatzen dabela hori, osterantzean behiak esne gitxi emongo dau". Edo sagarrak batzen dabezanean, ez deutsez danak, sagarrondoak daukazan frutu guztiak batzen, hiru edo lau sagar "Adoentzako" ixten ditue.

–Bai, holan da; ez dabe sinisten horrelako gauzetan, baina badaezpadan…!

PERULO NOBIA BILA

Perulori bere amak holan zirautsan behin baten.

–Baina, nor zan Perulo?

–Perulo, Peru eta Mariaren semea zan. Hogeta hamarren bat urte ebazan, eta santiago apur bat falta jakon bere adimen edo inteligentzian. Amak, ba, holan zirautsan:

–Txotxo, urteak aurrera joatzuz eta zer edo zer pentsateko sasoia be heldu jatzu, eta handik edo hemendik nobia on bat bilatu egin behar zeunke.

Perulok zintzo-zintzo bere amari entzuten eutsan eta…

–Baina, ama, zelan bilatzen da ba…

–Zelan bilatzen dan? Hemen auzo honetan bizi dira neska batzuk eta ikusi zein dan egokiena zuretzako; gero beragaz sarri-sarri berba eginda…

–Bai, ama, holan egingo dot.

Hurrengo egunean Perulok urten eban, etxeko txakurra lagun ebala, eta lehenengo egoan baserri-etxera joan zan. Etartean, hari-orratz luze bi eskuetan eukazala puntilea egiten Lorin izena eukan neskatila bat egoan.

–Hola, neska, biok ezkondu egin behar gaituna, eh?

–Nondik norakoa da mutil astoburu pelele, santiago gitxikoa… Ut hortik! Kanpora hemendik.

–Hirekin ez bada beste batekin –esanda, *Lagun* txakurrari–, hemen etxagok zer eginik eta…

–Au, au, au.

Haruntzago egoan beste baserri-etxe bat eta hara jo eben Perulok eta bere txakurrak. Etartean etxe haretako alabea egoan artaburuei kapuxa kentzen, eta artaburuak garanduten.

–Pilar, biok ezkondu behar gara; denporea pasetan doa eta halan…

–Zer dabilstazu goiz honetan horrelako inuzentekeriak esaten! Edan egin dok ala, burubako tontoorrek?

–Higaz ez badon beste batekin. *Lagun,* goazen hemendik.

–Au, au, au…

Badoaz bidean zehar hirugarren baserri-etxera. Hango neskatileak Bartola dauka izena, eta txarrikortea garbitzen dabil.

–Kaixio, Bartola, zelan bizi zara?

–Ondo bizi naz; ez daukat ezeren kejarik…

–Bartola, biok ezkondu behar gara, zu nigaz ta ni zugaz, eta ondo izango gara…

–Ixilik egon hadi tentelori; joadi hemendik!

–Hirekin ez badon beste batekin. *Lagun*, goazen hemendik…

–Auuuuuuuu

Jira eginda, Perulo eta txakurra badoaz euren bidean eta Bartolak dei egiten deutso:

–PERULOOO, Peruloooo, etorri zaitez hona, zuk esan deustazuzan berba samurrak bihotza be bigunduko leukie-ta. Gu alkarregaz ezkontzea nahi dozu?

–Bai, bai, horixe nahi dot.

–Neuk bere bai, horixe nahi dot… Ointxe noa neure amari eta aitari esaten.

–Neu be, banoa neure aitari eta amari esaten… Bihar etorriko naz.

Ezkondu egin ziran, eta alkarren antzekoak ziran legez, ondo bizi izan ziran.

Zer dan "boteroa"? Alde batetik beste aldera, itxasoa edo ibai zabala erdian dala, bere boteagaz edo txalupeagaz, jentea eroan edo ekarten dauen gizona.

Hainbat urte aberatsak eta ezeukiak eroan eta ekarten… eta bera beti ezeuki, beti praka zaharrekin.

–Hau dok bizimodua, bizimodu pobrea –esaten eban sarri berekautan.

Behin baten, uraz handik azeri bat hurreratu jakon ta:

–Junpe –esan eutson–, beste aldera eroango nozu?

Junpek bere barrurako: "Hau dok istilua, azeriak be badaki nire *apilledua"*.

–Bai, bai, eroango zaitut, baina hiru erreal emon behar deustazuz.

Azeriak:

–Hor ba, pobre bizi naz basoan; ez daukat txanponik; umeak egiteko nago, nire seme-alabak uraz handikoak izatea nahi neuke ta… nik… nik txanponik euki ez arren… txanponaren ordez filosofia erakutsiko deutsut. Hiru egia biribil esango deutsudaz, eta horren filosofiaz aurrera egiten badozu, gizon haundia izan zeintekez.

–Etxakiat ba,… filosofi hori zer dan be etxakiat eta…

–Bizitzan ausarta, atrebidua, izan behar da. Antxinako filosofoak be holan esan eban: "audaces fortuna juvat". Badakizu zer esan nahi dauen horrek? Ba hauxe; ausarta, atrebidua bazara, suberte onekoa izango zara. Nahi badozu, hiru egia biribil esango deutsudaz, eta hirurak ondo jorratuten badozuz, gorago igoko dozu. Oin marineru baino ez zara, gero piloto edo kapitan izango zara.

–Baai?

–Bai, ziur egon.

–Hasi hadi heure hiru egia biribilekin. Salta botera.

Azeriak botera barrura salto egin eta holan esan eutsan Junperi:

–Hau da lehenengo egia: ama guztiak maitagarriak dira, baina ez dago norberaren ama baino maiteagorik.

–Bueno, bueno, egia dok hori be, baina…

Bide erdira heldu ziranean, txalupea han ebilen batera eta bestera olatu artean, eta Junpek:

–Botaik bigarren filosofia.

–Gabaz eta etxean argia biztu orduko dana da iluna, ez da ezer ikusten, baina kruselua amak biztuten dauenean zelako poza bihotzean, ezkaratzean orduan dana ikusten da argi. Eguzkiak eberdian zure etxea joten dauenean, zure etxeko kamara, gela eta korta, ezkaratz, danetan zelako argi eder eta bikaina. Kruseluaren argia baino hoba da eguzkiaren argia. Eguzkiaren argia ederren eta pozgarriena da, horrez ganera berau dogu merkeena, ba, kruselua erosi egin behar da, baita harentzat metxa eta zaina be. Eguzkia dubarik da eta ez dau behar metxarik.

–Hoooori be egia dok, baina horren filosofia niretzako non jagok?

–Aurrera beti, azkenean kantauko dau oilarrak.

Uraz handiko lurra jo eben eta azeriak bizkor lehorrera salto egin eta holan dirautso boteroari.

–Botero, hirugarren egia biribila hauxe da: Nirelako asko, ni legez, eroan eta ekarri egiten badozu, ez jatzu faltako praka zaharrik soinean.

–Azeri deabruori, atzipetu, engainau nok, baina… baina… baina…

Ordutik aurrera, esaten dabe hau: Ez dirala falta azeriak ez uraz handik ez uraz hemendik.

LAN BILA

Brunok lan bila urten eban etxetik. Hainbat denpora etxean zentimorik irabazi barik eta "Oraingoan bai bilatuko dot beharra nun edo han" inoan.

Baserri-etxe batera hurreratu zan, "Arratsalde on" esan eutsan etartean burdia konpontzen egoan gizonari.

–Baita zuri bere.

–Ni lan bila nabil; ni kriadu edo hartzeko…

–Bai badaukagu lana, ugari euki be; gelditu zaitez hemen gugaz.

Eguzkia mendi artean ezkutatu arte lanean ibilita, afalduteko ordua heldu jaken. Afaritan lehenengo janaria, mahaiaren ganean agertu zana, berakatz-saldea izan zan.

–Hau ze beroa dago!

–Itxaron apur baten, hotzituko da-ta.

Brunok bere kautan, "Hau ez da nik lanerako bilatu nahi dodan etxea". Hurrengo goizean, Brunok:

–Etxeko jauna, beste gauza bat pentsau dot eta banoa hemendik.

–Baina, baina… geratu zaitez.

–Ez, joan beharra daukat eta banoa.

Joan zan Bruno aurrera bidez bide, eta beste itxura oneko baserri bat aurkitu eban. Atea jo eta etxekoandreak edegi eutsan atea.

–Mutil, zer behar dozu?

–Hara ba, behar bila nabil eta hemen niretzako lanik badago…

–Neure gizonari esango deutsat.

Gizonak orduan:

–Zer, gazte?

–Niretzako lanik ete dagoan hemen edo.

–Bai, lana badago, etorri ezkaratzera eta lanean hasiko gara.

Iluntzean, hainbat lan egin eta afaltzen jarri ziran mahaian. Lehenengo agertu jaken janaria berakatz-saldea izan zan.

–Hau bai beroa dagoala!

–Putz egiozu eta laster hotzituko da.

Ixilean bere buruari, "Hau be ez da hiretzako etxe egokia". Eta hurrengo goizean:

–Etxeko jauna –dinotso–, beste toki batera joan behar dot eta banoa.

–Egizu zeuk nahi dozuna. Agur.

Bere zorrotxua eskuan hartu eta han doa gure Bruno zerbait hoberen bila. Hirugarren baserri-etxean "Eup" eginda, gizonak:

–Zer mutil, zer behar dogu ba?

–Ba, lanaren bila nabil; zuk niretzako lanik ba ete daukazu?

–Bai, badaukagu, eta zatoz barrura.

Arratsalde guztian lan eginda, afarirako mahaian jarri ziran. Lehenengo janaria mahaian agertu zana berakatz-saldea izan zan.

–Hau ze beroa dago!

–Bota egiozuz ogi zati batzuk eta hotzituko da.

Bruno bere kautan, "Hemen goserik ez dot pasauko behintzat. Hemen geldituko naz.

UGAZABAK BADAKI

Baserri-etxe batekoak Pello hartu eben euren langile edo kriadu. Mutil langile eta formala zan, noizean behin txoriburukeria batzuk. Ikusi eban Pellok astoak ez eukala askarik eta behearen ganera botaten eutsan janaria.

–Ugazaba jauna, astoak ez dauko askarik eta sarri beheko janaria oso lohituta jaten dau.

–Hemen beti izan da halan, eta ugazabak berak daki zer egiten dauen.

Hurrengo baten, Pellok badinotso ugazabari:

–Ugazaba jauna, hor sei behi eta zazpi zekor kortan daukazuz gau eta egun. Zelai ederra daukazu hor etxe ondoan, eta zergaitik ez dozuz ataraten bertara abere horreek?

–Abereak eta behiak kortan egon behar dabe, ugazabak badaki zer egiten dauen.

Eta halantxe, inoiz be ugazabak ez eutsan bere langileari jaramonik egiten. Langilearen esanak danik onenak izanda bere, ugazabak beti baztertzen ebazan esanez: Ugazabak berak daki zer egiten dauen.

Arratsalde eder bat zan eguzki beroagaz eta ugazabak holan agintzen deutso Pellori:

–Joan zaitez han beheko sagastira eta astoa ekarri eta txalmatu; nik eskailereagaz garaira igon eta otzara bete artaburu jatsiko dodaz, eta hemen itxarongo deutsut.

–Ba, ondo dago –esan eta astoaren bila joan zan Pello.

Ugazabak eskailerea imini eta otzarea artaburuz bete eban; jatsikeran oinak huts egin eutsan gorengo mailan eta, gizajoa, lurrera jausi zan, min handia harturik; han egoan lurrean luze zan ginoan. Geroago han etorren Pello astoa ekarrela, eta garaioinean ikusi eban bere ugazaba etzunda, eta artaburuak han inguruan zabalduta. Hori ikustean holan esan eban: "Ugazabak berak daki zer egiten dauen". Arre astoa! Arre!

SORGINAK, OSAGILEA ETA GAUONTZA

Sorginak, aduak, laminak ez dabe merezi gure sineskerarik, baina bai orain agertuko dodan jazoereak. Gure umezaroan sarri erabilten genduan jazoera hau ahomihinean.

Gitxi gorabehera hau orain berrehun urte jazo zan. Osagile barik egoan Ibarrangelu; osagile on bat nahi eban, eta bialdu be, taiuzko osagile bat bialdu eben. Don Basilio eukan izena. Iluntze baten Kanalera joateko deia etorri jakon, emakume bat ama izateko orduetan egoala-ta. Dei hau hogei urteko mutil batek ekarri eutsan, eta D. Basilio zaldi ganean zuzendu zan Akordarantz. Hemendik sorginen dantzalekura igon behar zan mendian gora. D. Basiliok ez ekizan honeek jirabira guztiak, eta mutilak esaten eutsazan argi eta garbi. Kanalen bere lan eta eginbeharra ondo eta egoki eginaz, umea, mutila, jaio zan goizeko ordu biak inguruan. Honuntz etorteko holan esan eutsien:

–Jauna, lehen lagundu deutsan mutilak haruntzakoan lagunduko deutso Akordara arte.

D. Basiliok zerbait jan eta gero zaldira igon eban. Aurretik joian hogei urteko mutil sendo eta bizkorra, esku batean makilea eta bestean farol ederra, hiru kandela ixotugaz barruan.

Martxa politean joiazan mendian gora. Heldu ziran sorgin-dantzako zelaitxora, eta han, gaztainondo haundi eta zahar baten adarretik gauontzaren kantua entzun eben indartsu: "UUUjuju Ujujuju". Mutilak berehala itaundu eutsan honela osagileari:

–Jauna, zer da hori?

Eta erantzun osagileak:

–Zer izango dok ba, gaueko sorginak.

Hori entzutean, mutilaren nerbioak saltau eta saltau egin eben, farol argia jaurti eban eta mendiko hatx-punta baten apurtu zan hamar mila zatitan.

–Galdu naz, galdu naz –esaten txispan heldu zan Kanaleko etxera eta, egoan lez, zapatak kendu barik sartu zan ogera. Eta don Basilio? Ba D. Basilio, ilunetan, mutilari deadarka:

–Mutil, ez dok ezer!!! Muuutil! Hemen ez jagok sorginik!!

D. Basiliok ez ekian biderik, ilunaren ilunaz eskuko atzamarrak be ez ziran ikusten… eta gure D. Basiliok sorginen dantzalekuan, eguna argitzen hasi artean egon behar izan eban bere zaldiagaz gauontzaren eta "mozoloaren" Opera entzuten, ordu bi eta erdian.

PERU ETA MARIAREN PROBLEMAK

Kale ondoan bizi ziran Peru eta Maria, kale ondoan baina baserri-etxe baten. Baserriko lanakaz guztiz nekatuta eta guztiz aspertuta egozan. Behin baino sarriago hau esaten eban Mariak:

–Bestela bizi dira horreek kaletarrok: bata da iskribientea, bestea aguazila, ha korrierea, hurrengoa dendaria eta telefonistea, tanbolinterua, zapataria eta abar… Horreek danok lan gitxi egin, diru asko irabazi, goizean berandu jagi, hamaiketakoa ardao zuriagaz egunoro hartu… Hori dok bizi izatea! Peru eta ni hemen gabiltz goizean goizetik jagi eta gabaz berandu oheratu.

Erderaz be apur bat baekian Mariak eta honela esan eban:

–Desde esta noche cambio troche y moche.

Ate ondoan hauxe dirautso Mariak Peruri:

–Ai! Peru, ez nago ondo.

–Zer daukazu ba Maria?

–Bizkoilarako min haundiak etorri jataz, Peru.

–Bihar goizean ez zaitez jagi ohetik berandu arte. Neuk ganaduen jatekoak eta soloko lanak egingo dodaz; zu etxe barruan ibili.

Biharamonean Peru goizetik jagi eta lanak egiten hasi zan. Bitartean Maria lo. Hamaikak inguruan jagi zan Maria eta holan gosaldu eban: ogitxu erre barria, ardao zuria, arrautza tortillea eta polito gelditu zan. Goiz aldeko lanak eginda, badator Peru etxera.

–Zelan zagoz, Maria.

–Apurtxo bat hobeto, baina ez ondo.

–Arratsaldeko lanak be neuk egingo dodaz eta zu trankil egon, Maria.

–Ai! Nok euki leikean trankil egoteko tenplea!

Hurrengo goizean be Maria bizkoilarako minagaz eta tenple txarragaz… Peruk egin behar lan gogo guztiaz eta Mariak: ogi erre barria, ardao zuria…

Peruk lan guztiak egiten eta Mariak bere buruari sarritan hauxe dirautsala: “Zelan ederto bizi nazen orain… Ondo jan, lanik ez egin bat bere, ibilaldiak, paseoak egin egunoro, kontu ederrak entzun eta honela bizi behar da”.

Eta halantxe egunak eta egunak igaroten: batzuetan bizkoilarako mina, bestetan gonbitularriakaz, buruko zorabioaz.

Egun baten Peruk eta auzoko Santik alkarrekin berbaketa luzea erabilen. Santik:

–Zure andrea ondo bizi da; harek ez dauka ez bizkoilarako minik, ez burukorik. Mimoak, mizkeriak jaukazak harek.

–Zuk hori zelan dakizu?

–Zu han Aldaondoko soloan atxurren zagozan orduan, zure etxeko tximiniatik zelako ke potoloak urteten dauen… eta halantxe aspaldiko egunetan, eta zuen ezkaratzeko leihotik zelako usain gozoa etxe inguruan zabaltzen dan!

–Ba, bihar, hori egia ala guzurra dan jakingo dot.

Hurrengo goizean Peruk:

–Zelan Maria?

–Ai, Peru, ez dot lorik ondo egin, buruko zorabioa-ta…

–Nahi dozun arte egin lo; zu laster osatuko zara, Maria.

–Ez dakit ba…

Peru, etxe inguruko lanak egin eta hamar eta erdietarako ezkutau zan. Hamaikak inguruan han zan Maria ondo gosalduteko asmoz. Mariak hornidu eban mahaia: ogi erre barria, ardaoa, tortillea…

Peruk dan-dana ikusi eban, zelan gosaldu eban bere emazteak. Garbitu zan eta ixil-ixilean kortara joan zan ganaduei jaten emoteko eta abar. Ordu biak inguruan joan zan ezkaratzera, bazkaltzeko gogoa be baeban-eta.

–Bazkaldu egin behar dogu, Maria.

–Nik ez daukat bazkaltzeko gogorik, daukadan bizkoilarako minak tristura haundia emoten deust.

–Ni pozik nago ba, Maria; bene-benetan pozik, eta zu be poztu egin behar zara… eta kantau egin behar dogu biok. Eupa! Urra!

–Nik ez dakit kantaten.

–Ez dakizula? Ba, neuk kantauko dodana haxe kantauko dozu, e? Ez dago hemen koplarik, ez atxakiarik. Ia ba!

–Ogitxu erre barria.

–(Ez dala ia entzuten) Ogitxu erre barria.

–Botilan ardao zuria.

–(Ixil-ixilik) Botilan ardao zuria.

–Arrautza tortilla haundia.

–Ai! Buruko zorabioa, jausiko naz lurrera.

–Ala! Ala! Kanta Maria, hemen kantau egin behar da.

–Arrautza tortilla haundia.

–Ni non nengoan orduan?

–Ni non nengoan orduan?

–Tximiniako zuloan!

–Tximiniako zuloan! Tximiniako zuloan?

–Bai Maria, laratzean gora igon eta tximiniako zuloan. Ba ia gaur amaitzen diran bizkoilarako minak eta buruko zorabioak.

–Hobeto bizitzekotan egin dot hori; baina ez naz hobeto bizi izan. Zeugaz ibilita hobeto bizi izaten da, nahita soloan lan egin.

–Dantza dagigun biok:

Marikita mutxatxa
Ze atso polite,
Bere trapu zaharrakin
Moinua iminitxe.
Ai, oi, ai
Moinua iminitxe
Ai, oi, ai
Ze atso politxe.

MAIATZ LUZE ETA AMAMAREN SERMOIA

Gu mutikotxu ginala baserri askotan zezinak hil egiten ebezan. Ibaeta auzoan bizi nintzan eta han ikusia idazten dot. Sendi, familia bik edo hiruk txahal, zekor bat aukeratzen eben haren okelea euren artean banatzeko. Eskilape deritxon etartean rra! hil eta eskegi egiten eben. Lagun bat be izentauten eben zezinea zaintzeko, hobeto esateko, auzoko katu eta txakurrak zaintzeko. Goizean zekorra hilten eben eta arratsalde erdi ingurura arte Eskilapeko habe batetik dingilizka egoten zan txahala. Bitartean zekorraren odola hartu ebenak, Ibaetatik doan ibai edo errekan txahalaren hesteak garbituta gero, odolesteak egiteari ekiten eutsen aurreko gabaz, negar baten, txikituten ebezan porru eta kipulakaz. Eberdian txahalagaz zerikusi eukenak bazkari sendo bat jaten eben: porru-patatak, txahalaren gibela, odolesteak eta abar. Bazkari horretan odolesteen sententzia be emoten zan: ia koipe asko edo gitxitxu euken, gatzean zelan egozan… ondo egosita ete egozan. Arratsalde erdian txahala hil ebana eta honeetan gauzetan aitua zana bere lana egiten hasten zan. Hiru sendik egiten baeben zezina, hiru tontor bardin edo erdi bardinetan ipinten zan okelea, mamin eta hazur.

Mutil nahi neskatxo kaskondotxo bat alde batera eroan eta txahala hil dauenak holan itaunduten deutso:

–Hau norentzat?

Mutil edo neskatxoak erantzuten dau norentzat izango dan:

–Juan Pedrorentzat.

Eta halantxe izentaten dira beste tontor biak norentzat izango diran bakotxa. Txahal-narrua batek eroaten dau. Zer egiten da, ba, horregaz? Kamaran, zabal-zabalean ipinten da, bere hegal osoan untzez josten da ulea beherantz dala, eta gatz lodiz gora begira dagoan aldea igurtziten da. Halantxe egun batzuetan haizetan eta gatzetan dago narrua, gero abarkak egiteko balioko dauena. Zubibarriagako auzunean, ibai ondotxuan egoan etxe txiki baten, Belentzio deitzen geuntsan aguretxo bat bizi zan; harexek ekien txahalaren narruagaz abarkak egiten.

Zezinagaz zerikusi eukenak, bakotxak berak bere okela eta hazur taldea, etxera eroan eta gatzun-askan sartzen eben. Zer dan gatzun-askea? Okelak gatzetan eukiteko ontzi edo kaja bat. Orduko denporetan ez egoan hozkailurik; horregaitik ontzi baten, gatzagaz ondo nahastata, ia urte guztirako izan behar eban okelea gordeten zan.

Zezinak zemendian hilten ziran eta txarriak abenduan. Baserrietan, urte guztirako okela nahiko eukiteko, txarriak hazten ebezan, eta ia egunero jateko emoten jaken. Ozalea zan egosi bat; galdara baten, erremolatxa, edo nabo edo beste baratzeko aza eta abarrakaz ipinten ziran. Tximiniatik behera egoan laratzean eskegiten zan galdarea eta hantxe egosten ziran; egosi horreri gero zahi, birrin edo eskukada uruna nahasten jakon, eta hor ozala gozoa eginda. Artoa be ez jaken falta izaten txarriei. Zobaran deritxon baserrian *Txarrizain* deitzen eutsen gizon bat bizi zan, txarrikumak bere sasoian ekarteko. Bidez bide, eskuan mimen adartxo bat eta beste eskuan lepotik behera barruan artoa eukan zorrotxoa. Holantxe ikusten genduan guk *Txarrizaina* zelan ebilen bidez bide hamar edo hamabi txarrikumagaz; beti oinez; inoiz be txarritxo bat bere aldendu barik. Kontuan eukitekoa orduan automobil guztiz gitxi ebilela gure bideetan.

Guzti honen ganerako ipuintxu bat hemengo baserrietan esaten dana. Baserri eder baten Peru eta Maria hiru seme-alabagaz eta honen amomagaz bizi ziran. Ohitura zanez, zezina hil eben, eta txarri eder bat bere bai urtea ondo igaroteko. Baita, ohitura zan legez, txarri okelak bere gatzetan nahastauta, eta honen ondoan sei kiloko urdaiazpikoa bere. Bi hilabete joan ziran txarria gatzetan sartu ebenetik, eta amoma zaharra gatzun-askako okelak erdira etorrita egozala konturatu zan. Bere buruko moinuari agarrata holan esan eban:

–Bai, banekian deskalabro hau jazoko zana. Gatzun-askara joan-etorri larregi egiten izan dabe; orain txarririk gehiena janda!!!

Iluntze haretan berakatz-zopea jan ebenean, honela dino amomak:

–Hara, entzun: ume eta nagosi, jirabira larregi ibili dozue gatzun-askara. Martxa honetan, maiatza luzeen dala, txarri-okela guztiak janda eukiko dozuez.

–Entzun dozue ondo? Maiatza luzea izango da, e? Eta gero zer jango dogu: Lapatzako aukak.

–Amoma –erantzun eutsan Mariak–, gaurko nahiko da sermoirik.

Eta amomak:

–Nahikoa dala? Ez dakit ba hemen zortzi eguneko misinoak be nahiko izango ete diran. Jan… jan egin behar da, baina bere neurrian. Lapikoko gehiago jan behar da eta sarteneko gitxitxuago, osterantzean maiatzak eroango deusku dana.

–Bai, –esan eban Peruk– lehen bere horrenbeste txarriki jan barik ondo ibili gara; ez deiogula itxi maiatzari gure txarri-okela guztiak eroaten.

Handik egun batzuetara, Peru, bere andrea eta ama soloan lanean ebilzan. Hiru umeak etxe aurrean olgetan ebilzan. Honetan, Mariano eskeiko haundi bat, *Mai luze* deitzen eutsena, agertu zan eta:

–Umetxoak, limosnatxo bat emongo deustazue? –esan eutsen.

Ume nagusitxuenak honela itaundu eutsan:

–Zelan da zure izena?

–Ba, niri *Maai luze* deitzen deuste.

–Ba, gure amomak *maiez luzen* gure jamoia esan deusku. Zuk oin eroango dozu?

–Ba, amomak hori esan badau, nik eroango dot.

Urdaiazpikoa, jamoia, umeak *Maai luzeri* emon eutsen eta gure eskeikoa bere zorroan urdaiazpikoa ebala pozik joan zan.

Istiluak gero izan ziran Peruren etxean.

"Maai Luzek zeroian
Gordeta jamoia
Peruk jarraitu eta
Kendu eutsan kargia."

UME-JOKOAK

Jokoak ordenatzeko *Juegos Infantiles en Vasconia* liburuko (Etniker Euskalerria, 1993) egitureari jarraitu deutsagu. Euskal Herri osoan honeen moduko jokoen eta beste askoren barri emoten da lan sakon horretan.

Baina jokoan hasi aurretik, jokalariak aukeratzeko edo taldeak egiteko zozketa-formula batzuk erabilten dira. Adibide bat jaso dogu lan honetan.

OINKADAKA

Jokoan hasi orduko, eta baita jokoan hasita be batzuetan, eztabaidak sortzen ziran. Eztabaida horreek, sarritan, "oinak botata" konponduten ziran: metro bi inguru-ra alkarreri begira, batek oina ipinten eban beste alderdikoari begira, besteak bar-din egiten eban. Oin erdiak balio eban. Zeinen oinak bestearen ganea harrapau, harexen esana egiten zan.

Ibarrangelu, 2009.

NATURA JOLASLEKU

Atal honetan batu ditugu animalia, zugatz, bedar eta naturak emoten dituanak eurak jolasaren ardatz dabenak.

TXIRRITXALDOTAN

Udabarri inguruan mutikoen belarriak tirritxaldoen "krik-krik" soinuak entzuteko zuhur eta argi egoten ziran. Batak besteagaz, mutilok alkarregaz honelako berbaldiak erabilten ebezan: Beitu, txirritxaldoa atrapateko ixil-ixilik ibili behar da. Bai, ta ixilduten danean… esan nahi dau berak be sentidu egin gaituala. Orduan txirritxaldoa arin zulora buruz behera sartzen da. Eta ixil-ixilik egoten bazara, txirritxaldoak, buruz gora paretako, kanpora urteten dau. Orduan atzamarraz ri-ra zuloa zarratu eta atrapata daukazu txirritxaldoa. Eta barrura eskapau badeutsu, bedar mehe bat ibili behar dozu "ziri-ziri" egiteko.

KASKAILUAK

Eskola ondotik doan Laga ibaian kaskailu asko ebilen. Noizean behin hareek harrapatzen ordu luzeak igaroten genduzan.

TXORI-HABIAK

Txori-habiak topaten ardura haundiagaz ibilten ginan. Gure lagun kutunenari bakarrik esaten geuntsazan honelako berbak: "Txo, hor beheko madari-arbolan habia bat aurkitu dot, eta pentsetan dot jilgeruena (kardantxilo) dala". Kardantxiloa zan guretzat txoririk polit eta abeslariena. Zozoa eta birigarroa oso txori abeslari trebeak dira, baina guretzat, euren habia topau eta etxe ondora kumak ekartea gauza gatxa zan. Gure etxe ondoko madari eta okaran zugatzetan edo gure etxetik hurrean polito bilatzen genduzan kardantxiloaren habiak.

Txori-habiatan. Ibarrangelu, 2009.

ARRATELAK

Txoriak harrapateko arratelak be erabilten genduzan; alanbre kaltzaiduzkoak ziran eta erosi egiten genduzan. Tranpa horretan gehienbat eleiztxoriak jausten ziran. Jatekotzat tranpeari arto garau edo ogi zatitxo bat ipinten jakon.

TRANPAGILEAK

Txori tranpak, txoriak bizirik harrapatzeko egurrezko makilatxuakaz egiten genduzan. Makilatxu honeek boligrafoaren lodierakoak ziran gitxi gorabehera.

Eskolako mutiko nagusitxo guztiak honelako tranpea egiten bagenkiala esango neuke. Horretarako materiala, esan dogunez, gure basoetan eta ibai ertzetan ugari egoan. Horrez ganera mimenak bere behar ziran; mimenak gure solo hegaletan ugari egozan. Tranpa horreek disparau txoriak berak egiten ebazan inongo minik hartu barik.

TXORIAK "MEZKLIAGAZ"...

Txoriak "mezkliagaz" bizirik harrapatzen be ahaleginduten ginan. "Mezklia" deitzen genduana morokilaren antzekoa zan.

Lehenengo txoriak euren garbialdiak egin eta ura nun edaten eben jakin behar zan. Goieburu, Armendu mendi oinean dagoan baso zati bat zan egokia horretarako. Baso horretatik ibai estu bat etorren. Gure asmoetarako ha zan toki egokia.

Esan dogun "mezklia" horren apur bat, hiru edo lau bedar luzetan, ur ondoan ipinten genduan. Txoriak bedar horren gainean hankak ipinten ebezanean, han gelditzen ziran lotuta.

Mezklea orain ezin da erosi. Drogerietan erosten zan, ontzi txiki baten; ura edateko kristalezko ur apurtxo bategaz eroaten zan eta holan esaten zan: "pezeta baten edo lau pezetaren mezklea gura dot". Mezklea beti uragaz erabilten zan nahastauta.

BEHI BALTZA

Behi baltz eta bizkor bat eukan gizon batek Ibaetako baserri baten. Arratsaldeko eskola ordua baino lehen olgetan ibilten ginan enparantzan. Ordu horretan, sarri be sarri, bere behiari ura emoten joaten zan eskola ondotik doan ibaira. Behin baten, eskola-mutil batzuk hauxe esan eutsen gure baserritarrari: "Emeterio, solta eizu behiori". Lehenengoz ez euskun jaramonik egin. Hurrengo egunean bere, hor dator gure Emeterio bere behi baltz eta bizkorragaz. Eta mutilen eskabide bardina: "Solta eizu behiori". Hirugarren egunean bere, eskabide bardina, "jente" gehiago eskabide egiten. Harriari be urak, ekinaren ekinaz zuloa egiten ei deutso eta, holakoren bat hemen bere jazo zan. Umeen eskabideari ezin ezetzik esan eta, Emeterio behiaren adarretan sokea batzen hasi zan. Umeak laster ezagutu eben Emeteriok zer egingo eban eta ha izan zan umeen zaparrada eta arineketea. Batzuk arboletara igoten, beste batzuk horma ganera, ibaiaren beste aldera, alboko etxeetara eta abar zabaldu ziran, eta enparantzan Emeterio eta behi baltza bakarrik gelditu ziran. Behiak enparantzan egin ebazan arineketa eta zapada batzuk, hurreratu jakon bere jabea eta kortara eroan eban. Emeterio behiagaz eskola ondoan agertzen zan bakotxean, umeak deadarka "Solta behia, solta behia" hasten ziran, baina ez, beti ez. Emeteriok gogo ona eukanean bakarrik "ospatzen" genduzan "korrida" honeek, baina luzaro baten eta noizbehinka bai arineketa horreek pozik egiten genduzan.

IGON GEU?

Eskola ondoan enparantza, plazea, nahiko zabala dago. Berton hogei arbolatik gora baegozan. Zugatz haundi eta ederrak ziran: gehienak tiloak eta indiaba-gaztainak ziran.

Zugatz hareetatik batzuk igoteko errazak ziran, beste batzuk guztiz gatxak. Hareen gainera igoteko egiten genduzan indarrak ikustekoak ziran.

TXISTU SOINULARI

Ibai ondoko zugatz adarren azalagaz txistu soinulari politak egiten genduzan. Azala osorik egurretik ateratea, hor egoan lanik gatxena.

SAN JUAN AURREKO GABA

San Juan aurreko gabean berarizko suak egiten genduzan, baina hori egun bateko jai edo jolasa zan. Hori baino joko edo olgeta luzeagoak egiten genduzan hainbat egun lehenago: sasi ebagiten ekiten eutsoen mutiko nagusitxuenak, eta txikiagoak sasi eta erregaiak eskola ondoan batzen. Lan egin behar izaten zan; hori lanori baina, guk olgeta bihurtzen genduan.

ETXE-ETXEKA

Joko hau bere gaztetxuenentzat da. Batzuk eta besteak:

1. Saltzaile.
2. Erosle.
3. Etxeko eta kanpoko lanetan.

JAURTITZE-JOKOAK ETA ARINEKETA-JOKOAK

Atal honetan batzen diran jaurtitze-jokoetan, ziri, intxaur, kanika, harri, pelota edo diruak botaten diran, halan ordenau ditugu.

TXIRIKILEAN

Egokien hiru edo lau umerentzako.

Zuzendariak eskuan metro erdiko makila mehe bat eta sei zentimentroko zotza (azalduten diran neurriak gitxi gorabeherakoak dira).

Zuzendariak, harri gainean zotza ipinten dau, eta bigunkiro, makileagaz jo egiten dau. Zotzak salto egin eta aidean doa. Harrapatzaileak zotzaren bila doaz. Batek harrapaten dau zotza. Zuzendariak makilea horma hegalean tente ipinten dau. Orain zotza daukanak makilearen kontra jaurtiten dau; eta makilea joten badau edo makileagandik arrega (arra) baten barruan gelditzen bada, harrapatzaile hori irabazle da, horregaitik zuzendari izango da.

ZIRIKA

Lau edo bost mutikok egiten genduan joko hau. Ziriak atzamar lodiaren lodierakoak eta 25 zm luze. Lurrean marra biribil bat egiten da. Ziria lurrean sartu egin behar da; horregaitik lurrak nahiko bigun egon behar dau.

Lehenengo mutilak marra barruan makilea lurrean sartu behar dau. Ez badau sartzen, kanpora doa. Bigarren jaurtiten dauenak gauza bi egin behar dauz, ahal badau behintzat: bere makila lurrean sartu eta era berean bere lagunarena lurrera bota. Horrek saria merezidu dau (aurretiaz izentaten dira sari eta zigorrak, adibidez intxaurra emon). Ziria sartu ez dauena lurrean, azkenengo gelditzen da. Lagunaren ziria lurrera bota eta norberarena lurrean sartuta, norberarena lurrean sartzen ez bada, berehala hutsa izango da.

Ziriak beti tente gelditu behar dau, bestela kanpora ziriaren jabea eta zigortua izango da.

ZIRIKA KUTXILLO TXIKIAGAZ

Belaunbiko jokatzen da. Aizto bakarra danentzat, hiru edo lau parte-hartzaile.

Egin behar diran lanak: 1. Aiztoa (kutxiloa) hiru bider sartu lurrean. 2. Kutxiloaren puntea erpuruan ipini eta buelta bat aidean emon, eta lurrean sartu dadila. 3. Ikubilaren ganean imini kutxiloa eta eskuaren jira eragin eta lurrean sartu. 4. Atzamar txiki eta atzamar sendoaren ganean imini kutxiloa eta lurrean sartu. 5. Surraren alturan erpurua imini eta buelta bat eraginaz kutxiloa lurrean sartu. 6. Aurrerago egin dana, bekokiaren alturatik egin. 7. Ezkerreko eskuagaz eskumako belarria arte, eta erditik, lekua dagoanez puntaz behera kutxiloari itxi lurrean sartu daiten. 7. Ezkerreko eskuagaz ezkerreko belarria hartu eta erditik kutxiloari, puntaz behera, jausten itxi lurrean sartu dadin.

Agerpena. Egin daigun lehenengo jokalariak lau ekitaldi ondo egin dauzala eta bosgarrena ez dauela egin. Jokoak jarraitzen dau eta gero, bere unea jatorkonean, lehenengo hori bostgarren jarraituko dau. Bakotxak jarraituten dau oker egin eban unetik.

Lehenengo amaitzen dauenak itxaron egingo dau danak amaitu artean. (Zigorra edo saria aurretiaz erabagiten da, zigorra azkenengoak bakarrik jasoten dau).

PUNTA ALA HONDO (punta edo base)

1. Ziri zorrotz bategaz.
2. “Punte ala hondo” itaunduten da lehenengo.
3. Egin daigun “punte” erantzun dabela.
4. Ziria gora-goraka jaurtiten da.
5. Ziria puntaz lurrean sartu bada, saria beronentzat da. Ziria, baina, lurrean ez bada sartu, saria bestearena da.

KISTORRIEN (Kastorrean) Intxaurrakaz

Lau edo bost jokalari.

Marra paralelo bi, ezkerretik eskumara: bata besteagandik bi zentimetroko hutsunea, tartea.

Intxaurrak, hutsune horren barruan 15 zentimetrora bata besteagandik jartzen dira.

Tiroak kistorrarekin egiten dira. Kistorra intxaur txikitxuari deitzen deutsagu. Beste intxaurrakandik metro bat eta erdi urrunago ipinten da, tiroa egiteko atzamarren indarragaz.

Marraren erditik, kistorraren indarraz, intxaurren bat etaraten badozu, intxaur hori zeuretzat izango da; baina kistor eta intxaur biak marretatik kanpora joan behar dabe; bata edo bestea marra barruan gelditzen bada, ez da ezer irabazten. Jokotik kanpora inor ez da gelditzen jokoa amaitu arte.

Nor hasiko da jokoan? Edonon marra bat egiten da eta norbere intxaurra marratik hurren ipinten dauena; gero besteak…

ERRE-ERREKA (Intxaurrakaz)

Joko hau bik egiten dabe; oso sinplea da.

Batek intxaurra hiru edo lau metrora jaurtiten dau. Bigarren jokalaria beronen intxaurragaz bestearena joten (tako egiten) ahalegintzen da, edo besteagandik arrega (arra, eskuaren distantzia atzamar loditik txikira) ipintea; edo indartsu jaurti leike bere intxaurra, bestearena joten ez badau, besteagandik urrun gelditu daiten. Eta halantxe jarraitzen dau jokoak.

Irabazlea arrega batera gelditzen da, edo tako egiten dauena. Ez badau hau lortzen, hurrengoari tokaten jako egon dan lekutik.

Saria: intxaur bat.

AURTZAN EDO ERRE-ERREKA KANIKAKIN

Intxaurren jokoa legez.

TRIANGULUAN

Triangelu bi, bata bestearen barruan marratu. Demagun hiru jokalari, eta barruko triangeluaren erpin bakotxean intxaur bat jarrita.

1. Intxaurrak triangelu haunditik kanpora etara behar dira norberaren intxaurragaz, kistorragaz tako eginda. Triangeluaren metro bat eta erdira marra txiki bat egingo da, marra horretatik atzamarragaz intxaurra, kistorra jota, hasiko dira jokalari guztiak.

2. Nire intxaurra, kistorra, triangelu txikiaren barruan gelditzen bada, neure intxaurraren jabetasuna galtzen dot eta ni jokotik kanpora gelditzen naz beste joko oso barri bat hasi arte.

3. Ikusten danez jokalari bakotxa intxaur birekin hasten da: triangeluan ipini dauena, eta jokoan egiten dauena.

4. Jokalari bakotxak jaurtiketa, tirada bat dauka egitaldi bakotxean, baina besteen intxaur bat irabazten badau, bigarren jaurtiketa egingo dau. Bigarren intxaurra etaraten badau jarraian, ezin leike beste jaurtiketa barririk egin.

KANIKAKA Triangeluan.

Intxaurren triangeluan legez (seigarren jokoa).

GARRAGOKA (Intxaurrekin, garragoia: intxaur gogorra)

Lagun birentzako jokoa.

Noren intxaurra dan gogorragoa.

Esku bien barruan hartu zure eta nire intxaurrak eta estutu bata edo bestea apurtu arte. Zure intxaurrak nirea apurtuten badau nirearen maminak zeuk jango dozuz.

Gure ume aldian Gorostako (Durukizko auzunea) intxaurra zan txapeldun, garrago nagusia.

KANIKAKA (POTXIKA)

Joko honetarako behar dira:

1. Sei zentimetro inguruko diametroa eta hiruko sakonerea daukan zulotxo bat lurrean. “Potxia” deitzen jako.

2. Kanika bana jokalari bakotxak.

3. Marra zuzen bat egiten da, eta jokalari bakotxak, bere kanika marra horretara jaurtiten dau. Marratik hurren gelditu dan kanikearen jabea hasiko da jokoan; gero besteak: bigarrena, hirugarrena…

4. Hiru edo lauk jokatzen dabe polito.

5. Potxian kanikea sartzea “tanto” garrantziduna da.

6. Besteen kanikea joteari “tako” deitzen jako, baina ez da ezer jazoten, jo zaituanak baino “potxi” gehiago badaukazu. Gitxiago badaukazu, jokotik kanpora zoaz eta kanika bat, zigor legez, jo zaituanari emon beharko deutsazu.

7. “Tako” egin deutsunari “tanto” bat zor deutsazu eta harek baino “potxi” bat gehiago eta “tako” bat gehiago emon behar izan deutsazu berari irabazteko.

8. Potxitik urrun bazagoz, kontuan euki “tako” egiten dauenak, beste jaurtiketa edo tirada bat egiteko eskubidea daukala, horregaitik zure lagunaren kanikeari “tako” egin eta bere kanikeagaz ikututen imini zeinke zeure kanikea.

9. Ikututen ipintean eskubidea emoten deutsu tirada edo jaurtiketa bi egiteko; horregaitik, zure lagunari kanikea irabazteko “potxi” bat bakarrik behar badozu, etorri zeintekez tirada bigaz “potxi” egitera, eta kanikea irabazten deutsazu eta kanpora jaurti.



Kanikaka. Ibarrangelu, 2009.

10. “Potxi” bi badaukazuz eta zure lagunari kanikea irabazteko izentaten badozu, “kanikea” bai irabazten dozu, “potxi” bat gitxiagogaz gelditzen zara.

Adibidez: Hiru jokalari. Potxitik metro bat eta erdira marratxo bat egongo da; handik lehenengoak jaurtiko dau bere kanikea. Potxi egiteak balio handia dauka, baina: a) potxi egiten bada eta bigarrenak bere potxi egiten badau, kanikea galdu eta jokotik kanpora joango da; horregaitik potxitik urruntxuago bere kanikea ipintea hoba izango dau; bere kanikea potxian balego eta bigarrenak bere kanikea bertan sartuko baleu, kanikea galdu eta jokotik kanpora urten beharko leuke, horregaitik hegal batera bialduko dau bere kanikea. Bigarren bere kanikea bialdu nahi dabenak be gauza honeek kontuan eukiko dauz. Hirugarrenak zer egin behar dauen ikusiko dau: potxi egin edo potxitik alde egin.

2. “A”k hiru potxi eginda badaukaz eta “B”k bi bakarrik, honek besteari egin arren, kalte larregirik ez deutso egiten, horregaitik potxitik urrun badagoz seguruena hau izango dau: geldi-geldi eta “tako eta tako” potxira ekarri eta bertan biak sartu. Une honetan besteak bere kanikea galtzen dau, eta jokotik kanpora joan behar izango dau.

FANEGAKA

Behean, lurrean, hauxe marratuten da: lau karratu 40x40 zentimetrokoak gitxi gorabehera, eta honeri ikututen beste lau.

1. Harri edo zer bat zapala 6x5 zentimetrokoa “fanegea” deitzen jakona.

Fanegaka. Ibarrangelu, 2009.

2. Jokoan dabilenak hanka baten ganean ibili behar dau.

3. Hanka baten ganean dabilela "fanegia" jo eta lehengo karratu barruan ipini behar dau, gero bigarren karratu barruan eta baita hirugarren karratu barruan bere. Eta hemen atseden apur bat hartzen dau hanka bien ganean.

4. Bigarren tanda honetan hanka baten ganean dala, fanegea laugarren karratuan ipinten dau, gero bostgarren eta seigarrenean. Hemen, lehen legez atseden hartuko dau, eta hanka baten ganean azkenean, fanegea zazpigarren eta zortzigarren karratuetan ipinita kanpora urtengo dau.

5. Fanegeak inoiz bere ezin leike kanpora urten jokalaria bere lanean dabilela. Urteten badau, jokalariak egin dauen guztia galtzen dau, eta ordua jatorkonean barriro lehenengotik hasiko da. Bardin fanegea marra ganean kokatuten bada, jokalariak dana galduten dau eta barriro lehenengotik hasiko da.

TIRAGOMAKAZ

Tiragomakaz ibilteko zaletasun haundia geunkan; eta sarri eurekaz ibilten ginan.

PARRETIEN (TXANPONAKAZ OLGETAN)

Joko honetan txanponak jokatzen ziran, eta nagusitxuenak bakarrik jokatzen eben noizean behin. (Txakur txikiakaz edo Txakur handiakaz: aldi haretako bost eta hamar zentimo).

1. Horma hegal batera jokalariak banan-banan euren txanpona arduraz jaurtiten dabe.

2. Hormatik hurren gelditzen zan txanponaren jabea izaten zan lehenengo txanponak aidean jaurtiten ebazana.

3. Kara urteten eben txanponak beretzako; besteak, bigarrenak jaurtiko ebazan.

Edo beste honetara be jokatzen zan:

1. Txanponagaz hormea jo.

2. Bigarren jaurtitzaileak be txanponakin hormea joko dau, baina ardura honegaz bere txanpona joan daitela lehenengo txanponaren hurrera: bigarren txanpon hori besteengandik "arra bete" barruan gelditzen bada, lehenengo txanponaren jabe bigarren jaurtitzailea izango da.

TXARTAN PARTAN

Hiru edo lau beste hiru edo lauren aurka.

Gomazko pelota biguna erabilten da, ez gogorra.

Pelota behean ipinten da eta bere inguruan danak hau abesten dabe: "Txartan partan Julian partan, Meteten meteten, pin paun".

Izentata dagoanak pelotea hartzen dau, bere kontrakoak iges egiten dabe, eta pelota horregaz jo nahirik bere aurkariaren kontra jaurtiten dau, edo bere lagun bateri bialtzen deutso, beronek bestea jo dagian.

Pelotea harrapatu dan tokitik jaurti behar da, bera eskuan dala inora joan barik.

ESKU PELOTA

Eleizpean jokatuten zan, baina askozaz gehiago kontzejupean, hau da, udalaren behean; baita Ibaetako enparantzan be, frontis eskolearen hormea zala. Zenbat metro hari eta lana ostu ete genduan gure etxeko joste-otzaratik pelotak egiteko!

FUTBOLA

Baegoan joko honen zaletasuna, baina ez asko-askorik. Udetan zaletasun hau gehituten zan, kanpotarrak (beraneanteak) udea igaroten etorten ziranean. Orduan alboko herrietako zaletuekin be jokoaldiak ospatuten ebezan: Elantxobe, Gautegiz Arteaga, Mundaka eta abarrekin.

ARINEKETA ARRUNTA

Bikoteak arineketan: astoa eta ganean doana.
Burruka astoka: alkarrekin burruka bikoteak.
Astoka, hau da, mutiko baten lepoan beste mutiko bat.

ARRE TIKO

Indar gehitxoago eukanak pisu gitxiago eukana lepoan hartu eta beragaz ibili hara eta hona, edo lasterketa txiki batzuk egin.

Ibarrangelu, 2008.

LAU HEGALAK

1. Bost jokalari.
2. Lau jokalari lau hegalen jabe.
3. Erdian bat, “jagolea” deitzen deutsagu.
4. Lau hegaletakoak ahal dabenean hegal batetik bestera igaroten, pasaten, dira.
5. Hutsik gelditu dan hegala jagoleak harrapatzen badau, hango jokalaria erdira doa jagole moduan eta jokoak jarraitzen dau, lehengo jagolea orain jokalari izango da-ta.

ALTURAKA

Jagole bat eta jokalariak.

Behea baino zerbait gorago dagoan jokalaria ondo dago, jagoleak ezin leikio ezer egin.

Jokalaria behean dagoanean jagoleak “ikutu” eta “daunpe” esaten badeutso, jokalaria izan dana jagole gelditzen da, eta lehengo jagolea aurrerantzean jokalari izango da.

PROBAK UMEENTZAKO

Batez bere lepoan pisuak eroan eta ekarten.

LABANKADAK

Hau zan jokoa: lur bustian zeinek labankada luzeena egin. Eskolako enparantza, plazearen hegala horretarako egokia genduan. Golpe edo takarrada dezente batzuk hartu arren, inork ez eban negarrik egiten.

GOITIBEHERAKAZ

Ahal izaten genduanean, goitibeheran bere ibilten ginan. Zeinen pozik jatsiten zan Kurutzeko aldatsean behera!

Bizikletaren jabe ziran mutil gitxi egoan; bi edo hiru…

ABILIDADE ETA BALANTZA-JOKOAK

TRONPAKA (Korruan)

Marra biribil txiki bat (30 zentimetro diametro) haundiaren (150 zentimetro diametro) barruan.

Marra biribil txikiaren barruan metalezko txapa bana, txanpontxu bat ipinten zan.

Marra biribil haundiaren kanpotik, banan-banan jokalari bakotxak bere tronpea jaurtiten dau. Marra txikitik zerbait ateraten bada (tronpa eskuan hartu eta bertara eroan eta gero) eta tronpa marra haundiaren kanpotik dantzan jarraitzen badau, atera dabena beretzat izango da.

Tronpeak marra haundiaren kanpotik dantzan jarraitzen badau, eskuzabalean dantzan dabilela hartu leike tronpea eta jaurti marra txikira; zerbait ateraten bada eta tronpeak dantzan jarraitzen badau, aurretiaz izentatuta dagoan saria hartuko dau.

TRONPAKA (Aurtzan)

1. Batek tronpea jaurti egin dau.
2. Bigarrenak haren aurka jaurtitzen dau; besteen tronpea dantzan dabilela joten badau, eta bereak dantzan jarraitzen badau, sari bat dauko.

TRONPAKA (Kara ala Krus)

Tronpea dantzan dabilela esku zabalean hartu eta behean, harri ganean edo, dagoan txanponari buelta emoten; edo harri ganean dagozan txanponei buelta emoten.

TXIRRINDOLAK (guk "Txirrinbolak")

Makilatxu bategaz edo gehienetan alanbrezko urkuluagaz eroaten zan errubeda edo gurpila.

Era bitakoak ziran: Egurrezkoak eta metalezkoak. Gehienetan metalezkoak erabilten genduzan. Tramankulu honegaz ibilteko zaletasun handia geunkan: bidean ibilteko, baita lasterketak egiteko bere.

HABAILA (guk *habilla* esaten genduan).

Zer zan gure habailea (habilla)?

Narru zati bat, sei zentimetro luze eta lau zentimetro zabalerakoa, gitxi gorabehera.

Kordea (kordela) hogeta hamabost zentimetro luze; alde batetik narruari ondo josita eta beste aldea gibili bategaz amaitzen da. Eskuan jira bi edo hiru emoten dauz kordel honek eta eskuko atzamar nagusian sartzen da gibilea.

Bigarren kordela 25 zentimetrokoa luzeran gitxi gorabehera: alde batetik narruari beste hegalean ondo josita beste aldetik kordel honek ez eukan ezertxo bere.

Zelan ibilten zan:

Gibilea (begia) eukan kordelak bere gibili hori eskumako eskuko atzamar nagusian sartzen eban, eta jira bi edo emoten eutsazan eskuari.

Bigarren kordela be eskumako eskuak hartzen eban normalean.

Intxaur baten inguruko harri koskor bat ipinten zan narruaren barruan.

Ibarrangelu, 2008.

Beso guztiari (beso, ukabil eta habaileari) aidean hiru edo lau jira nahiko indarrez emon, eta azkenengo jiran askatu eskuko bigarren kordela, eta harriak martxa handian urteten dau habailatik.

Habaila: tramankulu hau antxinako gerrateetan ibilten eben. Dabid artzainak (gero errege Dabid izango zanak) burruka gogorra euki eban Goliat gerrero gogorrarekin: hau Dabidi ezpataz eta lantzaz etorkon, eta Dabidek erreka ondoko harri bat jaurti eutsan habaileagaz eta lurrean hilda itxi eban. Halan dirausku Bibliak.

Ibili bai ibilten ginan, baina noizean behin bakarrik.

ORRATZAKAZ

Hemen bik jokatzen dabe.

Bakotxak orratz bana behean ipinten dau.

Lehenengo batek eta gero besteak bigunkiro mobitzen dau bere orratza.

Alkarren ondora heltzen diranean bakotxa ahalegintzen da, banan-banan, bere orratza bestearen ganean ipinten. Ipinten dabenak orratz bat irabazten dau.

KROMOKA

Joko hau birentzako da.

Kromoaren irudia beheruntz ipinten da; bakotxak bere kromoa ipinten dau.

Hasi orduko nor lehenengo izentaten da.

Esku zabalagaz kromoak jo egiten dira. Irudiren bat edo biak goruntz begira agertzen badira, biak jo dituanarentzat izango dira.

TXAPAKAZ

Misto kajearen (posporo kajearen) azal politenekin jokatzen genduan, jokatu bere zaletasun haundiagaz. Jokatu, kromoekin legez jokatzen zan.

TANGEA ZAPATA MODUAN

Piper poto hutsari “tangie” deitzen geuntsan.

Hutsik dagozan piper edo honen antzeko poto bi hanka banatan zapatatzat hartuta.

Bakotxa esku banatara kordel banagaz indartuta gertu dago ibilteko. Hau da, gorantz tiratzeko eta ibilteko.

KERIZA AILAK

1. Zeinek keriza aila gogorragoak daukazan: honetan be eztabaida geunkan.
2. Zure keriza aileak nirea apurtuten baeban, nik zuri keriza bat emon behar.

ZARATATSU

Olgeta hau txikienak edo gaztetxuenak, kuadrila haundia batzen ziranean egiten eben.

1. Makurtuta, kar-kar.
2. Zutunik, kukurruku-kukurruku.

Ekin soinu horregaz aspertu arte. Bat agintzen, sei edo zazpi egiten.

ZEZIN ALA URDAI?

1. Burdi arrunta hutsik.
2. Burdi-partikearen musturrean bat jarri egiten da partikearen ziriei ondo eutsita.
3. Hiru edo lau mutiko burdiaren atzean jarriten badira, partikeak han jarrita dagoanaz gora egingo dau.
4. Atzean dagozanak honela dei egiten dabe: "Zezin ala urdai?"

"Zezin" erantzuten badau goian eukiko dabe, eta "urdai" erantzuten badau behera jatsiko dabe.

ZIBOA

Joko hau polit eta atsedentsua da ziboan jarrita dabilenentzako, baina honek be bere aldakuntza dauko jarrita dagoana zutunduten danean, eta zutunik, bultzaka, ebilena, ziboan jarrita egotea jatorkonean.

EZKUTATZE-JOKOAK

FIDOKA

Sei edo zazpi lagunentzako (gitxi gorabehera)

1. Bat harrapatzen.

2. Besteak igeska, burlaka.

3. Harrapatzaileak bat harrapaten dauenean, "Fido" esan behar deutso. Eta harrapatzailea aske gelditzen da.

4. Fido esan eta harrapatua "Harrapatzaile" izango da eta besteen kantu eta burlak entzungo ditu, iges egin dauen besteren bateri ikutu eta Fido esan arte.

PAULOKA

Joko honetan hamarren bat mutilek ondo jokatzen dabe.

Egin daigun harrapatzaileak lau dirala eta iges egin dabenak sei.

Joko hau gehienetan mutiko nagusitxuenak egiten eben.

1. Harrapatzaileak honela izentauten ziran: hogetalaugarren zenbakia toketan jakona. Bat hasten zan kontatzen honela: "palokero, paulokero, bat, bi, hiru… (eta beste batek hau esaten eutsan "Ontxe", eta orduan kontalariak jarraituten eban kontaten eta mutil bakotxa izentatzen: lau, bost, sei, zazpi… hogeta lau. Honela izentaten ziran harrapatzaile izan behar ebenak.

2. Harrapatzaileak igesleari ikutu eta "paulo" edo "daunpe" esan behar dau.

3. "Paulo" edo "daunpe" ikutuaz egina, zugatz-arbola baten azpira jo behar zan eta arboleari ikututen egon behar zan bere lagunen batek noiz askatuko. Igeslari bat etorri eta "libre" esaten baeutsan eta arboleari ikututen baegoan, aske, libre, iges egiten eban.

4. Egin daigun hiru "igeslari" harrapata, arbolapean dagozala (beti arbola bakarra erabilten da kartzela moduan), alkarreri eskua emonda, azkenengoa arboleari ikututen. Harrapalariak ondo jagon behar dabez arbolapean dagozanak, hau da, "eginda" dagozan "igeslariak", aske dabilen igeslariren batek askatu ez dagizan.

5. Arbolapean “Eginda” dagozan “igeslariak” ondo zaindu behar dira. Ardura hori harrapatzaileena da, beste harrapatzaileak beste igeslarien bila dabiltzan artean.

6. Baina kontuz, “harrapalariak” ezin leitekez larregi hurreratu igeslariakana, bestela honeek eskubidea dauke “kanea” emoteko; kanea arbolapean askatasunaren itxaropenean dagozanak bakarrik emon leikie. Zer da kanea? Popan ostikadea. Igeslari guztiak zugatzpera eroaten dabezanean jokoa amaitzen da.

7. “Harrapatzailea” ezin leiteke larregi hurreratu “eginda” arbolapean dagoan igeslariagana, bestela honek eskubidea dauko ostikada bat emon eta haruntzago bialtzeko bere jagolea. Hori da “kanea”.

8. Zugatz eder asko egozan eskolako enparantza inguruan, baina “pauloka” egiteko beti zugatz bardina aukeratuten zan.

KUKUKA

Bat bila eta hiru edo lau ezkutuan.

Kantu baten bidez-edo izentaten da bila dabilena. Ezkutatuta dagozanak noizean behin “kuku” esaten dabe. Bilatzaileak bakotxa nor dan esateko ikusi egin behar dau, ez da nahiko abotsean ezagutzea.

Ibarrangelu, 2008.

TANGAKA

Tangea edo piper-pote hutsa.

Bost edo sei mutil.

1. Bat bilatzen, hiru edo lau ezkutatzen.

Jokalari guztiak tangearen inguruan batzen dira, eta tangeari ostikada bat emoten deutso batek. Bilatzailea tangearen bila arin doa eta besteak be arin doaz ezkutu bat aurkitzen.

2. Bilatzaileak ezkutuan dagoan edonor nor dan esateko lehenengo ikusi egin behar dau, ez da nahikoa abotsez ezagutzea.

3. Norbait ikusten dabenean tangeagaz hiru bidar harria jo behar dau esaten dabela: bat, bi, hiru, Jontxu…

4. Bilatzaileak bere tokitik urteten badau, tangea bere tokian itxi behar dau. Ezkutatuta dagoan bat etorri leiteke ixilean eta tangeari ostikada bat emon… Eginda, hartuta, egozanak aske gelditzen dira horrela eta jokoa hasten da: Bilatzailea tangeagaz eta besteak ezkutuan.

PIKA-PIKA

Zenbat nahi jokalari.

1. Zuzendari bat.

2. "Azpi" deitzen jakon bat. Hau buru-makur eta eskua lepoan zabalik, gora begira.

3. Zuzendariak, kinu eginda, bateri deituten deutso.

4. Zuzendariak dei egin deutsan jokalaria badator, "Azpi" dagoanari esku zabalean txatxamurka egiten deutso eta bertan golpe bat emon, eta isilik bere tokira doa.

5. Zuzendariak honela itaunduten deutso: Nork egin deutsu min? "Azpi"k hauxe erantzuten deutso: Topako dot nik.

6. Zuzendariak erantzun: Ekarri belarritik.

7. "Azpi"k jokalari guztiei ondo begiratzen deutse nor izan leitekean eta jokalari bat izentaten dau.

8. Izentau dabena izan bada, belarritik eroango dau zuzendariagana eta "Azpi" izango da. Baina ez bada izan, barriro jokoa hasiko da eta bera, lehengoa, "Azpi".

ITSU-ITSUKA

1. Lehenengoz nondik nora ibili leitekean esaten da.

2. Itsuaren ondoan ijiji eta ajaja beste jokalariak.

3. Itsuak bat harrapaten badau, nor dan esan behar dau.

4. Ezagutzen badau, harrapatuak "itsu" egin beharko dau eta itsu zana beste jokalariakaz ibiliko da.

5. Ez badau ezagutzen, aurrera jarraitzen dau jokoak.

6. Itsuak begiak ondo estalduta eukiko dauz.

ZAPIA NON?

Zenbat nahi jokalari. Hobe, hamarretik gora.

1. Hamar neska-mutil biribilean, zirkulo bat osotzen dabela.

2. "Nagusiak" zapi bat dauko eskuetan, eta talde biribilaren kanpotik, astiro-astiro doa, eta eskuetan daroan zapia, atzeko aldetik, mutil nahi neskearen oinetan ixten dau. Bere ibiltalditxoa jarraitzen dau, eta horrela, zapia itxi daben jokalariagana heltzean, hauxe esaten deutso: "Ez dozu ikusi zapia", "Kanpora joan behar dozu". Kanpora joan behar dau jokoa amaitu arte.

3. Nagusia atzetik igaroten danean, jokalari bakotxak bere oinetara begiratu behar dau makurtu barik. Zapia bere oinetan ikusten badau, hartu eta "nagusiari" arin jarraitu behar deutso jira osoa emon arte: harrapatzen badau, "Nagusia" kanpora doa eta berau "nagusi" jarten da. Baina ez badau harrapatzen, jokalaria joango da kanpora.

HOTZ! HOTZ! BERO! BERO!

Zerbait toki ezkutuan gordeten da.

Bilatzailea bere lanean dabil, eta noizean behin, jokalari batek "Hotz! Hotz!" esaten deutso urrunean badabil, edo "Bero! Bero!" hurrean badabil.

SALTO-JOKOAK ETA INDAR-JOKOAK

KOIXO-KOIXOKA

Bat aginduten, besteak esana egiten. “Hanka baten ganean tringo”, “bestearen ganean tringo”.

Tringo agintariak esaten dauenean, besteak hanka baten ganean korrika joaten dira, agintariak “bestearen ganean tringo” esan arte.

SALTOAK

1. Salto luzea.
2. Gorako saltoa: Kordel baten ganetik salto egitea, Olinpiadetako moduan.

SOKA-DANTZA

Neska eta mutil aparte, nahiz batera asko dantzatzen zan.

ERRENKADAN

Errenkadan lehenengo dana makurtuta, eskuak belaunburu gainean dabezala dago; bigarren dagoanak honen ganetik, alderdi batetik bestera haren lepoaren ganean eskuak ipinita salto egiten dau eta jarraian makurtuta gelditzen da, eskuak belaun buruetan dabezala; hurrengoak bere bardin… enparantzan mustur batetik besterako bidea egin arte.

TXORRO, MORRO…

Ibarrangelutarrentzat atzamarren izenak:
Erpurua, Txorro, Pulgar
Sendoa, Morro, Indice
Luzea, Piko, Mayor
Makala, Tallo, Anular

Txorro, morro. Ibarrangelu, 2009.

Atxakandaria, Ke, Meñique

Zuzendaria bat da. Jokalariak, egin daigun lau bikote dirala (azpian lau eta gainean beste lau).

Hara eta hona ibili leitekez, edo geldi egon. Zuzendariak deadar egiten dau: txorro, morro, piko, tallo, ke! Eta atzamar bat gora jasoten dau.

Izentauta dagoan azpiko batek atzamar baten izena esaten dau. Izen hori bada zuzendariak gora jasota daukan atzamarrarena, zaldi egiten dagozanak zaldun izango dira, eta zaldun ziranak zaldi izango dira. Eztabaida bat sortzen bada, zuzendariak auzia argituko dau.

BUZTARRIKA

1. Batak bere eskumako besoa eta besteak bere ezkerrekoa alkarren ganean ipinten dabez.

2. Hirugarrenak bere burua apurtxo bat makurtuta, beso bien azpian kokatuten dau: buztarri antzeko bat egiten dabe.

3. Honela hiru edo lau buztarrik polito olgetan, sakaka eta burruka egiten dabe.

PELIKAN

Burruka.

PELIKAN

Bik alkarreri eutsi eta batak bestea lurrera jaurti arte.

IKUBILKA

Hau gogorragoa zan: alkar jotea, boxeoaren antzera.

BULTZAKA (saka-sakaka)

1. Hiru edo lau alde batetik.
2. Hiru edo lau bestetik.
3. Alkarreri bultzaka, nortzuk indar gehiago.

ASTOKA

Lau edo gehiago bata bestearen ganean, eta beste aldean baita lau edo bost bina-ka alkarren ganean.

Ganean doazanak bultza egiten deutse besteai, lurrera jausi daitezan.

PULTSOAN

Zeinen besoetan indar gehiago edo zeinek "pultsoa" indartsuago eukan ikusi eta jakitea gogoko jakun.

HERRI-KANTUAK

BALADAK[1]

KANZURIANO

1
–Kanzuriano, Kanzuriano, lo bazagoz iratzarri.
–Ez nago ni lo, ez nago ni lo, moru herriko moruori.
2
Nok esan dotsu neure izena, truko herriko trukuori?
–Enaz ni moru herrikua, gitxiago truku herrikoa,
3
hobetuago izango naz ni zeruetako aingerua.
Jaun zerukoak bialduten nau gaur zugana mandatari,
4
zure esposa doña Errosa bihar da esposa barri,
bihar da esposa barri eta bihar goizeko heldu bedi.
5
–Hemendik eta nire etxera bostehun legua da bide
nik harek zelan ebagi?
–Horrek ebagitiarren zer emongo zeunskio zuk hari?
6
–Berrehun kana urre zintxa Ama Graziakuari,
hamalau libra argiziritxu Andra Santa Ursulari.
7
–Horra hor goian zazpi zaldi euretariko bategaz gau edo egun ebagi.
…

[1] Kantu mota honen berezitasunak eta kantuak eurak liburu honetan jasota dagoz: Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra: *Mendebaldeko Euskal Baladak. Antologia.* Labayru Ikastegia, 1995.

8

–Oles, oles, Dios te salve, nik ostatua nahi neuke.
–Hemen ez dago ostaturik eta beijue pobreori aurrera.

9

–Oles, oles Dios te salve, nik ostatua nahi neuke.
–Hemen ez dago ostaturik eta beijue pobreori aurrera.

10

–Oles, Oles Dios te salve, nik ostatu nahi neuke.
–Egun okupatue dogu eta beijue pobreori aurrera.

11

–Kanzuriano bizi zanian pobriak hemen baeben ostatua.
–Kanzuriano aitxetu dau ta betor pobreori aurrera.

12

–Sillan jarri erromes hori, jan eta edan bada egarri.
Oinak garbitu, pañu hartun de sikatu
….

13

–Begiak begia badirudi, mihinak guzurra esan ez balegi,
Gaurko gure erromesonek Kanzuriano badirudi.

14

–Ixilik egon hadi batxillerrori, antxina hil da,
Enterrauta daukon Kanzuriano euriori.

15

–Hortxe kaixan dau ezpatie Kanzurianok itxije
…..

16

–Gaurko ezkongei honek ateraten badau ezpatie…
(Kanzurianok bakarrik daki zelan edegiten dan kaixie. Ezkonbarri izan nahi dabenak bere ez dau edegiten).
Joan da ezkongeiori, ez dau atera ezpata.

17

–Ia gaurko erromes honek etaraten daben ezpatie.
Joan da erromesa: atara dau ezpatia.

18

Pozez beterik doña Errosak: –Zu zara senar neuria.



Kansuriá-nón Kantie

– Kansuriano, kansuriano
Lo bá zago iratzari Bei
– Enago ni lo, enago ni lo
Moru eriko moru ori
Nok ezan dautzu neure-izena
Truko eriko truku ori?
– Enaz ni moru erikua
Gitxiago truku erikua
Abetuago izango naz ni
Seruetako aingerua
Saun zerukuak bialduten nau

3) Gaur zugana mandatari
Lare esposa Doña Eiosa
Bijar da esposa bari
Bijar da esposa bari eta
Bijar goizeko eldu bedi
– Emendik eta nire etxera
Basteun legua da bide
Nik arek zelan ebagi?
– Orek ebagitiaren
Zer emongo zeunskio zuk ari?
– Bereun Kana ure zintza
Ama Grazia kuari
Amalau libra argi-zintzu
Andra Santo Ursulári

- Oia or goian zazpi zaldi 4)
Euretariko bategaz
Gau edo egun ebagi
- Oles, oles, Dios te salve
Nik ostatua nai neuke
- Emen ez dago ostaturik eta
Beijue pobre ori auriera
- Oles, oles, Dios te salve
Nik ostatua nai neuke
- Emen ez dago ostaturik eta
Beijue pobre ori auriera
- Oles, oles, Dios te salve
Nik ostatua nai neuke

- Egun okupatue dogu eta 5)
Beijue probre ori auriera
- Kansuriano bizi zanian
Pobriak emen ba-eben ostatua
- Kansuriano aitxetu dau ta
Betor pobre ori auriera
- Silan jesari
Eromes ori
Oñak garbitu
Pañu artun de siketu
Apaldu (Aqui falta)
- Begija, begija, ba-dirudi
Miñak guzuria ezan ezpaledi
Gaurko geure eromesonek



6) Kansuriano ba-dirudi
- Txilik egon adi batxiler ori
Antxiña ilda enteranta daukon
Kansuriano euriori
2
Ortxe kaixan dau espatie
Kansuriánok itxije
(falta)
- Gaurko eskongei onek
Etaraten ba' dau espatie
(falta)
Luan da eskongei ori
Ez dau etara espatie
- Ta gaurko eromesonek
Etaraten daben espatie
Luan da eromesa ta



Etara dau espatie
Pozez beterik Doñok Erosak
- Zu zara senar neuria

1935ean kantuak eta esapideak batzen hasi zan koadernoan idatzita dauka kantua. Koadernoko orriak dira.

LEXIBATXU

Semetxu bigaz andrea etxean itxita, gizonak etxetik iges egin eban. Ez eutsan jaramonik egin bere andreari hainbat urtetan. Gero andra eta seme bien etxera bihurtu zan praile jantzita. Hona hemen euren alkarrizketa:

1
–Leixiba zuria daukazu, andra gaztia.
–Ondotxu egosita, aita prailea.

2
–Eskutxu zuriak dozuz, andra gaztia.
–Guantepean ibilita, aita prailea.

3
–Gizonik bai al dozu, andra gaztia?
–Indietara joan zan, aita prailea.

4
–Zenbat seme daukazuz, andra gaztia?
–Semetxu bi daukadaz, aita prailea.

5
–Ze opizio dauke, zure semiak?
–Eskolak ikastia, aita prailea.

6
–Suak erreko al zaitu, andra gaztia!
–Beori illunti dala, aita prailea.

7
–Urak eroango al zaitu, andra gaztia!
–Beori txalupa dala, aita prailea.



ERREZITADUAK ETA UME-KANTAK

AMES ONAK EUKITEKO[2]

San Mames, Mames,
Bart egin dot ames
Ona bada, bijon partez,
Txarra bada, aldrebes.

BATA

Bata, biga,
Hirua, laua,
Bota, seia,
Zapa zotza,
Berakatza,
Kirikiolatza,
PLUUUUUM!



[2] Esan egiten da. Iurretan San Mamesen ermitea dago eta hara eroaten ebezan umeak ames txarrak egin edo lorik egin ezin ebenean. Han andra bati ikasia da esakera hau.

DIN DAN

Din dan, nor hil de?
—Peru zapatarie.
—Zer egin dau pekatu?
—Auzoko txakurrak urketu.
Laba ganien siketu,
Parrila ganien briyedu.
Din, dan, din dan.



DINGILIN DANGILIN

Dingilin dangilin,
Mariñe,
Beti honela
Bagine,
Beti honela izan ezkero,
Gure errenten arine.
Dingilin dangulun…



ANDRESILA

Andresila, madre,
Txakurrek jan binabe.
Joan beste herrire,
Han be txakurrek dire.
Eta dire, eta dire, eta dire…



INUZENTE[3]

Inuzente
Potente,
Kaskamotz,
Burumotz,
Katilo bete
Salda-korotz.



[3] Abenduaren 28an, atzipetuari, engainatuari holan abesten jako.

HAURTXO TXIKIA

Haurtxo txikia
Negarrez dago,
Ama emozu titia,
Aita zuria tabernan dago
Pikaro jokolaria…



TXALOPIN TXALO

Txalopin txalo,
Txalopin txalo,
Katutxua mizpilen
Ganian dago.
Badago, bego,
Bego, badago.
Zapatatxu zuriari
Begira dago.
Badago, bego,
Bego, badago.



TXORI EDER FAMOSO

1
Txori eder famoso
Kanariakua,
Txikitxuten zinean
Zu fortunosua.

2
Arbolarik arbola
Ze(n)biltze zenien,
Ez zenduan pentsatzen
Norako zinien.

3
Ama didarrez dago,
Arbola ganetik
Kontuz ibiliteko,
Urteteko handik.



TXIKITXU POLIT HORI

1
Txikitxu politori,
Zeruan ze barri?
Zeruan barri onak
Orain eta beti.

2
Txikitxu politori
Hazite balego,
Amuman mandatuak
Zintzo egiteko.

3
Txikitxu politori
Hazite balego,
Aitxitxeri tabernatik
Ardao(a) ekarteko

4
Lo ta lo, lo tiritaina,
Ez egin lorik basoan,
Hartzen batek jan ez zaiezan
Bildotsa zarielakuan.
La..ra..lan…



LEHENENGOTXU HORI

1
Lehenengotxuori,
Punta behatzori,
Beste guztien artean
Txikia dok hori.
Larala…

2
Bigarrentxuori,
Punta behatzori,
Beste guztien artean
Makala dok hori.
Larala…

3
Hirugarrentxuori,
Punta behatzori,
Beste guztien artean
Luzia dok hori.
Larala…

4
Laugarrentxuori,
Punta behatzori,
Beste guztien artean
Sendua dok hori.
Larala…

5
Bosgarrentxuori,
Punta behatzori,
Beste guztien artean
Lodiya dok hori.
Larala…



KENAR AKER

1
Akerra joan zan
Ortua domatzen. (bis)

2
Txakurra joan zan
Akerra domatzen. (bis)
Txakurrak akerra,
Akerrak ortua ken,
Neure ortutxutik
Kenar aker.

3
Makila joan zan
Txakurra domatzen. (bis)
Makilak txakurra,
Txakurrak akerra,
Akerrak ortua ken,
Neure ortutxutik
Kenar aker.

4
Sua joan zan
Makila domatzen. (bis)
Suak makila,
Makilak txakurra,
Txakurrak akerra,
Akerrak ortua ken,
Neure ortutxutik
Kenar aker.

5
Ura joan zan
Sua domatzen. (bis)
Urak sua,
Suak makila,
Makilak txakurra,
Txakurrak akerra,
Akerrak ortua ken,
Neure ortutxutik
Kenar aker.

6
Behia joan zan
Ura domatzen. (bis)
Urak sua,
Suak makila,
Makilak txakurra,
Txakurrak akerra,
Akerrak ortua ken,
Neure ortutxutik
Kenar aker.

7
Sokia joan zan
Behia domatzen. (bis)
Sokiak behia,
Behiak ura,
Urak sua,
Suak makila,
Makilak txakurra,
Txakurrak akerra,
Akerrak ortua ken,
Neure ortutxutik
Kenar aker.

8
Sagua joan zan
Sokia domatzen. (bis)
Saguak sokia,
Sokiak behia,
Behiak ura,
Urak sua,
Suak makila,
Makilak txakurra,
Txakurrak akerra,
Akerrak ortua ken,
Neure ortutxutik
Kenar aker.

9
Katua joan zan
Sagua domatzen. (bis)

Katuak sagua,
Saguak sokia,
Sokiek behia,
Behiak ura,
Urak sua,
Suak makila,
Makilak txakurra,
Txakurrak akerra,
Akerrak ortua ken,
Neure ortutxutik
Kenar aker.

10

Atsua joan zan
Katua domatzen. (bis)
Atsuak katua,
Katuak sagua,
Saguak sokia,
Sokiak behia,
Behiak ura,
Urak sua,
Suak makila,
Makilak txakurra,
Txakurrak akerra,
Akerrak ortua ken,
Neure ortutxutik
Kenar aker.

11

Aguria joan zan
Atsua domatzen. (bis)
Aguriak atsua
Atsuak katua,
Katuak sagua,
Saguak sokia,
Sokiak behia,
Behiak ura,
Urak sua,
Suak makila,
Makilak txakurra,
Txakurrak akerra,
Akerrak ortua ken,
Neure ortutxutik
Kenar aker.

12

Heriotza joan zan
Aguria domatzen. (bis)
Heriotzak aguria,
Aguriak atsua,
Atsuak katua,
Katuak sagua,
Saguak sokia,
Sokiak behia,
Behiak ura,
Urak sua,
Suak makila,
Makilak txakurra,
Txakurrak akerra,
Akerrak ortua ken,
Neure ortutxutik
KENAR AKER.



ESAK BAT

1

Esak bat,
Gure Jauna bera da bat,
Berak salbauko gaiozak.

2

Esak bi
Erromako altarak bi,
Gure jauna bera da bat,
Berak salbauko gaiozak

3

Esak hiru,
Hiru Trinidadiak hiru,
Erromako altarak bi,
Gure Jauna bera da bat,
Berak salbauko gaiozak.

4

Esak lau,
Lau ebanjelariak lau,
Hiru Trinidadiak hiru,
Erromako altarak bi,
Gure Jauna bera da bat,
Berak salbauko gaiozak.

5

Esak bost,
Jesukristoren bost llagak bost,
Lau ebanjelariak lau,
Hiru Trinidadiak hiru,
Erromako altarak bi,
Gure Jauna bera da bat,
Berak salbauko gaiozak.

6

Esak sei,
Sei argiliriuak sei,
Jesukristoren bost llagak bost,
Lau ebanjelariak lau,
Hiru Trinidadiak hiru,
Erromako altarak bi,
Gure Jauna bera da bat,
Berak salbauko gaiozak.

7

Esak zazpi,
Zazpi sakramentuak,
Sei argiliriuak sei,
Jesukristoren llagak bost,
Lau ebanjelariak lau,
Hiru Trinidadiak hiru,
Erromako altarak bi,
Gure Jauna bera da bat,
Berak salbauko gaiozak.

8

Esak zortzi,
Zortzirak dira zeruak,
Zazpi sakramentuak,
Sei argiliriuak sei,
Jesukristoren llagak bost,
Lau ebanjelariak lau,
Hiru Trinidadiak hiru,
Erromako altarak bi,
Gure Jauna bera da bat,
Berak salbauko gaiozak.

9

Esak beatzi,
Beatzi ordenamentuak,
Zortzirak dira zeruak,
Zazpi sakramentuak,
Sei argiliriuak sei,
Jesukristoren bost llagak bost,
Lau ebanjelariak lau,
Hiru Trinidadiak hiru,
Erromako altarak bi,
Gure Jauna bera da bat,
Berak salbauko gaiozak.

10

Esak hamar,
Hamar mandamentuak,
Bederatzi ordenamentuak,
Zortzirak dira zeruak,
Zazpi sakramentuak,
Sei argiliriuak sei,
Jesukristoren bost llagak bost,
Lau ebanjelariak lau,
Hiru Trinidadiak hiru,
Erromako altarak bi,
Gure Jauna bera da bat,
Berak salbauko gaiozak.

11

Esak hamaika,
Hamaika mila aingeruak,
Hamar mandamentuak,
Beatzi ordenamentuak,
Zortzirak dira zeruak,
Zazpi sakramentuak,
Sei argiliriuak sei,
Jesukristoren bost llagak bost,
Lau ebanjelariak lau,
Hiru Trinidadiak hiru,
Erromako altarak bi,
Gure Jauna bera da bat,
Berak salbauko gaiozak.

12

Esak hamabi,
Hamabi apostoluak,
Hamaika mila aingeruak,
Hamar mandamentuak,
Beatzi ordenamentuak,
Zortzirak dira zeruak,
Zazpi sakramentuak,
Sei argiliriuak sei,
Jesukristoren bost llagak bost,
Lau ebanjelariak lau,
Hiru Trinidadiak hiru,
Erromako altarak bi,
Gure Jauna bera da bat,
Berak salbauko gaiozak.



AITXITXE MANTZANERO

Aitxitxe mantzanero,
Pipi hartzailie,
Pipiak erre deutso
Surraren puntie.
Aile, aile… aileaileaile.
Aile, aile… aileaileaile.



TXOMIN

Txomin, Txomin, Txomin
Tabernakue,
Zeu ikustera nator
Desiatue.

Antonio Polonio,
Paskual Bixente,
Errotako txakurtxua
Aurrian presente.



ARTOLAK TEKO

Artolak teko,
Artolak teko,
Artolak teko famie,
Berie dabela,
Berie dabela
Herri guztiko jentie.
Urra papan Ziziñi
Lapiko jota itzuli. (bis)

Artolak teko,
Artolak teko,
Artolak teko dendie,
Sagar ustelez betie.



KOPLAK[4] ETA DANTZARAKO KANTUAK

KOPLAK I

1

Jose Benito salaue, (bis)
Ferrolen esaminaue.
Portugaleteko barran
Trantze estue pasaue. (bis)
Larala lala…

2

Neure maitea zer dozu? (bis)
Koloreak zuri daukazuz.
Koloreak gorrituteko
Metal ura edan bihar dozu. (bis)
Larala lala…

3

Neure maitea zer dozu? (bis)
Koloreak zuri daukazuz.
Zure ezpan koipatsuekin
Ogirik ezin jan dozu. (bis)
Larala lala…

4

Antonio txoriburuk (bis)
Kalabazak ostu ei ditu.
Onenak etxian janda
Bestiak auzoan saldu. (bis)
Larala lala…

[4] Jabier Kalzakortak *Dantza-kopla zaharrak* liburuan (Labayru Ikastegia, 2007) hainbat herritan batutako kopladiak argitaratu ditu, hemen jasotako koplen antzekoakaz. Ibarrangeluko corpus honek beste kopladi bat osotuko leuke, gure herri-ondarearen aberasgarri.



KOPLAK II

1
Azak iminiteko
Ona da ortua, (bis)
Gerriko gorria da
Neure koinetua. (bis)
La la la…

2
Hau da lapikokua,
Hau dala saldie. (bis)
Nundik agertu zara
Zu kozinerie. (bis)
La la la…

3
Errementari baino
Hoba da zesteru, (bis)
Lepo bete makilaz
Etxe bete diru. (bis)
La la la…

4
Neronek ikusia
Mendi gailur baten, (bis)
Hamabi neska-mutil
Morokila jaten. (bis)
La la la…

5
Pasetan nazenean
Zure leihopetik (bis)
Negarrak urteten dost
Begi bietatik. (bis)
La la la…

6
Urkiola ganeko
Haizearen hotza. (bis)
Hantxe topadu neban
Praile burumotza. (bis)
La la la…

7
Azak eta porruak
Lehengusinak dira, (bis)
Herriko pobria da
Neure koinetua. (bis)
La la la…



KOPLAK III

1
Begire nago, begire, (bis)
Kamino bide barrire,
Noiz etorriko ete jakun
Neure maitia herrire. (bis)
La la la

2
Antoniok egin arren
Mutil gaztetzat burue,
Antoniok hantxe deukoz
Zazpi ume ta atsue. (bis)
La la la…

3
Tristerik nago tristerik,
Ez daukat marabedirik.
Ehun urteko agure zaharra
Daukat nik ohian geixorik. (bis)
La la la…



KOPLAK IV

1

Hartuten dozunian
Gatzan ardurie, (bis)
Akordako jatzula
Gazte denporie.
Ole, ole, ai!
Gazte denporie.
La… la..

2

Hankak arinak eta
Burue arinago, (bis)
Dantzan hobeto daki
Arta jorran baino.
Ole ole ai!
Arta jorran baino
La… la…

3

Gabaz berandu eta
Goixian logure, (bis)
Ez zara maitetxua
Osasunen gure.
Ole ole ai!
Osasunen gure.
La… la…



KOPLAK V

1

Ha mutil, ez haz egarri, (bis)
Begien duat igarri.
Hatx ondoko ur gardenak
Ez hau hi holan imini. (bis)
Larala…

2

Bilbo esaten dabe, Bilbo,
Etxagok Bilbo lakorik,
Txokolatie hartzeko
Fotagaz bero-berorik.
Larala…

3

Txikitxua zarian legez,
Bazinatekez perfekta,
Sarriago joko neukitzu
Zure atien kisketa. (bis)
Larala…



KOPLAK VI

1
Arin arin eiten deu
Soluan erbiek. (bis)
Hutsik itxiten ditu
Punturik erdiek. (bis)
La..la…

2
Marikita mutxatxa
Ze atso polite. (bis)
Bere trapu zarrakin
Moinua iminite. (bis)
La..la…

3
Askok egiten dio
San Antoniori, (bis)
Egun batean jun da
Bestian etorri. (bis)
Ai oi ai, bestian etorri.

4
Aita San Antonio
Urkiolakue, (bis)
Askoren bihotzeko
Santu debotue. (bis)
Ai oi ai, santu debotue.
Larala…

5
Durangon hasi eta
Mañarian gora (bis)
Aldats haundie dago
San Antoniora. (bis)
Ai oi ai, San Antoniora.

6
Esango neuke baina,
Enua esaten, (bis)
Anakaben alaba
Ezkontzen dala aurten. (bis)
Ole ole ai, ezkontzen dala aurten.

7
Hiru ta bi bost dira,
Bost eta bi zazpi, (bis)
Anakaben alaba
Nor dan askok daki. (bis)
Ole ole ai, nor dan askok daki.

8
Matxalen Busturiko
Amari negarrez, (bis)
Amantal gorri barik
Ezkonduko danez. (bis)
Ole ole ai, ezkonduko danez.

9
Artiaga ganeko
Anpoletatxue,
Zelan ajusta dozu
Zuk afeiterue?
Ole ole ai, zuk afeiterue.

10
Oilo baltzak eitxen deu
Arrautza zurije, (bis)
Hantxe barruan dago
Gregori txikije.
Ole ole ai, Gregori txikije.



PEPA IÑAXI SALADIE

Pepa Iñaxi saladie,
Korostako alabie,
Kamaran sagarrak legez
Zara zu eskojidie.



SANTA AGEDA

1
Zeru altuan izarra,
Errekaldian leizarra,
Etxe hontako uzaba jaunak
Urregorri du bizarra.

2
Urregorri du bizarra eta,
Diamantezko espalda,
Errialbikotan egingo leuke
Eleizarartino kaltzada.

3
Etxe hontako andra zabala,
Leku oneko alaba,
Bidian esaten etorri gara
Limosnera zariala.

4
Eder eleizan altare,
Harri labratuz pilare.
Birjina Amaren eskojiduak
Etxe honetan dirade.

5
Errotapian harriye,
Haren ganian txoriye.
Eraztun baten sartu leiteke
Maritxu zure gerriye.

6
Armariyuen sague,
Katue kontrariyue.
Etxe honetako uzaba jauna
Ondo gizon moduzkue.

7
Solomo garri luzie,
Haren koipien dultzie,
Zatirik kentzen ibili barik
Ekarri egizu guztie.

8
Eder soluen idie,
Etxien kapamorie.
Etxe hontako uzaba jauna
Ondo da gizon noblie.

9
Etxe honetako Mariye,
Ontxe esangotzut egiye.
Ixil ixilik ekarri egizu
Ollo pintoren habiye.

10
Etxe honetan Maria Anton,
Ez guri esan "Or konpon".
Danok daukagu herri honetan
Mutil formalen izen-on.

11
Okaran txiki gorri betea,
Aurten da zure urtia.
Txanpontxu batzuk emon ezkero
Urte guztiko bakia.

12
Etxe hontako jente noblia,
Ez gara zuekaz aztuko,
Hurrengoan be etorko gara
Zuek danok ikusteko.

13
Baguaz geure bidean,
Santa Agedakin batean,
Urte on-on bat izan eizue
Osasun eta bakian.

14
Agur esaten deutsugu
Santa Agedakin batean,
Bere laguntza izan beizue
Osasun eta bakean.



SANTA AGEDA II

Eup!

1
Bedeinkatua izan dedila
Etxe hontako jentia.
Pobre ta umil dabilanentzat
Badute borondatia.

2
Oles, oles etxekuak,
Hemen gatoz eskeikuak.
Santa Agedaren alabantzak
Dira gaur gure kantuak.

3
Santa Ageda preso zanian
Zan mirari bat haundia.
Zeruetatik jatsia jakon
Jaungoikoaren argia.

4
Esan eutsienian
"Nahi dozu gure legean?
Bestela presentatuko zara
Kinzianoren aurrian."

5
Berduguaren berbia,
Sua eta ezpatia.
Santa Agedaren bihotz onian
Ez da agiri ikaria.

6
Gorrotuaren indarra,
Jentilen bihotz gogorra.
Irrista baten Santa Agedari
Kendu eutsezan bularrak.

7
Jentil gogorren eskuetatik
Jausi zan kalabozuan,
Agoniako ordu santua
Ondo ezagutu zuan.

8
Hilten egoan orduan
Jaunari deika egoan.
Gaur Santa Ageda aurkitzen da
Aingeruekin zeruan.



ABARKETAK URRATUTA

Abarketak urratuta
Zapatarik ez,
Bermion gelditu nintzan
Oineko miñez. (bis)
Hauxe da kontue
ta istribillue,
Ardaue pagetako
Ez dauela dirue.



AITA SAN MIGEL

Aitxe San Migel
Ijurretako,
Zeru altuko lorie.
Agure zaharrak
Dantzan ikusi
Ta harek eitxen [di]tuz barriek,
Agure zaharrak
dantzan ikusi
Ta harek eitxen [di]tuz barriek.

Aitxe San Migel
Ijurretako,
Zeru altuko lorie.
Atsotxu zaharrak
Kantan entzunda
Ta harek eitxen [di]tuz barriek,
Atsotxu zaharrak
Kantan entzunda
Ta harek eitxen [di]tuz barriek.

Txomin Domingo
Lekerikeko,
Hiru lukeinka
Aparitxeko.
Zeuk neuri esateko
Txorierrikue,
Zein herri ete dago
Txoririk bakue?



JOSEPA ANTONI

Josepantoni, kolore gorri,
Kapitan baten alaba,
Aitak doterik emon ez arren,
Bilatuko dau senarra.

Astelehenian ezkondu eta,
Martitzenian basora,
Eguaztenian orbelak batzen,
Eguenian etxera.
Barikuan be orbelak batzen,
Zapatuan etxera,
domeka goixin apaindu eta,
harrametako Mezara.



HONDARRABIA

Hondarrabia
Herri txikia,
Erdian plaza zabala.
Alargun batek
Hantxe jaukazak
Ederrak hiru alaba.
Itzal handiaz
Eskatu nion
Eman deidala
Zaharrena.
Errespuesta
Laster emona,
Mutil pobria
Nintzala.
Mutil pobria
Ni banaz bere,
Zu panaderan
Alaba.
Ogi berotan
Jango genduke
Zure ta nire
Kaudela.



EGUTEGIARI LOTUTAKO KANTUAK

KEBONIKOAK[5]

Lehenengo egunean holan abesten genduan:

1
Abendu santo honetan
Kristoren jaiotzia,
Kontentuaren haundiz
Guztiok poz gaitian.
Jesus Maria,
Maria Jose,
Jesus Maria.

2
Linboan egon zan deiez
Bost mila urtean,
Jauna zerutik lurrera
Etorri zanian. Jesus…

3
Trinidade altuko
Bigarren personia
Haragiz agertu zan
Belengo portalian. Jesus…

[5] Ikusi "Gabonetan" izeneko atalean kantu honen ganeko barriak.

4
Adan formadua zan
Lenengo lurrian,
Pekatu egin eban
Paraiso terrenalian. Jesus…

5
Erabagia izan zan
Trinidade altuan,
Behar zala bialdu
Lur hontara Semia. Jesus…

6
Mirari bat haundia
Zerutik lurrera,
Haragiz jantzia da
Jaungoikuaren Semia. Jesus…

7
Eguzki Dibinala
Gauaren gaberdian
Etorri zan mundura
Gizonaren antzian. Jesus…



Bigarren egunean (abenduaren 23an)

1
Edegi dira zeruen
Ata diamantezkuak,
Harexekin batera
Bentana izarrezkuak.
Jesukristo
Ai ze ume polita, Jesukristo.

2
–Nor, eta nor bizi da
Etxetxu zahartxu honetan?
–Nor eta zer gura zenduke
Jaunaren ordu honetan?
Jesukristo
Ai ze ume polita, Jesukristo.

3
Hotzaz dardaraz dago
Jaio dan Infantia,
Bere Amak dirautso:
–Ixi, ene Semia.
Jesukristo
Ai ze ume polita, Jesukristo.

4
Bilozik bazagoz bere,
Ez zara zu pobria,
Zeruen josirik dago
Zuretzako erropia.
Jesukristo
Ai ze ume polita, Jesukristo.

5
Sutxu bat egiten hasi
Estalpe baztarrian,
Haiziak eta bisutsak
Eginalian eroian.
Jesukristo
Ai ze ume polita, Jesukristo.

6
Sakramentu santu Jauna
Zelebratu zanian,
Izena ipini eutsen
Jesus Salbadoria.
Jesukristo
Ai ze ume polita, Jesukristo.



Hirugarren egunean (24an, Gabon egunean)

1
Hogeta laugarrena
dogu abendua, (bis)
Desio genduena
bai lortu genduan.
Eta bai Belenen, eta bart Belenen
Jaio da Jesus Nazaren.

2
Belengo portalian
Estalpe batian
Jaio da gure Jesus
Ganadu artian.
Eta bai Belenen eta bart…

3
Beleneko urian
Gabon gabaren erdian
Birjiña Maria dago
Kontsolazino haundian.
Eta bai Belenen eta bart…

4
Korraletako ardiak bere
Dantzan ebizan orduan, (bis)
Gure Salbadoria
Jaio dalako munduan.
Eta bai Belenen eta bart…

5
Hortixik gora ninoiela
Ospitaletxu zahar baten
Aita San Jose topatu neban
Astotxu bat txalmatzen.
Eta bai Belenen eta bart…

6
Nazareteko tenpluan dago
Andra eder bat jarririk,
Ixena bere Maria dauko
Ondo graziaz beterik.
Eta bai Belenen eta bart…



SEINTXU TXIKITXU[6]

Seintxu txikitxu
Eta politxu,
Geure bihotzeko laztana,
Zerutik lurrera etorri zara
Atiak edeitxen geugana. (bis)
Guztiok poztu gaitezen
Harekin Gabon gabean.
Alala, jajaja, alala, saltoka, ijija, ajaja, alala, jajaja
Haregaz Gabon zanean,
Zeruko loria lurrian.



[6] 1935. urtean Ibarrangelun "Jesus jaio dala eta" abestuten zan, gero gu baino belaunaldi bat aurreragokoak beste abesti hau be abesten eben.

JESUS JAIO DALA ETA

1
Jesus jaio dala eta
Aingeruak dauz kantari,
Aingeruak kantari eta
Artzain pobriak dantzari.
Lara la…

2
Ibarrangeluko umiak
Gabon egun eder honetan
Zorionak opa deutsuez
Zuen bizitzako egunetan.
Larala…

3
Lasto ganian dago Jesus
Beleneko estalpe pobrian.
Jose ta Maria han daukoz
Beleuniko bere aurrean.
Lara la…



HATOR, HATOR

Hator, hator, mutil etxera
Gaztaina zimelak jatera,
Gabon gaba ospatuteko
Aitaren ta amaren onduan.
Ikusiko dok aita barreka,
Ama be poz-atseginez.
Eragiok, mutil, aurreko danbolinari
Gaztainak erre artean,
Gaztainak erre artean,
Txipli txapla pun.
Gabon gaba pozik igaro daigun.



URTEBARRI

Urtebarri karri,
Txarri belarri,
Dekonak eztekonari
Emotie sarri.
Lau intxaurtxu,
Lau gaztaina,
A la montaña.
Txibiri txibiri taña,
Vete a la montaña.
Urte zaharra joanda,
barria etorri,
Niri emon biharkozu
Urtebarri sarri.



KANDELERIO

Kandelerio, lerio,
Hatxari ure dario,
Makatzari madari.
Nun da Peru motzori?



ARRE LANDO[7]

Arre lando lando,
Marikita buscando,
Cinco compañias.
Hemen gatoz lau,
Kanpa joten bi,
Emoizu limosnia
Jaungoikuagaitik.



DONIENE (San Juan aurreko gabean)

Doniene moniene
Bezpera gabien
Abadiek hasarratu zirien.
Ez eben besterik egiten,
Alkarreri musturren ausitxen.

Eta Doniene eta Doniene,
Erre sorgintxuak,
Ondo erre,
Arto garitxuak
Ondo gorde.
Eta Doniene eta Doniene.



[7] Guk urte batzuetan ez genduan gehiagorik abesten "Urtebarri karri" baino. Gero, nire ustez gitxi gorabehera 1925garren urtean, hasi ginan beste hau be abesten.

LINUAREN PENAK GORULARIAK[8]

1

Kantatu dagiguzan
Linuaren penak,
Ezpata honen hotsian
Izanik latzenak. (bis)
Alkar ondo harturik,
Soinua neurturik,
Gorputzeko nekiak
Ixteko arindurik. (bis)

Leloa

Zare neskatilak
Euskaldun ez hilak.
Ez dau inor lurrian
Zuen bihar ez danik,
Ez atso ez agura,
Alkondara barik. (bis)

2

Txarrantxia deritxon
Orrazi askatuba
Ikusten da ostera
Ondo katiguba. (bis)
Linua agorra bada,
Jakoz ataraten,
Danak eroateko
Gero ezpatatuten. (bis)

3

Euskaldun neskatilak
Nekiak harturik
Ez dabe honetako
Inoren biharrik.
Eurak dira ereila,
Lino gidariak,
Eule bai eta jostun
Ta gorulariak. (bis)



[8] 1951ko urtean Ibarrangeluko "Lorea" taldeko eskola neska-mutiltxoak goruetan balegoz moduan urteten eben, eta antzerki baten moduan, plazan bakotxa bere zeregina egiten jartzen zan. Batzuk ezpateagaz, linua landu eta biguntzen beste batzuk; neska batzuk txapinak egiten eta beste batzuk jazten; azkenik, taldetxu bat txarrantxeagaz. Antzezleak neskak ziran danak, eta antzezleen erdian mutilak jartzen ziran kantu hau abesten. Guztira 30 bat ume. Kantuaren leloa herriak eurakaz batera abesten eban.

GOIURIAKO ANDRA MARIARI

Agur Goiuriako
Amatxo ederra
Amatxo ederra.
Aingeru ta gizonen
Pozkide zu zara.
Agur Goiuriako
Amatxo ederra.

Zure laguntza eske
Gatoz Ama maite,
Gatoz Ama maite.
Gugaz orain da beti
Akordatu zaite.
Gugaz orain da beti
Akordatu zaite.

Zeruetan zauzana
Zorion beterik
Zorion beterik.
Inor ez dozu ixten
Deituten deutsunik
Iñor ez dozun ixten
Deituten deutsunik.



BERTSO BERRIAK SENPELARREK JARRIAK
TONKIN'EKO OBISPO JAUNAREN BIZITZA,
BALENTIN BERRIOTXOA, ZERTURIA'N,
MARTIRIZATUA, 1861'GARREN URTIAN,
SANTU GUZTIEN EGUNEAN,
ELORRIO'KO NATURALA.[9]



1
Milla zortzireun irurogei ta
Au zazpigarren urtia,
Kristo zerutik jetxi zenetik
Oneraño bitartia;
Iru obispok pasatu duten
Martiriyuaren fuertia!
Penagarriya izan da oien
Munduko errematia.

2
Baten bizitza kanta dezadan
Au da bigarren bertsoa,
Elorrio'ko naturala da
Balentin Berriotxoa;
Aita ta ama Bizkaia'n daude,
Semia an il da gaizoa,
Salbajietan kunplitu zaio
Eriotzako plazoa.

3
Amairu urtetik amabostera
Estudiyo bat ikasi
Gero aitaren ofizioa
Erakusten zuten asi;
Gogoa zeukan apaiz eginda
Naiago zuela bizi,
Tormentu gutxi mundu onetan
Eztu beregan ekusi.

[9] Xenpelar bertsolariaren bertso hau eta bere doinua hemendik hartu dira: Zavala, Antonio. *Xenpelar bertsolaria.* Tolosa: Auspoa, 1981.

4
Berrogei urte orain zituen
Gertatu balitz bizirik,
Ogei ta zazpi lendabiziko
Estudiatzen asirik;
Seminario batera joan zan
Karpintero ikasirik;
Negarrez nabil aren pausoak
Ezin adierazirik.

5
Seminario eder batian
Logroño'n apaiz egiña,
Beste guziak bañan lenago
Ikasirik esamiña,
Buru abilla izanik eta
Fede santurako fiña;
Negarrez urtu laiteke artaz
Akordatuko bagiña.

6
Ogei eta lau urte zituen,
Etzeukan momori illa,
Kolejiyoko maisuak beziñ
Estudiante abilla;
Obispo jaunak ezaguturik
Justua eta umilla,
Agindu zuen meza emanta
Erretiratu zerilla.

7
Goizeko labak jotzian meza
Eman ta konfesiyora,
Barau egiñez obra onetan
Pasatzen zuen denbora;
Pobrerik iñoiz etortzen bazan
Eskian atal ondora,
Bere ogia ari emanta
Deboziyua gogora.

8
Logroño'n meza eman zuen ta
Elorrio'ra etorri,
Predikatzen da konfesiyuan
Bere erriyan zan jarri;
Azpeitiya'ko San Inaziyo'n
Bisita egin du sarri;
Azkenerako arren pausoak
Ziraden lastimagarri.

9
Suertatu da gure Balentin
San Inaziyo'n sartzia,
Pensatu zuen ango Padria
Adbertentzian jartzia
Nola nai zuen Santo Domingok
Zeukan jantziya artzia,
Ia fabore egingo ziyon
Al bazuen ekartzia.

10
Ango Padriak maite izanik
Ipiñi zuen kontuan,
Agindu ziyon sartu zerilla
Ocaña'ko komentuan;
Bire guziyan eskian joan zan,
Gaubak askotan kanpuan,
Bere korputza azotatuaz
Allegatzen zan lekuan.

11
Allegatu zan Ocaña'ra ta
Eman zioten jantziya,
Berak nai zuen korputzarentzat
Alako penitentziya;
Munduko gauza guztiyak beti
Alde batera utziya,
Neke trabaju naigabietan
Artu du pazientziya.

12
Gure Balentin Berriotxoa'k
Egin zituen pausoak,
Konsideratzen jarri ezkero
Dirade lastimosoak;
Beti negarrez Jesusengana
Zabaldurikan besoak,
Aren biotza konsolatzen du
Zeruko usai gozoak.

13
Pasiatzera etzan joaten
Komentuko lagunakin,
Etxian zeukan tertulia ona
Errosario birekin;
Bere korputza martirizatzen
Azote diziplinakin,
Oraziyoak baliyo badu
Zeruan dago Balentin.

14
Bakardadian oneraño zan
Balentiñen istoriya,
Ocaña'tikan Manilâ ziran
Zortzi ministro abiya,
Barkuan ere sufritu dute
Makiña bat komeriya;
Biotza penaz urtu laitake
Ez baldin bada arriya.

15
Ocaña'tikan Manila'raño
Barkuan bost illabete,
Jakiña dago izango zala
Asko leguaz aparte;
Zortzi ministro oien artian
Au zan sobresaliente,
Gure Balentin ango maisuak
Obispo nonbratu dute.

16
Ango Padriak agindu ziyon
Esku-bidia artzeko,
Predikatutzen asi zerilla
Kristandadian jartzeko,
Konfesiyo ta barau-egunak
Animaz akordatzeko,
Pekatuaren mantxa Judasen
Kalabozuan sartzeko.

17
Artua jan ta ura erari
Arri gañian lo egin,
Beti Jesusi erregututzen
Gutaz akordatu dedin;
Kristandadia nai zuenari
Konfesiyoak eragin,
Jakiña dago salbajiakin
Etzeguala atsegin.

18
Erreinu artan gobernadore
Salbajien nagusiya,
Jaungoikoaren bildur gabia
Estranjeriyan aziya:
Relijiyoko fede santuan
Jarri nai duen guziya,
Agindu zuen plazan kentzeko
Ezpatarekin biziya.

19
Garagarraren landabiziko
Goizian ziraden asi,
Arratserako bost milletatik
Etzan granorikan bizi;
Fede santuko kristabak iltzen
Zituenian ekusi,
Balentin bere lagunetara
Abiatu zan igesi.

20
Pedro Almato eta bestia
Jeronimo Hermosilla,
Gero Balentin Berriotxoa
Saltatu zan oben billa;
Iru obispo juntatu ziran,
Zeukaten biotz umilla,
Aien bizitza laster izan da
Martirizatuta illa.

21
Arrapatuta kate gogorrez
Lotuak zeuden elkarri,
Iltzeko eman sententziya ta
Kartzela banetan jarri;
Soldadu-tropa baten erdiyan
Gero plazara ekarri,
Ezpatarekin lepuak moztu
Dizkate lastimagarri.

22

Orretarako eskatu zuten
Ordu beteko lekua,
Jaungoikoari egin artian
Beren ofrezimentua;
Gobernadore batek eman du
Pena kastidarekua,
Iñor oietaz damutzen bada
Bertan kentzeko lepua.

23

Iru obispo oien korputzak
Ogei eta lau orduan
Iduki eta enterratuak
Urrikaltzeko moduan;
Oriental'ko probintziyan da
Jeu-dat deitzen dan lekuan;
Erregutzen det aien animak
Gerta ditezen zeruan.

24

Orra ogei ta lau bertso berriyak
Ejenplo eder batian,
Oroipengarri kanta ditzaten
Pekatarien artian;
Ai, gure Jesus, eskatzen dizut
Grazi au errematian;
Komeni da ta sartu gaitzazu
Zeruetako atian.

DANETARIKOAK

ANTXINAKO ARRANTZALEEN OTOITZA[10]

Zeuk baretuten dozu
Itxas hasarria,
Zeure pekuan dago
Marinel tristia.



[10] Berez, Antiguako Amaren kantua da: "Salbea Salbe Jaungoikoaren / Ama orban bakua, / Lekeitioko Izar / Antiguakoa. / *Zeuk bigunduten dozu / Itxaso asarria / Zeure kontura dago / mariñel tristea;/* Salve bat kantau eta / besterik bagarik / sarri ikusten dira / librauta arriskutik, / arriskutik, arriskutik. / *Zeuk bigunduten dozu / itxaso asarria, / Zeure kontura dago / mariñel tristia, / Mariñel tristia.*"
Neure amak aita galdu eban itxasoan 1912an, eta sarritan abesten eban kantu hau itxasora begira.

KUKUA

Horra hor goiko
Harestitxu baten,
Kukuak hiru ume
Egin jozak aurten.
Kukuak egin
Amilotzak jan
Haxe bere kukuaren
Zoritxarra zan. (bis)
La la, lara la la la



HARAKO ANTXINAKO

1
Harako antxinako
Bioren kontuak,
Ixilik egon arren,
Ez daude ahaztuak.

2
Pasetan nazenian
Zure leihopetik,
Negarrak urteten dost
Begi bietatik.

3
Esaten zeustanian
Mantekia legez,
Biziko giniala
Erregiak legez.

4
Ezin bizi neiteke
Erregina legez,
Orain brijiduten naz
Kipulia legez.

5
Harako antxinako
Erromera zaharra,
Han ba zer esan zeustan
Akordatzen zara?

6
Madalen Madarija,
Andra ondradie,
Inok ez dau esango
Ha danik deungie.

7
Hilian mudantzia
Dakar erropia,
Hasiera onetik
Hasten dau udia.



KARLISTADAKO GERRA ABESTIA

Ansuategi traidoria,
Murriones faltsua,
Hara hirugarrena
Allende zorua.
Eta tiro eta tiro,
eta tiro baltzari,
eta tiro eta tiro
belarrimotzari.



MARITXU, MARITXU

Maritxu, Maritxu,
Gozozalea zara zu. (bis)
Goizean goizean
Txokolatie,
Arratsaldien koipetsu.
Maritxu, Maritxu,
Gozozalea zara zu.



NERE AITAK AMARI

1

Nere aitak amari
Gona gorria ekarri. (bis)
Berriz ere maiteko dio
Nere amak aitari.
Nere aitak amari
Gona gorria ekarri.

2

Gona gorri gorria,
Zazpi jostunek josia. (bis)
Berriz ere maiteko dio
Nere amak aitari.
Nere aitak amari
Gona gorria ekarri.



AZKOITXITIK AZPEITXIRA

–Marije Goikoaneko!
–Zer gura dona Beko?
–Ai! Peru guriari
Putzak urten dio!
–Peru guriari
Putzak urten dio?
–Bai, putzak urten dio.
Errezatu egin behar jako
Errezatu!
    Ai! Peru guria
    Ibil zanean
    Azkoitxitik eta
    Azpeitxitik
    Txangulun gorriak
    Harrapatzen.
Txangu lungu
Lungu lungulun.
–Bai errezatu behar jako
Errezatu!!
Txangu lungu
Txangu lungu
Lungu lungulun.



URRA LABIRU

Urra labiru labiru labirurena
Urra labiru labiru labiruron. (bis)
Urra labirurarena urra labirurena
Urra labiru labiru labiruron. (bis)
Urra labirurena urra labiruron
Urra labirurena urra labiruron.

Jente askok esango dau
Umore onian gaudenean.
Kuadrila hori sarritxutan
Deskuidatzen dala edanean. (bis)
Gora, gora, gora, gora,
Geure leinuan dabizenak,
Goazen, goazen, goazen, goazen,
Gure lagunakana.

Edurra teilatuan
Zakua lepuan,
Ibili beharko dogu
Aurtengo neguan. (bis)
Riau, riau, riau, rakataplau.
Hau dot umoria
Itxi alde batera
Euskaldun jentia.
Riau, riau, riau…


U - rra la-bi-ru la-bi-ru la-bi-ru la-bi-ru - re - na u - rra la-bi-ru la-bi-ru
la-bi-ru la-bi-ru - ron. U - rra la-bi-ru - re - na-re - na u - rra la-bi-ru - re - na
u - rra la-bi-ru la-bi-ru la-bi-ru la-bi-ru - ron. U - rra la-bi-ru - re - na u - rra la-bi-ru-
ron u - rra la-bi-ru - re - na u - rra la-bi-ru - ron. U - ron. Jen - te as - kok
e-san-go dau u-mo-re o-ni-an gau-de-ne-an. Kua-dri-lla ho-ri sa-rri-txu-tan des-kui-da-tzen da-la
e-da-ne-an. Go-ra, go-ra, go-ra, go-ra, geu-re lei-nu-an da - bi - ze-nak,
goa-zen, goa-zen, goa-zen, goa-zen, geu-re la - gu-na-ka - na. geu-re la-gu-na-ka - na. E-
du - rra tei - la - tu - an za - ku - a le - pu - an, i - bi - li behar-ko do - gu aur-
ten-go ne - gu - an. Riau, riau, riau, ra-ka-ta - plau. Hau dok u - mo - ri-
a i - txi al-de ba - te - ra eus - kal - dun jen - ti - a. Riau, riau, a.

HAU DA PANDERO BARRIA[11]

Hau da pandero barrie,
Gerniketik ekarrie,
Hamar erriel pagetako
Ez dala urre gorrie.



AEROPLANO BI

Aeroplano bi pasata,
Bat itxosora jausi. (bis)
Ekarri, Seberianok ekarri, Seberianok ekarri,
Seberianok Barrenkonduan itxi.
Egie da, egie da,
Neuk ikusie da eta,
Egie da, egie da,
Neuk ikusie da.



[11] Aurreko "Urra labiru" kantuaren jarraipen moduan kantetan da askotan.

AI, JULIAN

Ai, Julian, Julian, Julian,
Errotapian, errotapian,
Ai, Julian, Julian, Julian,
Errotapeko harrian.
Larala… (bis)

Urkiola ganeko benteru zaharra
Larogei garren urtian,
Geixo dala-ta sangradu dabe
Orkatillako zanian.

Urkiolan nik pregunta:
Nun da Mari Jesus?
Iturrira joan da
Laster da etorri,
Mandozain mutillakin
Tarda ez baledi.



KONTRABANDOREN[12]

Kontrabandoren
Kontrabandoren
Kontrabandia. (bis)
Ratxin, ratxin, ratxin,
De bandia. (bis)

Txomin, Txomin, Txomin
Tabernakua,
Zeu ikustera nator
Desiatua. (bis)



[12] Mutikotan plazan, eskola ondoan, alkarregaz saltoka esaten genduan. Bueltaka eta arbolapetik arbolapera ibilten ginan hori kantetan.

IXIL IXILIK

Ixil ixilik dago
Kala barrenian,
Ontzi txiki polita
Uraren ganian. (bis)

Pasaten naizenian
Zure leihopetik,
Negarrak urteten dost
Begi bietatik. (bis)

Zergaitik, zergaitik, zergaitik, zergaitik,
Zergaitik negar egin?
Zeruan izarrak dagoz
Itxaso aldetik.

O maitia, o laztana,
Neure poza ta atsegina,
Zu barik neure bihotza
Mingots iluna da.

Bat, bat, bat,
Bart errondan ibili.
Bi, bi, bi,
Ez naz ondo ibili.
Hiru, hiru, hiru,
Kolkua bete diru.
Lau, lau, lau,
Sardina makilau.

Anteron txamarrotie,
Txingarren bibotie,
Harexek ei dauko
Preso tximinoie. (bis)

I - xil i - xi - lik da - go ka - la ba - rre - ni - an, on - tzi txi - ki po - li - ta u -

7 ra - ren ga ni - an. Pa - sa - ten nai - ze - ni - an zu - re lei - ho - pe - tik,

13 ne - ga - rrak ur - te - ten dost be - gi bi - e - ta - tik. tik. Zer - gai -

18 tik, zer - gai - tik, zer - gai - tik, zer - gai - tik, zer - gai - tik ne - gar e - gin? Ze - ru - an i - za - rrak

23 da - goz i - txa - so al - de - tik. O mai - ti - a, o laz - ta - na, neu - re po - za

29 ta a - tse - gi - na, zu ba - rik neu - re bi - ho - tza min - gots i - lu - na da.

34 Bat, bat, bat, bart e - rron - dan i - bi - li, bart e - rron - dan i - bi - li.

41 Bi, bi, bi, ez naz on - do i - bi - li, ez naz on - do i - bi - li.

48 Hi - ru, hi - ru, hi - ru, kol - ku - a be - te di - ru, kol - ku - a be - te di - ru.

55 Lau, lau, lau, sar - di - na ma - ki - lau. An - te - ron txa - ma - rro - ti - e

60 Txin - ga - rren bi - bo - ti - e, ha - re - xek ei dau - ko, ei dau - ko, pre -

65 so txi - mi - noi - e. An - te - ron txa - ma - rro - ti - e, Txin - ga - rren bi - bo - ti -

71 e, ha - re - xek ei dau - ko, pre - so txi - mi - noi - e, An - te - e, ha -

77 re - xek ei dau - ko pre - so txi - mi - noi - e.

BERMEOKO PORTUAN

Bermioko portuen
Goizeko ordu bietan.
Ez da entzuten besterik,
Ez da entzuten besterik,
Ez da entzuten besterik,
Txo! Atrakaixu batela.
Egie da, egie da,
Neuk ikusie da eta. (bis)

Jose Migelen batela,
Txitxarrua ta berdela. (bis)
Jose Migel, Migel Jose,
Jose Migel, Migel Joseren batela.


Ber- mi - o - ko por - tu - en goi - ze - ko or - du bi - e - tan.
tan. Ez da en - tzu - ten bes - te - rik, ez da en - tzu - ten bes -
te - rik, ez da en - tzu - ten bes - te - rik, A - tra - kai - xu ba - te - la.
E - gi - e da, e - gi - e da, neuk i - ku - si - e da - e - ta
da. Jo - se Mi - ge - len ba - te - la, txi - txa -
rru - a ta ber - de - la, Jo - se Mi - ge - len ba - te - la, txi - txa - rru -
a ta ber - de - la. Jo - se la. Jo - se Mi - gel,
Mi - gel Jo - se, Jo - se - Mi - gel, Mi - gel Jo -
se - ren ba - te - la. Jo - se Mi - la.

SALTZEN SALTZEN

Saltzen saltzen,
Txakur txiki baten karameluak.
“Estan muy bien”
Esaten dau konfiteruak.
Cuando vamos (Nora!)
A Otxandiano (Noz!)
Santa Mañe egunian,
Tomaremos txokolate (Nun!)
Bulkanoren aurrean.



CORPUS LEXIKOGRAFIKOA

BERBAK ETA LOKUZINOAK*

abegi onez hartu *ad. lok.*
Hacer un buen recibimiento.
Abegi onez hartu neu.

abemarietako *iz.*
Toque del tercer ángelus.
Ondo ibili, gitxi gasta eta asko nahasta... eta arimetxekuetan etxera.
○ Bederatzi kanpai ziran, eguzkia sartukeran.

abiantada *iz.*
Impulso, ímpetu.
Suek haiziegaz abijantada itzela hartzen eban.

abornadan (etorri/joan) *adb.*
Bruscamente.
Abornadan sartu zan etxin.
○ 'Abornada' berbeak "eraso" esan gura dau, gaztelaniazko 'abordada'-k legez.

abraso *adb.*
Bruscamente.
Abraso sartu zan etxin.

adu oneko (pertsona) [izan] *izlg.*
Tener suerte.
Adu onekue izen dadile hori umie.
○ "Adu onekue izen dadile hori umie" esaten zan bateatu bako umeen ganean. Bateatuta egon ezkero, barriz: "Jaungoikuek bedeinka deiela".

ahal *iz.*
Todo lo que se pueda.
Jan ahala janari dau.

---

* Atal honetan berba eta lokuzino sorta polita batu da. Beste garai baten espilu diran berbak, zein gaur be ahoz aho dabilzanak. Hiztegi moduan antolatuta dagoz, eta sarrerea be hiztegietako idazkeran emon jake. Gero, erderazko azalpen edo ordainaren azpian, Ibarrangeluko berbakeran sartu dira adibideak. Horrez ganera, berba batzuk argibideren bat daukie, ○ ikurraren ostean. Berba solteak ez eze, lokuzinoak be sartu dira: hau da, berba baten zeregina betetan daben hitz kateak (kasurako, 'lekutako tokian = urrin'). Erabileraz argibide gehiago emotearren, adizlagun batzuk aditza parentesi artean daukiela sartu dira, esaterako, 'kilimolon (ibili/egon)'. Parentesi horrek adierazoten dau batez be horregaz aditzagaz erabilten dala, baina beste batzukaz be erabilgarri dala.

ahari-topeka *iz.*
Pelea de carneros.
Ahari-topeki gogorra izan zan.

ahausika (egon) *adb.*
Ladrando.
Txakurre ahausika.

aho batez *adb.*
Por unanimidad.

aho beroko (gizon/emakumea) [izan] *izlg.*
Proclive al insulto; persona a la que se le calienta fácilmente la boca.
Aho berokue da.

aho bete hazurregaz itxi/gelditu aho bete haginekin gelditu/itxi *ad. lok.*
Dejar/quedarse sin nada.
Aho bete hazurrez itxi eban.
○ Beste testuinguru batzutan be hazurra hortz-haginen sinonimotzat erabilten da. Esaterako, umeen lehenengo hortzak urtekeran: "Ea, erakutsi hazurtxoak".

aho-mihinean ibili/erabili *ad. lok.*
Dar que hablar, andar en boca de la gente.
Hori edonun dabil ago-mihiñin.

ahozabal *adj.*
Bocazas, hablador -a, que no sabe tener la boca cerrada.
Ahozabal da.

ahuntzaren gauerdiko eztula (izan) *iz. lok.*
Fruslería, cosa fútil, de poca importancia.
Ez da hori gero ahuntzen gauerdiko eztule.

aida *interj.*
Voz empleada para arrear al ganado vacuno.

aiaia (joan/ibili) *adlag.*
De paseo, en lenguaje infantil.

aiko-maikoan (ibili/egon) *adlag.*
Débil, enclenque, pachucho -cha.
Aiko-maikun dabil.

aiko-maikotan ibili/egon *ad. lok.*
Estar en duda, indeciso -sa.
Ez ibilli aiko-maikutan.

aila *iz.*
Rabillo de la fruta.
Madari honek alla luzi deko.

ainen-urtika *adb.*
Blasfemando, maldiciendo.
Deunge hori añen-urtike jun de.

aintzat hartu *ad. lok.*
Tomar en consideración.

ala *iz.*
Dolor, sufrimiento.
Buruko aliez dau.
Ala haundijekin dau.

alagala bizi *ad. lok.*
Vivir fenomenal, opíparamente.
Alala bizi zara.

alagalako *izlg.*
Adecuado -da, idóneo -a.
Eguraldije be alalakue dau ibilteko.

albako *iz.*
Toque de campanas del alba.
Albaku jo.
○ Goizeko angelusaren kanpaiak.

albo-alboka (ibili) *adlag.*
Tambaleándose, dando bandazos.
Albo-alboka dabil.

aldean eroan/euki/izan *ad. lok.*
Llevar consigo, llevar encima.
Aldien darue.

alfairun joan/ibili *ad. lok.*
Andar sin rumbo fijo.

alkahuete ipini *ad. lok.*
Poner como excusa, usar como coartada.
Alkahuete ipiñi funerala, eta atrapetan eben mozkor bakotxa!

aloger *iz.*
Jornal, salario.
Alagora.

alogereko *iz.*
Jornalero, asalariado.
Alagoreku.

alperrontzi *adj.*
Gandul, perezoso -sa.
Alperrontzi galanta da hori.

ama etxean egon ez *ad. lok.*
Tener la suerte en contra.
Beti-beti eztau ama etxin.
○ Karta jokoan, galtzen dabilenari esaten jako.

ama izateko orduetan egon *ad. lok.*
Estar a punto de parir.

ama/aita hutsa izan *ad. lok.*
Ser igual que su madre/padre.
Ume hau ama huts-hutse da.

amantal *iz.*
Delantal.

amazulo *adj.*
Enmadrado -da.
Hau amazulo da.

amore emon *ad. lok.*
Ceder a causa del peso.
Tellatuko habeak amore emon dabe.

amore emon *ad. lok.*
Rendirse, arrojar la toalla.

amorearren *postp.*
Por el amor (de).
Ez ein hori, zeure umien amoriarren!
Jainkun amoriarren, erdu hona!

amuzki *iz.*
Cebo para la pesca.

amuzki *iz.*
Regalito, incentivo.
Amuzkijen bille dator.

andabide *iz.*
Camino mortuorio para conducir el féretro de la iglesia al cementerio.

andrakilatxu bat izan *ad. lok.*
Ser una muñequita.
Gure umi andrakillatxu bat da.
○ Neskato politen ganean esaten da.

angis *iz.*
Variedad de manzana dulce, sin acidez.

anpor *iz.*
Tronco de la zona de la raíz del árbol.

antxuldu *ad.*
Debilitar(se).
Gure amuma asko antxuldu de.

aparra-mantar *iz.*
Andrajo, harapo.
Eskeikue bere aparra-mantarrakaz.

apas egin *ad.*
Sentarse, en lenguaje infantil.

apatxotsean (joan) *adlag.*
Rápidamente, apresuradamente, a toda velocidad.
Apatxotsien jun zan.

apupa *iz.*
Hermana, amiga, en lenguaje infantil.

Arandatik Mirandara ibili *ad. lok.*
Andar de un lado a otro, de aquí para allá.
Banabil Arandatik Mirandara.
◦ Batetik bestera ibili, zentzun handi barik.

arazo *iz.*
Problema, molestia.
Zemat arazo dakastazuz!

ardura izan *ad.*
Importar.
Guri ezer ez deusku. Eta zuri zer?
◦ Adibidean lez, elipsia gertatu daiteke 'ardura' berbeagaz.

arimarik be ez (egon/izan) *izord. lok.*
Nadie, ni un alma.
Arimarik be ezta.

arimea ahoan (izan) *adlag. lok.*
Con gran miedo y angustia.
Arimi ahuen ebala etorri zen.

arimen *iz.*
Toque de ánimas.
◦ Hogeita hamahiru kanpai ziran, gauaren hasikeran, hilen gomutaz.

Armendu pipea hartzen egon *ad. lok.*
Nublarse la cima del monte Armendu.
Armendu pipi hartzen dau.
◦ Armendu Ibarrangeluko mendi baten izena da. Tontorra lainopean geratukeran esaten da pipea hartzen dagoela.

arnasestuka *adb.*
Jadeando, respirando fatigosamente.
Arnasestuke.

arnasoska *adb.*
Jadeando.
Arnasoska dator.

aro *iz.*
Tiempo adecuado para algo.
Biharrerako aro ona dau.

arpegi-ikuste *iz.*
Pedida de mano.
Arpei-ikustie.

arpegiko *iz.*
Sopapo, bofetada, torta.
Arpeiko bat emoten ba'tsut...

arranpalo *adj.*
Bullanguero -ra, escandaloso -sa.
Hor mari arranpalo.
◦ Andrazkoentzat, 'mari' ipini daiteke aurretik, beste izenlagun batzukaz egiten dan moduan.

arrantzaka (egon) *adb.*
Rebuznando.
Astua arrantzaka.

arre *interj.*
Voz con que se acucia a los animales de carga en general, y al asno en particular.

arre edo iso egin *ad. lok.*
Decidirse, tomar una decisión.
Gizona, egizu arre edo iso!

arrisku handian (egon) *adlag.*
En gran peligro.
Arrisku haundijen dau.

arteak ezin hartuta (egon) *adlag. lok.*
Estar intranquilo -la, nervioso -sa, excitado -da.
Artik ezin hartunde ibilli zan.

asko da ba! *interj.*
¡Vaya!, locución que expresa contrariedad o disgusto.
–Ezin neinteke etorri. –Asko da ba!

asmo eske ibili *ad. lok.*
Buscar pretextos.
Hor dabil hori, asmu eske.

astean bariku bi euki/izan *ad. lok.*
Pasar penurias, vivir con estrecheces.
Horraz badabil, etxakoz faltako astin bariku bi.

astegun buruzuri *iz. lok.*
Día de labor.
Astegun buruzurijen jantzan dabil.

asto joan eta mando etorri *ad. lok.*
Ir de mal en peor.
Hor dabil hori, asto jun de mando etorri.

asto-otzara *iz.*
Cesta para acarreo en burro.
○ Asto-otzarak bikotxak ziran, eta gauza garbiak eroateko erabilten ziran. Satsa eroateko, barriz, hordi-otzarak erabilten ziran.

astoaren ostikadea baino hobea izan *ad. lok.*
Menos da una piedra.
–Hau emon dost. –Ezta gauza haundije; baia, dana dala, astun ostikadi baño hobi de.

astokada *iz.*
Cantidad de carga que puede transportar un burro.
–Astokadie dakazu. –Bai, baia beluxerak.

astokilo *adj.*
Borrico, burro.
Mutil hori astokillue da.

atabal *iz.*
Palillo con que toca el tambor el txistulari.

ate joka (egon/ibili) *adlag.*
Llamando a la puerta.
Ate joka egon naz zuenin.

atera *ad.*
Castigar.
Amak atako'tsu.

atezuan (joan/ibili) *adb.*
Aprisa, con todo afán.
Etorri be, atezun dator.
Atezun dabil.

atraparatu *iz.*
Cosa, bulto sin identificar.
Ze atraparatu?

atxikandara *iz.*
Meñique.
Nora du, atxikandari apurtute?

atxit egin *ad.*
Despabilar una vela; limpiar con un palito la punta de la mecha del candil.
Ein atxit.

atxurren (ibili/egon/egin) *adb.*
Cavar con cierta profundidad.
Atxurren dau.

atzekoz aurrera *adlag.*
Al revés, la parte de atrás adelante.
Atzekoz aurrera deko jantzije.

au-au *iz.*
Perro, en lenguaje infantil.

aukak jan *ad. lok.*
No tener qué llevarse a la boca, vivir en la miseria.
Han aukak jango dauz.

aupa egin *ad.*
Levantarse, en lenguaje infantil.
Punba in dozu? Aupa!

aurki *adb.*
Pronto, dentro de poco.
Etorriko da aurki.

aurreragoko *adj.*
Preferente, preferido, -da.
Ni baiño aurreraokorik badau.

azao *iz.*
Gavilla.
Azaue illunti etorri naz. (Ilinti lez azaoa ekarrita)

azartau *adj.*
Atinado -da, acertado -da.
Gizon azartaue da hori.

azeri *adj.*
Persona astuta, maliciosa, tramposa.

azerikeria *iz.*
Malicia, astucia, jugarreta.
Azerikeri asko dabilstazuz, txotxo!

azkenera mardo (ibili/egin/jardun)
Acabar fuerte (un trabajo).
○ Beharra nekez hasi, baina azkenean polito dinarduanagaitik esaten da.

azpikoz gora *adlag.*
La parte de abajo hacia arriba; cabeza abajo.
Prakak ezti jazten azpikuz gora.

azpizapo *adj.*
Ruin, traicionero -ra, tramposo -sa.
Azpizapue da.

babalasto *adj.*
Gandul, haragán -a.
Ha da babalastue!

babor-estribor ibili/joan *ad. lok.*
Balancearse al andar, ir dando tumbos.
Hor dabil hor, babor-estribor.

badaezpadako (gizon/emakumea) [izan] *izlg.*
Persona que no es de fiar, peligroso -sa.
Bazpadako morroia da hori.

badaezpadan bazpadan *adb.*
Por si acaso.
Badaezpadan ikustera jun nintzan.

bala-bala (esan/ibili) *adb.*
De boca en boca, sin discreción.
Bala-bala esaten dabil.

baldraska *adj.*
Rudo -da, de pocos modales.
Neska baldraskie.

bana-banakoa [izan] *izlg.*
Único -ca, selecto -ta.
Bana-banako sagarrak.

bandera *adj.*
(Mujer) descarada, desvergonzada.
Ahur hori atso bandera hori!

bapez *adb.*
Nada, ni por el forro.
–Ondo ibilli dirala? Bapez.

bapo *interj.*
Bravo, muy bien.
○ Ume txikiei esaten jake, jan beharreko guztia jandakoan.

bare-zorri *iz.*
Cría de babosa.
Bare-zorrije.
○ Kalte handia egiten deutse ortuari batzuei.

barriketa ibili *ad. lok.*
Comadrear.
Barriketa asko dabil horrek.

barruan-barruan ibili *ad. lok.*
No salir de casa.
Gure geixu barrun-barrun dabil.

barruko izan *ad. lok.*
Ser parte de algo, tener parte en algo.
Ni be barruko nintzen.

barruko izan *ad. lok.*
Ser íntimo, tener un trato muy cercano.
Etxe haretakuekaz ni barru-barruko naz.

basoko txiko *iz.*
Chaval muy travieso.
Basoko txikuek topau ebazan.

bat izan *ad. lok.*
Ser íntimos -mas, estar muy unidos -das.
Jon da Peru bat di.

bat-batera *adb.*
De repente, de improviso.

batek badaki *izord. lok.*
¡A saber!, ¡cualquiera sabe!
Batek baki hori zer dan.

batu-banatu batu-maratu *iz.*
Chisme, chascarrillo.
Honek dakiz herriko batu-matu danak.
Hor dabil hori bere batu-maratukaz.

batu-matuak batu *ad. lok.*
Chismorrear, cotillear.
Batu-matuek batzen dau.

batzuen batzuk *zenb.*
Unos cuantos, unas cuantas.
Ezin ixen danak gorrijek; batzun batzuk zurijek be ixen zin.

baunte *adj.*
Parado; hombre de pocas palabras y poco movimiento.

bazterren barregarri ibili/gelditu bazter guztien barregarri ibili/izan *ad. lok.*
Hacer el ridículo, ponerse en evidencia, ser el hazmerreír de todos.
Hor dabil hori, baztarren barregarri.

bazterrera *interj.*
Al rincón.
Baztarrera!
○ Txakurra bere lekura bialtzeko berbea.

bedar-otzara *iz.*
Canasta para acarrear hierba.

bederatziurren *iz.*
Novena, novenario.

beeka (egon) *adb.*
Balando.
Ardijek beeka.

begi argiak euki *ad. lok.*
Tener buena vista.

begi txarretik euki *ad. lok.*
Tenerle rabia a alguien, tenerlo atravesado.
Begi txarretik deko.

begia bota *ad.*
Elegir, apartar, echar el ojo.
Begije botata dekot.

begiezpel *adj.*
Persona de ojos esmirriados, entornados.
Hori begiezpel da.

begioker *adj.*
Birojo -ja.

begira egon *ad. lok.*
Estar pendiente, estar vigilante.
Hor dago hori, bakotxak zer dakarren da zer eztakarren begira.

begira egon (inoren/inori) *ad. lok.*
Estar esperando a alguien.
Zure begire egon gara.
Semiri begire dau.

begirakune gogorreko (gizona/emakumea) [izan] *izlg.*
Persona de mirada torva.

begirik kendu ez *ad. lok.*
Mirar atentamente, no quitar ojo.
Hemen nago, begirik kendu barik joko horreri.

begitandu *ad.*
Parecer, tener la impresión.
Begitandu jat.

begiz jo *ad. lok.*
Elegir, fichar, echar el ojo.
Begiz jota nau.

behar txarra egin *ad. lok.*
Hacerse daño.
Umiek bihar txarrik ez deijen ein.

beharrean (egon/ibili) *adlag.*
Necesitado, -da; en estado de necesidad.
Guztiz biharrean dabil.

behingoan *adlag.*
En seguida, pronto.
Banator behingun.

bekoki astuna euki *ad. lok.*
Tener el ceño fruncido, tener la cara larga.
Bekoki astune deko horrek.

bekoki astuneko (gizona/emakumea) [izan] *izlg.*
Serio,-a; de rostro serio.
Bekoki astunekue da hori.

bela betean (joan) bela beteaz *adlag.*
A toda velocidad.
Jun da hori bela betin.
○ Itsasontziak belak zabalik doazenean besteko abiadan. Baten bat hasarratu eta arin-arin alde egikeran esaten da.

belarri-izkinako *iz.*
Sopapo, bofetada, torta.
Belarri-izkiñeko bat emon'tso.

belarriko koko *iz.*
Gusanito del oído; animal imaginario, supuesto causante de los ruidos del oído.
–Ama, belarrijek kuuuurruuuu eitxen dost.
–Bai, hori belarriko kokuen zarati de.

belarritako *iz.*
Pendiente.
Belarritxeko luzeakaz dabil.

belu *adlag.*
Tarde.
Belu de.

belumendu (izan) *adj.*
Ser el último en llegar; ser el cierracarreras.
Hori belumendu de.
○ Berez, berandu txertatutako landarea.

beluko meza *iz.*
Misa tardía; misa que se celebraba a las diez de la mañana.
Beluko mezi.

beluxera *iz.*
Leña menuda, ramas, puntas, etc.
Amaz juten nitzen egurretan Atxarrera. Batzutan, egur ederrak ekarri barik, egur mehiek ekarten genduzan: puntak, erramak... Horreek ziren beluxerak.

berbakune lohiko (gizon/emakumea) [izan] *izlg.*
Malhablado -da.
Hori gangar eta berbaikune lohikue da.

berbakune oneko (gizon/emakumea) [izan] *izlg.*
Bienhablado, -da; de conversación agradable.
Berbaikune onekue da.

berbarako *adlag.*
Por ejemplo.

berbaro *iz.*
Rumor de voces, murmullo.
Berbaru de.

berde parau *ad. lok.*
Alterarse, montar en cólera, sufrir un arrebato.
Berde-berde para zan.

bere burua alkate egin/izan *ad. lok.*
Querer mandar siempre.
Bere buru alkate.

bere kautan *adlg.*
Para uno mismo, para sus adentros.
Neure kautan baniñoen.

bere kautan *adlg.*
Por sí solo, de por sí, por propia iniciativa.
Bihar ein bi'de, bere kautan hamen eztator ezer.

berea egin *ad. lok.*
Ir a lo suyo.
Horrek berie beti.

bereagaz urten *ad. lok.*
Salirse con la suya.
Zeuriaz urten barik eztekozu bakerik.

harenak/horrenak/honenak egin *ad. lok.*
Estar acabado -da, estar perdido -da, estar muerto -ta.
Honenak ein deu.

bereak eragin *ad. lok.*
Hacer sufrir mucho.
Neuriek eragin eustezen.

bereak eta bost entzun *ad. lok.*
Caerle una bronca a alguien.
Entzun'txuz beriek eta bost.

bereak hartu *ad. lok.*
Recibir su merecido.
Hartuko'txu beriek.

berebiziko *izlg.*
Admirable, fenomenal, ideal.
Berebiziko erantzuna emon deutso.
Berebiziko poza.

berebiziko ondoen *adlag.*
Mejor que nunca.
Berebixiko onduen ein deu.

berera *adj.*
Fácil, llevadero -ra, cómodo -da.
Hau beste bidie baño bereriagu da.
Bihar bererie.

bero-berotan (egon) *adlag.*
Calentito -ta, al calor.
Ondo dau bero-berotan.

beroarena kendu *ad. lok.*
Restar a un comentario lo que éste pueda tener de exagerado.
Beruena kendu bi'jako.

berori izan *ad. lok.*
Ser de cuidado.
Kontuz horregaz, hori berori da gero!

besaka egin *ad. lok.*
Bracear los animales de tiro y carga.
Behi honek, buztartuta dauenien, besaka egiten dau.

beste guztiaren hazkarrian *lokail.*
Como colofón, superando a todo lo anterior.

Beste guztijen hazkarrin, hori pasau biher.
○ Gatx andana baten ostean ondino txarragoa dan bat jazokeran esaten da.

besteak ez lez *adlag.*
Mucho mejor que el resto, de campeonato, de categoría.
Besteak ez lez dabil.

bestela *adlag.*
Mejor, sin punto de comparación.
Bestela bizi die horreek kaletarrok.

bestelako *izlg.*
Mejor.
Bestelako etxuri dekozu holan.

bestelakoa egon *ad. lok.*
Estar apañado -da; estar bueno -na.
Bestelaku zauz horren pentzure bazauz.

bestemutil *iz.*
Demonio, diablo.
Kontuz bestemutillaz!

besterik ez lakoa izan *ad. lok.*
Destacar, no ser corriente.
Ha be ezta besterik ez lakue. Horreek eztie besterik ez lakuek.

bete-betean *adlag.*
Oportunamente, justo a tiempo.
Bete-betin etorri da.

betondoko *iz.*
Sopapo, bofetada.
Betondoko bat emon eutsan.

bi bietan / lau lauretan / sei seiretan... *adlag.*
A tal hora en punto.
Sei seiretan etorri zan.

bide latz *iz.*
Camino áspero, escabroso.

bideak hartu *ad. lok.*
Encaminar un proyecto.
Egoki zala uste, eta horretarako bidiek hartu genduzan.

bidezidor *iz.*
Sendero, camino estrecho y sinuoso.
Bidezigor.

bihar edo etzi *adb.*
Algún día de éstos.
Bijar edo etzi hemen da.

biharamon *iz.*
Día siguiente.
Bijamonian.

bihozkoilarako min *iz.*
Dolor de la boca del estómago.
Bihizkollareko miñaz dabil.

bila ibili *ad.*
Buscar, andar buscando.
Billa ibilli, banabil billa, baia dana alperrik.

bildurraren bildurraz *adlag.*
De (tanto) miedo.
Billurren billurrez.

bilintziko *iz.*
Brinco.
Haren bilintzikuek, gerratik etxera libre etorri zanin!

binke *adb.*
En efecto, así es, sí por cierto.
○ Orain dala 50 bat urte erabilten zan.

bira-biraka (ibili/etorri/joan) *adb.*
Volteándose, rodando.
Mendijen behera bire-bireka etorren.

bisuts *iz.*
Ventisca, tormenta.
Haixie ta bisutse.

bizi-pisu *iz.*
Peso del ganado en vivo.
Bizi-pixu.

bizio *iz.*
Lombriz intestinal.
Umi bixijuekaz dekot.

bizio-hauts *iz.*
Lombricida en polvo.
Bizijautse emoiozu.

bolakari *iz.*
Jugador de bolos.

bolo-bolo *iz.*
Confites y monedas que en los bautizos el padrino lanza al aire.
Ume baten bateoa dau gaur, ta gero, bolo-bolo.

bosgarren txahalaren lez egon/ gelditu *ad. lok.*
Estar desamparado -da, sin tener a quién recurrir; quedarse sin nada en un reparto.
Hor dau hori, bosgarren txahalan lez.
○ Behiak lau erro daukaz. Bosgarren txahalarentzat esnerik ez, beraz. Zeozer banatukeran ezebe barik gelditzen danagaitik esaten da.

burdibide *iz.*
Camino carretil.

burlatzat *adlag.*
Como burla.

burlazar *adb.*
De broma, de burla, tomando el pelo.
Burlezar esan eban.

burrundada *iz.*
Estrépito, estruendo, bramido.
Haixien burrundadie.

buru *iz.*
Pieza, fruto, referido al tamaño de frutas y hortalizas.
Horreek dire sagar buruek, tomate buruek!

buru *iz.*
Cabeza, inteligencia.
Horren buruaz ezin leiteke urrun jun.

burua atera ezin *ad. lok.*
Salir adelante, salir a flote (no poder).
Bururik ezin atarata dabil.

burua sor egin *ad. lok.*
Romperse la cabeza, embotar la mente.
Bere buru sor eitxen dau.

buruak emon *ad. lok.*
Ocurrírsele a uno, venir a mientes.
Buruek emoten eutsanien esaten eban.

buruan zuloa egin *ad. lok.*
Hartar, dar dolor de cabeza, poner la cabeza como un bombo.
Zeure ekiñaz buruen zillue eingo'stazu.

buruhauste *iz.*
Quebradero de cabeza, preocupación.
Buruhauste haundijetan dabil.
Honeek diz buruhaustiek!

burutazino *iz.*
Ocurrencia, idea.
Neure burutantziñoa.

burutik egon *ad. lok.*
Estar tocado -da, no estar bien de la cabeza.
Burutik dau.

buruz aurrera *adlag.*
Con ganas, con afán, gustosamente, de cabeza.
–Pozik duez umiek eskolara? –Bai, buruz aurrera duez.

dagoena dagoen lekuan itxi *ad. lok.*
Dejar todo abandonado.
Dauena dauen lekun itxita, alde!

dan ginoan *adb.*
En toda su capacidad, a tope, al máximo.
Ati dan gañun dau.

dan ginoan luze (egon/etxun/jausi) *adlag.*
Cuan largo -ga es.
Hor dau luze dan gañun.

dar-dar egin *ad.*
Temblar.
Lurrak dar-dar egin dau.

dar-dar egon *ad.*
Estar temblando, tiritando.
Dar-dar-dar nenguen.

dartazo *iz.*
Golpe.
Emon'tson dartazuaz konorte barik itxi eban.

delopostadu *adj.*
Desconforme, discrepante, persona que siempre lleva la contraria.
Gizon delopostaue.

denganino *adj.*
Diablo, demonio.
Mutil denganiñu.
Txakur denganiño hori!
○ Esaldi adierazkorretan erabilten da.

destainaka (ibili) *adlag.*
Burlándose, insultando.
Destaiñaka dabil hori.

destaiuan *adlag.*
Sin tener conocimiento, sin ton ni son.
Destaiun dabil hori berbetan.

destaiuzko *izlg.*
Baladí, trivial, fútil.
Ezta hori destajuzko gauzi.

dingilin-dangoan *adlag.*
Balanceando(se), columpiando(se).

diru-eroakarri *adj.*
Sacaperras, sacacuartos.
Diru-erukarrije.

diru-errementari *iz.*
Persona modosa en ganar y guardar el dinero.
Diru-errementarije.

dirua eskura (ordaindu/erosi)
Dinero en mano, al contado.
Diru eskure.
○ Batez be ganadu tratuan erabilten da esakera hau.

(dirua) aurreratu *ad.*
Ahorrar.
Diru asko aurreratu deu itxasoan.

doarik/dubarik *adb.*
Gratuitamente, de balde.
Eguzkije dubarik da.

dotore (jantzi/ibili) *adb.*
Elegante, con elegancia.
Dotore zatoz.

durdoaren ezpanak euki *ad. lok.*
Tener labios grandes.
Durdun ezpanak dekoz.
○ Durdoa arrain ezpan-handi bat da (*Labrus bergylta*).

Ebro be edan *ad. lok.*
Beber mucho, beberse un río entero.
Ardauten, Ebro be edango leuke.

eder eretxi *adj.*
Presumido -da, coqueto -ta.
Eder eretxije da.

eder eretxi *ad. lok.*
Agradar, gustar, admirar, juzgar hermoso -sa.
Ahur dabil hori, eitxen dabenari danak eder eretxi deijuen.

ederra sakatu *ad. lok.*
Engañar, jugársela a alguien, hacer una faena.
Ederra sakatu'tso.

ederrak hartu/emon *ad. lok.*
Recibir/dar una paliza.
Ederrak hartungo'zuz.

egin *ad.*
Perder el juicio, enloquecer.
Ein jako horreri.

eginahalean (ibili/etorri/joan) *adlag.*
A tope, a pleno rendimiento, a más no poder.
Eiñahalin zabiz.
Eiñahalan dator.

egingo *iz.*
Quehacer, lo que está por hacer.
Ein eingue.

egon (horretan/hatan) *ad.*
Pensar, estar en la creencia.
Neu egon naz, ba!

eguerdiko angelus *iz.*
Toque de ángelus del mediodía.

egunari berea emon *ad. lok.*
Honrar el día, celebrar el día como se merece.
Eguneri berie emon biher jako.
○ Batez be ospatzekoren bat dagoenean esaten da: "Dotore jantzi ginen, egunari berea emoteko". Baina eguneko zereginak betetea be izan daiteke.

egur-zarama *iz.*
Leña menuda, resto de leña.
Hemen nabil, egur zarama batzuk batzen.

egurra emon *ad. lok.*
Dar una paliza, dar una tunda.
Ondo ez bazabiz, egurre emongo dotsu.

eguzki-begi *iz.*
Solana, lugar soleado.
Eguzki-begitxen dau etxe hau.

eguzkiak jo *ad. lok.*
Dar el sol, pegar el sol.
Hemen eguzkijek ezteu joten.

ekarria euki *ad. lok.*
Tener facilidad de palabra, tener labia.
Ekarri ona deko.

ekin *iz.*
Palabrería, charla.
Zeure ekiñaz zillu ein bi'stazu.

ekinean (ibili) *adlag.*
Murmurando, criticando.
Hau hori ta bestie, hor dabiz ekiñin.

ele-mele ele-mele-le *adj.*
Pelele, pusilánime.

ele-melea lez egon *ad. lok.*
Estar en Babia, estar en la luna.
Hor dau hori, ele-meli lez.

eleizakoak hartu *ad. lok.*
Recibir los últimos sacramentos.
Eleixakuek hartu dauz geixuek.

emendioa egin *ad. lok.*
Hacer servicio, servir para algo.

Emendijue eingo'tso.
Sarritxen gauza zaharrak barrijen emendijue eitxen dabe.

emon ahalak emon emon ahalekoak emon *ad. lok.*
Dar una soberana paliza, emplearse a fondo.
Emon ahalak emoten.

enbarazuan egon *ad. lok.*
Estar en medio, estorbar.
Enbarazun beti.

enbarazutik kendu *ad.*
Quitar(se) de enmedio, quitar(se) de delante.
Kendu hortik enbarazutik.

enplastu *adj.*
Pelma, pesado -da.
Enplasto galanta da.
Ken nire ondotik, enplastuori!

entzungor egin *ad. lok.*
No darse por enterado -da.
Entzungor egin eustan.

entzutekoak entzun *ad. lok.*
Oír una reprimenda, recibir una bronca.
Entzutekuek entzun'txuz, baina taket.

eperdi-urtika *adlag.*
Coceando.
Astue eperdi-urtike jun zan.

eperdikoa hartu/emon *ad. lok.*
Fracasar, fallar.
Harek hartu deu eperdikue!
Tabernik eperdiko haundije emon 'tso.

eragin *adj.*
Espabilado -da, activo -va, vivo -va.
Gizon eraiñe da hori.

eraso *ad.*
Tirarle de la lengua a alguien.
Hor dator, guri ze erasoko.

eratsi *ad.*
Varear, echar abajo los frutos de los árboles.
Kako ederra gaztañak erasteko.

erluz egin *ad.*
Brillar, destellar.
Belarritxekuek erluz eitxen'tse.

erostari *izlg.*
Quejoso, -sa.
Ze erostari zauz gaur!

erre *ad.*
Preocuparse; perder el sueño.
Hau bere seme-alabagaitik ezta erreten.
Hori ezeaz be ezta erreten.

erre-erreka (egin/olgau) *iz.*
Juego infantil de lanzamiento de nueces.
○ Ume jolasean, intxaurra jaurtitzen danean.

erre-sunda *iz.*
Olor a quemado, chamusquina.
Lapikoko honek erre-sundie deko.

errekondo *iz.*
Orilla de río o arroyo.
Errekondorik errekondo dabil.

erremuskada *iz.*
Refunfuño, palabra dicha con rabia.
Oin be horrek niri erremuskadi.

errestalari *adj.*
Reñidor, -a.

errestan egin *ad.*
Reñir, reprender.
Errestalarije da errestan asko eitxen dauena.

erriau arriau *ad.*
Arriar; aflojar o soltar cabos.
Erria gehijau sokie.
Txo, arria txikota!

erriau *ad.*
Aflojar la bolsa; pagar.
Erria, txo, erria!

errime *adlag.*
Firmemente, con ganas.

errondari *adj.*
Transnochador -a, juerguista.

errosarioa erabili *ad. lok.*
Soltar una retahíla.
Horrek dabil errosaijue!

errukiarren *adlag.*
Por compasión.
Umien errukiarren.

ertzedegi (egon) *adb.*
Entornado -da, entreabierto -ta.
Ati ertzedei itxi.

esamesa ibili *ad. lok.*
Correr el rumor.
Esamesa asko dabil aspaldijon.

esanak esanda be *adlag.*
Por mucho que se diga.
Esanak esanda be, dana alperrik.

esanaren esanaz *adlg.*
De tanto insistir.
Esanan esanez.

esaneko *izlg.*
Obediente, cumplidor -a.
Esaneko gizona da.

esangin *adj.*
Obediente.
Ume hau esangiña da.

eskapolot *iz.*
Armario para la ropa larga, abrigos, etc.
Eskupaleta.

eskeko eskeriko *iz.*
Mendigo, -ga.
Eskeikue bere aparra-mantarrakaz.

eskola handia euki *ad. lok.*
Tener experiencia, saber de algo, estar de vuelta en algo.
Eskola haundije deko.

esku artean euki/erabili *ad. lok.*
Traer entre manos.
Esku artien arazo asko.

esku-eskuan euki *ad.*
Tener algo al alcance de la mano.
Txapela esku-eskuen deko.

esku-hutsik (etorri/joan) *adlag.*
Con las manos vacías.
Esku hutsik etorri da.

eskuak bete lan euki *ad. lok.*
Estar muy atareado -da; tener trabajo para dar y regalar.
Badeko horrek eskuk bete lan.

eskuen puntan (euki/ibili) *adb.*
Entre manos, a mano.
Hau ije beti eskun puntan bi'ot.

eskupeko *iz.*
Propina.
Eskupeku hartu deu.

eskura ekarri *ad. lok.*
Convencer.
Onin-onin ekarriko'zu eskure.

eskuzal *iz.*
Barandilla, pasamanos.
○ Baserrietan, etxebizitzara igoteko pasillo bat dago, sala handira eta logeletara

doana. Pasillotik eskaileretara ez jausteko ohol batzuk ipinten dira, eta horri esaten jako 'eskuzala'.

esnea eratsi *ad. lok.*
Ordeñar.
Esni eratsi.

espiritu *iz.*
Alcohol.
Espirituz pleaziñu emon'tson.

estimaduarren euki *ad. lok.*
Tener en gran estima, apreciar mucho.
Estimeduarren deko bere eraztuna.

estraminak apurtzen ibili *ad. lok.*
Estar hecho una furia, como un toro enfurecido.
○ 'Estramina' asketako balaustrea da.

estu hartu *ad. lok.*
Poner en un aprieto.
Txakurrek estu hartu neu.

etenak egin *ad. lok.*
Esforzarse hasta reventar, echar los bofes.
Etenak ein deuz.

etorrera euki *ad. lok.*
Tener porvenir, futuro.
Etorrera ona deko.

etxe beteko (gizona/emakumea) [izan] *izlag.*
Persona que con su personalidad llena la casa.
Etxe beteko gizona da.

etxeak dakarrenagaz bizi *ad. lok.*
Vivir de lo que se produce en casa.
Gu etxik dakarrenaz bizi gara.

etxekotasuna euki *ad. lok.*
Tener familiaridad, trato muy cercano.
Etxekotasun haundije deke.

etzi *adb.*
Pasado mañana.

etzikaramu *adb.*
Dos días después de pasado mañana.
Etzigaramon.

euli *adj.*
Cobarde, débil, pusilánime.
Hori? Hori erdi eulije da.
Gizon hori euli-eulije da.

eulizki *iz.*
Mosquero, rama o arbusto que se colocaba en la cocina y en la cuadra para ahuyentar a las moscas.
Eulizkijek imiñi bi'di ezkatzin da kortan.

eupa *interj.*
Voz para animar o festejar.

eurrezean (etorri/joan) *adlag.*
En abundancia, en tropel.
Ardijek eurrezin etorri ziren.

euskaldun zarratu *iz.*
Vascohablante cerrado, que no sabe hablar más que euskera.
Euskaldun zarratuek giñen, eta maixuen azalpen guztijek, erderaz.

ez astegun, ez jaiegun (bizi/ibili) *adlag.*
Sin tener noción del tiempo, sin saber que día de la semana es.
Han gabiz, ez astegun, ez jaiegun.

ez batera, ez bestera *adlag.*
Ni a un lado ni a otro; indeciso -sa.
Ez batera, ez bestera, geldi hor.

ez dakit zer (eta) badakit nor *adlag.*
Que si esto y aquello.
Ahur dabil hori, eztakit zer eta badakit nor.

ez dalakoan badalakoan *adlag. lok.*
Que sí que no; entre una cosa y otra.
Eztalakun badalakun, liñua orraztu deu.

ez gatzik ez berakatzik euki/egon ez *ad. lok.*
No haber/tener ni orden ni fundamento
Harek ezteko sustantzirik, ez gatzik ez berakatzik.
Han eztau ez gatzik ez berakatzik.

ez jan ez lan *adlag. lok.*
Ocioso -sa, sin ocupación.
Han dau ha, ez jan ez lan.

ez mu ez ma *izord. lok.*
Ni mu, ni una palabra.
Ez mu ez ma, txistik be ez.

ez uretarako ez gatzetarako ez izan *ad. lok.*
No ser gran cosa; no valer un cuerno.
Hori ezta uretarako ez gatzetarako.
○ Behin baino gehiagotan toton egin dauenagaitik esaten da.

ez-entzun egin *ad. lok.*
No darse por enterado -da.
Ez-entzun egin eustan.

ez, behintzat
No, por cierto.
Ez, bintzet.

ezaupidea emon *ad. lok.*
Dar(se) a conocer.
Bere ezaupidi berak emon eustan.

ezebez *izord.*
Inútil, que no llega a nada.
–Zer esan'tsu? –Ba, zera... –Horrek? Ezebez.

ezeuki *adj.*
Pobre.
Bera beti ezeuki, beti praka zaharrekin.

ezeze *junt.*
No sólo.
Hori ezeze, hau be bai.

ezgauza *iz.*
Regalito, algo especial.
Zuri ezgauzie emongo'tsut.

ezik egon ez *ad. lok.*
No faltar de nada.
Han eztau ezik.

ezta hurrik emon be *adlag.*
Ni por asomo, ni de lejos.

eztabaida *iz.*
Momento, instante, poco.
Eztabaida bat luzeago.
Eztabaidatxu bat luzetu.

ezti zaharra *iz. lok.*
Un cuerno quemado.
Zera emongo'tsu horrek, ezti zaharra!
Bai, zera, ezti zaharra!
○ Beste inok esandakoa gaitzesteko edo ukatzeko erabilten da.

ezti-pandero ibili *ad. lok.*
Metete, entrometido -da, meticón -na.
Hor dabil hori ezti-pandero!
○ Inoren gauzetan lar sartzen danagaitik esaten da.

eztiko *iz.*
Mielero -ra.

eztiko *iz.*
Entrometido -da, metete.
Hamen hau eztiko!
○ Inoren kontuetan sartzeko goxotasuna darabilena. Ezizen antzera.

eztitan (egon) *adlg.*
En la gloria.
Hori eztitxen dau.

eztul kukurruku *iz.*
Tosferina.

ezustean *adlag.*
De improviso, impensadamente.
Ezustien agertu zan.

fragata *adj.*
Mujer descarada, atrevida.

(fruta) heldu *adj.*
(fruta) madura.
Sagar heldue.

(fruta) umao *adj.*
(fruta) en plena sazón.
Sagar umaue.

galdu-gordean ibili *ad. lok.*
Estar en peligro de muerte, entre la vida y la muerte.
Galdu-gordin ibilli zan itxosuen.

ganean izan *ad. lok.*
Estar al caer (una hora).
Hamabijek ije ganin di.

ganera etorri *ad. lok.*
Sobrevenir.
Jagon ondo zeure burue, ostantzin ganera jatortzuz eztul da katarrue.

gangar *adj.*
Persona maleducada, soberbia, necia.
Neska gangarra.

gangor *iz.*
Cresta del gallo.
Ollarran gangur ederra.

garagarrak irabazten (ibili) *adlag. lok.*
Corcoveando, revolcándose.
Astue garragarrak irabazten dabil.
○ Astoen ganean esaten da, eta batzutan umeei buruz be bai.

garagarraka (ibili) *adlag.*
Corcoveando, revolcándose.
Astue garragarraka dabil.
○ Hau be astoentzat zein umeentzat erabilten da.

gardamu *iz.*
Carcoma.
Etxe honen hagiek gardamuk janda dauz.

gari garbia izan *ad. lok.*
Ser de fiar, ser trigo limpio.
Eztakit hori gari garbije bada.

garra euki *ad. lok.*
Anhelar, arder en deseos de hacer algo.
Erromara juteko garra dekot.
Hango zaletasune ta garra, nok irabaziko ete eban!

garragaz egon *ad. lok.*
Anhelar, estar ansioso -sa por hacer algo.
Hara juteko garraz nau.

garrasika *adlag.*
A voz en grito; gritando.

garren *postp.*
Al cabo de.
Hainbeste garren egunien.

gastalasto *adj.*
Majadero -ra; que le importa todo un pepino.
Hori dok gastalastue!

gatxa sartu *ad. lok.*
Atemorizarse, quedar consternado -da.
Gatxa sartu jast hori entzunda.

gatza euki *ad. lok.*
Tener fundamento.
Horrek ez deko gatzik.
Horren gatza be bada ba!
○ Ironiaz be erabilten da: "Zuk daukazu gatza!", burubakoari esateko.

gatza loratu orduko *adb. lok.*
Algún día; antes de que las ranas críen pelo.
Aiskidetuko da gatza loratu orduko.

gatzaren ardurea hartu *ad. lok.*
Responsabilizarse de sus propios gastos; casarse.
Ikusiko deu horrek be gatzan ardurie hartzen dabenien.

gau hutsez *adlag.*
En la oscuridad de la noche, cuando no hay estrellas.

gauean *adlag.*
A la noche.
Gabin etorko da.

gaulehen *iz.*
Primeras horas de la noche.
Ez fiyau gauleheneko izarratuaz, ez bentako neskiaz.

gaupasa egin *ad.*
Pasar la noche de claro en claro.

gauza izan *ad. lok.*
Valerse.
Enaz gauze.

gauzaeztiran gauzak *iz.*
Cosas inútiles.
Gauzaeztin gauzak.
Gauzeztin berba asko esaten di.

gaztaina gorringo *iz.*
Castaña asada en el tamboril.
Gaztaiña gorringue.

gaztaina txikol *iz.*
Castaña huera, mal desarrollada.

gazte egina egon *ad. lok.*
Estar hecho un chaval, una chavala.
Gazte eiñe zauz.
○ Daukan adinerako gazterik ikusten dan pertsona nagusiagaitik esaten da.

gehiago esan *ad. lok.*
Decir más.
Gehijau esati nahi'zu?

gehiagoko barik *adb.*
Sin más.
Gehijauko barik, jan'gu jan, da guazen.

geldi-geldian itxi *ad. lok.*
Dejar en paz, no tocar.
Zauri hori geldi-geldijen itxi holan.

gerizarik izan/egon ez *ad. lok.*
No haber ni rastro de alguien, no haber noticias.
Haren gerixarik be ezta.

gerizpeko porru gerizpetako porru *iz.*
Espárrago, persona alta y flaca.
Gerizpeko porrue.

gesutan *adlag.*
En seguida, en un momento.
Gesuten nator.

gibelak euki *ad. lok.*
Tener pachorra, tener cachaza.
Horrek dekoz gibelak!

gisats *iz.*
Retama.
○ Gisatsaren adarrak lotuta eskobea egiten zan, etxaurrea-eta garbitzeko.

(gizon/emakume) zabal[a izan] *adj.*
Persona dadivosa, generosa.
Andra zabala.

gloria kantau *ad. lok.*
Dirimir, poner fin a una controversia.
Batak hau diño, bestiek hori, azkenak kantauko dau gloria.

gogoa emon *ad. lok.*
Dar ganas.
Zeuokaz mendire juteko gogue emo'stazue.

gogortxa (izan/egon) *adj.*
Durito -ta.
Aurtengo mallukijek gogortxak diz.

goiak behera etorri *ad. lok.*
Llevarse un desengaño, venírsele a alguien el mundo encima.
Ha entzunde, goijek behera etorri jakozen.

goiak hartu *ad. lok.*
Hacerse con el mando, constituirse en jefe; volverse engreído -da.
Goijek hartun deuz horrek.
Aspaldi honetan goijek hartunde dabil hori.

goian zerua eta behean lurra gelditu *ad. lok.*
Quedarse sin nada.
Han geratu zan, goijen zerue eta behien lurre.

goizean goizetik *adlag.*
Temprano, de madrugada.
Goixien goixetik txorrotxioka dabiz txorijek.

goizeko *iz.*
Copa mañanera.
Goixeko hartu deu.
○ Lehenago, goizetan pattarra hartzeko ohitura egoan, barauhauskarri. Koñaka, anisa edo katalingorria izaten zan normalean.

gora emon *ad. lok.*
Dar noticia, dar parte.
Haren gorarik iñok be e'tsu emongo.

gora-goraka hasi *ad. lok.*
Subir el tono; comenzar a vociferar, a exaltarse.
Berba batetik bestera gora-goraka hasten da.

gorabeherak atondu *ad. lok.*
Arreglar los asuntos.
Ondo atondu dozuz zeure gorabeherak?

gordin *adj.*
Joven, fuerte, vigoroso -sa.
Ondiño gizon gordiñe dau hori.
○ Batez be adin batetik aurrerako jenteaz esaten da.

gorratxatu *ad.*
Enconar(se) una herida.
Ez korratxa zauri hori; itxi geldi.

gorriak ikusi *ad. lok.*
Sufrir mucho, pasarlas canutas, pasarlas moradas.
Ameriketan gorrijek irebazteko gorrijek ikusi biher dire.

gose-egarri bizi *ad. lok.*
Vivir a a duras penas, pasar estrecheces.
Gose-egarri bizi dira.

goseak hil *adj.*
Muerto -ta de hambre, muy hambriento -ta.
Hemen dator gosikil bat.

gozoro *adb.*
A gusto, con deleite.
Gozoro jan deu.

guren izan *ad. lok.*
Preferir, querer más que nada.
Zer da guren-guren zeunkena?

gurgur egin *ad.*
Gruñir el estómago, las tripas.
Urdaillek eitxen dabenien gurgur, bartko aparijek agur.

guzurrontzi *adj.*
Mentiroso -sa.
Guzurrontzi da.

guzurti hutsa izan *ad. lok.*
Ser un mentiroso, una mentirosa de tomo y lomo.
Guzurti hutse da.

hagea euki *ad. lok.*
Tener mala suerte, tener gafe.
Ze hage deko, ba, etxe honek?
○ Burutu ezineko zereginetan be esaten da.

hagin-kirrizkada *iz.*
Rechinar de dientes.
Hagin kirrizkadi.

haginak erakutsi *ad. lok.*
Hacer frente, enseñar los dientes.
Neuk hagiñek erakutsiko'tsatez.

hain *det.*
Tal.
Hain urtetan hori desgrazije izen zan.

haizarto *iz.*
Borona hecha con maíz secado al aire.
Haixartorik eztekogu.
○ Ikusi 'labarto'.

haizeak hartuta (joan/alde egin) *adlag. lok.*
Enfadado -da, echando humo por las orejas.
Haxik hartunda jun da.

haizearen putzik be egon/izan ez *ad. lok.*
No soplar nada de viento.
Haixin putzik be eztau.

halakoren baten *adlag.*
En una de ésas, a las tantas.
Halakun baten heldu zan.

halan-holan (ibili) holan-halan (ibili) *adlag.*
A la ligera, a la buena de Dios.
Halan-holan dabillena, holan gelditzen da.

hamaikatxu bider hamaika bider *adlag.*
Un montón de veces.
Hamaikatxu bidar esan neutsun.
Hamaika bidar egon naz ni hemen.

hamaiketako *iz.*
Refrigerio que se toma hacia las once de la mañana, para seguir trabajando.

han dagoalakoan, hemen han dalakoan hemen *adlag. lok.*
En un pispás, en un santiamén.
Jun-etorrije, han zauzelakun hemen ingo'zu.
Hankak behien ipiñi barik, han dalakuen hemen.

handik harantz (joan) *adb.*
Por allá.
Jun de handik harantz.

hankabiko (basurde/asto/... bat) *izlg.*
Animal de dos patas; persona.
–Hemengo gaztañak basurdek jan dabez? –Ez, hankabiko basurderen batek erun deuz.

hantusteti *adj.*
Soberbio -a, irascible.
Hantostadi da hori.

harainegun *adb.*
Anteayer.
Haraiñun.

hari siku barik *adlag. lok.*
Completamente empapado -da.
Busti-busti etorri zan etxera, hari siku barik.
Goitxik behera hari siku barik dator.

harmaila *iz.*
Escalón de piedra, grada.

harrikoa egin *ad. lok.*
Fregar.
Harriku ein.

harrizko santuen lez *adb. lok.*
Muy quieto -ta, como una estatua.
Geldi hor, harrizko santu lez.

hartudun hartzedun *iz.*
Acreedor -a.
Hor bi: bata zordun, bestie hartudun.

hartuemonak euki *ad. lok.*
Tener trato, relación.
Hartuemon haundijek dekez alkarraz.

hatz egin *ad.*
Rascarse.

hatz-behatz(ak) *iz.*
Extremidades del cuerpo.
Hatz-behatzak ondo ekartie, nagosi.

hau/hori... dala eta ez dala *adlag.*
Por esta razón.
Hauxe dala eta eztala.

hausi edo apurtu [egin] *ad. lok.*
Decidirse, rematar.
Hausi edo apurtu ein bi de hemen.

hausi nahi apurtu *adlag. lok.*
Cueste lo que cueste.
Ekin lan honeri, hausi nahi apurtu.

hausnarrean (egon/ibili) *adlag.*
Rumiando.
Behijek hausnarrien dauz.

hautsak euki *ad. lok.*
Ser muy hábil, tener gran destreza.
Hautsek dekoz.
○ 'Hautsak' etxeko suteko errautsetan bizi ei ziran izaki magikoak ziran, eta hortik dator esakerea.

hautsez eperdi (joan) *adlag. lok.*
Ein zirt edo zart, ele-meli lez egon barik.
Ala, ala! Ein ein bihar dozuna, edo zirt edo zart.

ziztrin *adj.*
De poco valor.
Ume ziztriñe.

zoli *adb.*
Amargamente, afligidamente.
Zoli be zoli negar egin eban.

zoramen *adj.*
Insoportable, enloquecedor -a.
Mutil hau zoramena da.

zordun *adj.*
Deudor, -a.
Zordunek eta hartzedunek.

zorri *adj.*
Molesto -ta, enojoso -sa.
Ume zorrijok!

zorri hilbiztu *iz.*
Nuevo rico, nueva rica.
○ Behetik gora edo pobretik aberatsera egin eta harrotuta dabilenagaitik esaten da.

zotin eragin *ad.*
Angustiar, afectar.
Berba honek zotin eragin eutsan.

zotz egin *ad.*
Echar a suertes, rifar.
Zotz ein deigun.

zoztor *adj.*
Esmirriado -da, poca cosa.
Mutil zoztorra.
○ Sei-zortzi urteko mutikoen ganean esaten da.

zu baino ni handiago (ibili) *ad. lok.*
Competir por aparentar más.
Hor dabiz horrek, zu baino ni handiago.

zumulu-mutu egon/ibili *ad. lok.*
Estar mudo, -da; no decir una palabra.
Hor dabil, zumulu-mutu.

zumulu-mutun *adlag.*
A tientas y sin rumbo.

zuri *adj.*
Vago -ga, haragán -a.
Mutil hori zurije da, zurije!

zurrumurrua izan/ibili *ad. lok.*
Correr el rumor.
Zurrumurru de hau ta hori ta bestie.

zurrupiau zurrupatu *ad.*
Envolver en un remolino, absorber.
Itsasoak zurrupiau dau.

zurtz eginda (egon, gelditu) *adlag. lok.*
Anonadado -da, petrificado -da.
Entzunagaz zurtz einde dau.

zuztar *iz.*
Fundamento, formalidad.
Horren zuztarra be bada!

zuztarbako *izlag.*
Insustancial, sin personalidad.
Zuztarbako gizona eta zuztarbako berbak.

ESAKERAK*

A
a ze hori!
¡Menuda cosa!, ¡vaya cosa!

AHO
horren ahoa tapateko ez da faltako eskubete lur
No faltará un puñado de tierra para taparle la boca.
○ Inogaitik txarto esaka ebizanen kontra esaten zan.

ALKATE-MAKILA
basoan jaio, basoan hazi, herrira etorri eta bera nagusi; zer da? (alkate-makilea)
Acertijo del bastón de mando.

ANTONIO
Antonio Polonio, Paskual Bixente, errotako txakurtxua aurrean presente
Cancioncilla infantil: Antonio Polonio, Pascual Vicente, el perrito del molino delante presente.
○ Pausotxoak emonaz kantau egiten jake umeei.

ANTXINA
antxiñe, Durukizen Pantxiñe
Juego de palabras con que se contesta al que menciona la palabra 'antxiñe' (hace tiempo).
○ Antzinako kontuak eta ohiturak hobetzat daukazanari esaten jako. Durukiz Ibarrangeluko auzoa da, eta Pantxiñe, andrazko izena.

ARIN
txistua baino arinago
Raudo cual centella.

ATRAPAU
atrapaten bazaitut, atrapau!
Si te cojo, ya verás.
○ Hasarre antzean esaten dan mehatxua.

---

* Esakeren multzoa oso hetereogeneoa da, poltsa zabal bat, igarkizunak, berba jokoak, konparazinoak eta era askotako esaldi eginak sartzeko. Hortaz, esakera bakotxaren muina zein dan ikusi, eta hori aukeratu da berbaburu, sarrerea emoteko. Esaterako, 'hatxa baino gogorrago' esakerea, gogortasunaren konparazinoa dan ezkero, GOGOR berbaburuaren azpian sartu dogu. Eta 'au, au, au, txakurrak egiten dau' esaldi egina, HAU berbaburuaren azpian. Esakerea bera bizkaiera literarioan idatzi da, ostean gaztelaniazko ordaina edo azalpena, eta azkenik, ○ ikurraren atzetik, bestelako argibideak datoz. Aldaerak ~ ikurragaz markauta dagoz.

ATXIKO PERIKO
Atxiko Periko
Personaje proverbial, como Perico el de los palotes, Rita, Blas...
◦ 'Inor ez'-en ordezkoa da, ezezko kutsuko esaldietan. Ad: Han! Zerak emongo deutsu zuri jaten, Atxiko Perikok!

ATZAZKAL
atzazkaletan agertzen dan puntu zuri bakotxak guzur bat esan gura dau
◦ Sineskeria hau oso zabal dabil.

AUKA
Zer gura dozu, ba? Aukak?
¿Qué quieres? ¿Algas?
◦ Janagaitik kexaka dabilenari emoten jakon erantzuna.

AZKORDIN
neguko azkordinak maiatzeko uragaz kentzen dira
◦ Maiatzean botatako lehen euri ura batzen zan, azkordinak horregaz bustiteko.

BAI
bai, bai, bahie ta kakue
Tanto sí para nada. Lit. sí, sí, cedazo y gancho.
◦ Gauza bat eskatuta "bai" erantzun eta gero ezebe egiten ez danean esaten da, kritika moduan.

BAIETZ
baietz, ez dala beti maietz
Juego de palabras con la palabra 'baietz'. Lit. que sí, que no siempre es mayo.
◦ Batek 'baietz' esaten dauenean emoten jakon erantzuna.

BARDIN
danentzat bardin: zahi eta urun
No hacer diferencias; utilizar una única vara de medir.

BARRI
–Ze barri dago? –Zaharrak barri.
–¿Hay novedades? –No, lo de siempre.
◦ Berba jokoa. Baten batek ze barri dagoen itauntzen dauenean emoten jakon erantzuna.

BAT
bata, bia, hirua, laua, bosta, seia, zapa, zotza, berakatza, kirikiolatza, plum
◦ Ume txikiakaz olgetan da, atzamarrak kontauaz.

BEHAR IZAN
–Ezer behar dozu? –Ez. –Begiak be ez dau behar ezer, ondo ikusten badau.
–¿Necesitas algo? –No. –El ojo tampoco necesita nada, si tiene buena vista.
◦ Berba jokoa. Baten batek ezer behar ez dauela esatean emoten jakon erantzuna.

batak behar ez, besteak gura ez
Ser prescindible.

BERAKATZ
mina da, mina, eta ez da piperra; bizarrak daukaz eta ez da gizona; zer da? (berakatza)
Acertijo del ajo.

BESIGU
beseguxe, nok ekarri zaitu honaxe?
Besuguito, ¿quién te ha traído aquí?
◦ Etxean besigu eder bat topaukeran esaten dan esaldia.

BETI
beti, txakurrak buztanpeti
Juego de palabras. Lit. siempre, el perro por debajo del rabo (la meada del perro).
◦ Baten batek 'beti' berbea esakeran emoten jakon erantzuna.

BI
hor datoz bi, Errepala eta Bixenti
¡Vaya par de dos!
○ Bikote bat ikustean esaten da.

BILA
ez bila ibili, berez agertuko da eta
No andes buscando, que aparecerá de por sí.
○ Galdutakoaren bila hastea alperrik dala esateko.

BIZKOR
beintizinko baino bizkorrago
Muy recuperado -da.
○ Gaixoaldia polito gainditu dauenagaitik esaten da.

txoria baino bizkorrago
Ligero -ra como el viento; ligero -ra como una pluma.

BURU
–Buruko mina daukat. –Burua mihin barik ez dago ondo.
Juego de palabras. Lit. –Me duele la cabeza. –Mal estaría la cabeza si no tuviera lengua.
○ Baten batek buruko mina aitatzean emoten jakon erantzun egina.

burua txapela eroateko bakarrik ez da
La cabeza no es sólo para llevar boina.
○ Burua pentsetako eta gomutetako be badala gogorazoteko esaten dan esaldia.

DURDO
zek dakar hori hona, bere durdoaren ezpanakaz?
¿Quién le ha dado misa en este entierro?
○ Bazter-nahastaileren bat agertzean esaten da.

EGIA
egia, surraren ondoan begia, haren ondoan bekoki zabal handia
Verdad es que el ojo está junto a la nariz y al lado una frente bien ancha.
○ Batek 'egia' esakeran emoten jakon erantzuna.

EGIN
egin eta egiten, antxinako lapurrarena
~ egin eta egiten, antxinako lapurraren lez
Dicho con que se contesta a la pregunta de ¿qué haces?: lo del ladrón de antaño, hacer y haciendo.
○ Ipuineko lapurrari itaundu eutsen zetan ebilen, eta holantxe erantzun ei eban: "egin eta egiten". Hau da, lapurren egiten eta egiten. Hortik dator esakerea.

EGON
nagoen isilik!
Voy a callarme; más me vale estar callado.

EGUZKI
eguzkia laba ganean dago
~ iretargia laba ganean dago
Hoy estamos de buen humor.

EKIN
ekina txarra da
El que la sigue la consigue.
○ Erabilera ironikoa da. Ad: "–Ekin eta ekin ibili zara, eta azkenean amaitu zure lana. –Bai, ekina txarra da".

ENE
ea, ba, mutil eneak!
¡Ánimo, chicos!
○ Lan gatxen baten dabizenak animetako esaldia.

ERAGIN
eragin eta erabili, hiru lauko eta marabedi
Dale que te pego.
◦ Baten bat gauza bati bueltaka dabilenean esaten da.

ERDI
erdian, eguena lez
En medio, como el jueves.
◦ 1921 inguruan, neskato-mutikoak Iturriotzen batzen ziran Elantxobetik etorren autobusa ikusteko. Eta halan esaten eutsien, paretik kentzeko: Ez egon hor erdijen eguena lez!

ERRE
erretakotzat (euki/ekarri)
Pensando que estaba asado.

ERROI
erroiak be barau eta bijilia egiten dau Bariku Guren egunean
Incluso los cuervos hacen ayuno y abstinencia en Viernes Santo.
◦ Bariku Santuan barau eta bijilia egitea derrigorra dala esateko.

ESAN
esan, ba, esan, abadea dagoela goizeko mezan.
Di lo que tengas que decir.
◦ Baten batek esan beharrekoren bat daukanean, holantxe erantzuten jako.

ETORRI
etorri beharra dauka horrek be!
¡Quién le habrá dicho que venga!
◦ Norberaren gogokoa ez dan pertsona bat agertzean esaten da.

etorten banaz etorri!
Pobre de ti si voy ahí.
◦ Hasarre antzean esaten dan mehatxua.

EURI
euri zirimiriak azeriari be buztana busti eutsan
El sirimiri moja a traición.
◦ Esaldi egina, zirimiriak ezarian-ezarian busti egiten dauela gogoratzeko. Azeria argia da, baina harek be ez ei eban igarri, busti egon arte.

EZER
–Zer behar dozu? –Ezer be ez. –Begietarako ona da hori, bista onagaz.
–No necesito nada. –Eso es bueno para los ojos, teniendo buena vista.
◦ Baten batek ezer behar ez dauela esatean, erantzun egin hori emoten jako.

FIN
berakatz atala baino finago
~ berakatz atala baino ziurrago
Más fino -na que el oro; muy trabajador -a.

GARI
txikia nintzan, handia nintzan, maiatzerako burura nintzan; zer da? (garia)
Acertijo del trigo.

GELDI
geldi, harrizko santuen lez
Quieto -ta como una estatua.

GERO
Gero? Garagarrilean egiten dau bero
Lo que puedas hacer hoy no lo dejes para mañana.
◦ Zereginen bat geroko itxi nahi dauenari emoten jakon erantzuna.

GOGOR
hatxa baino gogorrago
Duro -ra como una piedra; fuerte como una roca.

GORRI
Ameriketan gorriak irabazteko gorriak ikusi behar dira
Para ganar dólares hay que sufrir mucho.
○ Errepublika garaiko pezetei 'rubia' esaten jaken, urre kolorekoak zirelako, eta hortik etorriko da edozein diruri 'gorri' esatea.

GURA IZAN
–Zer gura dozu? –Nik? Hogeta lau urte eta begi argiak.
–¿Qué quieres? –Tener veinticuatro años y buena vista.
○ Halan erantzun ei eban ipuineko lapurrak, zahartutakoan, eta esaldi egin modura gelditu da.

GURAGO IZAN
begia baino gurago izan
Querer más que a la niña del ojo.

HAGIN
norberaren hagina etorten danean, teila ganera bota
La muela o diente extraído se tira al tejado.

HAMABI
hamabiak, bota platerera begi biak
Las doce, los dos ojos en el plato.
○ Eguerdia bazkalorduagaz lotzen dauen esakerea. Holako kanta eta errima asko dago zenbakiakaz.

HAMAR
hamar, katuak marmar
Juego de palabras. Lit. diez, el gato maúlla.

HATZ
hatz-behatzak ondo ekartea nagusi
Lo principal es que nazca entero.
○ Ume bat jaioteko danean, osasuntsu jaioteko guraria.

HAU
au, au, au, txakurrak egiten dau
Juego de palabras. Lit. así, así ladra el perro.
○ Baten batek 'hau' esaten dauenean, halan erantzuten jako.

hau, hori eta bestea eta atzeko hestea
Esto, lo otro y lo de más allá.
○ Baten bat eztabaida luze eta zentzunbakoan katramilatzen danean esaten da.

hau, hori eta bestea, txakurraren popea
Hablar por no callar.
○ Esakera hau erabilten da baten bat berba eta berba dabilenean, ganorazko ezer be esan barik.

hau bai hau!
¡Esto sí que sí!

HOR
hor zara, ba!
Ánimo, ya falta poco.
○ Lan bat ozta-ozta eta amaitu ezinik dabilenari esaten jako, animetako.

HORI
hori dok eta!
Así se hace.
○ Animoak emoteko eta ahalegina txalotzeko berbak.

IBILI
ondo ibili, gitxi gastau eta asko nahastau... eta abemarietakoetan etxera
~ arin ibili, gitxi gastau eta asko nahastau
Pásalo bien, gasta poco, enreda mucho, y al tercer Ángelus, a casa.
○ Esaldi egina. Jaietara edo dana dalako ospakizunera doanari opatuten jakona.

IKUSI
zenbat ikusteko etorri/jaio garan mundura!
¡Cuánto hemos de sufrir en este mundo!

IPUIN
ipuin, ipuin berezi, ahuntzari babak egosi
Colorín colorado, este cuento se ha acabado.
◦ Ipuin amaierako formulea.

ipuin, ipuin de la bandera, ahuntzak igon dau laba ganera.
Colorín colorado, este cuento se ha acabado.
◦ Ipuin amaierako formulea.

IRETARGI
iretargia laba ganean dago
~ eguzkia laba ganean dago
Hoy estamos de buen humor.
◦ Baten bat umore onean dagoenean esaten da.

ISILIK
isilik egon, osterantzean mamua etorriko da eta
Callandito, que si no viene el coco.
◦ Umeak beldurtzeko esaten dan mehatxua.

IZAN
danak dana agertzen dau
Cada uno demuestra lo que es.

JAKIN
–Hori nok daki? –*Notaki* Portugaleteko barran urperatu zan.
Juego de palabras.
◦ Baten batek 'nok daki' itauntzen dauenean erantzun hori emoten jako, Portugaleteko barran hondoratu zan ontzi baten izenagaz jolastuaz.

jakin izan baneu jakin!
¡Si lo hubiera sabido!
◦ Damua adierazoteko esapidea.

dakienak daki
El que sabe, sabe.
◦ Besteren batek ez dakien zeozer esandakoan erabilten da.

JAN
zer dago zer jan?
¿Qué hay para comer?

JOAN
noan hemendik!
me marcho; más me vale marcharme.

JOSE
Jose, jan eta gose, edan eta egarri, Jose barregarri.
Juego de palabras. Lit. José, come y tiene hambre, bebe y tiene sed, José de mala suerte.
◦ Atsotitzetan-eta sarritan erabilten dira pertsona izenak errima egiteko, eta izen hori daukienei burla egiteko.

KARTA
kartak ebagi eta ebagi dabil; orduan galtzen dago
Cuando el jugador de cartas no hace más que cortar todo el rato, señal de que está perdiendo.
◦ Amak seme edo alabeari: "Txotxo, jun tabernara ta ikusi aitxek zer eitxen daben". "Ama, aitxe kartak ebai ta ebai dabil". "A, orduen galtzen dau".

KATU
katuaren mihina
Lengua de gato; nadería.
◦ Konparazinoak egiteko erabilten da, gitxi dana edo indar barik egindakoa azpimarratuteko: "Katun mihiñe baiño okela gitxiau jan dozu".

udabarri eguerdiko eguzki epeletan katua egoten da bere zeruetan
◦ Esangura bereko errefraua dago.

KUKU
udabarrian kukuaren kantua entzuten badozu dirurik ez daukazula, urte guztian diru gitxigaz ibiliko zara
◦ Sineskera hau oso zabal dabil.

KUNPLIMENTU
ez badozu gura, itxi, kunplimentu gitxi
~ Hartu edo itxi, kunplimentu gitxi
Si no lo quieres, lo dejas, sin cumplimiento.

LARRI
kakalarria lez
Muy apurado -da, angustiado -da.

LATZ
otarra baino latzago
Más áspero -ra que la lija.

LEXIBA
lexiba zuria, ondo egosia
◦ Lexibea zuri gelditzeko ondo egosi behar zan.

LO
lo, harria lez
Dormido -da como una roca.

beti lo, tramana lez
Dormir más que un lirón.
◦ Tramana itsasoko arrain bat da, zabalkotea eta zapala (*Myliobatis aquila*).

MAILUKI
gure etxean, librako mailukiak
¡Menos lobos!
◦ Harropuzkerietan dabilenari holantxe erantzuten jako.

MANUELA
ai, Manuela, katuek sague daruela
Juego de palabras. Lit. ay, Manuela, que el gato se lleva al ratoncito.
◦ Errima barregarria Manuela izenagaz.

MARIPOSA
mariposa zuria: etxean barri onak egongo dira
◦ Tximeleta zuria albiste onen mandataria ei da.

MEZA
mezea meza
Esto es así y punto pelota; esto es cierto aquí y en Pekín.
◦ Esandakoari indarra emoteko erabilten dan esakerea.

MORAPIO
kontuz morapioagaz
Cuidado con el morapio; cuidado con el vino.

MUSKER
muskerragaz kontu handia euki
◦ Muskerrari bildur guztiz haundia geuntson. Esaten zan arpegira salto egin eta bertan itsatsita gelditzen zala, zazpi herritako kanpaiak batera jo arte. Suge asko hil eta akabauta ikusi dodaz, nik bere hil dodaz, baina musker bat ez dot ikusi hilda. (*d.zuluaga*)

MUTIL
hau da mutila, jateko opila
Juego de palabras. Lit. vaya chico para comer un bollo.
◦ Mutiko txikiekin erabilten da, jolas moduan edo. Mutikote ederrei be esaten jake.

ai, ai, ai, mutila, txapela gorria
Ala mozo, con tu boina roja.
◦ Karlistadetako kantua.

OGI
–Zer egin behar dogu? –Ogi handia egin, eta merke saldu.
–¿Qué hacemos? –Un pan grande, y venderlo barato.
◦ Aspertuta dagozan biren arteko berbak.

ON
librako mailukia lakoa izan
Ser la bondad personificada.

Jainkoaren katua lakoa izan
Ser un pedazo de pan.

ONDO
ondo bai zeruan dagoan atsoa, baita haren ondoan dagoan agure zimela be
–¿Andas bien? –Bien está la vieja que está en el cielo, y el flaco abuelo que está junto a ella.
◦ Baten batek "ondo?" itauntzen dauenean, holantxe erantzuten jako.

ONDRA
ondrak eta alabantzak eta Peru gurearen bartko jantzak
Honras y alabanzas, y las danzas de Peru anoche.
◦ Gerra aurretik, gaubelak egiten ziran. Nahia janari eta edari egoten zan, eta mozkor galanta harrapau askok. Han ziran hilaren omenezko 'ondrak eta alabantzak' batetik, eta 'Peru gurearen bartko jantzak' bestetik.

PAPER
paperean eta platerean, iminten dana etorten da
En el papel y en el plato, viene lo que se pone.

PATXI
Patxi, kaka egin eta bertan itxi
Rima jocosa. Lit. Patxi, defecó y el zurullo dejó.
◦ Patxi izenagaz egiten dan berba jokoa.

PENTSAU
astoak be pentsau egiten dabe
Los burros también piensan.
◦ Akatsen bat egin eta gero "nik pentsetan izan dot" esanez zuritu gura dauenari esaten jako.

PEREXIL
kaiolako txorikumai perexila emoten deutsie aitak eta amak hilteko
◦ Kardantxiloentzat perexila pozointsua da.

POLAINA
honeek dira polainak, guk darabilguzan polainak!
Vaya calamidades que nos toca sobrellevar.

PORRU
horrek emongo deutsu porrua
Te va a dar candela.
◦ Ume batek listoa urteten dauenean esaten da, bere adinerako asko dakienean.

SAN ANTONIO
San Antoniok gorde dagiala
Que San Antonio lo guarde.
◦ Ganadu tratua egindakoan erabilten zan formula hau. Animaliak eta umeak begizkoetatik babesteko be esaten ei zan.

SANSON
Sanson zein zan? Sanson Sanson zan
Trabalenguas: ¿Quién era Sansón? Sansón era Sansón.
◦ Umeak esaten dabe, olgetan.

SUANGILA
suangilaren buztana sakelean eukiteak suerte ona dakar
Se dice que llevar un rabo de lagartija en el bolsillo da buena suerte.

TANBOLIN
hona hemen tanbolin bako erromeria!
He aquí una romería sin tamboril.
◦ Lagun talde bat kantuan, algaraka edo zalapartan ikusten danean esaten da.

TRANKIL
egon trankil, urak be ez zaroaz eta
~ Ez estutu, itomenean be ez zagoz eta
Tranquilo, no hay ningún fuego.
◦ Urduri dagoena lasaitzeko esaten da.

TXAKUR
ez jakiat, txakurra, jango ete doan hazurra
No sé, perro, si te comerás ese hueso.
◦ Estutasunean gagozanean esaten da, zeozer egiteko gauza izango ete garan argi ez dagoanean.

txakurra izan bazan, haginka
Si llega a ser perro, te muerde.
◦ Begien aurrean dagoen zeozer bila ibili eta ikusi ez.

txakurraren alaraua, heriotzaren kantua
◦ Sineskerea zan gauez txakur bat etxe inguruan alarauka entzunez gero, luze barik hilko zala baten bat.

TXAR
Inkisizinoa baino txarrago
Peor que la Inquisición.

TXITXARRO
erre eta egosi, txitxarroak garrasi
Tanto da que da lo mismo. Lit. tanto si lo fríes como si lo cueces, el chicharro chilla.
◦ Gauza bat batera zein bestera egin, ondorioa bera danean esaten da.

UI
ui, ui, frantsesak astoari
Ui, ui, le dijo el francés al burro.
◦ Min hartuta baten batek 'ui' esaten dauenean emoten jakon erantzuna.

UR
itsasorako ura da
Es agua para el mar.
◦ Euri uragaitik esaten da.

URTE ASKO
–Hainbeste urte daukaz? –Danak ez jakoz faltako.
–¿Tantos años tiene? –No le faltarán todos.
◦ Inoren adinagaitik harrituta agertzen danari emoten jakon erantzuna.

ZILO
zenbat eta gehiago kendu, haundiago egiten da; zer da? (lurrean egiten dan ziloa).
Acertijo del agujero.

ZIUR
berakatz atala baino ziurrago
~ Berakatz atala baino finago
Más fino -na que el oro; muy trabajador -a.

ERREFRAUAK*

abade (egin) haiteke, ahal bahaiteke
~ Abade heike ahal bahaike. (D. Zuluaga)
◦ Geroko aginteerako adizkiak, gaur nekez erabiliak. Gaurko erara: "Abade egin hadi, ahal bahadi / ahal badok".

abadearen lapikoa, txikia baina gozoa
~ Abadearen etxean lapiko txikia, baina gozoa. (D. Zuluaga)
Abadearen lapikotxoa, txikia baia gozoa; ikazkinaren lapikotoa, handia baia harroa. (R.M. Azkue)

aberatsa inpernuko laratza, pobrea zeruko lorea
Dios ama las manos limpias, no las manos llenas.
Bueno, aunque sea pobre, vale más que rico y noble.
~ Pobrea zeruko lorea, aberatsa infernuko suhatsa. (D. Intza)
Aberatsa, inpernuko lebatza; pobrea, zeruko lorea. (R.M. Azkue)
◦ Aberatsen arima garbitasuna zalantzan ipinten dau atsotitz honek.

aberatsen eskilarak labanak izaten dira
~ Aberatsen eskilara-mailak labanak dira. (D. Zuluaga)
Aberatsaren zurubia, labana. (G. Garate)
◦ Aberastasuna eta diruak erraz galtzekoak dirala esan gura dau.

ai ene eta oi ene, hogeta laugarrena San Bartolome
◦ San Bartolome abuztuaren 24an da.

---

* Errefrauak ordena alfabetikoan antolatuta dagoz, bizkaiera literarioan. Gaztelaniazko ordaintzat gurago izan dogu pareko atsotitz bat emon, kasu guztietan topau ez badogu be. Errefrauetako asko euskal bildumetan jasota dagoz, bere horretan edo aldaeraren bategaz. Lekukotasun horren barri emoteari interesgarri eretxita, aldaera nagusiak jaso doguz ~ ikurraren ostean, biltzailearen izena parentesi artean ageri dala. Azkenik, hiztegi korpusaren beste atal bietan legez, argibideak sartzeko ◦ ikurra erabili da.

Antzora, ikoak jan eta basora, handik etorri eta koipetsu, Antzora guztia kakatsu
◦ Antzora auzoan iko-arbola asko egoten ziran. Basora lanera joan, iko jana egin, gero koipetsua, eta ondorioa beherakoa izaten zan.

Aregobasterreko txitxi, bakean dagoenari bakean itxi
Quien despierta a perro dormido vende paz y compra ruido.
Deja en paz al perro que duerme.
~ Bakean dagoanari bakean itxi, hori ikusten da munduan gitxi. (R.M. Azkue)
◦ Aregobastarre baserri baten izena da, eta 'txitxi', txakurra, ume berbetan.

arto beroak bere burua goratu ei eban
Quien se alaba, se desalaba.
~ Arto beroak bere burua alabau eban. (D. Zuluaga)
◦ Baten batek bere burua goratuten dauenean esaten da. Horren antzekoa da 'arto beroa egon' esapidea.

asto askok lasto asko
En gran casa, gran gasto se amasa.
~ Asto askok lasto asko behar dabe. (D. Zuluaga)

auzoko on bat hobe da urruneko parientea baino
Más me vale un vecino al lado, que un hermano alejado.
Más vale amigo que pariente ni primo
~ Urrutiko senideekin hasarre hobe, auzoko lehenbiziko etxearekin baino. (G. Garate)
Senide urrinekoa baino auzo hurkoa hoba. (R.M. Azkue)
Senide urrina baino auzo hurra hobe. (R.M. Azkue)

azak eta porruak lehengusinak dira
~ Azak eta porruak lehengusuak dira
◦ "Lehengusinak" izate horregaz azpimarratzen da ez azak eta ez porruak ez dabela askorik betetan, eta ganera haizeak emoten dabezala. Beste hainbat errefrautan agertzen dira lotuta ortuariok:
Aza ta porru, jan ta dolu. (R.M. Azkue)
Azak eta porruak eroan ditu neguak. (R.M. Azkue)
Azak eta porruak, nire triparen orroak. (G. Garate)

azak eta porruak, estudianteen kontuak
◦ Aurreko atsotitzean esandako gauza bera: jan eskasa da bai azea eta bai porrua.

azeriak uraz handik eta hemendik dabilz
En todas partes cuecen habas.
◦ Ipuin baten dauka jatorria: Kanalaren bestaldera pasetako, azeriak boteroa engainau eban. Harrezkero uraren alde bietan dagoz azeriak.

bakea, txanpon guztiakaz be ez da pagaten
La paz vale más que todo el dinero del mundo.
~ Bakea ez da diruz erosten. (R.M. Azkue)

bakerik txarrena hobe gerrarik onena baino
Más vale bollo en paz que hogaza en guerra.
Una paz es mejor que diez victorias.
Más vale en paz un huevo que en guerra un gallinero.
~ Bakerik txarrena, hasarrerik onena baino hobea. (G. Garate)

balego eta balitz alkarren atzean dabilz
Si no fuera por el 'si' y por el 'pero', ¿quién no tendría dinero?
~ Baleuko eta balitz alkarren atzean dabilz.
○ Behin hipotesiak egiten hasita, erraza da ameseta horretan galtzea.

bardin da azak lepoan eroatea nahi tripan eroatea
La berza no te dará mucha fuerza.
~ Azea tripan eroan, kolkoan eroan, bardin. (G. Garate)
○ Aza janari eskasa dalakoan.

bardin dan kasuan, edan daigun ardaoa basoan
~ Igual dan kasuan, edan daigun ardaoa basoan. (D. Zuluaga)
○ Gastu eta ahalegin aldetik gauza bi bardintsuak diranean, hobe onena aukeratzea.

bedarra txikia, otzarea handia, zerrea motza eta haizea hotza
○ Baserritarraren ezbeharrak dira.

berbeak berbea dakar
Palabras traen palabras.
~ Hitzak hitza ekartzen. (G. Garate)
○ Esanak ondorioak dakarzala adierazoten dau.

Bilbao, han bere deungeak birao
En todas partes cuecen habas, y en mi casa, a calderadas.
~ Bilbao, an bere dongeak birao. (E. Garibai)
○ Leku guztietan antzeko gauzak jazoten dira. Danean dagoz pertsona txarrak eta ezbeharrak.

bizitza joan joaku
La vida es un soplo.
○ Bizitza laburra da, eta konturatu orduko badoa.

bolea dabilen artean ez dago txorrarik
La esperanza es lo último que se pierde. Mientras hay vida hay esperanza.
~ Dabilen bolea ondo dabil txorra egin arte. (G. Garate)
○ Bizibidea doi-doi ataraten danean esaten da. 'Txorra egin', bola-jokoan, boleak txirloa ez jotea da, labur geldi-tzea.

dagoenean bon-bon, ez dagoenean egon
Días de mucho, vísperas de nada.
~ Dagoenean dagoena jan, eta ez dagoenean itxaron. (D. Zuluaga)
Dagoenean parra-parra, ez dagoenean negarra. (G. Garate)
Dagoenean bon bon, ez dagoenean son son. (A. Zavala)
Denean bunbun, ez denean tuntun. (R.M. Azkue)

dagoenean dagoena jan, eta ez dagoenean itxaron
Días de mucho, vísperas de nada.
~ Dagoenean bon-bon, ez dagoenean egon. (D. Zuluaga)
Dagoenean parra-parra, ez dagoenean negarra. (G. Garate)
Dagoanean bon-bon, ez dagoanean son-son. (A. Zavala)
Denean bunbun, ez denean tuntun. (R.M. Azkue)

datorrena, datorren eran hartu
La mejor felicidad es la conformidad.
Toma el tiempo como viene y a los hombres como son, y nunca tendrás desazón.
~ Datorrena, datorren lez. (D. Zuluaga)
Datorrena hartu behar. (R.M. Azkue)
○ Konforme egoten jakin behar dala adierazoten dau atsotitz honek.

diruak Boluetako txakurrari be jantzan eragin eutsan
Quien tiene dineros, tiene compañeros.
Poderoso caballero es don dinero.
~ Diruak txakurrari be dantzan eragin eutsan. (D. Zuluaga)
Diruak txakurrari ere dantzan eraginazi. (G. Garate)
Dirua, borta guztietako gakoa. (A. Zavala)
Diruak malkharrak zelaitzen. (R.M. Azkue)
○ Bolueta Ibarrangeluko auzo bat da.

diruak dirua dakar
Dinero llama a dinero.
~ Diruak dirua egiten. (G. Garate)
Diruak diruari deiketan deutso. (G. Garate)
○ Atsotitz hau eta 'Zorrak zor egiten dau' alkarren osagarri dira.

eguzki epela, katuaren zerua
~ Eguzkia, katuaren zerua. (G. Garate)
○ Katuei berotan egotea gustetan jakelako esaten da.

eguzkia eta euria, martiko eguraldia
Marzo marceador, de noche llueve y de día hace sol.
~ Martiko eguraldi, goizean eguzki ta arratsaldean euri.
Martiko eguraldia, erdia euria ta erdia eguzkia. (R.M. Azkue)
Iguzkia eta uria, martxoaren aldia. (R.M. Azkue)

eguzkia nora, trapuak hara
Arrimarse al sol que más calienta.
¿Dónde va Vicente? Donde va la gente.
~ Eguzkia nora, zapiak hara. (R.M. Azkue)
Nondik eguzki, harat buruzki. (R.M. Azkue)
Norat eguzkia, harat itzala. (R.M. Azkue)
○ Etekina non aterako ibilten diranakaitik esaten da.

errazoia daukazu, baina kartzelara behar dozu
Vence quien más puede, no quien más razón tiene.
No hay tal razón como la del bastón.
~ Errazoia dozu, baina kartzelara behar dozu. (D. Zuluaga)
○ Zuzen egon arren, zer eginik ez dagoenean esaten da.

erre nahi egosi, txitxarroak garrasi
Tanto da que da lo mismo.
○ Modu batera zein bestera egin, bardin.

errementariaren etxean, zotza burduntzi
En casa del herrero cuchillo de palo.
~ Arotzaren etxean kerrena zurez. (R.M. Azkue)
Arotzaren etxean otzarea aurki, errementariaren etxean zotza burduntzi. (R.M. Azkue)
○ Berezkoena falta danean esaten da.

esana bat, emona bi, esanagaz konforme izan hadi
Palabras y plumas el viento las lleva.
~ Esana bat, emona bi, esanagaz kontentu izan hadi. (D. Zuluaga)
Agindua bat, emona bi, aginduagaz konforma adi. (G. Garate)
○ Agindutakoa baino gitxiago emoten danean esaten da.

esanak esanda be, senarra boltsero
Donde manda patrón no manda marinero.
~ Kontuak kontu eta senarra boltsero. (D. Zuluaga)
○ Berbak alperrik dira, dirurik edo aginterik euki ezean.

eskerrik asko, Mari belasko, okela gitxi eta salda asko
Donde hay obras, las palabras sobran.
~ Eskerrik asko, Mari belasko, Ondarroan dago atsorik asko. (G. Garate)
◦ Lan baten ordainetan eskerrak baino emoten ez diranean esaten da.

esku batean palua eta bestean taloa
Con el pan en una mano y el garrote en la otra.
◦ Gauza bat lortzeko, samurtasuna eta zorroztasuna erabilteko aholkua: saria eta zigorra.

etxe hutsa, gerra hutsa
En la casa donde falta el pan todos riñen y todos tienen razón.
Cuando la pobreza entra por la puerta, el amor salta por la ventana.
Estómago con hambre, no escucha a nadie.
~ Etxe hutsa, errieta hutsa. (G. Garate)
Etxe huts, haserre huts. (G. Garate)
Etxe hutsa, atralaka hutsa. (R.M. Azkue)
Etxe beteak atsegin, etxe hutsak bihotzmin. (A. Zavala)
◦ Gosea dagoenean, erraz sortzen da liskarbidea.

euriaren gaineko leia, euriaren deia
Blanco hielo, es de lluvia mensajero.
~ Izotz zuria, eurien mandataria. (G. Garate)
Euri ondoko leia, euriaren geia. (R.M. Azkue)

ez da zale errotaria bere urun ederra zahiaren truke emoteko, inongo hobari barik
Nadie da nada, a cambio de nada.
~ Ez dek tontua errotaria artuaren truk emateko garia. (R.M. Azkue)
◦ Norbaitek gugaz hartuemona euki nahi dauenean, errotariaren portakizunaz gomutau bedi.

ez dago ezkontza pobrerik
Ni boda sin canto, ni muerte sin llanto.
~ Ezkontza pobrerik ez, hiltze aberatsik ez. (G. Garate)

ez fiau gauleheneko izarratuagaz ez bentako neskeagaz
No te fíes de la muchacha de la taberna ni del cielo estrellado de diciembre
~ Abenduko izarrarekin eta ostatuko neskatxa ederrarekin ez fiatu gehiegi. (A. Zavala)
Azaroko oskarbiarekin eta tabernako neska musu gorriarekin ez fiatu. (G. Garate)
Bide-ondoko arbola, abenduko izarra, ostatuko neskatx ederra: hirurek hondatzeko arrisku bera dute. (D. Intza)

ezkondu hadi, ezkondu, eta sosegauko haz
◦ Marinel batek esan ei eban portutik itsaso zakarrari begira.

Gabon, bon-bon; Natibitate, ase eta bete; San Esteban, lehenera
~ Gabon bonbon, Natibitate ase ta bete, San Estebantxu ostera bere lenlentxu. (G. Garate)
◦ Gabonetako oparotasunaren ostean, betikora itzuli behar San Esteban egunez, abenduaren 26an.

Gabonetan, kereizak
◦ Bestelan ordainduko ez dan mesede edo lan baten truke esaten da. Edo kexa moduan, egindako lanak ordainik euki ez dauela eta: "Zer emon deutsu? Gabonetan kereizak". Izan be, udabarrira arte ez dago kereizarik.

gaua gauekoentzat eta eguna egunekoentzat
La noche, para los lobos y los ladrones.
◦ Gaua arriskutsua ei da gizakiontzat, egunekoak gara eta. Garai bateko mito eta esaundakaz lotuta dago atsotitz hau.

gauza txarrak inkau egiten dira, edertasuna ez
Todo se pega, menos la hermosura.
~ Txarra inkaten da, edertasuna ez. (D. Zuluaga)
Edertasunaz gainontzeko guztia pegatzen da. (G. Garate)
Ontasuna eta edertasuna ezik, beste dena kutsakorra. (G. Garate)
Inoiz ez osasuna, kutsatzen da eritasuna. (G. Garate)

gero gerokoak
Lo que tenga que ser, será.
~ Orain oraingo ta gero geroko. (R.M. Azkue)
Lehenak lehen, gero gerokoak. (D. Intza)
○ Orainari begiratu behar jako, unean unekoaz arduratu.

goizean mendian guzurra esan, eguerdian kalean zan
Antes se coge al mentiroso que al cojo.
Si bien miras, verás cuán lejos van las mentiras.
~ Basoan esan neban guzurra, herrian agiri eban muturra. (G. Garate)
Guzurra esan neban mendian, ni baino lehenago zan herrian. (R.M. Azkue)
○ Gatx da guzurrak gordetan, atoan agertzen dira eta.

gu joanda be, astoak errotara eroango dabez zorroak
~ Gu hilda gero ere astoak errotara joango dira. (G. Garate)
Lanak lan ta zorrak zor, gu hilten geranean astoak errotara joango dira. (R.M. Azkue)
○ Gizakiok hutsaren hurrengo garala emoten dau aditzen atsotitz honek.

halan-holan dabilena, holan gelditzen da
Quien mal anda, mal acaba.
~ Behin ere ez gauza onik gaizki dabilenak.
Gaizki dabilena gaizki amaitzen da; ondo bizi dana, ondo hil. (A. Zavala)
○ Ekintzak eta jokabideak ondorioak daukiez.

han be txakurrak ortozik
En ningún sitio atan los perros con longaniza.
En todas partes cuecen habas, y en mi casa, a calderadas.
~ Han be txakurrak ortozik dabilz. (D. Zuluaga)
Alde guztietan txakurrak ortozik.
Goazan beste herrira, han bere txakurrak ortozik dira. (R.M. Azkue)
○ Edonora joanda be, antzeko gauzak gertatzen dira.

hariak orratzak baino luzeagoa izan behar dau
Ceder es de sabios.
A cualquier dolencia, es remedio la paciencia.
~ Orratza baino luzeago behartzen haria. (M. Landerretxe)
Jostorratza baino haria luzeago behar da puntua emateko. (G. Garate)
○ Arrazoia euki arren, batzutan hobe da amen egitea.

hartu edo itxi, kunplimentu gitxi
Lo tomas o lo dejas, como las lentejas.
~ Hartu edo itxi, barriketa gitxi. (D. Zuluaga)
Hartu nahi itxi, kunplimentu gitxi. (R.M. Azkue)
○ Eskaintza bat egitean esaten da, inor ezetara ez behartzeko.

hazurrak koipea, maminak hobea
~ Hazurrak saldea, maminak hobea. (D. Zuluaga)
Beti hazurrak koipea, baina maminak hobea. (R.M. Azkue)

○ Gauza on biren artean aukeratu behar, eta bietan onena hartzean esaten da.

hemen, hemen lez, eta han, han lez
Allá donde fueres haz lo que vieres.
~ Hortik edo hemendik, dakusan legez egik. (R.M. Azkue)
○ Lekuan lekuko ohituretara egokitu beharra dago.

heriotzatik gazteak segurantzarik ez, zaharrak eskapurik ez
De los mozos mueren algunos, pero de los viejos no escapa ninguno.
~ Zaharrak eskaporik ez, eta gazteak segurantzarik ez (G. Garate)
Gazteak ordu segururik ez, zaharrak eskapurik ez. (R.M. Azkue)

«i nahiz mi», Josepantonik arratoiari
○ Josepantonigandik igesi, kaixa ostean gorde zan arratoia. Josepantonik hormearen kontra harrapau eban kaixeagaz, eta arratoia txilioka hasi. Eta holantxe erantzun eutsan Josepantonik.

Ibarrangelu, ganbela buru
~ Ibarrangelua, ganbela burua.
Ibarrangelu, kandela buru.
○ Inguruko herrietakoak ibarrangeluarrei esaten deutsie. Busturialdeko herriei buruzko esakeretan sarritan aitatzen dira ontzi eta neurriak: 'Arteaga, koartilo erdi'. 'Ea, katilu bete brea'. 'Gernika, inpernuko barrika'.

igual dan kasuan, edan daigun ardaoa basoan
~ Bardin dan kasuan, edan daigun ardaoa basoan. (D. Zuluaga)

imilaunak kuartea ezin hartu
En un celemín no cabe un cuarto.
~ Kuarteak anega erdi ezin hartu
○ Imilauna kuartea baino neurri txikiagoa da. Sabela bete eta gero jatekoa eskaintzean esaten da.

itsuak ikusgura eta herrenak ibilgura
Desea el calvo tener pelo, y parecer bello.
Soñaba el ciego que veía, y soñaba lo que quería.
Dime con lo que sueñas y te diré de lo que careces.
~ Herrenak ibilgurea, itsuak ikusgurea, ezin dabenak egin gurea. (G. Garate)
Itsuak ikusgura, herrenak ibilgura, gorrak entzungura. (R.M. Azkue)

jan eta edan daigun ezeren bildur barik, urtearen azkenean San Silbestre
Comamos y bebamos, que mañana moriremos.
~ Lana zein egin, zein ez egin, urtearen azkenean San Silbestre. (G. Garate)
○ Atsotitz honek azpimarratzen dau gure ekintzak gorabehera, gauza batzuk bardin-bardin gertatuko direla.

jan eta lo, potolo
Quien mucho come, mucho duerme.
~ Jan eta lo, popolo. (D. Zuluaga)
○ 'Popolo' gehiago erabilten da umeentzat, maitekorragoa da.

jan, janak merkatuko dau ta
Más vale gastar en el almacén que en la farmacia.
Mejor gastar en sardinas, que no en medicinas.
Mejor gastar en comida, que en curar herida.
~ Jan, konde! Janak merkatuko dau eta. (G. Garate)
Botiketan baino, hobe jan-edanean gastatu. (G. Garate)
○ Jateak gastua barik aurrezpena dakarrela emoten dau aditzen: jan ezkero, gaixotu ez, eta medikuaren gasturik ez.

joan eta etorri, kapela gorri
Ir y volver y la burra no vender.
○ Helburu bategaz inora joan, eta joan-etorria alperrik egiten danean esaten da.

jokoa ez da errenta
Mucho gana quien no juega.
~ Jokoa ez da errenta, hobe oiloa erreta. Jokoa ez da errenta; hobea da oiloa parrillan erreta. (A. Zavala)
Joko eta edari, etxearen galgarri. (A. Zavala)
○ Jokoak ez dakar irabazi ziurrik.

Kandelarioan eguzkia, negu guztia aurretik
Cuando la Candelaria ríe, el invierno sigue.
~ Kandelario bero, negua dauka gero. (R.M. Azkue)
○ Otsailaren 2a da Kandelario eguna.

Kandelarioan euria, joan da negu guztia
Cuando la Candelaria llora, el invierno está fuera.
~ Kandelarioz euria, laster da udabarria. (R.M. Azkue)
○ Otsailaren 2a da Kandelario eguna.

kanpoederra, etxean gerra
Alegría de plaza, neblina de casa.
~ Gizon kanpo ederra, etxean gerra. (R.M. Azkue)
○ Kanpolarrosen jokabidea kritiketan dau atsotitz honek, begirune eta gozotasun gehiago darabilelako kanpokoakaz etxekoakaz baino.

kontuak kontu eta senarra boltsero
Donde manda patrón no manda marinero.
~ Esanak esanda be, senarra boltsero. (D. Zuluaga)
Kontuak kontu, senarrak boltsa; deabruak eraman holako ezkontza. (G. Garate)
○ Berbak alperrik dira, dirurik edo aginterik euki ezik.

kuarteak anega erdi ezin hartu
En la medida de un cuarto no cabe media fanega.
~ Imilaunak kuartea ezin hartu. (D. Zuluaga)
○ Anega erdiak kuarta bi daukaz. Jan barritan jatekoa eskeintzean esaten da.

lau marabedikoren pupua eta zortzi marabedikoren trapua
Poco mal y bien gemido.
Picóme una araña y atéme una sábana.
~ Lau zuriren pupua ta lau marairen mantarra. (R.M. Azkue)
Txakur handi baten pupua ta erreal biren trapua. (G. Garate)
○ Min edo kalte txikia eukita neurri barik kexetan danagaitik esaten da.

lehen, lehen lez; oin, oin lez
Cada cosa a su tiempo.
○ Sasoian sasoikoa egin behar da, eta datorrenari egokitu.

lekuan-lekuan ardiak, baltzen artean zuriak
Siempre hay una oveja negra en la majada.
De todo hay en la viña del Señor.
○ Danok ez gara bardinak. Bakotxak bere bainak eta ezaugarriak daukaz.

loa eta akulea, ez dago
Sopas y sorber no puede ser.
○ Akulea arrain bat da. Akulatan egiteko goizaldean itsasoratu behar da. Aukeratu egin behar da, beraz: akulatan joan edo ohean lotan gelditu.

malo, zazpi lagun eta hiru talo
~ Malo, malo... lau lagun ta hiru talo. (J.M. Mokoroa)
○ Zeozek liskarbidea ekarriko dauela ikustean esaten da, batez be banaketa kontuetan.

marabedian idia; non da marabedia?
La ocasión se presenta en vano cuando no se tienen recursos.

mendiak mendiaren beharrizanik ez dauka
~ Mendiak ez dauka mendiaren beharrizanik, gizonak gizonarena bai. (G. Garate)
○ Erabilten da esateko norbera gauza dala laguntza barik aurrera egiteko.

geu nagusi, bestela musturrak hausi
La ley del más fuerte.
No hay tal razón como la del bastón.
~ Neu nagusi edo musturrak hausi. (R.M. Azkue)
○ Gura dauena lortzeko indarra eta mehatxua erabilten dauenagaitik esaten da.

non erromeria, han hankea
Donde nos gusta, allí vamos.
~ Non da besta, han da neska. (D. Intza)
Non da nere gogoa, han da nere zangoa. (R.M. Azkue)
○ Nahieran ibiltea da, gura dana eginaz.

oinezkorik gura ez, zaldizkorik bilau ez
Esperando marido caballero, lléganme las tetas al braguero.
~ Oinezkorik nahi ez, eta zaldizkorik bilau ez. (D. Zuluaga)
Oinezkorik nahi ez, zaldizkorik etorri ez. (R.M. Azkue)
Oinezkoari muzin, zaldizkoari ezin. (R.M. Azkue)

ondo eginen pagua, ate ondoan palua
El ingrato, volver mal por bien tiene por trato.
Haz bien, y recibirás mal.
~ Ondo egineko mesedea, atostean sokea. (G. Garate)
○ Esker txarrekoen ganean esaten da.

otsoak otsokirik ez dau jaten
Nunca el perro muerde a la perra.
Un lobo a otro lobo no se muerden.
~ Otsoak ez du bere haragirik jaten. (R.M. Azkue)
Otsoak otsoari gatxik ez ta lapurrak lapurrari laztan. (R.M. Azkue)
○ Kontuz zer esaten dan inoren senideen aurrean, familiakoak alkar babestuko dabe eta.

parienteak parienteari txarria ostu
No te fíes ni de tu padre.
Ni a nadie fíes, ni de nadie te fíes.
○ Gitxien uste dan lekutik etorri leiteke engainua.

saldua, galdua
Quien mucho vende, mucho pierde.
○ Behin saldu dana ez dago atzera eskuratzerik.

San Andres egunak, zezinak hiltekoak
~ San Andres, txerria askan trabes. (R.M. Azkue)
○ Azaroaren 30ean da San Andres. Txarria hilteko sasoia, beraz.

San Andres, seirak eta ilunez
○ Azaroaren 30ean da San Andres, eta ordurako eguna laburtzen hasita dago.

San Bizente hotza, neguaren bihotza
Por San Vicente, helada o corriente.
○ Urtarrilaren 22an da San Bizente egunа, neguaren erdi-erdian.

San Jurgi, artoak ereiteko goizetik; san Markos, artoak ereinda balegoz
Abriles y yernos, pocos hay buenos.
Abril mojado, malo en la huerta y bueno en el campo.
◦ San Jurgi apirilaren 23an da, eta San Markos, apirilaren 25ean. Atsotitz honek esan gura dau apirilean egin behar dirala ereite-lanak, eguraldia aproposena izan ez arren. Gauza bera adierazoten dau beste honek be: 'Apiril biribil, egun erein, bihar hil'.

San Lorentzo dohatsu, esku batean ura, bestean su
~ San Lorentzo eguna, esku batean sua, bestean ura. (D. Zuluaga)
San Lorentzo, urak eta sua. (G. Garate)
Jaundone Laurenti, esku batean euria, bestean ilinti. (R.M. Azkue)
◦ San Lorentzo eguna abuztuaren 10ean da. Urteko sasoirik beroena da, baina euritsua be bai sarritan.

Santa Barbara, Santa Kruz, Jauna balio zakiguz, inuzenteen ogia, Jauna miserikordia
Santa Bárbara bendita, que en el cielo estás escrita, con papel y agua bendita, en el ara de la cruz paternoster, amén Jesús.
◦ Trumoitik babesteko formula bat da. Trumoia zanean, lehengo ohiturea zan Kandelario egunean bedeinkatutako kandela bat izetzea, eta Erramu Domekan bedeinkatutako erramua hartuta, formula hau esaten zan.

santuei eta umeei ez ofrezidu ezer, gero ez betetako
No conviene hacer promesas vanas ni a niños ni a santos.

sasoian sasoikoa
Cada cosa en su tiempo y los nabos en adviento.
~ Sasoian sasoiko, San Antonez ospelak belarritako. (R.M. Azkue)
Gauza bere garaian. (R.M. Azkue)

Sibilia, Granada, Madril, Toledo, kanpoak ikusita, etxera gero
◦ Bidaia luzeren bat egin, eta gauza asko ikusi eta gero, etxera bueltan esaten da.

soldadua, amaren seme sobraua
◦ Soldaduei emoten jaken tratu txarragaitik esaten ei zan. Sasoi baten, etxean bizimodua aterateric ez egoanean, soldadu joatea zan urtenbideetako bat.

tripak egiten dabenean gurgur, bartko afaria agur
~ Urdailak egiten dauenean gurgur, bartko afariak agur. (D. Zuluaga)
Sabelak egitean gurgur, bardako afariak agur. (G. Garate)
◦ Jatea gorputzak behin eta barriro eskatzen deuskun zeregin bat da.

txarra inkaten da, edertasuna ez
Todo se pega, menos la hermosura.
~ Gauza txarrak inkau egiten dira, edertasuna ez. (D. Zuluaga)
Edertasunaz gainontzeko guztia pegatzen da. (G. Garate)
Ontasuna eta edertasuna ezik, beste dena kutsakorra. (G. Garate)
Inoiz ez osasuna, kutsatzen da eritasuna. (G. Garate)
◦ Inoren ohitura eta jokabide txarrak errez hartzen dira.

txokorraren sua eta pobrearen harrokeria arin amaitzen dira
~ Pobrearen harrokeriak eta txorokilen suak gitxi irauten dabe.
Ezerezen harrokeria ta txorokilen sua laster amaitzen dira. (A. Zavala)
◦ Bizibidea atera behar danean, ez dago harrokeriatan ibilterik.

umeak ume beti, hemen eta Madrilen
El niño es niño aquí y en París.
~ Toki guztietan umea ume. (G. Garate)

umeak zer ikusi, haxe ikasi
Lo que el niño oyó en el hogar, eso dice en el portal.
○ Kontuz umeen aurrean zer esaten dan eta zelan jokatzen dan.

umearen zentzuna, etxean entzuna
Lo que el niño oyó en el hogar, eso dice en el portal.
○ Etxean hazi eta hezten dira umeak.

ura eta sua, euren neurrian
Fuego y agua, por debajo de la cintura.
~ Sua ta ura, hankapetik (G. Garate)
Sua ta ura belaunaz behetik. (R.M. Azkue)
○ Sua eta ura, beharrezko baizen arriskutsu izan leitekez.

urdailak egiten dauenean gurgur, bartko afariak agur
~ Tripak egiten dabenean gurgur, bartko afaria agur. (D. Zuluaga)
Sabelak egitean gurgur, bardako afariak agur. (G. Garate)

zaharrago eta txarrago
A más años, más pecados.
~ Zaharrago, txarrago.
○ Urteakaz akatsak larriagotu eta gehitu egiten dirala azaltzen dau atsotitz honek.

zahian fin eta urunetan basto
Allegador de la ceniza y derramador de la harina.
~ Zahietan ziogi, urunetan ero. (J.A. Mogel)
Zahitan begiratu eta urunetan eralgi. (Mañariko)
○ Txikikeriakaz arduratu eta gauza garrantzitsuak baztertzen diranean esaten da.

zelako soinua, halako dantzea
Bailar al son que se toca.
Como canta el abad responde el sacristán.
~ Nolako soinularia, halako dantzaria. (R.M. Azkue)
Zelango soinua, halango dantzea. (R.M. Azkue)
○ Unean uneko egoerara moldatu beharraz.

zelan irabazi, halan iragazi
Lo mal adquirido se va como ha venido.
Más fácil es ganar que guardar.
~ Gaizki irabazi, gaizki iragazi. (G. Garate)
Barrastan etorri, burrustan igorri. (G. Garate)
Nola irabazi, hala gastatu. (G. Garate)
Zenbat irabazi, hainbeste gastatu. (G. Garate)
○ Neke barik lortzen dan irabazia pena barik gastetan da.

zenbat eta lurra bigunago, harra barrurago
Al que se hace de miel, se lo comen las moscas.
~ Lurra bigunago, harra barrurago. (R.M. Azkue)
Zura bigunago harra barrurago. (R.M. Azkue)
Zura berago harra barrenago. (R.M. Azkue)
○ Izakera biguneko pertsonakaz besteak erraz aprobetxetan dirala azpimarratzen dau atsotitz honek.

zezeila, katuen hila
Febrero, gatos en celo.
~ Otsaila katuen hila, maiatza astoen hila. (G. Garate)
○ Zezeilean katemeak arreske egoten dira, marramiau baten.

zoroak hil ebanak ez eban gehiago ogirik jan
Quien mate a un loco, nunca comerá pan.
~ Zoroak egin, eroak egin, egina egin. (R.M. Azkue)
Eroak bat eta bera zart. (A. Zavala)
○ Garai bateko esakerea. Atsotitz bat baino gehiago dago zoroakaz kontuz ibili behar dala aholkatzeko.

zorrak zor egiten dau
Una deuda, veinte engendra.
~ Zor batek beste bost ekartzen. (G. Garate)
○ Atsotitz hau eta 'Diruak dirua dakar' alkarren osagarri dira.